



Soziolinguistika

aldizkaria



OSASUNGINTZA ETA
EUSKARA



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

OSASUNGINTZA
ETA EUSKARA

● **HELBURUA**

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hauentzat bere jarduerak esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

● **EDUKIA**

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaion disziplinarterkotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren laneak hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

● **ARGITARATZAILEA**

Aldizkaria Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du

● **ZUZENDARIA**

Iñaki Martínez de Luna. Soziologoa

● **ARGITALPEN BATZORDEA**

Bartzordekideak

Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
eamorrort@fil.deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)
ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández (UPV/EHUko irakaslea)
jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)
ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoz (Euskal Herriko Ikastolen Elkarte)
inmuoa@ehi.ikastola.net

Beñat Garaio
benyat@garaio.eus

Koordinatzailea

Belen Urange (Soziolinguistika Klusterra)
b.uranga@soziolinguistika.eus

● **HARPIDETZA ETA SALMENTA**
ARDURADUNA
Isabel Godinez
i.godinez@soziolinguistika.eus
943 592 556

● **ALDIZKARIAREN**
DISEINATZAILEA
Txema Gartzia Urbina
zabalur@gmail.com

● **HARPIDETZAK**

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitez harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

● **WEBGUNEA**

Aldizkariaren aurreko aleak on-line dituzu **www.soziolinguistika.eus** helbidean
Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.

● **HARREMANETARAKO**

Belen Urange (Soziolinguistika Klusterra)
Martin Ugalde Kultur parkea
20140 ANDOAIN

b.uranga@soziolinguistika.eus
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus
943 592 556

ISSN: 1130-8435 — LEGE GORDAILUA:
SS120/90

INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:

Xabier Arauzo, Imanol Azkue Ibarbia, Angel Bidauzarraga, Paul Bilbao Sarria, Leire Erkoreka, Aitor Montes, Naiara Ozamiz, Olatz Perez de Viñaspre, Bidane Petralanda, Igone Zabala, Jon Zarate, Felix Zubia.

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratzen diren artikuluak bi artikulu-ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

BAT Soziolinguistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du.

eman ta zaibal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

idatzi bataldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.



Harremanetarako: Belen Uranga
BAT aldizkaria
Martin Ugalde KP
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.eus

Doan deskargatzeko prest:
xuxen.eus/deskargatu

Xuxen berria

Xuxenek **akats ortografiko eta gramatikalak** detektatu eta zuzentzeko proposamenak egiten ditu testuan bertan

Elurra dago Etxegaraten.

abc

Etzegaraten

Ikusiko gara oporretan.

abc

Ikusiko dugu elkar

Word berrienetan eta Interneten ere erabil dezakezu:
postan, Twitterren, Facebooken...



108

OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

> **HITZAURRE GISA**

Jon Zarate Sesma eta Xabier Arauzo Uriarte **007**

01. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren Tarteko ebaluazioa (2013-2017 aldia).

Xabier Arauzo Uriarte **011**

02. Minik handiena burutik etorri dena.

Naiara Ozamiz eta Leire Erkoreka **031**

03. Zirkuitu elebidunetarantz lehen pausua.

Bidane Petralanda Mendiola **043**

04. Estandar klinikoen itzulpen automatikoa.

Olatz Perez de Viñaspre eta Maite Oronoz **061**

05. Euskararen lantze funtzionala eta profesionalen komunikazio-gaitasunen garapena osasun-alorrean.

Igone Zabala **083**

06. Osasun profesionalak euskaraz formatzen unibertsitatean.

Angel Bidauzarraga Van Dierdonck **097**

07. Medikuegoiliarren prestakuntza eta euskara Donostialdea ESIan

Felix Zubia Olaskoaga **103**

08. Nazioarteko kolaborazioa arretaren normalizazio-prozesuan.

Aitor Montes **109**

09. Nola ulertu hizkuntza osasun-eskubidearen baitan?

Paul Bilbao Sarria **123**

■ **GUREAN ATALA**

Euskara gara Zumaian?

Imanol Azkue Ibarbia **141**

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:

Luzera. Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikulua akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

Laburpena. Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikulua hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

Hitz gakoak. Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Erreferentziak eta oharra. Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikulua bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharra, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikulua amaieran emango da.

Aipamen bibliografikoak. Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarritzko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

Irudiak. Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

Kolorea. Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

Zuzenketa. Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epea. Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

Egilearen erreferentzia. Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.

Lanak bidaltzeko helbidea. Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

Hitzaurre gisa

“Osasuna eta hizkuntza” UPV/EHUko Uda Ikastaroetako jardunaldiak

Jon Zarate Sesma

UPV/EHUko Euskararen arloko errektoreordea

jon.zarate@ehu.eus

Xabier Arauzo Uriarte

Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboko burua

xabier.arauzouriarte@osakidetza.eus

BAT aldizkariaren ale monografiko honetan jasotzen diren artikuluek abiapuntua dute 2017 urtean ekainaren 27 eta 28an egin zen Euskal Herriko Unibertsitatearen Osasuna eta Hizkuntza¹ izeneko udako ikastaroan. Bertan parte hartu zuten zenbait hizlari hautaturen interbetzioetatik abiatuta osatu dira artikulua. Udako ikastaro horren ernamuina Euskal Herriko Unibertsitatearen eta osasun arloko profesionalen arteko lankidetzatza izan da eta Osakidetzako Giza Balideetako zuzendaritzaren babesa izan du.

Euskararen normalizazioak aurrerapauso handiak eman ditu azken hamarkadetan, hainbat arlotan: kazetaritzan, literaturan, sorkuntzan... . Gauzak horrela, etorkizunean, goi mailako profesional gehienak, erantzunkizun handiko lanpostuak eskuratuko dituztenak, geroako liderrak, euskaraz ere lan egiteko gai izango dira. Baina bistan

da horrek ez duela berez lan mundua euskaldunduko. Bide horretan hondar aletxoak jarri nahian, antolatu genituen UPV/EHUko Uda Ikastaroen barnean “Osasuna eta hizkuntza” jardunaldiak.

Euskara eta osasungintza hitzen elkarketak esparru zabal-zabala hartzen du bere baitan eta argitalpen monografiko honen izenburua irakurrita, eman lezake gaia bere osotasunean aztertu dela, ikuspegi integral batetik, gaiaosatzen duten zati guztien azterketa eginda. Artikulu hauen helburua ezin da izan, ordea, euskara eta osasungintza gaia- inguruko hausnarketa orokorra, ikuskerare integrala duena, batetik, euskarak duen esparru geografiko osoa, zabala eta anitza kontu hartu ez delako –herrialde eta autonomia erkidego ezberdinak–, eta bestetik osasungintzaz ari garenean, osasun zerbitzu publikoez ari garela gehienetan; ez ohi dugu kontuan hartu zerbitzu sanitarioen hornidura pribatua, ez Osasun Sailak kontratatutakoa (zerbitzu kontzertatuak) ezta herritarrek aseguru pribatuaren bidez edota



zuzenean haien poltsikoko dirutik ordaindutakoa, eta kontuan izan behar dugu zerbitzu sanitarioen hornidura pribatuak osasun gastuen %31,8 suposatzen duela².

Guztiarekin ere, irakurleak esku artean duen artikulu-sorta honetan jaso dira modu bateratua aldizkari espezializatu batean euskarak osasungintzan duen egoeraren orain arteko deskribapen zehatz eta zabalena; eta euskarak osasungintzan presentzia eta erabilera handiagoa izateko eragiten duten faktoreen deskribapen osatuena.

Osakidetzan gogotsu ari dira lanean, besteak beste, irudia eta komunikazioa, kanpo-harremanak, barne-harremanak, hizkuntza-kudeaketa, eta hizkuntza-eskakizunak, lehen-tasunak eta derrigortasun-datei dagokionez. Baina oraindik bada hutsune garrantzitsua: hizkuntza eta osasun-arreta elkarrengandik urruti daudela, eta erabat lotuta egon beharko lukete, jakinda eremu elebidun batean bizi garela eta osasun-arreta pazientean zentratutakoa izan behar dela.

“La langue a été décrite comme la technologie la plus indispensable à la médecine, soit le principal instrument pour assurer sa pratique. S’il ne s’agissait pas de la langue, le travail des médecins et des vétérinaires serait pratiquement identique.”.

“Hizkuntza medikuntzarako teknologiarik garrantzitsuen bezala deskribatua izan da, praktikarako tresnarik garrantzitsuen. Hiz-

kuntzagatik ez balitz, medikuaren eta albai-tariaren lanaren artean ez litzateke diferentziarik egongo.”.

(Dr. Sarah Bowen. School of Epidemiology, Public Health and Preventive Medicine, University of Ottawa).

Bidean aurrera egiteko hizkuntzarekiko kontzientzia nahitaez piztu eta bultzatu behar da. Hizkuntzak pertsonengan eta osasun-arretan duen garrantziaz jakitun izan behar dira profesionalak; pertsonen beharrak eta gogobetetasuna kontuan hartuko duten profesionalak behar dira. Hizkuntza kontzientziak eragile guztien sentiberatzea eta inplikazioa eskatzen du: osasun-langileak, kudeatzaileak eta erabiltzaileak. Euskal Herrian ere ebidentzia zientifikoak behar ditugu eta tabernetatik atera behar dugu « *mediku euskaldun vs mediku on* » eztabaida.

Aipatutako helburuak bete daitezten eta osasungintzaren euskalduntze prozesuan lagundu nahian, eremu ezberdinetan ari dira lanean Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, ikertzaileak eta ikasleak. Azpimarra berezia merezi du, corpus espezializatuaren garapenean eta osasun arloko hizkuntza teknikoaren formakuntzan, Euskal Herriko Unibertsitateak eskura jartzen dituen hizkuntza-baliabideak. Guzti hauen artean, ezinbestean **Terminologia Sareak Ehunduz** (TSE) programa aipatu behar da. TSE programa behetik-gorako terminologia-plangintzan oinarritzen da eta terminologiaren estandarizazioari terminoek erabileran duten ezarpenari buruzko informazioa ematen diote.

Era berean, udako ikastaroan UPV/EHUn egin diren beste zenbait proiektu eta ikerketa aurkeztu dira :

- Terminologia euskaratzeko eta idazketan laguntzeko itzulpen automatikorako baliabideak sortzeko proiektua.
- Osasun-arretan irisgarritasuna, onargarritasuna eta efektibitatea bermatzeko hizkuntzarekiko kontzientziazioa ezinbestekoa dela frogatzen duten ikerketak.
- Osasun-sistemaren antolakuntzan eta plangintzan hizkuntza kontuan izateak normalizazioan duen garrantziaz jabetzeko ebidentziak mahai gainean jartzen dituen ikerketa.

UPV/EHUK gero eta osasun profesional gehiago prestatzen ditu euskaraz eta ekarpen hau oinarritzakoa da euskal osasun sistemaren euskalduntze prozesuan. Zifretara bagoaz, urtero osasun zientzietako graduatan 2200 ikasle inguru euskaraz formatzen ditu UPV/EHUK. Jardunaldietan, osasun arloko ikasleekin batera formazioan UPV/EHUK dituen mugen analisia egin da eta muga horiek gainditu ahal izateko proposamenak jarri dira mahai gainean.

Nazioarteko saretzearen beharraz ere hitz egin zen jardunaldietan, gai honi leku berezia eskainiz. Atzerrian osasunean eremu elebidunetan lan egin eta ikertzen duten adituen parte hartzea ere izan genuen. Horrek mundu mailako eragile, ikertzaile eta erakundeekin elkarlanerako aukerak zabaltzen dizkigu, horren bitartez gure erakundeak


(UPV/EHU, Osakidetza eta gainontzeko gizarte-eragileak) hizkuntzaren eta arretaren normalizazioan aitzindariak eta erreferenteak izatea ahalbidetuz.

Amaitzeko, espero dezagun artikuluko sorta hau, 2017 urtean UPV/EHUKo Osasuna eta hizkuntza udako ikastaroarekin abiatutako bideari jarraituz, osasungintzan euskarak presentzia eta erabilera handiagoa izan dezan han-hor-hemen aurrera eraman diren praktika aurreratuen bilaketan eta ezarpenean lagungarri izatea. “*Osasuna eta hizkuntza*” gai honen inguruan Euskal Herrian antolatu den lehen ikastaroa izan da. Hizkuntza eta osasunaren arloan, ekarpen akademiko eta profesionala derrigorrezkoak dira. Unibertsitate, osasungintza eta euskalgintzaren arteko lanaren emaitza da BAT aldizkariaren ale hau. Izan dadila etorkizun oparo baten lehen urratsa.

Osasuna eta euskara monografiko honetako GUREAN atalean, gai desberdin bati loturiko artikuluko bat ere argitara eman dugu, BAT aldizkarian ohikoa den bezala. Kasu honetan, 2017ko HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarietara Imanol Azkuek aurkezturiko *Euskara gara Zumaian?* lana eman dugu, gaur egun udal mailan gertatzen ari den euskararen aldeko aktibaziorako garrantzia izan dezakeen azterketa-modu gisa. Irakurle guztien intereskoa izango delakoan. •

OHARRAK

1. <https://www.uik.eus/eu/osasuna-eta-hizkuntza>
2. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion datua da, 2015 urtekoa. Iturria: INE, Encuesta de presupuestos familiares, 2014 urtea (barne hartzen ditu produktu, tresneria eta ekipamendu medikoak; zerbitzu medikoak; dentista zerbitzuak; ospitalez kanpoko zerbitzu paramedikoak; ospitaleko zerbitzuak eta gizarte babeseko zerbitzuak); ICEA, Seguro de Salud, 2014 urtea (barne hartzen ditu osasun arreta eta gastuen diru-itzultzea).



bat **dossierak**

1

Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren Tarteko ebaluazioa (2013-2017 aldia)

Xabier Arauzo Uriarte

Osakidetza Euskara Zerbitzu Korporatiboko burua

xabier.arauzouriarte@osakidetza.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Osakidetza 2017ko bigarren sei hilekoan zehar II Euskara Planean ezarritako helburuen betetze mailaren ebaluazioa egin du, eta 2018 urte hasieran argitaratu ditu emaitzak. Emaitza horien berri eman da artikulu honetan. Ebaluazioa plangintza-aldiaren erdian egin da eta Planaren bigarren erdirako neurri zuzentzaileak zehazteko erabiliko da. Artikulu honek ez du kontuan hartu zerbitzu sanitarioen hornidura pribatua, ez Osasun Sailak kontratatutakoa ezta herritarrek aseguru pribatuaren bidez edota zuzenean haien poltsikoko dirutik ordaindutakoa. Euskara Planaren ebaluazioaren landa-lana egiteko aholkularitza enpresa baten laguntza izan du Osakidetza; txostena erredaktatzeko. Bestalde, txostena osatzeko erabili den egitura “kudeaketa aurreratuen ereduen” antzekoa izan da, alegia, arlo bakoitzaren garapen mailaren deskribapena egiteaz gain, identifikatu diren indargune nagusiak laburbildu dira, hobekuntza-arlo garrantzitsuenekin batera. • **Hitz gakoak:** *Euskara-plana, plangintza-aldia, ebaluazioa; osasun-arreta; Osakidetza; osasuna; eskaintza aktiboa; pazienteak.*

Abstract. Osakidetza (Basque Health Service) has made an assessment of the degree of compliance of the objectives set out in the Basque Language Plan for the second half of 2017 and the results were published at the beginning of 2018. In this article, results of the plan are given. The assessment was carried out in midst of the planning period and will be used to determine corrective measures for the second half of the plan. The article does not take into account private health services whether they be those under contract by the Health Department or those health services paid for by insurance companies or out the pockets of private citizens. Osakidetza has been assisted by a consulting agency in order to do the field work to assess the Basque Language Plan. On the other hand, the structure used to complete the report was similar to an “advanced management model”, in other words, in addition to describing the degree of development in each area the main strong points that have been identified were summarized together with the most important areas of improvement. • **Key words:** *Basque language plan, planning period, evaluation; health care; Osakidetza (Basque Health Service); health; active offer; patient.*

KOKAPENA

I Osasun Sailak osasun zerbitzuak emateko, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko pazienteei arreta emateko, zerbitzu publikoak eta maila apalagoan zerbitzu pribatuak kontratatzen ditu. Zerbitzu publikoak Osakidetza bidez gauzatzen dira, sinatzen dituen kontratu-programen bidez¹. Zerbitzu pribatuak, itunpeko zentroen bidez gauzatzen dira eta kontratatutako zerbitzuen %7² inguru dira; kontratatutako zerbitzu pribatuak batzuk dira, esaterako, Onkologikoa, Asunción Klinika, Matia Fundazioa, San Juan de Dios klinika, Gurutze Gorria klinika, Garraio Sanitarioak edo etxeetako larrialdi-zerbitzu batzuk. Artikulu honetan jasotzen diren zehaztapenak, gogoetak eta balioespenak soilik Osakidetza aktibitateari dagozkio, hau da, osasun-jardueraren aurrera eramateko Osakidetza dituen 21 zerbitzu-erakundeen jarduerari. Ez da kontuan hartuko, beraz, zerbitzu sanitarioen hornidura pribatua, ez Osasun Sailak kontratatutakoa ezta herritarrek aseguru pribatuaren bidez edota zuzenean haien poltsikoko dirutik ordaindutakoa³.

Osakidetza dagokionez, daukaten aktibitatearen arabera, zerbitzu-erakunde horiek hiru taldetan banatzen dira. Horietako 13 erakunde sanitario integratuak dira, lehen mailako atentzioko zentroez eta erreferentziazko eskualdeko ospitaleaz osatuak. Beste 3 erakunde osasun mentaleko sareak dira eta ospitaleko eta ospitaleaz kanpoko zerbitzuak biltzen dituzte –Gipuzkoako Osasun Mentaleko ospitalea kontzertatua da–. Beste erakunde bi egonaldi ertain/luzeko ospitaleak dira, Gorkiz eta Santa Marina ospitaleak hain zuzen ere. Azkenik, eragin esparrua erkidego osoa duten 3 erakunde daude: Emergentziak, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa eta Zuzendaritza Nagusia. Osakidetza guztira, 26.268 lanpostu estruktural ditu⁴ eta 2.266.326 erabiltzaile ematen die arreta sanitarioa Euskal Autonomia Erkidego osoan.

HIZKUNTZA-PLANGINTZA ETA OSAKIDETZA

I Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua Euskararen Erabilera Normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren bitartez arautu zen⁵. Dekretu horretan, gutxieneko helburuak, lehentasunak eta oinarritzko neurriak ezarri ziren entitatearen erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatu zitezen. Indarrean sartu zenetik, Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lehenengo Plana garatu zuen, 2005etik 2011ra bitartean; aurrerago, Bigarren Plana⁶ etorri zen, zeina 2013ko abenduan indarrean sartu baitzen eta 2019an amaituko baita. Bi

Jasotzen diren zehaztapenak, gogoetak eta balioespenak soilik Osakidetza aktibitateari dagozkio, hau da, osasun-jardueraren aurrera eramateko Osakidetza dituen 21 zerbitzu-erakundeen jarduerari.

Bi planen oinarrian, badira funtsezko hiru printzipio: 1) erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatzea; 2) enpatia eta komunikazio argia eta gertukoa bermatzea, pertsonengan ardaztua eta haien hizkuntzan garatua, asistentzia-zerbitzuaren kalitatearen adierazgarri gisa; eta 3) helburuak progresiboki ezartzea.

planen oinarrian, badira funtsezko hiru printzipio: 1) erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatzea; 2) enpatia eta komunikazio argia eta gertukoa bermatzea, pertsonengan ardaztua eta haien hizkuntzan garatua, asistentzia-zerbitzuaren kalitatearen adierazgarri gisa; eta 3) helburuak progresiboki ezartzea. Horregatik guztiagatik, kontuan hartuz 2016ko abenduan amaitu zela Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren garapenaren lehen fasea, Osakidetzak aldi horren ebaluazioa⁷ egin du, 2017an, apiril eta azaro bitartean.

ZER EBALUATU DA⁸

I Batetik, Osakidetza - Euskal osasun zerbitzua osatzen duten 21 zerbitzu-erakunderen euskararen erabilera sustatzeko programen ebaluazioa egin da eta, bestetik, normalizazio-neurri korporatiboen garapen-maila ebaluatu da. Emaita horiekin, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren ebaluazio partzialaren txosten orokorra egin da. Bost esparrutan bildu dira ebaluatutako arlo eta neurri guztiak, honela ponderatuta: Irudia eta komunikazioa: % 25; Kanpo-harremanak: % 30; Barne-harremanak: % 10; Hizkuntza-kudeaketa: % 15; Hizkuntza-eskizunak, lehentasunak eta derrigortasun-datak: % 20.

Bildutako informazioa kuantitatiboa eta kualitatiboa izan da. Ebaluazio kuantitatiboan, zerbitzu-erakunde bakoitzaren aurre-txostena izan da abiapuntua eta gerora ebidentziak jaso dira (dokumentu eta euskarri ezberdin asko), bertatik bertarako behaketak egin dira 161 zentro, zerbitzu eta unitatetan, preferentziazko hizkuntza “euskara” duten 460 pazienteri inkestak egin zaizkie hizkuntza-normalizazioa neurrien garapen mailaz eta asebetetze mailaz galdetzeko eta, azkenik, 465 telefono-dei egin dira Osakidetzaren zerbitzu-erakunde guztietako zenbait zerbitzu eta unitatetara, telefono bidezko arretan hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak betetzen ote diren aztertzeko asmoz. Ebaluazio kualitatiboari dagokionez, helburu nagusia izan da Osakidetzako langileen esperientzia, iritzi eta jarrerak biltzea eta aztertzea, eta halaber, ebaluazio kuantitatiboan bildutako datuak interpretatu ahal izan ditugu. Zehazki, aurrez aurreko 95 elkarrizketa egin zaizkie zuzendariei eta ardura bereziko unitate-buruei, osasun-zentroetako 101 arduraduni eta Euskara Plana garatzeko arlo estrategikoetako 197 profesionali. Halaber, talde fokal ugari antolatu dira eta guztira 378 langilek parte hartu dute (167 langile elebidunek, 155 langile elebakarrek eta 56 sindikatuetako ordezkariak).

EMAITZAK

I


Helburuen betetze-maila edo garapen-maila zehazterako orduan, lau maila bereizi dira eta grafikoetan koloreen bidez bereizi dira:

1. taula. Helburuen garapen-maila.

AURRERATUA (grafikoetan gris argiz adierazita)	Planaren 3. urterako espero baino lorpen-maila aurrerratuagoa (planaren erdian). Praktika aurrerratuak eta/edo garatuak eta/edo berritzaileak daude hizkuntza-normalizazioaren arloan.
TARTEKOA (grafikoetan gris ilunez adierazita)	Aurrerapen-maila planaren hirugarren urterako (planaren erdian) espero zena izan da. Espero zen neurrian –ez gehiago– hedatu dira neurriak, lortu dira emaitzak eta garatu dira denboran zehar.
OINARRIZKOA (grafikoetan beltzez adierazita)	Tarteko garapen mailatik hurbil egon arren, beste erakunde batzuekin alderatuta maila baxuagoa lortu dute euskara planaren erdi aldera: neurrien zabalkundea, emaitzen lorpena, garapena.
BAXUA (grafikoetan zuriz adierazita)	Aurrerapen-maila nabarmen baxua, planaren 3. urterako espero zenetik urruti.

Ebaluazio-txosten horretan jaso diren ondorioen artean, hauek dira garrantzitsuenak: batetik, oro har, nabari da aurrera egin dela, Euskara Planaren helburuen garapenean, eta zenbait lorpen sendo mantendu dira Lehenengo Euskara Planaz geroztik (2005-2012). Ondorioz, nabarmen egin du aurrera euskararen presentziak eta erabilerak.

1. grafikoa. Ikuspegi Globala.



**Euskararen
Erabilera
Normalizatzeko
Bigarren
Planaren
ebaluazio
partzialaren
txosten orokorra
egin da. Bost
esparrutan bildu
dira
ebaluatutako arlo
eta neurri
guztiak: Irudia
eta
komunikazioa,
kanpo-
harremanak,
barne-
harremanak,
hizkuntza-
kudeaketa,
hizkuntza-
eskakizunak eta
lehentasunak eta
derrigortasun-
datak.**

Bestetik, ebaluatutako bost ardatzetatik, hirutan uste baino gehiago aurreratu da, Bigarren Euskara Plana ezarri eta hiru urtera. Ardatz horietako bat da *Hizkuntza-eskakizunak, Lehentasunak eta Derrigortasun-datak* izenekoak; bertan ebaluatu dira Euskara Planaren helburuak lortzeko baliabide pertsonalak eta antolakuntzakoak: langile elebidunen ehunekoak eta haien bilakaera eremu soziolinguistikoaren arabera, derrigortasun-data duten lanpostuak, lehentasunezko unitateetan langile elebidunen kontratazioa... Bigarren ardatza da *Irudia eta komunikazioa* izenekoak. Ardatz honetan ebaluatu dira errotulazioa, kartelak, paperak, webguneak, sare sozialak, megafonia eta erantzungailuak, agurrak eta lehen esaldiak pazienteei harrera egitean, iragarkiak, ekitaldi publikoak eta abar. Hirugarren ardatza dugu *Hizkuntza-kudeaketa*. Hemen, besteak beste, planaren zabalkundean agintariak eta arduradunek duten inplikazioa aztertu da, langileen sentsibilizazioa, hizkuntza-kalitateko ziurtagiriak lortzeko ahalgina eta euskara-batzordearen jarduerak (1 Grafikoa).


Laugarrenik, kanpo Harremanen ardatzean, besteak beste pazienteekiko harremanetan, asistentzia-zerbitzu elebidunen eskaintzan, pazienteen lehentasunezko hizkuntzan eta euskararen erabilerekin haien gogobetetze-mailan, espero zen mailara arte aurreratu da orokorrean, baina egia da ardatz honetan egon direla desberdintasun handienak zerbitzu-erakunde batzuen eta besteen artean: izan ere, 14 zerbitzu-erakundek aurrerapen-maila egokia erakutsi dute, plangintzaren hirugarren urterako aurreikusi genuena –horietako 5, gainera, garapen handiarekin–; aitzitik, beste 7 erakundetan ez da espero zen aurrerapena lortu –horietako 3, gainera, garapen maila oso baxuarekin–.

Azkenik, esan beharra dago Barne Harremanen arloa izan dela aurrerapen txikiena izan duena II. Euskara Planaren lehenengo zati honetan: espero zen garapen-maila 8 zerbitzu-erakundetan bakarrik lortu da. Barne harremanetan, besteak beste, alderdi hauek ebaluatu dira: profesionalen arteko harremanak (horizontalak eta bertikalak), prestakuntza (euskalduntzea nahiz etengabeko prestakuntza) eta giza baliabideak (profesionalen harrera, langileen lehentasunezko hizkuntza...).

Osakidetza osatzen duten 21 zerbitzu-erakundeetako euskararen erabilera normalizatzeko programei dagokienez⁹, ondorioztatu da zerbitzu-erakunde gehienetan onargarritzat har daitekeela zer neurritan bete diren helburuak plangintza-aldi erdirako, hau da, zer zabalkunde izan duten normalizazioarako neurriak, zer emaitza lortu diren eta zenbat denbora behar izan den horretarako. 9 zerbitzu-erakundetan, garapen-maila aurreratua da; 10etan, tartekoa; eta 2tan ez da erdietsi espero bezalako aurrerapenik.

Emaitzak lurraldeka aztertuz gero, bilakaera bat nabari da I. Euskara Plana abian jarri zenetik. Izan ere, egia da eremu soziolinguistiko euskaldunenetan baldintza sozial hobekak daudela helburuak arinago lortzeko dinamikak aktibatze aldera (grafikoan ikusten denez), baina, bestalde, egia da euskaldun gutxiko eremuetan ere proaktiboki eta motibazio handiz jarduten dutela zerbitzu-erakundeek, eta horrek emaitza ona utzi du helburuei begira. Hala gertatu da, adibidez, Arabako ESI, Uribeko ESI, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea eta Santa Marina Ospitalean (2. irudia).

2. grafikoa. Emaitzen ikuspegi orokorra zerbitzu erakundek



INDARGUNE NAGUSIAK

I

a) Hizkuntza-irizpideak nabarmen betetzen dira irudi korporatiboaren elementu gehienetan

Oro har, euskararen presentziari, erabilerari, kalitateari eta funtzionaltasunari buruzko irizpideak ongi betetzen dira irudi korporatiboaren

**Ebaluatutako
bost ardatzetatik,
hirutan uste
baino gehiago
aurreratu da,
Bigarren Euskara
Plana ezarri eta
hiru urtera.
Ardatz horietako
bat da
Hizkuntza-
eskakizunak,
Lehentasunak eta
Derrigortasun-
datak izenekoa;
bertan ebaluatu
dira Euskara
Planaren
helburuak
lortzeko
baliabide
pertsonalak eta
antolakuntzakoa.**

elementuetan: errotulazioa, paperak, webguneak, aldizkari eta argitalpenak, logotipoak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, arreta-guneetako agurrak, eta abar.

Errotulazio finkoan (bai barnekoan, bai kanpokoan), ia beti aplikatzen dira hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak. Planaren lehen alditik hasita, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan lan handia egin da gaztelaniaz bakarrik zeuden, euskaraz gaizki idatzita zeuden eta hizkuntzen hurrenkera eta tipografia okerra zeukaten errotuluak konpontzeko. Errotulazio finkoaren gaineko hizkuntza-irizpideak elementu mugikorren inskripzioetan ere betetzen dira, hala nola laneko arropan edo ibilgailuetako inskripzioetan.

Halaber, euskara lehenetsi da paperezko elementuetan, logotipoetan, iragarkietan eta publizitate-kanpainetan, eta oso salbuespen gutxi dago horri dagokionez.

Ahalegina egin da intranetean, estranetean, Osakidetzaren atari mugikorrean eta sare sozialetan euskaraz nabigatzeko sarbidea emateko, bai korporatiboetan, bai zerbitzu-erakundeenetan. Alde horretatik, oraindik ere bada zer hobetua, baina asko aurreratu da planaren lehen aldiaz geroztik.

Bestalde, agurrak eta lehen esaldiak euskaraz egiteko ohitura areagotu da, batez ere harrera-unitateetan, telefono-deietan eta lehentasuneko unitate askotan, erabiltzaileekiko lehen harremana euskaraz gauzatzea barneratu eta orokortu baita halakoetan.

Aldizkarietako, buletineta eta bestelako argitalpenetako hizkuntzen erabilerari dagokionez, zerbitzu-erakunde gehienetan betetzen da Euskara Planean proposaturiko indizea, hau da, euskarazko edukien ehunekoak erakundearen eremu soziolinguistikoko euskaldunen ehunekoaren parekoa edo handiagoa izan behar du. Horretaz gain, euskara hutsean argitaratzen da *Osatuberr*i dibulgazio-aldizkari korporatiboa.

Irudi korporatiboan hobetu beharreko elementuei dagokionez, errotulazio informala, megafonia eta ekitaldi publikoak eta jardunaldiak aipatu beharko genituzke, nahiz eta zerbitzu-erakunde batzuk lanean hasiak diren horretan ere, bai eta emaitza onak lortu ere. Osakidetzatik kanpoko erakunde eta enpresek bidaltzen dituzten kartelei dagokionez, ordea, beharrezkoa da neurriak hartzen hastea, hizkuntza-irizpideak ez baitira ia inoiz betetzen.

b) Erabiltzaileek lehenetsitako hizkuntzaren erregistroa¹⁰

II. Euskara Planaren erronketako bat erabiltzaileek ahozko harremanetarako hizkuntza lehenestea eta hori erregistratzea da, kalitate handiagoko zerbitzu bat –pertsonengan ardaztua– eskaintzeko xedez.

Horren bitartez, eskaintza aktiboa areagotu nahi du Osakidetzak, eta herritarrei aurrea hartu eta euskarazko arreta eskaini. Osasun Sailak, Osakidetzarekin lankidetzan, kanpaina publiko bat jarri zuen abian aukera horren berri emateko, erabiltzaileek lehentasunezko hizkuntza erregistratzea sustatzea (gaztelaniaz edo euskaraz) eta gero eta kalitate hobeagoko zerbitzuak ematea helburu.

Bada alderik erakundeen artean, baina, oro har, lehentasunezko hizkuntzaren erregistroa erritmo onean doa (herritarren %46,4k erregistratuta dute preferentziazko hizkuntza 2018ko otsailean, horietatik 206.855k euskara dute lehenetsia), eta aurreikusi da erabiltzaile gehienek beren lehentasunezko hizkuntza erregistratuko dutela plangintzaldia bukatzerako.

c) Euskara lehenetsi duten pazienteen gogobetetzea¹¹

Paziente eta erabiltzaileen lehentasunezko hizkuntzaren erregistroa egoki egin denez, aukera izan dugu euskara lehenetsi duten pazienteei galdetzeko ea zenbateraino gogobeteta dauden oraintsuko asistentzia-zerbitzuetan jaso duten hizkuntza-erabilerarekin.

Pazienteek 6,4 puntuko gogobetetzea adierazi dute, 0tik 10erako eskalan, euskararen erabilera eta presentziari buruz. Bestalde, inkestan parte hartu duten pazienteen % 55,2k adierazi du ahozko komunikazioa euskaraz gauzatu duela beti edo ia beti bere medikuarekin edo erizainarekin. Gainera, % 58,4k adierazi du beti edo ia beti jaso duela dokumentazioa euskaraz edo bi hizkuntzetan. Zerbitzu eta profesionalen identifikazioaren pertzepzioari dagokionez, pazienteen % 57,7k adierazi du beti edo ia beti ikusi dituela zerbitzu eta profesional elebidunak “e” sinboloarekin identifikatuta. Era berean, % 64k adierazi du beti edo ia beti euskaraz ematen direla megafonia bidezko mezuak, % 88k erantzungailu automatikoetan eta % 68k SMSetan.

Pazienteen inkestetan ikusi dugunez, gutxien garatu den esparrua lehen mailako arretan medikua, pediatra edo emagina aldatzeko aukera da: % 21ek bakarrik adierazi du aukera izan duela aldatu eta profesional elebiduna aukeratzeko. Arreta mediko espezializatuan ere, garapen

**Oro har,
euskararen
presentziari,
erabilerari,
kalitateari eta
funtzionalta-
sunari buruzko
irizpideak ongi
betetzen dira
irudi
korporatiboaren
elementuetan:
errotulazioa,
paperak,
webguneak,
aldizkari eta
argitalpenak,
logotipoak,
iragarkiak,
publizitate-
kanpainak,
arreta-guneetako
agurrak, eta
abar.**

**Lehentasunezko
hizkuntzaren
erregistroa
erritmo onean
doa (herritarren
%46,4k
erregistratuta
dute
preferentziazko
hizkuntza
2018ko
otsailean,
horietatik
206.855k
euskara dute
lehenetsia), eta
aurreikusi da
erabiltzaile
gehienek beren
lehentasunezko
hizkuntza
erregistratuko
dutela
plangintzaldia
bukatzerako.**

apala izan da profesional elebidunak aukeratzeari dagokionez, % 12,7k bakarrik adierazi baitu aukera izan duela horretarako. Harrera- eta onartze-unitateei dagokienez, % 18,5ek bakarrik adierazi du profesional elebidunik egon ezean lankide elebidun baten esku utzi izan dela harrera. Azkenik, zerbitzu kontratatuetan, kafetegietan bereziki, inkesta egin dutenen % 60,8k adierazi du beti edo ia beti gaztelaniaz jaso duela harrera edota zerbitzua.

d) Zerbitzu eta langile elebidunak identifikatzea¹²

Planean aurreikusi bezala, zerbitzu-erakundeek azterketa bat egin dute euskarazko arreta eman dezaketen profesional eta zerbitzuen inguruan, paziente eta erabiltzaileei halako zerbitzuak emateko neurriak martxan jartzeko.

Horretarako, Osakidetza ahalegin handia egin du “Euskaraz bai sano!”^{13/14} proiektu korporatiboaren zabalkundea egiteko eta hura sendotzeko. Profesional eta zerbitzu elebidunak identifikatzea du helburu kanpainak, euskaraz komunikatu nahi duten herritarrek argi eduki dezaten Osakidetza zer zerbitzu eta langilerekin hitz egin dezaketen euskaraz eta, horrenbestez, euskarazko zerbitzuen eskaintza aktiboa handitu dadin. Zenbait inkesta egin zaizkie profesional eta erabiltzaileei, identifikazio-sistema zenbateraino onartu den eta eraginkorra izan ote den jakiteko asmoz, eta bi kolektiboek oso erantzun positiboak eman dituzte.

Bada alderik erakundeen artean, baina, oro har, erritmo onean doa zerbitzu eta profesionalen identifikazioa, eta aurreikusi da aurrerapen handia izatea plangintzaldiaren amaierarako.

e) Erakundeetako zuzendaritza eta buruzagitza batzuen inplikazioa

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planean jasotzen den bezala, entitateko zuzendaritza guztiei eta zerbitzu-erakunde zuzendaritzei dagokie plana garatzeko ardura, gerentea buru dela, haren erantzukizuna baita plana bere erakundean garatzea.

Planean ezarritakoari jarraituz, erakunde gehienek barneratua dute beharrezkoa dela zuzendaritzek eta buruzagitzek plana garatzea eta haren zabalkundea egitea. Hala, erakunde askotan, Euskara Plana sustatzeko jarrera aktiboa sumatzen da zuzendaritzetan eta buruzagitzetan, eta gero eta zeharkakotasun handiagoz zabaltzen eta aplikatzen da (sail eta aginte-kate guztien bitartez) zerbitzu eta unitate guztietan.

Euskara Planaren normalizazio-helburu eta -neurriak Plan Estrategikoan eta zerbitzu-erakunde gehienen kudeaketa-planetan sartu dira.

f) Hizkuntza-irizpideen ezagutza eta zabalkundea

Euskara paziente eta erabiltzaileekiko eguneroko harremanetan erabiltzeko irizpideak egoki transmititzen dira; erakunde askotan, harrera-, onartze- eta informazio-unitateetan egiten da lan hori, nahiz eta batzuetan erakunde bakoitzaren Euskara Zerbitzuaren gain geratzen den, eta ez zerbitzuburu edo unitateburu eta arduradunen gain.

Hizkuntza-irizpideen zabalkundea egokia ari da izaten, eta langile gehienek ezagutzen dituzte; hala eta guztiz ere, zerbitzu-erakunde gehienetan zaila da ohiko lan-ohituretan aplikatzea.

g) Euskara-zerbitzuak sendotzea

Hizkuntza-normalizaziorako prozesuak dakartzan zeregin tekniko espezifikoa behar bezala bete daitezen, Osakidetzak (maila korporatiboan) eta zerbitzu-erakunde guztiek badute euskara-zerbitzu tekniko bat, Arabako Errioxako ESIⁿ eta Giza Ehunen Euskal Zentroan izan ezik.

Bigarren Euskara Plana abian jarri zenetik, 5 lagun gehitu dira zerbitzu-erakundeetako euskara-zerbitzuekin loturiko giza baliabideetan. Hona gaur egungo datuak: 19 euskara-teknikari, 3 itzultzaile eta 4,5 administrazio-langile.

Euskara-zerbitzuak gero eta sendoagoak eta finkatuagoak dira erakunde gehienetan, eta jarrera proaktiboa dute hizkuntza-normalizaziorako orotariko ekimenak sustatzeko eta laguntzeko orduan.

Itzulpenaz eta interpretazioaz denaz bezainbatean, Zuzendaritza Nagusia aurrera egin da zerbitzuaren profesionalizazioari dagokionez, eta, horri esker, interpretazio-zerbitzuak eskaini dira zerbitzu-erakundeetan.

h) Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak

Zerbitzu-erakunde gehienetan, erakunde bakoitzaren lurralde-eremuko populazio elebidunaren ehunekoarekin alderatuta, hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria duten langileen ehunekoa altuagoa da. Horrekin batera, langile elebidunen kopurua gora doa erakunde askotan. Urteko batezbesteko hazkundea % 2,82koa da. Igoera horren arrazoiak hauek dira euskalduntze-prozesua eta zerbitzu-erakundeetan langile berriak kontratatu eta lanean hasi izana. Azken hiru urteetan, lanpostuari dagokion

Pazienteen inkestetan ikusi dugunez, gutxien garatu den esparrua lehen mailako arretan medikua, pediatra edo emagina aldatzeko aukera da: % 21ek bakarrik adierazi du aukera izan duela aldatu eta profesional elebiduna aukeratzeko.

Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak politika bat ezarri du euskara sistematikoki erabiltzen duten eta euskararen erabilera eta normalizazioa eguneroko lanean sustatzen duten langileak, zentroak eta erakundeak aintzatesteko.

hizkuntza-eskakizuna lortzeko liberazio-kopurua igo egin da (lanordue-tan), baita lanorduez kanpo euskara-ikastaroetara joaten diren langileen kopurua ere. Azpimarratzekoa da nolako ahalegina egiten duten langile batzuek lanorduez kanpo euskalduntze-ikastaroetan parte hartzeko.

i) Kalitate-aitortzak eta -ziurtagiriak¹⁵

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planean jasotzen denez, Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztiek hizkuntza-kudeaketaren Bikain kalitate-ziurtagirira (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sail-buruordetzak eta Euskalit Bikaintasunaren Euskal Fundazioak antola-tzen dute) aurkeztu behar dute, behin gutxienez. % 40tik gorako biz-tanleria elebiduna artatzen duten erakundeek helburu hartu behar dute gutxienez tarteko ziurtagiria lortzea plangintzaren lehenengo hiru ur-teetan; eta % 40tik beherako biztanleria elebiduna artatzen duten era-kundeek helburu hartu behar dute tarteko ziurtagiria lortzea plangin-tzaldia bukatu aurretik.

Alde horretatik, planaren helburuak bete dira, are gutxienero helburuak bete ere. 2015ean, bi erakunde tarteko ziurtagiria lortu zuten: Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea eta Uribeko ESI. 2016an, zazpik: Debabarreneko ESI, Debagoiena ESI, Donostialdea ESI, Goierri-Urola Garaiko ESI, Bida-soko ESI, Barrualde-Galdakao ESI, Santa Marina Ospitalea (berez, 2017-2019 aldian aurkeztea zegokion). Urte berean, Arabako ESIak oinarritzko ziurtagiria lortu zuen (berez, 2017-2019 aldian aurkeztea zegokion).


Bestalde, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak politika bat ezarri du euskara sistematikoki erabiltzen duten eta euskararen erabilera eta normalizazioa eguneroko lanean sustatzen duten langileak, zentroak eta erakundeak aintzatesteko. Haien lana aintzatesteko hiru jardunaldi antolatu dira: 2015, 2016 eta 2017 urteetan.

j) Euskara-programak etengabe ebaluatzea¹⁶

Bestalde, Osasun Sailaren eta Osakidetzako erakundeen arteko harre-manen ardatz den Programa Kontratuko kalitate-irizpideetan sartu dira euskararen erabilera normalizatzeko helburu eta neurriak.

10 item dira, zeinak goranzko bilakaera izan baitute 2014tik 2016ra bi-tartean. Kasuren batean, puntuazio gorena lortu da; hortaz, datozen urteetara begira, komeniko litzateke zenbait item aldatzea (3. irudia: Euskara Planari buruzko adierazleen bilakaera 2014ko, 2015eko eta 2016ko programa kontratuetan).

3. grafikoa. Euskara Planari buruzko adierazleen bilakaera 2015ko, 2016ko eta 2017ko programa kontratuetan.



k) Institutuzio eta erakunde sozialekiko lankidetzak-sareak

Euskara Planaren Segimendu Batzorde Korporatiboak (maila orokorrean) eta zerbitzu-erakunde batzuetako batzordeek koordinazio- eta lankidetzak-sare egonkorak eratu dituzte, zeinek bere jardute-eremuan, sindikatuarekin eta Osakidetza hizkuntza-normalizaziorako prozesua garatzeko interesgarritzat jotzen diren instituzio eta erakundeekin.

Maila korporatiboan, esate baterako, batzorde korporatiboaz gainera (Euskara Plana garatzeari begira estrategikoak diren zuzendaritza-, zuzendariorde- eta zerbitzu-kideek osatua), euskara-batzorde bat sortu da mahai sektorialaren barruan. Halaber, Euskara Planeko interes-taldearen foro bat sortu da. Partaideak: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Poli-

**Osasun Sailaren
eta Osakidetzako
erakundeen
arteko
harremanen
ardatz den
Programa
Kontratuko
kalitate-
irizpideetan
sartu dira
euskararen
erabilera
normalizatzeko
helburu eta
neurriak.**

**10 item dira,
zeinak goranzko
bilakaera izan
baitute 2014tik
2016ra bitartean.
Kasuren batean,
puntuazio gorena
lortu da.**

tikako Sailburuordetza, IVAP, HABE, Elebide, Arartekoa, UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetza, Lanbide Heziketako Sailburuordetza, EAEko hiru foru-aldundiak, EUDEL, Eusko Legebiltzarra, UEMA, OEE, Mutualia, Kontseilua eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia. Foro tekniko horretan sortu diren aliantzei esker, zenbait proiektu abiarazi dira zenbait instituzio eta erakunderekin; esate baterako, euskara eta Osakidetzari buruzko informazio-kanpainak antolatu dira UPV/EHUko osasun-arloko ikasleentzat¹⁷; lankidetzahiztarmenak sinatu dira Mutuialiarekin eta Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiekin; “Osasuna eta hizkuntza” ikastaroa¹⁸ antolatu da EHUren Udako Unibertsitatean; eta abar.

Gainera, zerbitzu-erakunde askotan hasiak dira beren jardute-eremuetako erakunde eta interes-taldeekin koordinatzen (tokiko administrazioak, euskaltegiak, euskara-taldeak...), eta, zenbait kasutan, lankidetzahiztaren bitartez transmititzeko kanpainak, erditzarako prestatzeko ikastaroak, eta abar).

1) Terminologia eta estandar klinikoak

Lehen hiru urteotan, oinarrizko terminologia eta estandar klinikoak sistematikoki biltzeari eta euskarara egokitzeari ekin zaio. Etorkizunean euskaraz lan egiteko eta historia klinikoak euskaraz ere eduki ahal izateko eragiten duten faktoreetan sakontzen ari da. Horretarako, Osakidetzak lagundu egiten du osasun arloko hiztegi terminologikoak osatzen, eta Euskara Zerbitzu Korporatiboak zenbait proiektutan dihardu Asistentzia Sanitarioaren Zuzendaritzarekin eta Informatika Zuzendariordearekin batera. Esate baterako, euskarara egokitu dira Osabide-Global eta e-Osabide estazio klinikoak, Osanaia (erizaintza), laborategi-emaizten txostenak, Osabar (euskarazko tresna-barra) eta Gestlab (laborategiak kudeatzeko aplikazioa).

HOBETZEKO NAGUSIAK

I

Euskara Planaren alderdi esanguratsu batzuetan ez da garapen maila alturik lortu tarteko ebaluazio honetan, hortaz bereziki sakondu beharko litzateke haiengan, jauzi kualitatibo handia eman daitekeelako euskararen presentzia eta erabilera handitzeko.

a) Zuzendaritza, buruzagitza eta bigarren mailako agintari guztien konpromisoa eta parte-hartzea sendotzea

Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planean jasotzen den bezala, entitateko zuzendaritza guztiei eta zerbitzu-erakunde zuzendaritzei dagokie plana garatzeko ardura, gerentea buru dela. Zuzendaritzak hartu behar du planaren lidergoa, bai eta haren garapenaren gaineko erantzukizuna ere.

Euskara Plana erakundearen politika estrategikoaren atal bat da, eta zuzendaritza batzuetan proaktiboki bultzatzen dute (plana gauzatzen gehien inplikatzeko direnak dira), baina, hala ere, beharrezkotzat jotzen da plana ahalik eta zeharkakotasun handienaz zabaltzen jarraitzea.

Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren barruan kokaturiko zuzendaritzek rol bikoitza jokatzen dute: batetik, erakunde zentralari begira lan egiten dute, baina, bestetik, zerbitzu korporatibo gisa jarduten dute, Osakidetza osoari begira. Horren ondorioz, zuzendaritzen eta haien zerbitzu-buruzagitzen inplikazioaren arabera da Euskara Planaren zabalkundea.

Zuzendaritzen lidergoarekin batera, beharrezkoa da buruzagitza, bigarren mailako agintari eta lantalde profesionalen arduradun guztien konpromisoa eta inplikazioa lortzea, ezinbesteko eragileak baitira planeko irizpide eta neurriak behar bezala aplikatzeko zerbitzu eta unitate guztietan.

b) Hizkuntza-irizpideen komunikazioa eta zabalkundea

Zerbitzu-buru, unitate-buru eta arduradunei dagokie euskara paziente eta erabiltzaileekiko eguneroko harremanetan erabiltzeko irizpideak transmititzea. Gainera, unitateetako ohiko lanen jarraibideetan ere txertatu behar dira irizpideok, hau da, segimendua egin eta ebaluatu behar dira, gainerako lan guztiak bezala. Alegia, bigarren mailako agintariak garrantzi handia dute plana gauzatzeari eta haren zabalkundea egiteari begira.

Zerbitzu-erakunde batzuetan, profesionalek eta are erabiltzaileek aski barneratuak dituzte hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, eta ia

Maila

***korporatiboan
batzorde
korporatiboaz
gainera (Euskara
Plana garatzeari
begira
estrategikoak
diren
zuzendaritza-,
zuzendariordetza
—eta zerbitzu—
kideek osatua),
euskara-batzorde
bat sortu da
mahai
sektorialaren
barruan. Halaber,
Euskara Planeko
interes-talde
foro bat ere sortu
da.***

***Euskara
Planaren alderdi
esanguratsu
batzuetan ez da
garapen maila
alturik lortu
tarteko ebaluazio
honetan, hortaz
bereziki sakondu
beharko litzateke
haiengan, jauzi
kualitatibo
handia eman
daitekeelako
euskararen
presentzia eta
erabilera
handitzeko.***

beti betetzen dituzte. Ahalegin handia egin da irizpideak azaltzeko trip-tikoak sortu eta hedatzeko, aldizkako bilerak antolatzeko irizpideei buruz, segimendua sistematizatzeko, eta abar, batez ere harrera-, onartze- eta informazio-unitateetan.

Hala ere, erakunde gehienak handiak direnez eta sakabanatuta daude-nez, segimendua egitean, kasu askotan ez da sumatu motibazio eta inplikazio handirik zerbitzuburu eta unitateburuen aldetik; hortaz, hizkuntza-irizpideak ez dira behar bezala transmititu eta aplikatu. Hori dela eta, aurtan, zenbait ekimen abiarazi dira, hala nola “Osakidetzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak” etengabeko prestakuntza-rako onlineko ikastaroa. Haren bitartez, Osakidetzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak azaldu zaizkie bigarren mailako agintari eta arduradunei, baita zer betekizun dituzten irizpideok beren ardurapean diren zerbitzuetan betetzeari begira ere.

Erakunde batzuetan, hasiak dira ardura-lanpostuetako pertsonak sensibilizatzeko eta prestakuntza emateko saioak antolatzen, hizkuntza ofizialen erabilerrako jarraibideak barneratu, transmititu eta aplika ditzaten dagozkien unitate eta zerbitzuetan.

Era berean, garrantzitsua da unitateen arduradunek langileen motibazioa lantzen laguntzea, behar bezala jokatu eta eroso senti daitezen euskara erabiltzeko irizpideak paziente eta erabiltzaileekin aplikatzean. Motibazio horrekin batera, etengabe lan egin behar litzateke eguneroko jardueretan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak areagotzeko eta sendotzeko.

c) Erabiltzaileek lehenetsitako hizkuntzaren erregistroan aurrera egitea

Herritarrek eskubidea dute aukeratzeko zer hizkuntza ofizialetan jaso nahi duten osasun-asistentzia Osakidetzan, eta haiek dira, horrenbestez, Euskara Planaren helburuen hartzaile nagusiak. Ildo horretan, bigarren plangintzaldi honetan, lehen mailako arretarako zerbitzu-erakunde guztietan galdetu behar zaie erabiltzaileei ea lehentasunezko hizkuntza gehitu nahi duten beren datu pertsonaletan.

Erakunde gehienetan ahalegin handia ari dira egiten erabiltzaileen lehentasunezko hizkuntza erregistratzeko, baina oso paziente gutxi erregistratu da haietariko batzuetan; hortaz, ahalegin handiagoa egin behar litzateke datozen urteetan ehunekoa igotzeko, langileak horri buruz sensibilizatuz.

d) Zerbitzu elebidunen eskaintza hobetzeko pausoak ematen jarraitzea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planean jasotzen den bezala, zerbitzu-erakundeek azterketa bat egin behar dute euskarazko arreta eman dezaketen profesional eta zerbitzuen inguruan, paziente eta erabiltzaileei halako zerbitzuak emateko neurriak martxan jar daitezten. Erakunde gehienetan egin da azterketa hori, eta neurriak garatu dira erabiltzaileen arretaren kalitatea hobetzeko.

Dena den, erakunde batzuetan, beharrezkoa da lanean jarraitzea “Euskaraz bai sano!” proiektu korporatiboaren zabalkundea egiteko eta hura sendotzeko. Profesional eta zerbitzu elebidunak identifikatzea du helburu kanpainak, euskaraz komunikatu nahi duten herritarrek argi eduki dezaten Osakidetza zer zerbitzu eta langilerekin hitz egin dezaketen euskaraz. Oro har, komeniko litzateke beste saio bat egitea identifikazio-sistema hori berriz sustatzeko, publikitate-kanpaina baten bitartez, garbi geratu baita eraginkorra izan dela euskararen erabilerari eta sustapenari begira.

Gainera, lehen mailako arretarako zentroetan, erabiltzaileei jakinarazi behar zaie aukera dutela familia-mediku, pediatra edo emagin euskalduna hautatzeko.

Ospitaleetako arreta espezializatuko zentroetan, beharrezkoa da gero eta espezialitate gehiagotan eskaintzea euskarazko zerbitzua, herritarrek asistentzia-zirkuitu osoa euskaraz jasotzea baita azken helburua.

e) Hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko estrategiak sustatzea

Zerbitzu-erakunde gehienetan, hizkuntza-eskakizunen ziurtagiriren bat duten langileak egoteak ez dakar pazienteek zerbitzu elebiduna jasotzea. Pertsona asko ez dira gai sentitzen euskarazko elkarrizketa bat izateko beste erabiltzaile euskaldun batzuekin; beldurra edo lotsa sentitzen dute, edo zailtasunak dituzte naturaltasunez eta egokitasunez hitz egiteko. Kasuren batean, pertsonaren batek adierazi du zigor gisa bizi duela euskara eguneroko lanean erabili behar izatea.

Horiek horrela, bada profesional-kopuru handi bat “e” etiketarik jantzi nahi ez duena eta euskaraz hitz egin nahi ez duena lehen agurrean, lehen esaldian eta, hala suertatuz gero, elkarrizketan berean, nahiz hala jokatzeko eskatzen den Osakidetza Euskara Planean. Hori oztupo

**Zuzendaritzan
lidergoarekin
batera,
beharrezkoa da
buruzagitza,
bigarren mailako
agintari eta
lantalde
profesionalen
arduradun
guztien
konpromisoa eta
inplikazioa
lortzea,
ezinbesteko
eragileak baitira
planeko irizpide
eta neurriak
behar bezala
aplikatzeko
zerbitzu eta
unitate guztietan.**

**Erakunde
gehienak
handiak direnez
eta sakabanatuta
daudenez,
segimendua
egitean, kasu
askotan ez da
sumatu
motibazio eta
inplikazio
handirik
zerbitzuburu eta
unitate-buruen
aldetik; hortaz,
hizkuntza-
irizpideak ez dira
behar bezala
transmititu eta
aplikatu.**

larria da Euskara Planaren helburu nagusia betetzeko: erabiltzaile guztiek beren lehentasun-hizkuntzan jasotzea arreta.

Hori dela eta, oso interesgarria litzateke sentsibilizaziorako eta profesionalen hizkuntza-ohiturak aldatzeko ekimenak egiten jarraitzea, profesionalak jarrera alda dezaten.

f) Euskaraz lan egiteko prestakuntza sustatzea

Hizkuntza hobetzea eta euskarazko prestakuntza jasotzea funtsezkoak dira euskararen erabilera areagotzeko, bai pazienteekiko harremanetan, bai barne-harremanetan. Horregatik, garrantzitsua da pausoak ematen jarraitzea eta euskaraz lan egiteko prestakuntza sendotzea eta hobetzea.

• Prestakuntza iraunkorra

Azken urteotan, prestakuntza-ikastaro korporatiboen eta erakundeetako prestakuntza-jardueren eta saio klinikoaren kopuruak gora egin du.

Euskarazko etengabeko prestakuntzarako ikastaro korporatiboak eskaintza osoaren % 38 izatera iritsi dira; ehuneko hori bat dator langile elebidunenarekin. Hala eta guztiz ere, ikastaro gehienak hobekuntzari eta trebakuntzari begirakoak dira, hau da, ez da prestakuntzarik ematen gai profesionali buruz, eta komeniko litzateke hori aldatzea. Gainera, ez da helbururik ezarri erakundeka, eta, horrenbestez, parte-hartzaileen kopurua asko aldatzen da erakunde batetik bestera.

Erakunde batzuetan, hasiak dira ikastaro propioak eta euskarazko saio klinikoak antolatzen, baina ehunekoa oso urruti dago behar lukeen indizetik, baita eremu soziolinguistiko euskaldunenetan ere.

• Lanari begirako hizkuntza-hobekuntza

Langile elebidunei korporazio-mailan zein erakunde-mailan eskaini zaie euskaraz hobeki lan egiteko prestakuntza. Hala, zeharkako gaiei buruzko ikastaroak eskaini dira: ahozko komunikazioa arretarako unitateetan, hizkuntza tekniko sanitarioa, administrazio-testuen idazketa... Nolanahi ere, profesional elebidun gutxiak parte hartu dute, eta zerbitzu edo unitateetan oso ikastaro gutxi antolatu da langile elebidunak, haien lanak, ohiko egoera komunikatiboak eta dokumentazio nagusia kontuan hartuta. Aurrerantzean, formula berriak bilatu behar lirateke hizkuntza-trebakuntzari beste ikuspegi bat emateko.

• Egoiliarren eta praktiketako langileen prestakuntza

Planaren aldi honetan, egoiliarrei eta praktiketako langileei euskarazko prestakuntza eskaintzen hasteko oinarri nagusiak finkatu dira, baina, salbuespenak salbuespen, oraindik ez da inongo proiekturik abiarazi. Hortaz, beharrezkoa da datozen urteetan alderdi hori sustatzea.

g) Langile ez-euskaldunak sentsibilizatzeko eta haiekin lan egiteko tresnak

Profesional ez-euskaldunen jarrera gero eta hobe da, baina oraindik ere sumatzen da kolektibo batzuek ez dituztela begi onez hartzen hizkuntza-normalizaziorako politikak.

Illo horretan, beharrezkotzat jotzen da kultura-aldaketa bat sustatzea eta kolektibo horiekin lan egitea, haiekin sentsibilizazioa lantzeko, Euskara Planera erakartzeko eta plana garatzen laguntzeko.

HEMENDIK AURRERAKOAK

II. Euskara Planaren bigarren hirurtekoan, arestian aipatutako hobetu beharreko nagusi horiei heldu zaie lehentasunez, indarguneak non ditugun ondo gogoan hartuta. Aldi berean, jakina, Osakidetza eta gizartearen errealitate aldakorrari erreparatu beharko zaio eta egoera berriei egokitzeko gaitasuna izan beharko dugu. Plangintzaldia amaitutakoan, 2019ko abenduan, Euskara Planaren ebaluazio orokorra egingo dugu, hain zuzen ere 2020 urteko lehen sei-hilekoan. Helburuen betetze mailaren eboluzioa zein izango den ikusiko da orduan eta hurrengo plangintzaldirako helburuak ezarri ahal izateko oinarriak zehazteko balioko digu. ●

OHARRAK

1. 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

255/1997 DEKRETUA, azaroaren 11koa, Osakidetza-Servicio Vasco de Salud - Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak.

2. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Cuenta Satélite del Gasto Sanitario Público, serie 2002 - 2015).

https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0ahUKE-wivm_a_ejZAhWJWRQKHVdqA_YQFggoMAA&url=https%3A%2F%2Fwww.msssi.gob.es%2FestadEstudios%2Festadisticas%2FsisInfSanSNS%2Fpdf%2FegspGastoReal.pdf&usq=AOvVaw38UaUNb8PODeKcTlkqYrg

3. Euskal Autonomia Erkidegoko osasun gastu osoaren % 26,8 aseguru pribatuen bidez edota zuzenean herritarrek haien poltsikoko dirutik ordaindutakoa da. Iturria: INE, Encuesta de presupuestos familiares, 2014 urtea (barne hartzen ditu produktu, tresneria eta ekipamendu medikoak; zerbitzu medikoak; dentista zerbitzuak; ospitale kanpoko zerbitzu paramedikoak; ospitaleko zerbitzuak eta gizarte babeseko zerbitzuak); ICEA, Seguro de Salud, 2014 urtea (barne hartzen ditu osasun arreta eta gastuen diru-itxultzea).

Beharrezkoa da lanean jarraitzea "Euskaraz bai sano!" proiektu korporatiboaren zabalkundea egiteko eta hura sendotzeko. Profesional eta zerbitzu elebidunak identifikatzea du helburu kanpainak, euskaraz komunikatu nahi duten herritarrek argi eduki dezaten Osakidetza zerbitzu eta langilerekin hitz egin dezaketen euskaraz.

**Zerbitzu-
erakunde
gehienetan,
hizkuntza-
eskakizunen
ziurtagiriren bat
duten langileak
egoteak ez dakar
pazientek
zerbitzu
elebiduna
jasotzea.**

4. Osakidetza-Euskal Osasun zerbitzuko postu funtzionalak arautzen dituen 186/2005 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ente Publikoaren langileen egitura antolatzen duten Zerbitzu Erakunde bakoitzeko postu funtzionalak zehazten dira. Hauek pertsonalaren sailkapenerako tresna bat osatzen dute, titulazio taldearekin, talde profesionalarekin eta kategoriarekin batera. Hementxe daude eskuragarri postu funtzionalak: https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkrrhh05/eu/contenidos/informacion/plan-tilla_funcional/eu_def/index.shtml
5. 67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, Osakidetza Euskararen erabilera normalizatzeko dena. EHAA - 2003ko martxoak 31.
6. ERABAKIA, 2013ko abenduaren 3koa, Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana onartzen duena. 2014ko otsailaren 11ko EHAA.
7. Osakidetza Euskara Plana ebaluatzeko lehiaketa publikoa: http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-ekcont02/es/contenidos/anuncio_contratacion/exposakidetza25929/es_doc/es_arch_exposakidetza25929.html?ruta=/r85-ekcont01/es/v79aWar/comunJSP/v79aSuscribirRSS.do?R01HPortal=r85&R01HPage=ekcont01&R01HLang=es&widget=true&p01=FO&p02=&p03=40&p04=&p05=&p06=&p07=&p08=&p09=&p10=&p11=&p12=&p13=&p14=&p15=06%2F03%2F2018&p16=&p17=AMPLIADO&p18=false&p19=false&p20=false&p21=es&p22=ultimos30dias&p23=&p24=r85-ekcont01&p25=r85-ekcont02&p48=&p51=1
8. Osakidetza Euskara Plana ebaluazio txosten orokorra: http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskara_plana/eu_def/adjuntos/Eusk_Planaren_tarteko_ebaluazio_txostena.pdf
9. http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkrrhh10/eu/contenidos/informacion/euskara_plana/eu_def/index.shtml
10. Osakidetza Euskara Plana 2.3. atala (ERABAKIA, 2013ko abenduaren 3koa, Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana onartzen duena).
11. Osakidetza Euskara Plana ebaluazio-txostenaren 2 Eranskinean daude jasota inkesten erantzun guztiak.
12. Osakidetza Euskara Plana. 2.2.a. atala. (ERABAKIA, 2013ko abenduaren 3koa, Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana onartzen duena.)
13. 13/2012 Jarraibidea, Giza Baliabideetako zuzendariarena, Zerbitzu, unitate eta profesional elebidunak identifikatzeko proiektuari buruzkoa (<https://ope2016-2017.osakidetza.eus/ProcesoSelectivo/A21009/DocInteres2.pdf>)
14. Identifikazio eskuliburua /Manual de identificación (http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/otras_publicaciones_euskera/es_osk/adjuntos/manual_identificacion.pdf)
15. Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa ebaluatzen duen BIKAIN kalitate ziurtagiri-aitortzak: <https://www.euskalit.net/bikain/eus/reconocimientos.php?id=2>
16. 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
17. Osasun arloko ikasleentzako triptikoa (http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/otras_publicaciones_euskera/eu_osk/adjuntos/osasun_triptikoa.pdf)
18. <https://www.uik.eus/eu/osasuna-eta-hizkuntza>

Amul been nit ku leegalul




Atera
aldarria
kalera
euskaraz
eta wolofez!

Kamiseta
bakoitzeko 2 euro
Mbolo proiektura
bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak
martxan jartzen
ari diren garbiketa
kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan:

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545



Minik handiena burutik etorri dena

Naiara Ozamiz eta Leire Erkoreka

Euskal Herriko Unibertsitatea. Medikuntza eta erizaintza fakultatea.

Neurozientziak saila. Psikiatria

naiara.ozamiz@ehu.eus

leire.erkoreka@ehu.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Euskal Herria eremu elebiduna bada ere, osasun sisteman gaztelera erabiltzen da batez ere. Osasun mentalaren alorrean, bereziki, garrantzitsua da hizkuntza. Gaixotasun psikiatrikoen zeinu eta sintomak hizkuntzaren bidez adierazten dira, eta pazientearen hizkuntzak ez badira menperatzen, txarto ulertuak eman daitezke. Identitatearen bilakaeran hizkuntzak garrantzia handia du eta, ondorioz, pazienteak bere terapeutarekin aliantza terapeutikoa sortzean ere bai. Paziente elebidunen ebaluazioak beraiei bi hizkuntzetan egin beharko lirarteke, bai kliniko elebidun batekin edo bai kliniko elebatar batekin, interprete baten laguntzarekin. Elebitasuna eta psikoterapiaren arteko harremanari buruzko ikerketa gehienak psikoterapia dinamikoaren ikuspuntutik egin dira. Artikulu honetan gai guzti hauek lantzen dituzten artikuluen bilaketa bat egin dugu eta Euskal Herrian psikoterapeuta elebidunen beharra justifikatu dugu. • **Hitz gakoak:** *elebitasuna, psikoterapia, identitatea, psikoterapia dinamikoa, euskara.*

Abstract. Although the Basque Country, Euskal Herria, is a bilingual area, the health care system is mainly carried out in Spanish. In the field of mental health, language is particularly important. Signs and symptoms of psychiatric illnesses are expressed through language, and if the patient's languages are not mastered, they might be misunderstood. As identity evolves, language is of great importance and, as a result, the patient also a therapeutic connection with their therapist. Any assessment of bilingual patients should be conducted in both of their languages, whether it be at a bilingual clinic or at a monolingual clinic with the support of an interpreter. Most studies on the relationship between bilingualism and psychotherapy have come from the perspective of dynamic psychotherapy. In this article, we have undertaken a search of articles which deal with all of these issues and which justify the need for bilingual psychotherapists in the Basque Country. • **Key words:** *bilingualism, psychotherapy, identity, dynamic psychotherapy, Basque.*

SARRERA

I

Gaur egun gizartearen gehiengoa elebiduna da; Europako herrialde gehienetan, Asian, Afrikan eta Hego Amerikan gehiengoa elebiduna edo eleanitza da (de Zulueta 1984). Euskal Herria ere eremu elebiduna da, baina osasun sisteman gaztelera erabiltzen da, batez ere.

Harreman terapeutikoan hizkuntzan oinarrituta dauden txarto ulertuak eman daitezke. Hasteko, osagilearen teknizismoen erabilerak eta pazientearen jargoiak berak ere, komunikazio arazoak ekar ditzake. Imajinatu orduan, kontsulta norberaren ama hizkuntzan egiten ez denean sortu daitezkeen txarto ulertuak (Killian, Coletti 2017).

Osasun mentalaren alorrean, bereziki, garrantzitsua da hizkuntza. Izan ere, gaixotasun psikiatrikoen zeinu eta sintomak hizkuntzaren bidez adierazten dira. Osasun mentalean ez dago, beste alor batzuekin alderatuta, diagnostiko frogaririk. Gaixotasun psikiatriko gehienek, gainera, hizkuntzari eragiten diote. Hizkuntzaren jariokortasuna pazientearen egoera klinikoaren arabera aldatu daiteke. Depresioan mintzaira moteldu daiteke, eta, agerraldi maniako batean, aldiz, nabarmenki bizkortzen da, ideien ildoak galdu egiten da (Oquendo 1996). Beraz, hizkuntzak gaixotasun mentalak ulertzerako orduan garrantzi handia dauka.

Artikulu honetan zehar elebitasuna eta aldagai psikologiko desberdinen artean dagoen loturari buruzko hainbat alderdi aztertuko ditugu. Beste herrialde batzuetan elebitasunaren inguruan idatzitako artikuluak eta ikerketak aipatuko ditugu, eta, ondoren, euskarari dagokionez, oinarri hauek nola aplikatu daitezkeen aztertuko dugu.

HAURTZAROA ETA IDENTITATEAREN BILAKAERA

I

Jaio aurreko psikologiaren arabera, haurra umetokian dagoenetik soinuak entzuteko gai da. Hogeita hirugarren astetik aurrera haurra umetokitik entzuteko gai da, eta horren adierazle nagusia, batzuetan, musika ipintzen zaionean amaren sabelean mugimenduak egiten dituela da. Haurra kapaza da soinuen memoriak izateko, batez ere, amaren hizkuntzarekin harremandutako oroitzapenak. Jaio ondoren, umeak eta bere zaintzaileek sortzen duten harremanean zehar, hizkuntzak gero eta eragin handiagoa izango du harreman emozionala sortzeko orduan. Sei-zortzi hilabeterekin, umea zezelka hasten denean, komunikatzeko egiten dituen soinuek antza handia dute gurasoen komunikatzeko moduarekin. (Maiello 1997).

Artikulu honetan zehar elebitasuna eta aldagai psikologiko desberdinen artean dagoen loturari buruzko hainbat alderdi aztertuko ditugu. Euskarari dagokionez, oinarri hauek nola aplikatu daitezkeen aztertuko dugu.

Egile batzuek diotenez, psikoterapeutak gaixoaren ama hizkuntzan hitz egiteak harreman terapeutikoa eta tratamendua- rekiko atxikimendua hobetzen ditu (Smith 2012).

Pazienteek bere ama hizkuntzan hitz egiteko gaitasuna duten terapeutekiko hurbiltasun eta konfiantza handiagoa agertzen dutela aztertu dute hainbat ikerketek (Kokaliari, Catanzarite et al. 2013).

Hamabi- hamasei hilabeterekin, haurrak bere lehenengo hitzak esaten ditu. Ikasten duen lehenengo hizkuntza, bere lorpen handiena izango da, identitate propioa sortzen hasteko, eta besteekin modu eraginkorrago batean harremantzeko.

Gurasoengandik banantzen doan heinean, besteekin komunikatzen ikasiko du. Beraz, lehenengo hizkuntza hau oso boteretsua izango da gizakiarentzat, eta bere identitatea hizkuntza horrekin oso lotuta egongo da (Charlotte 1991).

Arrazoi guzti hauengatik, hizkuntzak garrantzi handia dauka identitatearen sorreran eta nortasunaren garapenean. Jaio garenetik emozioak garatzen gaudelako eta emozioak hizkuntza bati lotuta izaten ditugulako.

Horregatik, maitasuna, haserrea, segurtasuna, antsietatea eta niaren esperientziak, gure zaintzaileengandik jaso genituen lehenengo esperientzietan daukate oinarria, hau da, batez ere lehen hizkuntzarekin. Bigarren hizkuntza bat ikastean, ordea, sormena, adaptazioa eta malgutasun intelektuala bezalako gaitasunak errefortzatu daitezke (Kokaliari, Catanzarite et al. 2013).

Hau dela eta, pazienteak bere terapeutarekin aliantza terapeutikoa sortzean, emozioek eragin handia dute, eta, ondorioz, hizkuntzak ere bai. Egile batzuek diotenez, psikoterapeutak gaixoaren ama hizkuntzan hitz egiteak harreman terapeutikoa eta tratamenduarekiko atxikimendua hobetzen ditu (Smith 2012).

Pazienteek bere ama hizkuntzan hitz egiteko gaitasuna duten terapeutekiko hurbiltasun eta konfiantza handiagoa agertzen dutela aztertu dute hainbat ikerketek (Kokaliari, Catanzarite et al. 2013).

ELEBITASUNA ETA PSIKOTERAPIA

I Elebitasuna, psikoterapian erronka handia izan daitekeen fenomeno konplexua da. Ikerketa askok erakutsi dutenez, paziente elebidunekin lan egiten duten terapeuta elebakarrek, hizkuntza ikusten dute hesi nagusi bezala (Nguyen 2014). Gainera, paziente elebidunek, elebidunak diren terapeutak sinesgarriagoak eta gaitasun handiagokoak hautematen dituzte (Pérez Rojas, Gelso et al. 2014).

Hainbat terapeutek esaten dutenez, esfortzu handiagoa egin behar izaten dute paziente elebidunekin harremandu behar dutenean. Edo beste modu batera konektatu behar dute askotan. Gainera, elebidunak ez

diren hainbat terapeuta deseroso sentitu daitezke beren pazienteak bi hizkuntza dakizkielako, eta berak, soilik, bat dakielako (Bowker, Richards 2004). Pazienteak ere, badirudi bigarren hizkuntzan hitz egin behar dutenean esfortzu kognitibo handiagoa egin behar dutela.

Idealki, paziente elebidunak bi hizkuntzatan ebaluatua izan beharko lukete. Bigarren hizkuntzan ebaluatzen eta tratatzen duten klinikoei kulturaren xehetasunak galdu bait ditzakete pazienteak tratatzerakoan. (Oquendo 1996)

Gainera, autore desberdinek diotenez, pazienteak identitate desberdinak erabili ditzake hitz egiten duen hizkuntzaren arabera. Esanahi eta emozio desberdinak izan ditzakete lotuta hizkuntza bakoitzarekin. Izan dituzten bizipen desberdinak, bizitzako egoera eta garai desberdinetan, hizkuntza desberdinekin lotuta egon daitezke, gertakariak leku hartu zuen momentuaren arabera.

Hainbat egilek diotenez, bigarren hizkuntza batean hitz egitea, defentsak mekanismo bat izan daiteke, adibidez, lehenengo hizkuntzan bizitako gertakizun bat oso traumatikoa izan denean. Inkontzienteki, terapien bigarren hizkuntzan hitz egitea, distantzia emozionala sortzeko izan daiteke. (de Zulueta 1984).

Bestalde, pertsona elebidunetan normala da hizkuntzaz aldatzea, eta badirudi lagungarria izan daitekeela prozesu terapeutikoan (Marcos, Eisma et al. 1977). Hainbat autorek diotenez, hizkuntza batetik bestera aldatzea lagungarria izan daiteke aliantza terapeutikoa sortzeko eta pazienteak esanguratsuen zaien hizkuntzan espresatu daitezen (Santiago-Rivera, Altarriba et al. 2009).

Badirudi esperientzia gero eta estresagarri eta traumatikoa izan, orduan eta probabilitate gehiago dagoela esperientzia hau gertatu zen hizkuntzan adierazteko. Horregatik, egoera traumatikoei buruz ama hizkuntzan hitz egiteak, pazienteak lagundu dezake oroitzapen errepresibituak, gertakariak eta xehetasunak modu egokiagoan espresatu ahal izatera. Paziente elebidunek askotan beraiekin ama hizkuntzan hitz egiten dute emozio gogorrak adierazi behar dituztenean, amesten dutenean edo traumaz edo heriotzaz hitz egin behar dutenean.

Sintoma psikotikoei dagokienez, paziente askok sintoma psikotiko gutxiago erakutsi ditzakete bigarren hizkuntzan hitz egitean (Oquendo 1996). Beraz, sintoma psikotiko gehiago adierazten dituzte lehenengo hizkuntzan. Gainera, hainbat kasu ikerketek erakutsi dutenez, entzu-

Idealki, paziente elebidunak bi hizkuntzatan ebaluatua izan beharko lukete.

Pazienteak identitate desberdinak erabili ditzake hitz egiten duen hizkuntzaren arabera. Esanahi eta emozio desberdinak izan ditzakete lotuta hizkuntza bakoitzarekin. Izan dituzten bizipen desberdinak, hizkuntza desberdinekin lotuta egon daitezke.

**Paziente
elebidunek
askotan beraien
ama hizkuntzan
hitz egiten dute
emozio gogorrek
adierazi behar
dituztenean,
amesten
dutenean edo
traumaz edo
heriotzaz hitz
egin behar
dutenean.**

**Hizkuntza eta
kultura guztiz
elkarturik
daudenez,
bigarren
hizkuntzak
lehenengo
hizkuntzan bere
kulturagatik
adieraztea zaila
diren edukiak
adieraztera
lagundu
diezaioke
pazienteari.**

menezko haluzinazio agresiboak bigarren hizkuntzan entzuten dira askotan, lehenengo hizkuntzan, berriz, babesekoak direnean. (de Zuñeta 1984)

Azkenik, hizkuntza eta kultura guztiz elkarturik daudenez, bigarren hizkuntzak lehenengo hizkuntzan bere kulturagatik adieraztea zaila diren edukiak adieraztera lagundu diezaioke pazienteari. Hainbat kulturatan sexualitate edo agresioaren inguruan debekuak egon daitezke, eta horrek beraien hizkuntzan emozio horiek adieraztea mugatuagoa izan dezake. Bigarren hizkuntza batek gai horien inguruan espresatzea lagundu dezake edo hainbat esperientzia modu berrian espresatzeko aukerak eman ditzake (La Roche 1999).

INTERPRETEAK

I Pazientearen tratamenduan, bigarren hizkuntza erabiltzeak, eragin desberdinak ditu. Askotan pazienteek ebaluazio psikiatrikoa bigarren hizkuntzan jasotzen dute, baina beraien hizkuntza gaitasuna desberdina da gaixotasunaren fasearen arabera. Paziente elebidunen ebaluazioak beraien bi hizkuntzetan egin beharko lirateke, bai kliniko elebidun batekin edo bai kliniko elebakar bat, interprete baten laguntzarekin.

Egile gehienek interprete profesionalen erabileraren garrantzia azpimarratzen dute. Senideek itzulpenak egin baditzakete ere, interpreteak modu profesionalagoan egin dezake. Izan ere, kulturalki txarto ikusita dagoen informazioa ezkatututa gera daitekeelako, bai gaixoak senideari adierazi nahi ez diolako, edo senideak osagileari.

Interpreteari dagokionez, eta ñabardura kultural hauek kontutan hartu ahal izateko, egokiena da gaixoaren kultura elkarbanatzen duen interpretea edukitzea. Gaur egun, gainera, gaixoaren autonomia sustatzen den garai honetan, bereziki garrantzitsua da osagile eta gaixoak euren artean ondo ulertu ahal izatea, ulermen egoki batek bakarrik ahalbidetuko duelako gaixoak erabakiak libreki hartu ahal izatea (Partida 2007).

Ikerketa batean, bigarren hizkuntzan psikoterapia jaso zuten paziente elebidun batzuk aztertu zituzten. Talde batek, beren ama hizkuntzarako itzultzaile-interpretea izan zuen, eta beste batek ez. Interpretea izan zuten pazienteak gehiago ulertu zituztela eta gehiago lagundu zituztela sentitu zuten. Gainera psikoterapiara bueltatu nahi izan zuten. Interpretea izan ez zutenek berriz, ulertu ez zituztela sentitu zuten, eta ez zuten nahi izan terapiara bueltatu (Kline, Acosta et al. 1980).

PSIKOTERAPIA DINAMIkoa

Interes handia egon da beti elebitasunak psikoterapia dinamikoarengan izan dezakeen eraginean. Psikoterapia dinamikoan hizkuntza da tresnarik garrantzitsuenak, eta badirudi elebitasunak eragina izan dezakeela komunikazioan, eta psikoterapiaren prozesuan. Oztopo nagusia bigarren hizkuntzan informazioaren prozesamenduan defizitak izatea da, eta ondorioa emozioak modu egokian ez adieraztea izan daiteke. Pazienteak arreta handiagoa ipini diezaioke gauzak esaten dabilen moduari, esaten dabilenari baino (Marcos, Alpert 1976).

Psikoanalisian, lehenengo hizkuntza esperientzia afektibo sakonen hizkuntza bezala ikusia da, beharrezkoa lehen urteetako gatazkak eta antsietateak lantzeko. Bigarren hizkuntzak, berriz, lehenengo harremanekiko distantzia handia sortzen duela uste da (Walsh 2014).

Psikoanalisian, transferentzia, eriak haurtzaroan zaintzaileekiko zituen sentimenduak psikoanalistarengana zuzentzean datzan prozesua da. Transferentziari dagokionez, pazienteak bere ama hizkuntzan hitz egiten duen terapeuta batekin elkartzen denean, konfiantza gehiago erakutsi dezake. Gainera, eduki traumatikoei eta desira eta sentimendu sakonagoei buruz hitz egiteko jarrera erakutsi dezake ere. Pazienteak eta terapeutas hizkuntza berdina hitz egiten ez dutenean, berriz, pazienteak mesfidantza erakutsi diezaioke terapeutari, gezurrak esanez, pasiboa izanez eta jokabide anibalenteak izanez.

Kontrakoa ere gerta daiteke, pazienteak herrialde berria idealizatu izan dezake, eta aldi berean, terapeuta berria ere idealizatu dezake (Foster 1998).

Kontratransferentziak, psikoanalistak pazientearekiko dituen erreakzio, jarrera, pentsamendu eta ideia inkontzienteak adierazten ditu. Bere bizitzan izan dituen harremanen desio inkontzienteak transferitzen dira orain pazientearekin duen harremanera. Hizkuntzaren aldetik, kontratransferentziari dagokionez, aldagai kulturek ere eragina izan dezakete honetan. Kontratransferentzia sinpatiazkoa izan daiteke, pazienteak gehiegi babestuz. Aurkako poloan, agresio bezala agertu daiteke, batez ere historikoki antagonikoak izan diren herriak izan badira (Comas-Díaz, Jacobsen 1991).

Ikerketa bat egin zen non hamar psikoterapeuta elebidun elkarrizketatu zituzten hizkuntzak psikoterapian zuen garrantzia aztertzeko, eta aurkikuntzak sei ondorio nagusitan laburbildu zituzten: (Kokaliari, Catanzarite et al. 2013)

Egile gehienek interprete profesionalen erabileraren garrantzia azpimarratzen dute. Egokiena da gaixoaren kultura elkarbanatzen duen interpretea edukitzea.

**Psikoanalisian,
lehenengo
hizkuntza
esperientzia
afektibo sakonen
hizkuntza bezala
ikusia da,
beharrezkoa
lehen urteetako
gatazkak eta
antsietateak
lantzeko.
Bigarren
hizkuntzak,
berriz, lehenengo
harremanekiko
distantzia handia
sortzen duela
uste da (Walsh
2014).**

Ama hizkuntzaren garrantzia: Psikoterapeuta guztiek esan zuten beraien paziente elebidunek ama hizkuntza erabiltzen zutela beraiek maite zuten zerbaitez hitz egitean edo hainbat hitz ama hizkuntzan erabiltzen zituztela edukiren bat nabarmendu nahi zutenean. Paziente gehienek ametsei buruz hitz egitean ere, ama hizkuntzan egiten zuten.

Hizkuntza eta traumaren kontakizuna: Terapeuta gehienek esan zutenez, trauma zailagoa da bigarren hizkuntza batean azaltzea, eta beraien pazienteek ama hizkuntza erabiltzen zuten traumari buruz hitz egitera koan. Gainera, trauma gertatu zeneko adina garrantzitsua zen ere azaltzeko aukeratzen zuten hizkuntza. Hala ere, bigarren hizkuntzak lagundu dezake ere trauma bat azaltzeko orduan. Kulturalki ama hizkuntzan hainbat edukiz hitz egitea debekatua egon daiteke eta bigarren hizkuntzak honetan lagundu dezake. Adibidez, abusu sexuala ama hizkuntzan adieraztea zailagoa egin ahal zaio pertsona bati lehenengo hizkuntzan gai honekiko debekuak baldin badaude

— *Hizkuntza eta balio kulturalak* : Pazienteek balore desberdinak hizkuntza desberdinetan adierazten zituzten.

— *Hizkuntza eta identitatea:* Bai pazienteek eta bai terapeutek identitate desberdinak erakusten zituzten hizkuntza desberdinetan.

— *Hizkuntza eta transferentzia:* Terapeuta gehienak ados egon ziren hizkuntzak konfidantzan eragina izan dezakeela. Gainera, hizkuntza berdina erabiltzeak intimitatea erakutsi dezake.

— *Hizkuntza eta kontratransferentzia:* Terapeutek beraien pazienteekiko kontratransferentzia desberdinak zituztela ere ikusi zuten. Terapeuta batzuek gertutasun gehiago sentitzen zuten beraien kultura partekatzen zuten pazienteekiko. Beste batzuek, berriz, inolako eraginik ez zutela ikusten esan zuten.

ONDORIOAK

I

Elebitasuna, linguista, psikologo eta soziologoengandik aztertua izan da beti. Nahiz eta literaturak ikuspuntu desberdinak erakusten dizkigun, argi dago, hizkuntzak, nortasunaren formazio eta integrazioan eragin handia duela. Horregatik, osasun mentalaren arloan, ardura handia dago ezagutzeko zein eragin emozional eta intelektual izan dezakeen pertsonarengan (Marcos, Eisma et al. 1977).

Euskara ama hizkuntza dugunontzat, euskara da gure haurtzaroko hizkuntza, gure lehenengo hitzak euskaraz izan dira, eta gure identitatea euskaraz sortu dugu. Euskaraz erosoago sentitzen gara komunikazioan

eta atxikimendu gehiago sortzen dugu euskaraz hitz egiten duen jendearekin. Lotura emozionalak sortzen ditugu gure ama hizkuntza hitz egiten duen jendearekiko. Arrazoi intimo horiengatik mediku, psikologo, erizain ... euskaldun batekin aurkitzen garenean, errazagoa izan daiteke harreman estua sortzea hasieratik (Ozamiz Etxebarria, Ortiz Jauregi et al. 2016).

Artikuluari zehar beste herrialdeetan egindako ikerketak aztertu ditugu, eta teoria guzti hauek gure herri elebidunera aplikatu daitezkeela ikusi dugu.

Esan bezala, haurtzarotik gaude identitatea sortzen, eta euskara lehenengo hizkuntza izan duten pertsonentzat, beraien lehenengo emozioak eta identitatea euskaraz sortu dituzte. Beraien lehenengo bizipen eta harremanak euskaraz izan dira, eta horregatik, hainbat emozio eta bizitzako gertakizun lehenengo hizkuntza honetan adierazteko erraztasun handiagoa izango dute. Adibidez, beraien lehenengo maitasun emozioak euskaraz izan dira, eta emozio horiek euskaraz espresatzeko erraztasun handiagoa izan dezakete, gaztelera arrotza sentituz.

Bigarren hizkuntza batek ere kognitiboki beste funtzio batzuk garatzeko aukera eman die euskaldun zaharrei: sormena, adaptazioa eta elastizitatea. Emozioei dagokienez gerta daiteke ere bizitzako hainbat gertakizun eta emozio bigarren hizkuntza honetan adierazteko beharra izatea, izan dituzten bizipen batzuk bigarren hizkuntza horrekin lotuta egon daitezkeelako.

Psikoanalisian aipatu ditugun hizkuntzaren fenomenoak, beste edozein terapiari ere aplikatu daitezke. Gaur egun psikoterapia mota asko daude, kognitibo konduktualak, humanistak, familiakoak... Baina korronea bata edo bestea izanda ere, paziente eta terapeutaren artean harreman bat gertatzen da, eta transferentziak, kontratransferentziak, kulturak eta identitateak hizkuntzarekin duen harremanak eragin handia izan dezake terapeutarekiko atxikimendu honetan. Fenomeno guzti hauetan, terapeutak pazientearen ama hizkuntzan hitzegiteak lagundu egiten duela aztertu da, komunikazioa erraztuz eta atxikimendua indartuz.

Ikusi dugunaren arabera, artatze psikiatriko eta psikologikoan garrantzitsua litzateke, ama hizkuntza euskara duten gaixoen artean, azterketa euskaraz egitea, sintomen ikuspegi zabalagoa jaso, atxikimendu hobea lortu eta orokorrean tratamendua eraginkorragoa izateko.

Guzti honengatik, Euskal Herria, herri elebiduna izanda, psikoterapeuta elebidunen beharra dagoela ondorioztatzen dugu. Pazienteak modu egokian diagnostikatuak eta tratatuak izan daitezten. ●

**Euskara
lehenengo
hizkuntza izan
duten
pertsonentzat,
beraien
lehenengo
emozioak eta
identitatea
euskaraz sortu
dituzte.
Horregatik,
hainbat emozio
eta bizitzako
gertakizun
lehenengo
hizkuntza
honetan
adierazteko
erraztasun
handiagoa izango
dute.**

**Emozioei
dagokienez gerta
daiteke ere
bizitzako hainbat
gertakizun eta
emozio bigarren
hizkuntza
honetan
adierazteko
beharra izatea,
izan dituzten
bizipen batzuk
bigarren
hizkuntza
horrekin lotuta
egon
daitezkeelako.**

BIBLIOGRAFIA

- BOWKER, P. and RICHARDS, B., 2004. Speaking the same language? A qualitative study of therapists' experiences of working in English with proficient bilingual clients. *Psychodynamic Practice*, 10(4), pp. 459-478.
- CHARLOTTE, H., 1991. An introduction to bilingualism.
- COMAS-DIAZ, L. and JACOBSEN, F.M., 1991. Ethnocultural transference and countertransference in the therapeutic dyad. *The American Journal of Orthopsychiatry*, 61(3), pp. 392-402.
- DE ZULUETA, F.I., 1984. The implications of bilingualism in the study and treatment of psychiatric disorders: a review. *Psychological medicine*, 14(3), pp. 541-557.
- FOSTER, R.P., 1998. *The power of language in the clinical process: Assessing and treating the bilingual person*. Jason Aronson.
- KILLIAN, L. and COLETTI, M., 2017. The Role of Universal Health Literacy Precautions in Minimizing "Medspeak" and Promoting Shared Decision Making. *AMA journal of ethics*, 19(3), pp. 296-303.
- KLINE, F., ACOSTA, F.X., AUSTIN, W. and JOHNSON, R.G., Jr, 1980. The misunderstood Spanish-speaking patient. *The American Journal of Psychiatry*, 137(12), pp. 1530-1533.
- KOKALIARI, E., CATANZARITE, G. and BERZOFF, J., 2013. It Is Called a Mother Tongue for a Reason: A Qualitative Study of Therapists' Perspectives on Bilingual Psychotherapy—Treatment Implications. *Smith College Studies in Social Work*, 83(1), pp. 97-118.
- LA ROCHE, M.J., 1999. Culture, transference, and countertransference among Latinos. *Psychotherapy: Theory, research, practice, training*, 36(4), pp. 389.
- MAIELLO, S., 1997. Sound-aspects in mother-infant observation. *Developments in infant observation: The Tavistock model*, , pp. 157.
- MARCOS, L.R. and ALPERT, M., 1976. Strategies and risks in psychotherapy with bilingual patients: the phenomenon of language independence. *The American Journal of Psychiatry*, 133(11), pp. 1275-1278.
- MARCOS, L.R., EISMA, J.E. and GUIMON, J., 1977. Bilingualism and sense of self. *American Journal of Psychoanalysis*, 37(4), pp. 285-290.
- NGUYEN, B.P., 2014. Identification: a qualitative study of the experiences of bilingual therapists with their monolinguals and bilingual clients. *Psychodynamic Practice*, 20(4), pp. 340-355.
- OQUENDO, M.A., 1996. Psychiatric evaluation and psychotherapy in the patient's second language. *Psychiatric services (Washington, D.C.)*, 47(6), pp. 614-618.
- OZAMIZ ETXEBARRIA, N., ORTIZ JAUREGI, A., GUIMON UGARTECHEA, J. and ESCOBAR, J.I., 2016. Personality Disorders in the

- Basque Region of Spain: Applicability of DSM-5's Alternative Criteria for Personality Disorders. *The American Journal of Psychiatry*, 173(8), pp. 769-770.
- PARTIDA, Y., 2007. Language barriers and the patient encounter. *The virtual mentor : VM*, 9(8), pp. 566-571.
- PÉREZ ROJAS, A.E., GELSO, C.J. and BHATIA, A., 2014. To switch or not to switch: Inviting bilingual clients to switch languages in psychotherapy. *Counselling Psychology Quarterly*, 27(1), pp. 55-74.
- SANTIAGO-RIVERA, A.L., ALTARRIBA, J., POLL, N., GONZALEZ-MILLER, N. and CRAGUN, C., 2009. Therapists' views on working with bilingual Spanish-English speaking clients: A qualitative investigation. *Professional Psychology: Research and Practice*, 40(5), pp. 436.
- SMITH, K.L., 2012. Language barriers in the emergency room. *The virtual mentor : VM*, 14(4), pp. 301-304.
- WALSH, S.D., 2014. The bilingual therapist and transference to language: language use in therapy and its relationship to object relational context. *Psychoanalytic Dialogues*, 24(1), pp. 56-71.
- Artatze
psikiatriko eta
psikologikoan
garrantzitsua
litzateke, ama
hizkuntza
euskara duten
gaixoen artean,
azterketa
euskaraz egitea,
sintomen
ikuspegi
zabalagoa jaso,
atxikimendu
hobea lortu eta
orokorrean
tratamendua
eraginkorragoa
izateko.**

BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDE TASUNA

3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIKOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZ: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUOPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/XHEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZ HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZ PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLOGIAZKO INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKARAREN ERROKKA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGICA **AGORTUA**

26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILEEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ

31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLOGIAZKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/UEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLOGIAZKO INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE-ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAIONA EUROHIRIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRISKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAEko ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAIN

59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLOGIAZKOAK IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006. EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

70/EUSKARAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN... LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

83/KULTURGINTZA EUSKARAREN GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLOGIAZKO IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA

91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAZKO (1981-2011), (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK

100/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAZKO (1981-2011), (II) ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKAREKIKO

102/IX. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK (II) ERABILERA

103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA: EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK

104/HIZTUN BERRIAK

105/X. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAZKO SARIK

106/EUSKAL SOZIOLOGIAZKO 2016KO DATU ESTATISTIKOAK

107/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA (II)

3

Zirkuitu elebidunetarantz lehen pausua

Bidane Petralanda Mendiola

Medikua

bipetralanda@gmail.com

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Ikerketa honetan Osakidetzaren II. Euskara Planean proposatutako euskarazko asistentzia-zirkuituak Euskal Autonomia Erkidegoko osasun profesionalen eta pazienteen arteko hizkuntza-mugei aurre egiteko baliabide aproposak diren jakin nahi izan da. Horretarako, zirkuituen funtzionamendua aztertu da Arrasateko ESIko urologia zerbitzuko eta Arabako ESIko haur-urologia zerbitzuko zirkuituen arduraduna elkarrizketatuz, eta horien eraginkortasuna aztertu da zirkuitudun zerbitzuak populazio eta adin-tarte bereko zirkuiturik gabeko beste zerbitzu birekin alderatuz. Emaitzek erakutsi dute zirkuituek osasun arreta euskaraz jaso nahi duten paziente kopurua neurtzeko, kontsulta guztien artean zenbat diren benetan euskaraz zenbatzeko, eta mediku euskaldunek euskaraz artatuak izan nahi duten pazienteekin euskaraz hitz egingo dutela bermatzeko balio dutela. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan mediku euskaldunak egoteak ez du bermatzen pazienteak osasun arreta euskaraz jasoko duenik; aldiz, jarrera proaktiboek, adibidez, euskarazko asistentzia-zirkuituek, horretan laguntzen dutela ikusi da. • **Hitz gakoak:** *hizkuntza-mugak, komunikazioa, kalitatea, osasungintza, euskara, asistentzia-zirkuituak.*

Abstract. The overall object of this research paper is to discuss the suitable resources available to tackle language barriers between health professionals and patients which have been proposed in Osakidetza's second Basque Language Plan. For this purpose, the operation of the language tracks has been analyzed by interviewing those responsible for HMO Urological Services in Arrasate and the HMO's children's urological service track in Alava in which their efficiency is scrutinized by comparing services offered to the same population group with other language tracks of the same age group without the two other services. The results have shown that the number of patients who wish to receive health care in Basque is used to measure how many of the consultations are actually conducted in Basque and to ensure that Basque-speaking doctors use Basque with patients who want to be attended to in Basque. In fact, the presence of Basque-speaking physicians in the Basque Autonomous Community does not guarantee that patients receive health care in Basque. On the other hand, it has been observed that proactive attitudes, such as having attendance tracks in Basque, have been helpful. • **Key words:** *language boundaries, communication, quality, health, language, attendance tracks.*

1. SARRERA

I

Osasuna ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala elkartzen dituen gizabanakoaren egoera bezala definitu zuen Osasunaren Munduko Erakundeak 1946an. Ordutik geroztik, eredu biopsikosoziala nagusitu izan da, kalitatezko osasun arreta eskaintze aldera.

Pazientean zentratutako arreta da bilatzen dena, eta horretarako, zerbitzua pazientearen ezaugarrietara egokitu behar da ezinbestean: adina, sexua, ingurunea, nahiak, sinesmenak edota hizkuntza, aintzat hartu beharreko aldagaiak dira kalitatezko osasun arreta eskaintze aldera.

Osasun arreta kalitatezkoa izateko beste baldintzetako bat segurtasuna da. Segurutzat daukagu pazienteari kalterik eragingo ez dion jarduna, eta hori lortzeko, besteak beste, profesionalaren eta pazientearen arteko komunikazioa bermatuta egon beharko da osasun jardueraren urrats desberdinetan (Roberts et al. 2013).

Komunikazioak muga ugari aurki ditzake jardun horretan. Hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituzten edota hizkuntza bera maila ezberdinetan menperatzen duten pertsonen arteko komunikazio arazoei hizkuntza-muga deritze. Nazioarteko zenbait ikerketek erakutsi dutenez, harreman estua dago osasun arretaren segurtasunaren eta hizkuntza-mugen artean, eta hortaz, harreman estua dago kalitatezko osasun arretaren eta hizkuntzaren artean, biak banaezinak direla esan ahal izateraino (Johnstone et al. 2006; Divi et al. 2007; Suurmond et al. 2010).

Munduko berrehun herrialdeetan sei mila hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira eta biztanleriaren % 65 elebiduna dela ikusi da. Gainera, migrazio-tasek egunetik egunera gora egiten duten honetan, eleaniztasunerako joera da espero daitekeena. Horrek guztiak osasun profesionalen eta pazienteen arteko hizkuntza-mugak handitzea eragin dezake, eta ondorioz, ikerketak egitea eta horiei aurre egiteko neurriak hartzea funtsezkoa da.

1.1 Mundu mailako hizkuntza-mugen inguruko ikuskapen bibliografikoa

1.1.1 Hizkuntza-mugen eraginak osasun profesionalaren eta pazientearen arteko harremanean

1.1.1.1 Hizkuntza-mugen eraginak pazienteen egunerokoan

Hizkuntza-mugek osasun arretaren hainbat urratsetan izan dezakete

Nazioarteko zenbait ikerketek erakutsi dutenez, harreman estua dago osasun arretaren segurtasunaren eta hizkuntza-mugen artean.

**Kalitateak
barnebiltzen
duen beste
printzipioetako
bat ekitatea da.
Eremu
soziolinguistiko
guztietan berdina
gertatzen ez den
arren, hizkuntza
bi aldi berean
ofizialak diren
eremuetan
pazientearen
eskubidea da
berak
lehenetsitako
hizkuntzan
artatua izatea.**

eragina. Lehenengo arazoa osasun baliabideen erabilera aurkituko dugu; hizkuntza-muga pairatzen duen pazienteak ez ditu ondo ezagutuko jaso ditzakeen zerbitzuak, eta ondorioz, zerbitzu horien azpi-erabilera bat emango da. Gainera, osasun arretarako sarbidea ere oztopo izango da berarentzat, erabili behar edo nahi dituen baliabideak ezingo dituelako askatasunez eskatu (Bowen 2001; Jacobs et al. 2006; Chen et al. 2007; Pippins et al. 2007).

Hurrengo urratsean ere, osasun profesionalaren eta pazientearen arteko harremanean, ulermen arazoak egon daitezke. Horrek honakoak eragin ditzake, besteak beste: arazo berdinarengatik kontsulta kopurua handitzea, horrek suposatzen duen kostu ekonomiko gehigarria, diagnostikoan akatsak egotea, informazioaren eta aholkuen interpretazio okerrak, tratamenduen atxikipena egokia ez izatea, behar besteko babes psikologikorik ez jasotzea, prebentzio aholkuak behar bezala ez jarraitzea, gaixotasun kronikoen jarraipen desegokia egitea, eta abar (Irvine et al. 2006; Cheng et al. 2007). Horrek guztiak pazientearen asebetetzea nabarmen jaitsi dezake eta, era berean, arazo mediko/legalak ere sor ditzake (Baker 1996; Arthur et al. 2014).

Kalitateak barnebiltzen duen beste printzipioetako bat ekitatea da. Eremu soziolinguistiko guztietan berdina gertatzen ez den arren, hizkuntza bi aldi berean ofizialak diren eremuetan pazientearen eskubidea da berak lehenetsitako hizkuntzan artatua izatea. Hori horrela ez bada, pazientearen eskubideak urratzen direla azpimarratu behar da, ofiziala den beste hizkuntza hitz egiten duten pazienteekiko desberdintasun eta bereizkeria eraginez.

1.1.1.2 Hizkuntza-mugen eraginak ospitaleratuta dauden pazienteengan

Herbehereetan egindako ikerketa batek sakonki ikertu ditu hizkuntza-mugen eraginak ospitaleratuta dauden pazienteengan (van Rosse et al. 2015). Honakoak azpimarratzen dituzte ikerketan:

- Medikuen eta pazientearen artean komunikazio arazoak baldin badaude, gerta daiteke medikuak elkarrikketa egokia egiteko problemak izatea, eta ondorioz, diagnostiko desegokia egitea. Horrek arazo mediko zein legal ugari eragin ditzake.
- Pazientearen datuak era protokolizatu batean ziurtatzea zailtzen dute hizkuntza-mugek. Horrek arazoak ekar ditzake, adibidez, tratamenduak ematerako orduan, froga osagarriak egiterako orduan, eta abar.

- Gorputzeko likidoen balantzea neurtzerako orduan, hizkuntza-mugek gaizki-ulertuak eragin ditzakete. Horrek eragin handia du pazientearen eboluzioan eta ondorengo urratsak erabakitzerako orduan.
- Mina ondo kontrolatzea ere zaila da komunikazio arazoak daukeden.
- Erietxean bertan pazienteak jarraitu beharreko argibideak azaltzerako unean ere komunikazio ona egotea funtsezkoa da. Garrantzitsua da pazienteak ondo ulertzea, esaterako, zein unetik aurrera komeni zaion ohetik altxatzea, edota zer jan edo edan behar duen eta zer ez zaion komeni.
- Pazienteari alta eman osteko zaintzak egokiak izatea ere zaila izango da hizkuntza-mugak badaude tarteko.

1.1.2 Hizkuntza-mugek nori eragiten dioten gehien

Nazioarteko ikerlari ugari aritu dira azken urteotan hizkuntza-mugen eraginak gehien pairatzen dituzten populazioak identifikatu nahian (Flores et al. 2003; Barton et al. 2013). Ikerketa horien guztien emaitzek bat egiten dute esaterakoan hizkuntza-mugen eraginak jasateko arrisku gehien duten populazioak hauek direla:

- Adineko pertsonak: bigarren hizkuntza sekula menperatu ez dutelako edo adinean gora doazenean berriro euren ama-hizkuntza erabiltzen hasten direlako.
- Eskolaurreko haurrak: euren ama-hizkuntza soilik hitz egiten dutenak, ez dutelako oraindik harremanik izan bestelako hizkuntzekin.
- Geografikoki eremu isolatuenetan bizi diren pertsonak: hizkuntza nahasketarik ez dutelako, eta beraz, euren ama-hizkuntza bakarrik erabiliz bizi daitezkeelako.
- Estres egoeran dauden pertsonak: hizkuntza bat baino gehiago jakin arren, estres egoeretan hizkuntza bakarrean hitz egiteko gai direnak.
- Asaldura psikologikoak dituzten pertsonak: hizkuntza bat baino gehiago ikasteko edo menperatzeko arazoak izan ditzakete, eta aurrez aipatutako egoeren aurrean ere kalteberagoak izan daitezke.

1.1.3 Hizkuntza-mugei aurre egiteko tresnak

Hizkuntza-mugak desagerrarazteko, eta ondorioz, horiek osasungintzan sortatutako arriskuak eta kalteak ekiditeko lehenengo urratsa muga horiek identifikatzea dela diote ikerketek (Hébert et al. 2009; van Rosse et al. 2015). *Joint Commission Internationale*lek, nazioartean kalitatezkoa eta

***Erietxean bertan
pazienteak
jarraitu
beharreko
argibideak
azaltzerako
unean ere
komunikazio ona
egotea
funtsezkoa da.
Garrantzitsua da
pazienteak ondo
ulertzea,
esaterako, zein
unetik aurrera
komeni zaion
ohetik altxatzea,
edota zer jan edo
edan behar duen
eta zer ez zaion
komeni.***

**Eskaintza
aktiboa
pazienteari
osasun arreta
modu
eskuragarri
batean berak
hobetsitako
hizkuntzan
eskaintzeari
esaten diogu.
Ofizialak diren
hizkuntza bi
badaude, bi
hizkuntza horiek
modu alderagarri
eta berdintsuan
eskaini beharko
dira, bai ahozko
komunikazioari
bai idatzizkoari
dagokionez.**

segurua den osasun arreta eskaintzeko lanean dabilen erakundeak, bere baitan dauden zentro guztiei, Osakidetzako batzuk barne, tokian tokiko hizkuntza-mugak identifikatzea eskatzen die, eta baita pazienteak lehenesten duen hizkuntza argitaratzea ere.

Horretarako, ezinbestekoa da pazientearen lehentasunak hautematea (zuzenean galdetuz edota intuizioz atzemanetz), eta lehentasun horiek baieztatu ostean, modu egoki eta ikusgarri batean erregistratzea.

Behin mugak identifikatuta eta lehenetsitako hizkuntzaren erregistroa eginda, hurrengo pausoa profesionalen hizkuntza-erregistroa egitea izango da; hau da, zentro bakoitzeko lantaldean hizkuntza bakoitza hitz egiteko gai den profesional kopurua zenbatzea. Gainera, hizkuntza bat baino gehiago aldi berean ofizialak diren lekuetan, perfil linguistikoaren eskaera zuzena egitea da legeak exijitzen duena.

Horren guztiaren ostean, hizkuntza-mugei aurre egiteko tresna eragin-korrak jarri beharko dira martxan. Hainbat dira planteatu izan direnak: profesionalen hizkuntza formazioa, itzultzaileak, teknologia berrien erabilera, idatzizko dokumentuen itzulpenak, eta abar.

1.1.4 Hizkuntza-mugen eta horiei aurre egiteko baliabideen kostu ekonomikoa

Hizkuntza-mugen eraginak eta horiei aurre egiteko baliabideak ezagututa, euren kostu ekonomikoaren dimentsioa imajinatzea erraza zaigu. Xehetasunen bat aipatu nahian, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasua erabiliko dugu adibidetzat. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskuragarri ipinitako datuek diotenez, 2008tik 2012ra bitartean 2.740 liberazio egon ziren EAEn osasun profesionalek euskara ikasi edo aurrez zuten euskara maila hobetzeko. Urte horietan 22.1 milioi euro gastatu ziren hizkuntza-mugei aurre egiteko baliabide horretan.

Azpimarragarriena zera da: urtero 4,4 milioi euroko batez bestekoa gastatzen den arren profesionalen formazioan, gaur arte ez da formazioaren eraginkortasuna aztertzen duen ikerketarik egin, eta are gutxiago baliabide horren errentagarritasuna aztertzen duenik.

1.1.5 Eskaintza aktiboa

Eskaintza aktiboa pazienteari osasun arreta modu eskuragarri batean berak hobetsitako hizkuntzan eskaintzeari esaten diogu. Ofizialak diren hizkuntza bi badaude, bi hizkuntza horiek modu alderagarri eta ber-

dintsuan eskaini beharko dira, bai ahozko komunikazioari bai idatzizkoari dagokionez (Forgues et al. 2010).

Urte luzez arreata sanitarioa hizkuntza bakarrean eskaini izan den herrialdeetan, pazienteek ezinezkotzat dute arreata euren hizkuntzan jaso ahal izatea, eta horrek eskaera kopurua jaisten du. Horregatik da horren garrantzitsua profesionalak izatea zerbitzua modu aktibo batean eskaintzen dutenak, pazienteak eskatzera behartu barik.

1.2 Euskal Autonomia Erkidegoko egoera

1.2.1 Eremu soziolinguistikoaren deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoa Hego Euskal Herriko eremu instituzional eta administratiboa da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoak osatua. 7.234,8 km²ko eremua du guztira, eta 2011. urteko datuei jarraiki, 2.119.586 pertsona bizi dira bertan.

2011n bizi ziren 2.119.586 pertsona horietatik 1.331.001 pertsona ziren euskaldunak edo erdi-euskaldunak; % 62,8, alegia. Horietatik % 11,7 arabarrak ziren, % 49,2 bizkaitarrak eta % 39,1 gipuzkoarrak.

EAEn, hizkuntzei dagokionez, Autonomia Estatutua da funtsezko araua. Estatutuaren 6. artikuluan, eta 1978ko Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluen babesean, Euskal Herriko berezko hizkuntza den euskarari hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen zaio gaztelerarekin batera, herritarrek bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutelarik.

Horrela, EAEko erakundeak, lurraldeko egoera soziolinguistiko anitza kontuan hartuz, bi hizkuntzen erabilera bermatu beharrean daude, horien izaera ofiziala arautuz eta neurri eta bitartekoak jarritz bien ezagutza bermatzeko.

Osasunaren arloan, Osakidetza da, bere menpeko zerbitzu erakunde bidez, EAEn zerbitzu sanitarioak hornitzeaz arduratzen den zuzenbide pribatuko erakunde publikoa. Hizkuntzari dagokionez, aintzat hartu beharrekoa da azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzekoa, zeinak herritarrei zerbitzua ematean euren hizkuntza eskubideak bermatu behar dituela arautzen duen.

**EAEko
erakundeak,
lurraldeko egoera
soziolinguistiko
anitza kontuan
hartuz, bi
hizkuntzen
erabilera
bermatu
beharrean daude,
horien izaera
ofiziala arautuz
eta neurri eta
bitartekoak jarritz
bien ezagutza
bermatzeko.**

Osakidetzaren Euskara Plana 2005ean onetsi zen, eta zerbitzu-erakundeen planak 2006an. Une hartan bideratu zen, beraz, Osakidetza osoan euskararen erabilera normalizatzeko lehenengo plangintza aldia.

1.2.2 Osakidetzaren Euskara Plana

Osakidetzaren Euskara Plana 2005ean onetsi zen, eta zerbitzu-erakundeen planak 2006an. Une hartan bideratu zen, beraz, Osakidetza osoan euskararen erabilera normalizatzeko lehenengo plangintzaldia.

Behin lehenengo plangintzaldia bukatuta, bertako aurrerapausoak eta ahulguneak aintzat hartuta eta sortutako beharrian eta egoera berriak kontutan hartuz, 2013. urtean bigarren Euskara Plana jarri zen martxan, ordura arteko lorpenak sendotzeko eta, aldi berean, euskararen erabileraren normalizazio osorantz aurrera egiten lagunduko zuten beste helburu batzuk zehazteko.

1.2.2.1 I. Euskara Planaren ondorio nagusiak

Osakidetzaren I. Euskara Planaren ondorio nagusia, oro har euskararen erabilerak gora egin zuela izan zen. Profesionalen hizkuntza-eskakizunen arloa izan zen aurrerapenik handiena izan zuen eremua, eta ostera, barne-harremanetako erabilera aurrerapenik motelena izan zuena.

Oztoporik esanguratsuenak zuzendaritzen erantzukizun partekaturik eza eta Planaren gaineko lidergo argiaren falta izan ziren, eta baita kanpo-harremanetako helburuen betetze-maila ere behar baino apalagoa izan izana.

Aldi berean, argi geratu zen erakunde bakoitzak jarritako gogoak eta indarrak eragina zuela Planaren betetzean eta lortutako emaitzetan.

1.2.2.2 II. Euskara Planaren helburu nagusia

Osakidetzaren II. Euskara Planaren helburu nagusia honakoa da: zerbitzu-hizkuntza gisa euskararen ahozko eta idatzizko presentzia eta erabilera bermatzea, hala kanpo-harremanetan (paziente, senide, hornitzaile, administrazioekin) nola barne-harremanetan (Osakidetzako langileekin zein zerbitzu-erakunde eta unitateekin).

67/2003 Dekretuak unitateen lehentasun-mailak bereizten ditu bi aldagaien arabera: bata, unitatearen izaera orokorra eta herritarrenganako hurbiltasuna; bestea, unitatearen jardun-eremuko biztanle euskaldunen dentsitatea. Hortaz, Lehen Mailako Arretako unitateek eta larrialdi-zerbitzuek lehentasun handiagoa izango dute espezialitateek baino, eta, aldi berean, paziente elebidunen portzentaje handia duen zentro bateko unitateek lehentasun handiagoa izango dute portzentaje txikiagoa duen beste zentro bateko unitateen aldean. Osakidetzako barne-harremanei

dagokienez, lehentasuna izango dute langile-kopuru handiarekin harreman zuzen eta ohikoak dituzten unitateek (pertsonal-departamentuak, zuzendaritzak, lan-osasunak, eta abar).

Horrela, I. lehentasuneko unitateek ele bietan eman behar dituzte zerbitzuak; II. lehentasunekoek ele bietako gutxieneko eskaintza ziurtatu behar dute eta arian-arian handitu. Herriarrei euskarazko asistentzia-zirkuitu osoa ziurtatzea da helburua.

1.3 Euskarazko asistentzia-zirkuituak hizkuntza-mugei aurre egiteko proposamen modura

1.3.1 Euskarazko asistentzia-zirkuituen deskribapena

Euskarazko asistentzia-zirkuitua EAEko osasun zerbitzu publikoan hizkuntza-mugei aurre egiteko proposatu izan den tresna da. Euskarazko asistentzia-zirkuituek lehen mailako arretatik hasi eta espezialistenganainoko bidean, horrela lehenetsita duen pazienteak, osasun arreta euskaraz jasotzea dute helburu. Ibilbide horretako edozein urratsetan eta edozein profesionalekin pazienteak bai ahozko zein idatzizko komunikazioan euskararen erabilera bermatuta izango du, horrela EAEn legezko diren eta mundu mailan onartuta dauden pazientearen eskubiak errespetatuz.

1.3.2 Euskarazko asistentzia-zirkuituak aurrera eraman ahal izateko baldintzak

Lehenengo eta behin, osasun zerbitzuen erabiltzaileek euren hizkuntza lehenestea funtsezkoa izango da, horrela lortzen baita herrialde bateko eskaria ezagutzea eta horri aurre egiteko giza baliabideen eta baliabide teknikoaren zenbatekoa jakitea. Hizkuntza lehenesteko bitartekoak osasun erakundeak eskaini beharko lizkioke pazienteari, eskaintza aktiboaren printzipioa errespetatuz.

Bigarrenik, euskaraz lan egiteko gai diren profesionalen zenbatekoa ezagutu beharko da, bai ahozko komunikazioan, baita idatzizkoan ere, eta profesional horien formazio jarraitua bermatzeko plan estrategiko bat garatu beharko da.

Hirugarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egingo duten profesionalen hizkuntza-kontzientzia eta -formazioa bultzatu beharko da, belaunaldi berrietan bertan lan egingo duen osasun profesional oro bertako bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gai izan dadin.

**Euskal
Autonomia
Erkidegoan lan
egingo duten
profesionalen
hizkuntza-
kontzientzia eta
-formazioa
bultzatu beharko
da, belaunaldi
berrietan bertan
lan egingo duen
osasun
profesional oro
bertako bi
hizkuntza
ofizialetan lan
egiteko gai izan
dadin.**

**Osakidetzaren II.
Euskara Planean
proposatutako
euskarazko
asistentzia-
zirkuituak
Euskal
Autonomia
Erkidegoko
osasun
profesionalen eta
pazienteen arteko
hizkuntza-mugei
aurre egiteko
baliabide
aproposak dira.**

Euskarazko asistentzia-zirkuituak progresiboki ezarri beharko dira, tokian tokiko errealitatea ezagutuz eta lehentasunak identifikatuz. Horrela, populaziorik ahulenak babestetik hasiko da euren ezarpena, beti ere eskaera gehien duten zerbitzuak eta eremuak kontuan izanda, eta dauden baliabideak aprobetxatuta. Azken helburua maila guztietan zerbitzu osoa bi hizkuntza ofizialetan eta berdintasuna bermatuz eman ahal izatea izango da.

Azkenik, martxan jartzen diren zirkuituen ebaluazio jarraitua egin beharko da, zirkuituen emaitzak aztertuz, ahulguneak identifikatuz eta pazienteen zein profesionalen gogobetetzea aztertuz.

2. HIPOTESIA

I

Osakidetzaren II. Euskara Planean proposatutako euskarazko asistentzia-zirkuituak Euskal Autonomia Erkidegoko osasun profesionalen eta pazienteen arteko hizkuntza-mugei aurre egiteko baliabide aproposak dira.

3. HELBURUAK

I

3.1 Helburu nagusia

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-mugei aurre egiteko proposatutako euskarazko asistentzia-zirkuituen funtzionamendua eta eraginkortasuna aztertzea.

3.2 Bigarren mailako helburuak

1. Euskal Autonomia Erkidegoan abian dauden euskarazko asistentzia-zirkuituak identifikatzea.
2. Euskarazko asistentzia-zirkuituen funtzionamendua aztertzeke zirkuituen arduradunei elkarrizketak egitea.
3. Euskarazko asistentzia-zirkuituen eraginkortasuna aztertzeke, euskarazko asistentzia-zirkuituak dituzten zerbitzuak populazio eta paziente mota berdina duten zirkuiturik gabeko zerbitzuekin alderatzea, ausaz aukeratutakoak azken horiek.

4. METODOLOGIA

I

Euskarazko asistentzia-zirkuituen identifikazioa

Euskarazko asistentzia-zirkuituen identifikaziorako Osakidetzako zenbait euskara-teknikarirekin hitz egin zen. Elkarrizketa horietan EAEn gaur egun abian dauden zirkuituak bi direla jakin genuen: Arrasateko ESiko Urologia zerbitzuko eta Gasteizko ESiko Haur Urologia zerbitzuko. Halaber, bi zirkuitu horien arduraduna mediku bera zela ikusi genuen.

Euskarazko asistentzia-zirkuituen arduradunekin elkarrizketa

Euskarazko asistentzia-zirkuituen funtzionamendua era erretrospektibo batean aztertzeke zirkuituen arduradunak elkarrizketatu nahi izan ziren. Osakidetzako euskara-teknikariek abian zeuden bi zirkuituetako arduraduna pertsona bera zela esan zigutenez, mediku horri egin zitzaion elkarrizketa, bi zirkuituen datuak biltzeko asmoz.

Euskarazko asistentzia-zirkuituekin alderatzeko zerbitzuen hautaketa

Ikerketako aldagaiak ahalik eta alderagarrienak izan zitezen populazio bertsua artatzen zuten zerbitzuak aukeratu behar genituen, pazienteen ezaugarri soziodemografikoak (nagusiki, euskararen ezagutza eta erabilera), eta adin-tartea kontuan hartuz. Horrela, honakoak izan ziren aukeratu genituen zirkuiturik gabeko zerbitzuak: Arrasateko ESiko Traumatologia Zerbitzua, eta Arabako ESiko Haur Traumatologia zerbitzua. Behin zerbitzuak aukeratuta, Erakunde bakoitzeko zerbitzu-buruak elkarrizketatu ziren.

5. EMAITZAK

I

5.1 euskarazko asistentzia-zirkuituak arrasateko esiko urologian eta gasteizko esiko urologia pediatrikoan abiatzearen arrazoiak

Zirkuituen arduradunak berarekin izandako elkarrizketan argitu zigunez, zirkuituak Urologia Zerbitzuan abiatzea Arabako ESiko Zuzendararen eta zenbait zerbitzu-bururen proposamena izan zen, Gasteizko Urologia Zerbitzuan lanean ziharduten hainbat profesionalen perfilak kontuan hartuz.

Urologo horiek, Gasteizen lan egiteaz gain, Arrasateko ESian ere egiten zuen lan, eta hortaz, Arrasateko ESI izan zen zirkuituak abiarazteko euren lehenengo proposamena, bertako biztanleria eta paziente mota

**EAEn gaur egun
abian dauden
zirkuituak bi
direla jakin
genuen:
Arrasateko ESiko
Urologia
zerbitzuko eta
Gasteizko ESiko
Haur Urologia
zerbitzuko.
Halaber, bi
zirkuitu horien
arduraduna
mediku bera zela
ikusi genuen.**

***Euskarazko
kontsultetan
zituak ziren
pazienteek, egun
horretan zerbitzu
guztia jasotzen
zuten euskaraz,
normalean,
harrerako
administra-
tzaitetik hasi eta
kontsulta
barruko mediku
zein
erizainetarako.***

ezagututa, euskaraz artatua izan nahiko zuen paziente kopurua handia zela aurreikusten zutelako.

Jarraian zirkuituak Gasteizen ere martxan jartzea erabaki zuten, Haur Urologia sailean. Izan ere, Gasteizko haurren euskararen ezagutza-tasak populazioko altuenak izateaz gain, izaten dituzten arazo urologikoei normalean kontsulta gutxitan ematen zaie irtenbidea, eta ez dute bes-telako frogaririk edota jarraipen luzerik behar izaten; horrek ere, zirkuitu osoa euskaraz egin ahal izateko bermea ematen zuen.

5.2 Zirkuituen tokian tokiko funtzionamendua

5.2.1 Arrasateko ESiko Urologia zerbitzuko euskarazko asistentzia-zirkuituaren funtzionamendua

Arrasateko ESiko Urologia zerbitzuko euskarazko asistentzia-zirkuituak lehen mailako arretan hasten ziren. Arrasateko familia medikuek ezin zituzten pazienteak zuzenean urologiako kontsultetara bideratu; elkar-kontsulta bat eskatu behar zioten urologoari, eta horrek erabakitzen zuen pazientearen kontsultetan zitzuten behar zen edota arazoa arreta primarioan konpontzerik bazegoen.

Elkarkontsulta horretan familia medikuak adieraz zezakeen pazienteak euskaraz artatua izan nahi zuela. Urologoak pazienteak kontsulta pre-sentziala behar zuela erabakitzen bazuen, euskaraz artatua izan nahi zuen pazientearen euskaraz zekien urologo batek kontsultak zituen egu-netan zitzuten zen.

Euskarazko kontsultetan zituak ziren pazienteek, egun horretan zer-bitzu guztia jasotzen zuten euskaraz, normalean, harrerako administra-tzaitetik hasi eta kontsulta barruko mediku zein erizainetarako. Paziente horrek kontsulta gehiago behar bazituen Arrasaten bertan, urologo eus-kaldunen batek kontsultak zituen egun batean zitzuten zen berriro.

5.2.2 Gasteizko ESiko Urologia Pediatriakoa zerbitzuko Euskarazko Asistentzia-zirkuituaren funtzionamendua

Gasteizko ESiko Urologia Zerbitzuan haurren patologia arduratzen ziren urologoak 2 ziren, lan-taldea 16 urologok osatzen bazuten ere. Bi horiek euskal hiztunak ziren, eta beraz, Urologia Pediatrikora iristen ziren ume guztiek euskarazko tratua bermatuta zeukaten, zerbitzua ho-rrela antolatuta zegoelako.

Hortaz, lehen mailako arretako medikuak horrela eskatu zuelako, edota pazienteak kontsultan bertan horrela eskatu zuelako, euskaraz artatua izan nahi zuen haurrak eta bere familiak kontsulta euskaraz jasotzen zuten.

5.2.3 Arrasateko ESIko Urologia zerbitzuko eta Arabako ESIko Haur Urologia zerbitzuko euskarazko asistentzia-zirkuituen ahulguneak

— Pazienteetako askok ez zekien euskarazko arreta jasotzeko esku-biderik zuenik edota, eskubidea zuela jakinda ere, horretarako aukerarik zegoenik. Horrek hizkuntza eskakizunik ez egitea suposa zezakeen.

— Familia mediku guztiek ez zuten euren pazienteek lehenetsitako hizkuntza adierazten elkarkontsultetan, eta ondorioz, zirkuitua lehen urratsean hausten zen.

— Arrasateren kasua, euskaraz lan egiten zuten urologoek kontsulta kopuru mugatua zuten asteko; ondorioz, sarritan ezin zitzaien zerbitzua euskaraz artatuak izan nahi zuten paziente guztiei eskaini.

— Urologo euskaldunak euskaraz lan egiten zuen kontsultetan gainontzeko profesionalak euskal hiztunak izango ziren ezin zen bermatu.

— Pazienteari txostenen bat entregatu behar bazitzaion, hori berez gaztelera hutsean idazten zuten, pazienteak espresuki euskaraz jaso nahi zuela adierazten ez bazuen.

— Kontsulta euskaraz izan arren, medikuek sistema informatikoan gaztelera idazten zuten bere historia, eta froga osagarriak eskatzekotan, eskaera horiek ere gaztelera hutsez idazten ziren.

— Pazienteak urologo euskaldunek egin ezin ziezaioketen frogaren bat ala tratamenduren bat behar zuenean, edota erietxean ingresatua izan behar zuenean, euskarazko traturik jasoko zuen kontrolatzea ezinezkoa zen.

— Euskarazko asistentzia-zirkuituen jarraipen ofizialik ez zen egin Erakundearen aldetik.

Lehen mailako arretako medikuak horrela eskatu zuelako, edota pazienteak kontsultan bertan horrela eskatu zuelako, euskaraz artatua izan nahi zuen haurrak eta bere familiak kontsulta euskaraz jasotzen zuten.

5.3 Euskarazko asistentzia-zirkuituen eraginkortasuna zirkuiturik gabeko zerbitzuekin alderatuta

5.3.1 Ingurune soziolinguistikoaren azterketa

Eskualde bakoitzeko populazioa ezagutu nahian, EUSTATEk eskuragarri ipinitako datuak aztertu genituen lehenengo. Deba Garaiko egoera jasotzen zuten azken datuak 2011koak izanik, Arabako urte bereko datuak erabili genituen analisirako. Hona hemen EUSTATEk dioena:

Euskarazko asistentzia-zirkuituak non abiatu erabaki zenean, Deba Garaia aukeratu izanaren arrazoia izan zen bertako populazioaren euskararen ezagutza eta erabilera kontuan hartuz, euskaraz artatua izan nahiko zuen paziente kopurua handia zela aurreikusten zutela.

1. taula: Deba Garaiko eta Arabako 2011.urteko populazioa, eta biztanleen euskararen ezagutza eta erabilera.

	DEBA GOIENA	ARABA	
	Populazio orokorra	Populazio orokorra	0-14 urte
Populazioa	62.095	321.254	37.636
Euskararen ezagutza	% 60.5	% 23	% 67
Euskararen erabilera	% 28.3	% 7	% 14.8

5.3.2 Euskarazko asistentzia-zirkuituak zituzten zerbitzuen eta zirkuiturik gabekoen alderaketa

Zirkuituen arduraduna zen urologoari zein Traumatologiako Arrasateko zein Gasteizko zerbitzu-buruei egindako elkarrizketetan, honako datuak lortu genituen:

2. taula: Arrasateko ESiko eta Arabako ESiko Urologia eta Traumatologia zerbitzuetako 2015. urteko datuak.

	ARRASATEKO ESI		ARABAKO ESI	
	Urologia	Traumatologia	Urologia pediatrikoa	Traumatologia pediatrikoa
Zerbitzuko mediku kopurua	10	8	2	2
Euskaraz lan egiteko gai ziren medikuak	2 (% 20)	2 (% 25)	2 (% 100)	2 (% 100)
Kontsulta kopurua	4.633	16.180	672	2.839
Euskaraz artatua izan nahi zuela adierazi zuen paziente kopurua	1.763 (% 38)	EZEZAGUNA	125 (% 18.6)	EZEZAGUNA
Euskarazko kontsulta kopurua	987 (%21.3)	EZEZAGUNA	125 (%18.6)	EZEZAGUNA
Euskaraz artatuak izan nahi eta euskaraz artatuak izan ziren pazienteen kopurua	987 (euskaraz artatuak izan nahi zutenen % 56)	EZEZAGUNA	125 (euskaraz artatuak izan nahi zutenen % 100)	EZEZAGUNA
Pazienteen gogobetetzea	987 (% 100)	EZEZAGUNA	125 (% 100)	EZEZAGUNA

6. EZTABAIDA

I

6.1 Zirkuituen identifikazioari dagokionez

Euskarazko asistentzia-zirkuituak non abiatu erabaki zenean, Deba Garaia aukeratu izanaren arrazoia izan zen bertako populazioaren euskararen ezagutza eta erabilera kontuan hartuz, euskaraz artatua izan

nahiko zuen paziente kopurua handia zela aurreikusten zutela. Arrazoi hori bat dator Osakidetza II. Euskara Planean onartuta dagoen printzipio honekin: paziente elebidunen portzentaje handia duen zentro bateko unitateek lehentasun handiagoa izango dute portzentaje txikiagoa duen beste zentro bateko unitateen aldean euskararen erabilerari dagozkion neurriak ezartzerakoan.

Horrez gain, nazioarteko ikerketek baieztatu dute hizkuntza-mugen aurrean populaziorik ahulenak, besteak beste, geografikoki eremu isolatuenetan bizi diren pertsonak direla, egunerokoan euren ama-hizkuntza bakarrik erabiliz bizi daitezkeelako, era elebarkarrean. Deba Garaiko euskararen erabileraren inguruko datuek eta bertako azterketa sozio-demografikoak erakusten dute bertako biztanleek EAEko beste eremu batzuetakoek baino hizkuntza nahasketa gutxiago pairatzen dutela, eta ondorioz, eurentako asko egunerokoan euskaldun elebakarra dela. Hortaz, hizkuntza-mugen eraginak gehien pairatzeko arriskua duen populazioetako bat izatean, erabat ulergarria da euskarazko asistentzia-zirkuituak Deba Garaia bezalako eremu batean abiatu izana.

Gainera, hizkuntza-mugen aurrean ahulenak diren populazioen artean adineko pertsonak ere aurki genitzake. Arrasateko ESIko Urologia Zerbitzuak, berez, adin-tarte ezberdinetako jendea artatzen badu ere, urologoak esan zigunez, gehienak adineko pertsonak izaten dira.

Era berean, Arabako ESIko paziente urologikoen artean haurrak aukeratu izana ere bat dator nazioarteko ikerketek gomendatzen dutenarekin, umeak baitira hizkuntza-mugen aurrean ahulenak diren populazioen arteko beste batzuk.

Dena dela, populazioa ondo aukeratu dela esango bagenu ere, ditugun ebidentzia zientifiko eta legeetan oinarrituta, euskarazko asistentzia-zirkuituak zerbitzu gehiagotan martxan jartzea gomendagarria izango litzatekeela ondoriozta genezake.

6.2 Zirkuituen funtzionamenduari dagokionez

Zirkuituen arduraduna izan zen medikuari egindako elkarrizketan ikusi zen zirkuituak lehen mailako arretan hasten zirela, familia medikua izaten baitzen urologiara bidaltzen zituen elkarkontsultetan pazienteak euskaraz artatua izan nahi zuela adierazten zuena. Hori da, hain zuzen, orain arte egindako ikerketek apropos ikusten dutena: pazienteari osasun arreta modu eskuragarri batean berak hobetsitako hizkuntzan era aktibo batean eskaintzea, lehen mailako arretatik hasita.

***Paziente
elebidunen
portzentaje
handia duen
zentro bateko
unitateek
lehentasun
handiagoa izango
dute portzentaje
txikiagoa duen
beste zentro
bateko unitateen
aldean
euskararen
erabilerari
dagozkion
neurriak
ezartzerakoan.***

**2017ko otsailean
argitaratutako
datuen artean
Osakidetzako
langileen euskara
perfilak ere
kaleratu ziren:
hizkuntza
eskakizuna
egiaztatua
daukaten
langileei
dagokienez,
beharginen % 11
ziren 2006
urtean eskatzen
zitzaien perfil
linguistikoa
betetzen zutenak,
eta % 34, aldiz,
2016 urtean.**

Bai Arrasateko ESIko bai Arabako ESIko zirkuituen kasuan, erakundeen aldeko jarraipenik egon ez zenez, ezin jakin genezake lehen mailako arretako paziente guztiei eskaintza aktibo bidez euskarazko arreta jaso zezaketela azaldu zitzaienik, baina ezetz ondoriozta genezake, 2015 urtean Osabide Globalean lehenetsitako hizkuntza adierazita zuen paziente kopurua oso urria zelako.

Alabaina, Osakidetzan egin izan diren hizkuntza-erregistro gehienak 2017 urteko otsailean Osakidetzako II. Euskara Planaren barruan dagoen “Lagundu egiguzu hobetzen: aukeratu zure hizkuntza” kanpaina martxan jarri zenetik egin izan dira. Osakidetzak artatzen dituen 2.172.000 pertsonetatik 469.000 pertsonari (% 21.6ri) arreta sanitarioa zein hizkuntzatan jaso nahi zuten galdetu zitzaien, eta galdetuak izan zirenen artean % 29k esan zuen euskaraz artatua izan nahi zuela.

Adierazgarria da, Osakidetzako II. Euskara Plana 2013 urtean onartu bazen ere, 4 urte beranduagora arte ez dela pazienteen hizkuntza-eskakizuna erregistratzeko kanpainarik abian ipini. Horrek Erakundearen mugak agerian uzten ditu euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez.

Etorkizunean beste zirkuituren bat martxan jarriko balitz, interesgarria litzateke hizkuntza-erregistroa parte har dezaketen paziente guztiei modu aktibo batean eskaintzea, eta jarraipena datu horiek kontuan hartuta egitea.

Beraz, zirkuituen parte-hartzeak eta euren arrakastak arreta primariotik hasi eta zirkuituan parte hartuko duten profesional guztien kontzientziazioa eta inplikazioa eskatzen dituela esan dezakegu; profesionalen gaiarekiko ikasketa eta kontzientziazioa beharrezkoak izango dira hizkuntza-mugei aurre egiteko bidean.

Hala ere, esan beharra dago, ardura hori ez litzatekeela osasun profesionalen gain soilik erori beharko, ebidentzia zientifiko zein legalei jarraiki, oraingo honetan ere.

Era berean, 2017ko otsailean argitaratutako datuen artean Osakidetzako langileen euskara profilak ere kaleratu ziren: hizkuntza eskakizuna egiaztatua daukaten langileei dagokienez, beharginen % 11 ziren 2006 urtean eskatzen zitzaien perfil linguistikoa betetzen zutenak, eta % 34, aldiz, 2016 urtean. Arabako ESIn eskaerak betetzeko beste mediku euskaldun bazegoen arren, ez zen berdina gertatzen Arrasateko ESIn: euskarazko arreta jaso nahi zutenen artean % 56ri soilik eman ahal izan zitzaion euskarazko tratua. Hori, esan bezala, euskaraz lan egiteko gai ziren mediku gutxiei zegoelako gertatu zen. EAEn legeak pazientei

bertako bi hizkuntza ofizialetan artatua izateko eskubidea aitortzen dien arren, datuen arabera badirudi perfil linguistikoen eskaera desgokiak ez duela arreta horren elebitasuna bermatzen, eta beraz, euskarazko arreta lehenesten duten pazienteak gaztelerazko arreta nahi dutenen aldean desberdintasun egoeran daudela.

Elkarriketan jakin genuen beste gai garrantzitsu bat izan zen urologo euskaldunak euskaraz lan egiten zuen kontsultetan gainontzeko profesionalak ez zirela beti euskal hitzunik izaten. Gainera, pazienteak urologo euskaldunek egin ezin ziezaioketen probaren bat ala tratamenduren bat behar zuenean, edota erietxean ingesatua izan behar zuenean, medikuen, erizainen edo bestelako osasun-etxeko langileen aldetik euskarazko trataturik jasoko zuen kontrolatzea ezinezkoa zen. Hori zirkuituen antolakuntza desgokiaren isla da, eta beraz, etorkizunean zirkuitu gehiago ezartzekotan, ondo aztertu eta horren gaineko neurriak hartu beharko liratekeela uste dugu.

Komunikazioari dagokionez, idatziz burutzen dena ere aintzat hartu beharreko kontua dela ulertu behar dugu. Euskarazko asistentzia-zirkuituen arduradunak esan zigunez, kontsultetan pazienteari ematen zaizkion txostenak eta aplikazio informatikoan idatzitako Historia Klinikoa gaztelera hutsean idazten ziren, zirkuituak ahozko komunikaziora mugatuz. Abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak, herritarren hizkuntza eskubideak aitortzen ditu, bai erabiltzaileenak eta baita langileenak ere, ahozkoak zein idatzizkoak. Lege horri eta Euskararen Erabilera Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarriko Legeari jarraiki, idatzizko dokumentu guzti horiek elebitan egon beharko lirateke.

Azkenik, zirkuituen arduradunari egindako elkarriketan garrantzitsutzat jo genuen beste puntu bat zirkuituek Erakundearen aldetik inongo jarraipenik ez zutela izan ikusi izana izan zen. Horrek, datuen ofizialtasuna ezin justifikatu ahal izatea suposatzen du, eta horrek ikerketaren ondorioak mugatu dituela esan beharrean gaude. Gomendagarritzat jotzen dugu Erakundearen aldetik zirkuituen jarraipen ofiziala egitea, horrela euren kostu-errentagarritasuna eta hizkuntza-mugei aurre egiteko tresna moduan duten eraginkortasuna aztertu ahal izango litzatekeelako.

6.3 Zirkuituen eraginkortasunari dagokionez

Euskarazko asistentzia-zirkuituak dituzten zerbitzuak eta zirkuiturik gabeko zerbitzuak alderatzean ere kontuan izatekoak diren zenbait puntu identifikatu genituen.

***Egon diren
zirkuituen
esperientzian
oinarrituz,
badirudi
zirkuituen
proposamena oso
tresna
interesgarria
izan daitekeela
hizkuntza-mugei
aurre egiteko.***

**Zirkuituak
zituzten
zerbitzuetan
euskarazko
asistentzia neurri
batean bermatuta
geratzen zela
ikusi zen, bertan
lanean zebiltzan
profesional
euskaldunen
kopurua zein-
nahi zela.**

Lehenengo eta behin, zirkuituek euskaraz artatuak izan nahi zuten pazienteen zenbatekoa neurtzeko gaitasuna zeukaten, eta baita, kontsulta guztien artean, euskaraz izan zirenen zenbatekoa; ez zen berdina gertatzen zirkuiturik gabeko zerbitzuekin. Euskaraz artatua izan nahi dutenen zenbatekoa pazienteen hizkuntza-erregistroa eginda lortu beharko balitz ere, kontsultetako zenbat izaten diren azkenean euskaraz jakiteko eraginkorrak dira zirkuituak, eta hori garrantzitsua da benetan egunerokotasunean gertatzen dena hobeto ezagutzeko.

Bigarren, zirkuituak zituzten zerbitzuetan pazienteek gaiarekiko zuten gogobetetzea neurtu ahal izan zen, oso emaitza onak eskuratuz: zirkuituetan parte hartu zuten pazienteen % 100ak errepikatuko zukeen esperientzia. Aldiz, zirkuiturik gabeko zerbitzuetan ezin izan zen pazienteen asebetetzea neurtu.

Hirugarren, zirkuituak zituzten zerbitzuetan euskarazko asistentzia neurri batean bermatuta geratzen zela ikusi zen, bertan lanean zebiltzan profesional euskaldunen kopurua zein-nahi zela. Ez zen berdina gertatzen zirkuiturik gabeko zerbitzuetan, zeintzuetan, zirkuitudun zerbitzuetan beste profesional edo gehiago euskaraz hitz egiteko gai zen arren, ezin jakin genezaken kontsulta bakarra euskaraz izan zen ala ez.

Beraz, egon diren zirkuituen esperientzian oinarrituz, badirudi zirkuituen proposamena oso tresna interesgarria izan daitekeela hizkuntza-mugei aurre egiteko. Argi dago ikerketa prospektibo kontrolatu baten bidez gai izango ginatekeela ondorio sendoagoak topatzeko baina, ikerketa-pilotu honek erakutsi duen joera errepikatzekotan, nazioartean proposatu beharko litzatekeen tresna izango litzateke; izan ere, gaur gaurkoz, EAEn bakarrik martxan jarri den metodologia da.

ONDORIOAK

I

1. Zirkuituak zein eskualdetan eta zein populaziotan abiarazi aukeratzeko aldagaiak egokiak izan dira.
2. Pazienteek zirkuituenganako erakutsi duten harrera erabat positiboa izan da.
3. Paziente askok eta osasun profesional askok ez dute euskarazko asistentzia-zirkuituen existentziaren berri.
4. Euskaraz artatua izateko eskaera handia dagoen eremu demografiakoetan, euskaraz lan egiteko gai den mediku kopurua pazienteen eskaria asetzeko bestekoa izan beharko da.
5. Pazienteari osasun arreta berak hobetsitako hizkuntzan era aktibo ba-

tean eskaintzea eta bere lehentasunak erregistratzea oso aproposa da zirkuituak abiarazteko, eta beraz, osasun arloko hizkuntza-mugei aurre egiteko.

6. Zirkuituek osasun arreta euskaraz jaso nahi duten paziente kopurua neurtzeko, eta kontsulta guztien artean zenbat diren benetan euskaraz zenbatzeko gaitasuna daukate.

7. Euskarazko asistentzia-zirkuituek mediku euskaldunek euskaraz artatuak izan nahi duten pazienteekin euskaraz hitz egingo dutela bermatzen dute.

8. Euskal Autonomia Erkidegoan mediku euskaldunak egoteak ez du bermatzen pazienteak osasun arreta euskaraz jasoko duenik, hots, hizkuntza-mugei aurre egingo zaienik. Aldiz, jarrera proaktiboek, adibidez, euskarazko asistentzia-zirkuituek, horretan laguntzen dutela ikusi da.

9. Erakundeen aldetik zirkuituen jarraipen ofizialik ez egiteak informazio falta edukitzera garamatza, eta horrek, ondorioak orokortzerako orduan, ahultasunak dakartza. ●

4

Estandar klinikoen itzulpen automatikoa

Olatz Perez-de-Viñaspre

Informatikan Doktorea. EHU/UPV
olatz.perezdevinaspre@ehu.es

Maite Oronoz

Informatikan Doktorea. EHU/UPV
maite.oronoz@ehu.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Lan honetan, osasun-zientzietan euskarak duen lehentasunezko beharretako bati heldu diogu: osasun-terminoen euskaratzea. Osasun-terminoak automatikoki euskaratu ditugu lau urratseko algoritmo bat erabiliz eta abiapuntutzat SNOMED CT estandar klinikoa hartuz. Lehenengo urratsak baliabide lexikalak erabiltzen ditu SNOMED CTren terminoei euskarazko ordainak zuzenean esleitzeko. Bigarren urratsean, ingelesezko termino neoklasikoak euskaratzeko NeoTerm sistema garatu dugu. Sistema horrek, afixu neoklasikoen baliokidetzak eta transliterazio-erregelak erabiltzen ditu osasun-termino baliokideak lortzeko. Hirugarrenean, ingelesezko termino konplexuak euskaratzen dituen KabiTerm sistema garatu dugu zeinak termino konplexuetan agertzen diren habiaratutako terminoen egiturak erabiltzen ditu euskarazko egiturak sortzeko. Azken urratsean, erregeletan oinarritzen den Matxin itzultzaile automatikoa osasun-zientzien domeinura egokitu dugu, MatxinMed sortuz. • **Hitz gakoak:** Estandar klinikoak, itzulpen automatikoa, terminologia klinikoa euskaraz, SNOMED CT.

Abstract. In this work, we deal with one of the greatest priorities for Basque with regard to health sciences: obtaining a Basque Health Terminology. Health care terms of the SNOMED CT clinical standard have been automatically translated from English into Basque by using a four-step algorithm. The first step uses lexical resources to directly allocate SNOMED CT terms to Basque. In the second step, we developed the NeoTerm system for translating Neoclassical English terms. This system uses translations of neoclassical affixes and transliteration rules in order to come up with health term equivalents. In the third, we developed the KabiTerm system that translates complex terms by means of the structure of its nested terms. In the final step, the rule based automatic translator called Matxin, was adapted to the healthcare domain by creating MatxinMed. • **Key words:** Clinical standards, machine translation, clinical terminology in Basque, SNOMED CT

1. SARRERA ETA MOTIBAZIOA

I Euskal Autonomia Erkidegoan euskara eta gaztelania hizkuntzak dira ofizialak. Maiz, ordea, osasun-langileekin tratua euskaraz izaten dugun arren, haiek osasun-txostenak gaztelaniaz idazten dituzte. Euskal Herriko gainerako herrialdeetan egoera ez da hobe, eta erdarak dira osasun-txostenak idazteko hizkuntza nagusiak. Batzuetan arrazoi desberdinak medio, erosoago sentitzen direlako egiten dute hori (hezkuntzarako erabilitako hizkuntza, osasunarekin lotutako terminoen ezagutza eza...); besteetan, berriz, euskaraz osasunaren inguruan idazteko gai izan arren, beraien burua erdi behartuta sentitzen dute gaztelaniaz idaztera. Adibidez, Osakidetza sistema zentralizatua du eta osasun-langile batek idazten duen txostena, gaixoa tratatzen duten gainerako osasun-langileek ere irakur dezakete. Euskaraz idatzi duenaren ondoren datozen irakurleak euskara ulertzeko gai ez badira, gaixoaren segurtasuna kolokan egon daiteke.

Kanadan, elebitasuna ofiziala den zonaldeetan, gaixoaren eta osasun-langilearen arteko harremanerako hizkuntza gaixok erabakitzen du (Desjardins, 2003) eta osasun-txostenak hizkuntza horretan idazten dira. Belgikan, aldiz, hizkuntza-komunitate bakoitzak bere osasun-zerbitzua kudeatzen duen sistema ez-zentralizatua dauka, eta Bruselaren kasuan, zonalde elebiduna izanik, bi osasun-zerbitzu sistema eskaintzen dira: frantziar komunitatearena eta flandiarrena (Gerkens eta Merkur, 2010). Luxenburgon, herrialde txiki bezain anitza izanik, nahiz eta alemana, frantsesa, italiarra, ingelesa eta portugesa hizkuntza zabalduak diren, *lingua franca* moduan frantsesa erabiltzen dute (European Observatory on Health Care Systems, 1999).

Gurean aldiz, hizkuntza komunitateak nahastuta daude eta *lingua franca* gisa gaztelania erabiltzen dugu Hego Euskal Herrian. Horrek, ordea, ez ditu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzen. Euskara hizkuntza ofiziala izan arren, osasun-langile guztiek ez dute euskara ezagutzen, eta euskaldunak diren osasun-langileek ahozko komunikazioa euskaraz egiten dute eta berehalako itzulpena egin beharra dute oharrak gaztelaniaz idazteko. Nolanahi ere, gaixok oraingoz ez du sistematikoki bere arreta euskaraz lortzeko aukerarik eta horretarako bidea ireki nahiko genuke.

Osasun-langileen euskaraz aritzeko ohiturak eta arazoak ezagutzeko asmoz, 2014 urteko otsailean osasun alorreko 45 langileri galdeketa bat pasatu genien honako inguruan: lan-harremanetan egiten duten eus-

**Kanadan,
elebitasuna
ofiziala den
zonaldeetan,
gaixoaren eta
osasun-
langilearen
arteko
harremanerako
hizkuntza
gaixok
erabakitzen du
(Desjardins,
2003) eta
osasun-txostenak
hizkuntza
horretan idazten
dira.**

**Osasun-
zientzietako
kontzeptuak
deskribatzeko
euskarazko
terminoak nahi
baditugu,
dagoeneko beste
hizkuntzetarako
sortutako
sistema
terminologiko
bat oinarri
hartzea iruditu
zaigu egokiena.**

kararen erabilera ezagutu nahi genuen eta, osasun-txostenei dagokienez, txostenak edozein hizkuntzatan idazten dituztenean zein zailtasun topatzen dituzten ezagutu nahi genuen; eta txostenak euskaraz idazteko aukera izanez gero, tresnak zein behar ase beharko lituzkeen zerrendatu nahi genuen (ortografia-zuzentzailea, osasun-arloko terminologia euskaraz, txantiloia etab.).

Galdeketaren emaitzetatik ateratako ondorioak zerrendatuko ditugu jarraian. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, 41 osasun-langilek gai-xoekin komunikazioa euskaraz egiten dute (beste 4ek ez dute erabiltzen) baina 5ek soilik idazten dituzte txostenak euskaraz. Galdetegian, osasun-txosten bat euskaraz idaztera gonbidatu genituen inkestatuak eta honako zailtasunak aurkitu zituzten: euskarazko terminologiaren falta (45etik 32 pertsonak), eredu falta (24 pertsonak) eta ohitura falta (15 pertsonak). Euskaraz idazteko beharrezkoak iruditzen zaizkien baliabideen inguruan galdetuta, lehentasun handiena eman zieten euskaraz osasun-zientzietako terminologia bateratu eta osatu bati (45etik 39 pertsonak), medikuntzara egokitutako ortografia-zuzentzaile bati (30 pertsonak) eta idazketarako eredu edo txantiloia izateari (25 pertsonak). Galdetutako % 89 prest agertu zen tresna sortuko balitz erabiltzeko; gainerakoek, berriz, bere zalantzak agertu zituzten.

Beraz, inkestaren emaitzetatik ondoriozta dezakegu osasun-zientzietako terminologia bateratu eta osatu bat euskaraz izatea zein garrantzitsua den, gaixo eta osasun-langileen artean euskarazko harremana normalizatzeko, baita osasunaren munduan egunerokoan euskararen erabilera sustatzeko ere. Hori izan dugu lan honen motibazio nagusia: *osasun-zientzietako terminologia euskaraz izateko urratsak ematea, osasunaren alorrean euskararen normalizazioan aurrera pauso bat egiteko*. Artikulu honetan deskribatzen den lanak, Olatz Perez-de-Viñasprek Maite Oronozen zuzendaritzapean garatutako “Osasun-alorreko termino-sorkuntza automatikoa: SNOMED CTren eduki terminologikoaren euskaratzea” tesi-proiektuaren zati bat laburtzen du¹.

Osasun-zientzietako kontzeptuak deskribatzeko euskarazko terminoak nahi baditugu, dagoeneko beste hizkuntzetarako sortutako sistema terminologiko bat oinarri hartzea iruditu zaigu egokiena. Sistema horien errepaso bat egin ondoren, *Systematized Nomenclature Of Medicine — Clinical Terms* edo SNOMED CT estandar klinikoa euskarara ekartzea erabaki genuen. SNOMED CT da ingelesez, espainieraz eta beste hainbat hizkuntzatan, osasun alorreko terminologia jasotzen duen baliabide zabalduena, eta, era berean, orain arte sortu den terminologia eleaniztun

osatuentzat hartzen da. Nolabait esateko, hizkuntza eta sistema desberdinen arteko osasun-txostenen adierazpen eta interpretazio automatikoa eta anbiguotasunik gabea ahalbidetuko duen hiztegi normalizatua da, eta hiztegi-sarreraren arteko harremanak zehaztuta ditu. Osasun-txostenetan agertzen diren kontzeptuak, deskribapenak eta erlazioak barnebiltzen ditu. Ingelesa lantzeko sortu zen hasieran, eta 300.000 kontzeptu baino gehiago ditu definituak, baita horiek izendatzeko ingelesezko 1.000.000 termino baino gehiago ere.

SNOMED CTren indargune nagusia estaldura da. Domeinu klinikoan erabiltzen diren kontzeptuak barnebiltzen ditu, eta espezialitate gehienetako terminologia ere jasotzen du. Horretaz gain, kontzeptuen artean harremanak zehazten ditu: alde batetik, egitura hierarkikoa ematen dioten harremanak ditu, eta, beste aldetik, informazio semantikoa gehitzen duten harremanak, hala nola, agente eragilea (*causative-agent*), aurkikuntzaren tokia (*finding site*), etab. SNOMED CTren barruko harremanez gain, gaur egunean beste baliabide lexikal askoren kontzeptuekin parekatu dituzte SNOMED CTren kontzeptuak. Izan ere, *Unified Medical Language Systemen* (UMLS) metatesauroaren parte da, eta horri esker UMLSren metatesauro horretan dauden gainerako baliabide terminologikoekin parekatuta dago. Parekatze horri esker, SNOMED CT euskaraz izango bagenu, baliabide terminologiko horiek erabiltzen dituzten teknologiak eskura izango genituzke euskararentzat ere.

Hurrengo atalean, SNOMED CTren euskarazko bertsioa automatikoki sortzeko diseinatu eta inplementatu dugun algoritmoa eta honen urrats nagusiak aurkeztuko ditugu.

2. OSASUN TERMINOEN SORKUNTZA AUTOMATIKOA

I

2.1 Itzulpenerako algoritmo orokorra

EuSnomed, SNOMED CT sare semantikoa euskaratzeko garatu dugun sistema da eta lau urratsetako algoritmo bat dauka oinarrian. Algoritmo horrek jatorri-helburu hizkuntzetarako eskura dauden baliabide lexiko elebidunak berrerabiltzen ditu eta horien hutsuneak betetzeko baliabide berriak sortzen ditu. Ordainak modu inkrementalean lortzen ditugu, lortutako ordain berriak berrerabiliz.

Honakoak dira algoritmoaren lau urratsak:

- **Baliabide lexikaletatik jasotako terminoak:** osasun-zientzien domeinuko hainbat hiztegi elebidunetatik zein eleaniztunetatik

SNOMED CT sare semantikoa euskaratzeko garatu dugun sistema da eta lau urratsetako algoritmo bat dauka oinarrian. Algoritmo horrek jatorri-helburu hizkuntzetarako eskura dauden baliabide lexiko elebidunak berrerabiltzen ditu eta horien hutsuneak betetzeko baliabide berriak sortzen ditu.

erauzitako pareak erabili ditugu. Gure beharretarako, ingelesa-euskara zein espainiera-euskara hiztegi eleaniztunak erabili ditugu, hala nola, Euskalterm, ZT Hiztegia, eta abar. Adibidez, 1. irudian urrats honetan kokatzen den adibide bat ikus dezakegu. “*Deoxyribonucleic acid*” ingelesezko jatorri-terminoarentzat bi ordain jasotzen ditugu hiztegietatik, “azido desoxirribonukleiko” eta “DNA”. Jatorria jasotzeaz gain (ikus irudia), datu gehiago sortu eta gordetzen ditugu parekatzean, iturriaren konfiantza maila, kasua, eta abar.

1. irudia: Baliabide lexikalek emandako ordainen adibidea.

Jatorri-terminoa: <i>Deoxyribonucleic acid</i>	
Ordainak:	azido desoxirribonukleiko
	(ZT Hiztegia, Euskalterm)
	DNA
	(ZT Hiztegia, Euskalterm)

— **Termino neoklasikoak:** urrats honetan termino neoklasikoen afixu semantikotaz baliatzen gara ordainak sortzeko. Hurrengo atalean, urrats honetarako garatu dugun NeoTerm sistema sakonki aurkeztu badugu ere, 2. irudian honen adibide bat erakusten dugu. “*Photodermatitis*” ingelesezko jatorri-terminoaren euskaratze-prozesua urratsez urrats erakusten dugu.

2. irudia: Termino neoklasikoen sorkuntza-erregelak lortutako ordainen adibidea.

Jatorri-terminoa: <i>Photodermatitis</i>	
Sorkuntza prozesua:	
<u>Identifikatutako afixuak:</u>	photo+dermat+itis
<u>Itzulitako afixuak:</u>	foto +dermat+itis
Sortutako ordaina: fotodermatitis	

— **Termino habiaratuak:** termino konplexuetarako (hitz batez baino gehiagoz osatutako terminoak) termino habiaratuetan oinarritutako sorkuntza-erregelak erabili ditugu. Termino habiaratuak termino baten barruan dauden beste termino batzuk dira. Adibidez, *fracture of elbow* terminoak, bi termino habiaratu ditu: *fracture* eta *elbow*. Kasu honetan, *fracture* terminoa gaixotasun bat da SNOMED CTn eta *elbow* gorputz-egitura bat da. Informazio horretaz baliatu gara sorkuntza-erregelak idazteko. Aparteko programa bat sortu dugu urrats honetarako ere, KabiTerm deiturikoa. Aurreko adibidearekin jarraituz, 3. irudian termino horren euskaratzea erakusten dugu urratsez urrats.

3. irudia: Termino habiaratuen sorkuntza-erregelen lortutako ordainen adibidea.

Jatorri-terminoa: *Fracture of elbow*

Sorkuntza prozesua:

Identifikatutako egitura: NAHASMENDU + of + GORPUTZ_EGITURA

Egitura baliokidea: GORPUTZ_EGITURA+ren + NAHASMENDU

Sortutako ordaina: Ukondoaren haustura

— Itzultzaile automatikoak sortutako termino konplexuak: azkenekoz, aurreko urratsetan ordainak lortu ez ditugun terminoetarako itzultzaile automatiko bat egokitu dugu. Horretarako, Matxin erabilera orokorreko itzultzaile automatikoa erabili dugu. Medikuntzaren domeinura egokitu dugu eta MatxinMed deitu diogu egokitzapen honi. MatxinMed gainerako urratsetan sortu ditugun termino-ordain pare berriekin elikatu dugu.

4. irudia: MatxinMeden bidez lortutako ordainen adibidea.

Jatorri-terminoa: *Lymphoma of lower esophagus*

Sortutako ordaina: Beheko esofagoko linfoma

Hurrengo lerroetan, NeoTerm eta KabiTerm programen azalpenean sakonduko dugu, izan ere bi programa horiek aurkezten dute ikuspegi linguistikotik interes handiena. Alderdi informatikotik transduktoreak erabiltzen dituzte bi programek. Transduktoreak sarrera bat hartu eta aldatzen duten erregelak gauzatzeko software-makinak dira.

2.2 Termino neoklasikoen euskaratzea: NeoTerm

NeoTerm ingelesezko termino neoklasiko bat jaso eta euskal ordainak sortzen dituen programa da eta ezagutza adierazten duten erregelatan du oinarria. Termino neoklasikoak, jatorri grekoa edo latindarra duten morfemez osatuta dauden terminoak dira, adibidez hipogluzemia edo fotodermatitis. Termino neoklasikoak oso errotuta daude medikuntzaren alorrean.

McCray et al. (1988) lanean konposatu neoklasikoak bi morfema motetan sailkatzen dituzte: erroak eta amaierakoak. Horiekin batera, aurrizki (*non-*, adibidez *nononcogenic* terminoan) zein atzizki (*-al*, adibidez *noso-comial* terminoan) orokorrak ere erabili dituzte azterketan. Literaturan ez dago koherentziarik izendatze horien gainean, eta erroei aurrizki ere deitzen diete. Gure lanean, aurrerago ikusiko dugun bezala, erroak eta aurrizkiak elkarrekin landuko ditugu, aurrizki terminoa erabiliz beraiek

NeoTerm
ingelesezko
termino
neoklasiko bat
jaso eta euskal
ordainak sortzen
dituen programa
da eta ezagutza
adierazten duten
erregelatan du
oinarria.

izendatzeko, zabalduagoa dagoelakoan. Amaierako morfemen kasuan, atzizki izendatuko ditugu.

Euskarazko ordainak sortzeko, hiru urrats inplementatu ditugu NeoTermen:

1. Afixuen identifikazioa: jatorri-terminoaren (ingelesezkoak kasu honetan) afixu neoklasikoen identifikazioa, eta horien araberrako zatitzea.
2. Afixuen baliokidetzak: jatorri-terminoan identifikatutako afixuen baliokidetzak lortzea helburu hizkuntzan (euskara, gure kasuan).
3. Afixuen konposaketa: euskararen arau morfofonologikoak errespetatuz afixu baliokideen konposaketa sortzea.

Hurrengo irudian (5. irudia) *hypophosphatemia* terminoa NeoTermi esker nola euskaratzen dugun erakusten dugu urratsez urrats. Kontuan izan, afixu guztiak ez direla lexikoietan agertzen, eta transliterazioa behar dela termino hau euskaratzeko.

5. irudia: NeoTermen oinarri-sistemaren sorkuntza prozesua.

Jatorri-terminoa: *hypophosphatemia*
Identifikatutako afixuak: *hypo+phos+ph#+at+emia*
Afixu baliokideak: *hipo+fos+f+at+emia*
Euskal ordaina: *hipofosfatemia*

Adibidean, lehenik, afixuak identifikatzen ditugu, identifikatu gabeko karaktere kopurua minimizatuz eta afixu kopuru minimoa aukeratuz (*hypo+phos+ph#+at+emia*). Ostean, afixuen baliokideak jasotzen ditugu lexikoietatik eta identifikatu gabeko zatiak transliteratzen ditugu (*hipo+fos+f+at+emia*). Bukatzeko, afixuak konposatzen ditugu (*hipofosfatemia*). Afixuen identifikaziorako, ezinbestekoa da lehenik hauek zerrendatzea eta euskarazko ordainak lortzea.

Afixuen hiztegien sorkuntza

Jatorri-terminoaren afixuen identifikaziorako, ingelesezko medikuntzako afixuen hainbat zerrenda eskuratu ditugu 1.703 aurrizki eta 630 atzizki lortuz: Stedman-en medikuntza hiztegiko “*Medical Prefixes, Suffixes, and Combining Forms*” (Stedman, 2005), Wikipediaren “*List of medical roots, suffixes and prefixes*” (Wikipedia, 2013), McCarthy-ren “*Suffix Prefix Dictionary*” (McCarthy, 2016) hiztegia eta, garapenean sortutako zalantza kasuetan, “*Mosby’s Medical Dictionary*” hiztegia erreferentzia hartuta hainbat aurrizki gehitu ditugu.

Ordainen sorkuntzarako zerrenda elebarkor horietako afixuak banan-banan aztertu ditugu euskarazko baliokidetzak aurkitzeko. Horretarako, afixuen itzulpenak hiztegi espezializatueta termino-ordain pareetatik ondorioztatu ditugu. Adibide gisa, 1. taulan *encephal-* aurrizkiaren euskar baliokidea ondorioztatze prozesua erakusten dugu.

1. taula: *encephal-* aurrizkiaren euskar ordainak.

Ingelesezt terminoak	Euskarazko ordainak
anencephalia	anentzefalia
echoencephalogram	ekoentzefalograma
electroencephalograph	elektroentzefalografo
encephalitis	entzefalitis
encephalomyelitis	entzefalomielitis
encephalopathy	entzefalopatia
leukoencephalitis	leukoentzefalitis
...	...

Ikus daitekeenez, hiztegi sarrera guztietan ingelesezt *encephal-* aurrizkia, euskarazko ordainetan entzefal- aurrizki moduan agertzen da. Prozesu hori bera egin dugu zerrendetako 2.333 afixuekin (lortu ditugun afixuen baliokidetzak <http://ixa2.si.ehu.eus/neoterm/> web-orrian daude eskuragarri).

Sortutako hiztegi elebidunetik, bi lexikoi bereizi ditugu, bata aurrizkietarako eta bestea atzizkietarako.

Identifikazioa

Afixuen identifikazioa bi urratsetan egiten da. Lehenengo urratsean identifikatzea lortzen ez bada, bigarren urratsean identifikatzen saiatuko da. Bigarren urratsean ere ezin bada identifikatu, terminoa euskaratu gabe gelditzen da.

Lehenengo urratsean, nahi adina aurrizki eta derrigorrezko atzizki bakar bat bilatzen dugu terminoan. Adibidez, ingelesezt *radionecrosis* terminoarentzat, *radio+necr+osis* edo *radio+nekr+si* zatiak identifikatuak genituzke (aurrizki eta atzizki guztiak).

Atzizkia derrigorrezkoa egitea erabaki dugu, atzizkien baliokidetzak aurrizkienak baino konplexuagoak edo ezberdinak direla ikusi dugu-

Hiztegi sarrera guztietan ingelesezt *encephal-* aurrizkia, euskarazko ordainetan entzefal- aurrizki moduan agertzen da. Prozesu hori bera egin dugu zerrendetako 2.333 afixuekin.

**KabiTerm,
termino
konplexuen
barruan agertzen
diren beste
terminoetan
oinarritzen da
termino
konplexuak
euskaratzeko.**

lako. Hau da, aurrizki gehienek transliterazio arauak jarraitzen dituzten bitartean, atzizkiek aldaera ezberdinak dituzte (ingelesezko *-itis*, euskaraz *-itis* mantentzen den bitartean, *-sis* atzizkia *-si* gisa euskaratzen da).

Ikusi dugunez, afixuen identifikazioan zenbaitetan anbiguotasuna egoten da, eta hainbat aukera proposatzen ditu NeoTermek. Anbiguotasuna gutxitzeko, afixu gutxien (edo luzeenak) dituzten aukerak erabili ditugu. Adibidez, ikus dezagun *photodermatitis* terminorako transduktoreak proposatzen dituen afixuen konbinazio ezberdinak:

- *photo+dermat+itis*: 3
- *photo+derm+at+itis*: 4
- *phot+o+dermat+itis*: 4
- *phot+o+derm+at+itis*: 5

Terminoak, 3, 4 edo 5 afixutan bana daitekeela ikus dezakegu. Zehaztutako irizpideari jarraiki, lehenengo aukera izango da aukeratua afixuen baliokidetzak lortzeko eta euskal ordaina sortzeko.

Bigarren urratsean, identifikazio malguagoa definitu dugu, aurrizki eta atzizki zerrendetan aurkitzen ez diren zatiak ere identifikatuz. Horretako definituko dugun gutxieneko baldintza, terminoaren atzizkia lexikoian agertzea da, nahiz eta aurrizki guztiak lexikoian ez egon. Malgutasun honekin anbiguotasuna sortzen da eta hori ebazteko, jarraian azalduko dugu irtenbide bat.

Diverticulitis terminoaren kasuan, *verticul* zatia ez da afixuen lexikoian agertzen (zati hauek # ikurra dute amaieran). Hala ere, transduktoreak proposatu egiten ditu zatiketak lexikoetan agertzen diren afixuak identifikatu gabeko zatiekin konbinatu egiten baititu. Identifikatutako zatien ondoren, zati kopurua eta identifikatu gabeko zatia ren karaktere kopurua gehitu ditugu.

- *diverticul#+itis*: $2 + 10 = 12$
- *divertic#+ul+itis*: $3 + 8 = 11$
- *di+verticul#+itis*: $3 + 8 = 11$
- *di+vertic#+ul+itis*: $4 + 6 = 10$

Aukeraketa egiteko orduan, bi baldintza erabili ditugu: luzeran motzena den identifikatu gabeko zatia bilatzen dugu, eta aldi berean, lexikoietan agertzen diren afixu gutxien egotea bilatzen dugu (*di+vertic#+ul+itis*, kasu honetan). Identifikatu gabeko zatia transliterazioa erabiliz euskaratzen da.

Baliokidetza

Baliokidetza, identifikatzeko moduaren arabera egiten da: lexikoien bidez ala transliterazioaren bidez.

Afixu bezala identifikatu gabeko zatiak transliteratzeko 40 erregela definitu ditugu. Erregela horiek sortzeko, euskararen morfofonologia arauak errespetatzeko erregelak transliteraziorako egokitu ditugu (ikus konposaketa atala) eta berri batzuk definitu ditugu ere. Berriak definitzeko, erregela batzuk enpirikoki ondorioztatu ditugu, euskararen ortografia arauak betetzen dituztela bermatuaz. Adibidez, *v* letra, *b* letrarekin ordezkatzan dugu beti arau ortografikoei jarraituz, edo *c* letra *z*-rekin *e*, *i* edo *y* letra jarraian izanez gero, eta *k*-rekin gainontzekoetan, arau morfofonologikoei ezartzen duten moduan.

Erregela horietako batzuk adibideekin erakusten ditugu 2. taulan.

2. taula: Transliteraziorako hainbat erregela.

	en	eu	Adibidea	Erregela
1	ÿ	i	yttrium -> itrio	y -> i [#.l] _ Kon
2	p h	f	pharyngostome -> faringostoma	p h -> f
3	r h	r r	rheostosis -> erreostosis	r h -> r r
4	c k	k	amsinckine -> antsiskina	c k -> K
5	r s	r t s	arsenic -> artseniko	r -> r t _ Txis Bok
6	x s	s	isoxsuprine -> isosuprina	x -> 0 _ s
7	c c	k z	occipital -> okzipital	c c -> k z _ [e l i l y]
...	...	...	...	...

Konposaketa

Afixuen konposaketarako, sortutako ordainek euskararen arau ortografikoak eta morfofonologikoak betetzeaz arduratzen diren 28 erregela definitu ditugu. Arau ortografikoen artean *v* bezalako letren ordezkapenak aurkitzen ditugun bitartean, arau morfofonologikoetan hobikariaren eraginez txistukariaren sabaikaritzea aurkitzen dugu (euskaraz, entzefalitis esango genuke, eta ez *enzefalitis).

Erregela horiek definitzeko, alde batetik Euskaltzaindiaren ortografia arauak izan ditugu kontuan (Euskaltzaindia. Luis Mitxelena, 1968), eta bestetik enpirikoki aztertutako aldaerak.

Afixuen konposaketarako, sortutako ordainek euskararen arau ortografikoak eta morfofonologikoak betetzeaz arduratzen diren 28 erregela definitu ditugu.

**KabiTermek
ingeleseko
termino konplexu
bat jasotzen du
sarreran, eta,
baliabideak
izanez gero,
euskarazko
ordainak
proposatzen ditu.
Baliabide horiek,
habiaratutako
terminoen
ordainak eta
euskaratze-
patroiak dira.**

Aurreko adibideari jarraiki, afixuen konposaketak sortutako aldaeren artean daude gaurko erdaretan *r* letraz hasten diren hitzak (3. taulan 1. erregela). Hitz horiek euskaraz mailegatzean, bokalez hasten dira. Kasu gehienetan *e* letra erabiltzen da horretarako (erradio, errezeta...) nahiz eta kasu bakan batzuetan *a* letra ere erabili izan den (arropa, arrosa...).

Hurrengo taulan (3. taula) erregela gehiago ikus ditzakegu.

3. taula: Erregela morfofonologiko batzuk.

	en	eu	Adibidea	Erregela
1	ˈr	e r r	radionecrosis -> erradionekrosi	r -> err ll [.#. l ʃ] _
2	ˈs	e s	spermatocoele -> espermatozele	s -> es ll [.#. l ʃ] _ (+) Kon
3	s s	s	dysomnia -> disomnia	s -> 0 ll _ + s
4	n z	n t z	encephalitis -> entzefalitis	n -> n t ll _ Txis + Bok
5	r s	r e s	hypersplenism -> hiperesplenismo	r + -> r e ll _ Txis Kon
6	r r	r	hyperreflexia -> hiperreflexia	r r -> r ll Kon + _
7	m p	n p	symphysis -> sinfisis	m -> n ll _ + [b l p l t l f]
8	k	z	thoracic -> toraziko	
9	c c	k	buccolabial -> bukolabial	K Z -> k ll _ + [Kon l a l o l u]
...	...	...	...	...

2.3 Termino habiaratuen euskaratzea: KabiTerm

KabiTerm termino konplexuen barruan agertzen diren beste terminoen oinarritzen da termino konplexuak euskaratzeko.


KabiTermek ingeleseko termino konplexu bat jasotzen du sarreran, eta baliabideak izanez gero, euskarazko ordainak proposatzen ditu. Baliabide horiek, habiaratutako terminoen ordainak eta euskaratze-patroiak dira. Aurrerago azalduko dugun moduan, KabiTermen lana errazteko, AnaMed deituriko analizatzailea prestatu dugu. Analizatzaile hori, KabiTermek beharrezkoa duen informazioa biltzeaz arduratzen da, eta termino habiaratuak identifikatzen eta prestatzen ditu, KabiTerm euskaratzeaz soilik ardura dadin.

Orokorrean, AnaMedek analizatzaile linguistiko automatiko bat hartzen du oinarritzat, eta eponimoen eta SNOMED CTren terminoen identifikazioa integratzen ditu. Bere arkitektura 6. irudian ikus dezakegu. Irudian ikusten den “Down syndrome” adibidearekin ikusiko dugu AnaMeden funtzionamendua.

1. **Analizatzaile linguistikoak** hitz bakoitzaren lema (*lemma*), kategoria gramatikala (*PartOfSpeech*), entitate mota (pertsona, tokia ala erakundea den, *NamedEntityTag*) eta hitzaren posizioa (*CharacterOffsetBegin* eta *CharacterOffsetEnd*) ematen dizkigu.
2. Bigarrenik, **eponimoen ezagutzaileak** kontzeptuen izendatzetan agertzen diren pertsona-izenak identifikatzen ditu. Izan ere, medikuntzan eponimoak oso ohikoak dira, bereziki gaixotasunak eta sindromeak adierazteko. Irudiko “Down-en sindromea” edo “Alzheimer-en gaixotasuna” terminoetakoak adibidez. Irudian ikusten dugun bezala, “Down” hitzaren *NamedEntityTag* etiketa eguneratua izan da *EPONYM* balioarekin.
3. Azkenik, **SNOMED CTren terminoen ezagutzaileak**, pasatako terminoaren baitan agertzen diren beste SNOMED CTren terminoak identifikatzen ditu, eta eurei dagozkien hierarkia (gaixotasuna, gorputz-egitura, prozedura etab. ote den) eta SNOMED CTko kontzeptu identifikadorea (zenbaki bat) etiketatzen ditu (*Hierarchy* eta *sctId* etiketak hurrenez hurren). Irudian ikus daitekeenez, Down hitzari, kalifikatzaile hierarkia (*qualifier*) eta 255518004 kontzeptu identifikadorea esleitu dizkio, eta *syndrome* hitzari aldiz, nahasmenduen hierarkia (*disorder*) eta 64572001 identifikadorea.

SNOMED CTren terminoen ezagutzaileak, pasatako terminoaren baitan agertzen diren beste SNOMED CTren terminoak identifikatzen ditu, eta eurei dagozkien hierarkia (gaixotasuna, gorputz-egitura, prozedura etab. ote den) eta SNOMED CTko kontzeptu identifikadorea (zenbaki bat) etiketatzen ditu.

6. irudia: AnaMed analizatzailearen arkitektura.



AnaMedek sortutako informazioa KabiTerm sistemak erabiltzen du termino nagusian termino habiaratuak identifikatzeko. Termino habiaratu horiek oinarri hartuta, ingelesezko terminoen egituren analisia egin dugu AnaMeden bidez. Hurrengo taulan (4. taula), egitura horien adibide batzuk ikus ditzakegu. Adibidez, *malignant neoplasm of renal calyx* termino konplexuan bi termino nagusi aurkitu ditugu *malignant neoplasm* nahasmenduen (*disorder*) hierarkiakoa bata eta *renal calyx* gorputz-egituren (*body structure*) hierarkiakoa bestea. Aipatu beharra dugu, habiaratutako termino gehiago ere aurkitzen dituela AnaMedek, hala nola *calyx* gorputz-egitura, *malignant* kalifikatzailea (*qualifier*) edo *neoplasm* nahasmendua.

4. taula: AnaMeden bidez lortutako egiturak eta multzokatzeak.

Terminoak	Multzokatzea	Egitura
structure of radial tuberosity	structure of radial_tuberosity	structure+of+BODYSTR
Baelz's disease	Baelz's disease	EPONYM+'s'+DISORDER
malignant neoplasm of renal calyx	malignant_neoplasm of renal_calix	DISORDER+of+BODYSTR

Habiaratutako termino guztiekin sortu ditugu egiturak, eta agerpen kopuruaren eta dependentzia kopuruaren arabera sailkatu ditugu. Hau da, egitura zenbat terminotan azaltzen den zenbatu dugu, eta termino hori zenbat terminotan agertzen den habiaratuta kontuan hartu dugu. Egitura horietako gutxi batzuk ikus daitezke 5. taulan (“Agerp.” izenburuak agerpen kopuruari egiten dio erreferentzia eta “Depen.” izenburuak egitura horrek beste terminoekiko duen dependentzia kopuruari). Adibidez, QUALIFIER+DISORDER egiturarako, 4.469 agerpen aurkitu ditugu, eta gainera 74.208 terminoetan agertzen da egitura hau habiaratuta. Lehen-tasun altuko egitura dela erabaki dugu, agerpen asko izateaz gain, gainerako termino konplexuak euskaratu ahal izateko oso garrantzitsua izango delako. QUALIFIER+neoplasm egitura aldiz, bere horretan 4 aldiz agertzen bada ere, beste termino konplexuek lau termino horiekiko duten dependentzia oso altua da (28.642 terminoen barruan agertzen da).

5. taula: SNOMED CTren terminoen egituren agerpenak eta dependentziak beste terminoekiko.

Egitura	Adibidea	Agerp.	Depen.
QUALIFIER+DISORDER	unstable diabetes mellitus	4.469	74.208
QUALIFIER+neoplasm	malignant neoplasm	4	28.642
PROCEDURE+of+BODYSTRUCTURE	amputation of finger	5.082	33.181
...	...	...	...


Bi medikuri egitura horietako adibideak eman dizkiegu, horiei euskarazko ordainak emateko. Izan ere, Zabala et al. (2012) lanean erakusten duten bezala, hiztegi zein itzultzaileek jatorrizko terminoaren egituraren kalkoetara jotzeko joera duten bitartean, adituek euskararen berezko egituretara jo ohi dute. Hori horrela izanik, medikuek sortutako lagina hobetsi dugu hiztegietatik erauzitako adibideak baino. Adituek sortutako adibide horiek euskaratze-patroiak definitzeko oinarria izan dira. Adibideak lortzeko prozesua bi fasetan banatu dugu.

Lehenengo faserako 41 egitura aukeratu ditugu eta bakoitzeko gutxienez zoriz erauzitako 3 adibide. Aditu bakoitzari 28 eta 27 egitura eman diz-

Hiztegi zein itzultzaileek jatorrizko terminoaren egituraren kalkoetara jotzeko joera duten bitartean, adituek euskararen berezko egituretara jo ohi dute. Hori horrela izanik, medikuek sortutako lagina hobetsi dugu hiztegietatik erauzitako adibideak baino.

kiogu hurrenez hurren, zeinetatik 14 egitura komunak diren, 7. irudian ikus dezakegun moduan. Denera 100 eta 97 adibideren euskarazko ordainak jaso ditugu, eurretako 58 termino komunean dituztelarik.

7. irudia: Adituei banatutako lagina.



Komunean dituzten adibideen kasuan, adostasun altua neurtu dugu, eta desadostasun kasuekin, beraien arteko adostasuna bilatu dugu, irizpide berdinak erabil ditzaten. Hurrengo taulan (6. taula) adibide horietako batzuk ikus ditzakegu, non lehenengo adibidean ordain ezberdinak proposatu dituzten (nahiz eta gerora adostasuna lortu den), bigarrenean adostasuna izan duten, eta hirugarren eta laugarrenetan adibide ezberdinak dituzten. Adibideetan ikus daitekeenez adibide-terminoak ez dira sinpleak eta osasunari buruzko ezagutza behar da euskaratze egokia lortzeko.


6. taula: Adituen euskaratzeen adibide batzuk.

Ingelesa	Aditu 1	Aditu 2
cryotherapy to cranial nerve	nerbio kranialaren krioterapia	garezurreko nerbioen krioterapia
calcium regulating agent overdose	kaltzioaren agente erregulatzaileek eragindako gaindosia	kaltzioaren agente erregulatzaileek eragindako gaindosia
open fracture of scaphoid bone of wrist	eskumuturreko eskafoide hezuraren haustura irekia	
adrenergic neurone blocking drug adverse reaction		neurona adrenergikoen blokeatzaileek eragindako kontrako efektua

Oinarrizko irizpideak argi izanik, bigarren faserako, 25na egitura pres-tatu ditugu, aditu bakoitzak denera 100 adibide inguru dituelarik. Bi faseak elkarturik, 340 adibide inguru izan ditugu euskaratze-patroiak definitzeko eta horietatik abiatuta 53 euskaratze-patroi definitu ditugu.

Jarraian, besteak beste KabiTermek egiten duen patroi horien erabilera aztertuko dugu. Kabiterm tresnak urratsez urratseko aldaketak egiteko, transduktoreak erabiltzen ditu eta bere funtzionamendua 8. irudian irudikatu dugu:

8. irudia: KabiTermen arkitektua eta funtzionamenduaren adibideak.



1. Aurrena, sarrera terminoa AnaMedek analizatzen du, termino habiaratuak identifikatuz eta multzokatuz: *fracture of nasal bones* terminoaren kasuan, *fracture* nahasmendua da eta *nasal_bone* gorputz-egitura. Termino habiaratuak multzokatzeaz gain, lematizazioa ere beharrezkoa izan da adibide honetan, *nasal bone* SNOMED CTren terminoa delako, baina ez *nasal bones* forma pluralean.

**Euskaratze-
patroien
identifikazio eta
termino
habiaratuen
etiketatzerako
transduktoreari
deitzen diogu, eta
honek, dagokion
euskaratze-
patroia
aplikatuz,
termino
habiaratuei
euskaratzeko
beharrezko
etiketak gehitzen
dizkie.**

2. Bigarrenik, euskaratze-patroien identifikazio eta termino habiaratuen etiketatzerako transduktoreari deitzen diogu, eta honek, dagokion euskaratze-patroia aplikatuz, termino habiaratuei euskaratzeko beharrezko etiketak gehitzen dizkie. Kasu honetan, DISORDER+of+BODY-STRUCTURE egitura identifikatu du, eta horri dagokion euskaratze-patroia aplikatu dio: *fracture* terminoari “|DIS” etiketa gehitu dio, nahasmendu bat delako, *nasal_bone* terminoari aldiz, “|BOD+Eko” etiketa eta “|BOD+areM” etiketak gehitu dizkio, gorputz-egitura izateaz gain, deklinabidea ere gehitu behar izan diolako (“+Eko” eta “+areM” adibidean). Horri guztiari, ordena aldatzeko etiketa ere gehitu dio, lehenengo terminoa amaieran jartzeko (“&LehenaAzkenera”).

3. Jarraian, termino habiaratuen berrantolaketa egiten dugu, aurreko urratsak sortutako etiketari jarraituz (&LehenaAzkenera). Horrela, *fracture* terminoa lehenetik azkenera pasatzen da.

4. Laugarrenik, termino habiaratuen euskaratzeko transduktoreari deitzen diogu. Horrela, euskarazko ordainak jasotzen ditugu: “sudur-hezur+Eko haustura” eta “sudur-hezur+areM haustura” lortuz (hierarkien etiketak desagertu dira eta ingelesezko termino bakoitzaren euskarazko ordaina dugu irteeran).

5. Ostein, termino habiaratuetako bat jatorrian pluralean zegoenez, horren deklinabideak eguneratzen ditugu pluralaren forma jaso dezan: “+Eko” “+etako” bihurtzen da, eta “+areM” “+eM”. Kasu honetan, “sudur-hezur+etako haustura” eta “sudur-hezur+eM haustura” lortu ditugu. Gogoratu, sarrerako terminoa pluralean dagoela (*fracture of nasal bones*). Adibide honetan gertatzen ez bada ere, izenondoren bat egonez gero, horren berrantolaketa ere gauzatzen da urrats honetan. Izan ere, euskaraz, izenondoak izenaren ondoren kokatzen dira, eta izenlagunak izenaren aurretik. Adibidez, “onbera” izenondoa, izenaren ostean kokatzen da, adibidez, “neoplasia onbera” terminoan ikusten dugun moduan. Izenlagunak, aldiz, izenaren aurrean gelditzen dira ingelesezko adjektiboen antzera, adibidez “jaiotzetiko kiste” terminoan “jaiotzetiko” izenlaguna izenaren aurretik ikus dezakegu.

6. Azkenik, termino habiaratuei deklinabideak gehitzeko transduktoreari deitzen diogu, euskarazko termino konposatuak lortuz: “sudur-hezurretako haustura” eta “sudur-hezurren haustura”.

Azaldu berri dugun euskaratze-prozesu honetan hainbat faktore hartu ditugu kontuan. Genitiboaren kasuan, zenbaitetan ez da erraza izaten lekuzko genitiboa ala edutezko genitiboa erabili behar den erabakitzea. Adibidez, “*abdominal aorta*” terminorako, Euskaltermek lekuzko geniti-

boa, “abdomeneko barrunbe” erabiltzen du eta Anatomiako Atlasak genitiboa erabiltzen du, “abdomenaren barrunbe”. Adituekin irizpide bat ezartzen saiatu gara: kokapena adierazi nahi denean, lekuzko genitiboa; osoa-zatia erlazioa adierazi nahi denean, edutezko genitiboa (Zabala et al., 2012). Hala ere, irizpide hori automatizatzea ez da argia, eta adituen iritzia jantzia ezinbestekoa da, testuingurua eta horren ulertzea ezinbestekoa delako. Hori horrela izanik, eta lan honen helburua ez denez erreferentziazko ordainak sortzea, baizik eta ordain hautagaiak sortzea, gainsorkuntzaren bidea aukeratu dugu kasu horietan, eta bi modutara osatu ditugu terminoak.

Terminoaren euskaratze-patroiak ahalik eta zabalenak izan daitezzen saiatu gara, orokortzea posible izan den heinean. Hona hemen kontuan izan ditugun fenomeno batzuk:

- Preposizioen euskaratze anitza: ingelesezko preposizio asko SNO-MED CTko kalifikatzaileen hierarkian daude, baina preposizioak ez dira denak berdin euskaratzen. Adibidez, *with* normalean soziatibo deklinabidearekin ordezkutzen da, *on* inesiboarekin, *to* helburuzkoarekin, etab. Gure erregelatan, deklinabide-markak ez dira lexikoi bidez gehitzen, eta erregela zehatzek gehitzen dituzte beharrezkoak direnetan.
- Adjektiboen ordena: Kalifikatzaileen hierarkiaren kasuan, hasiera batean orokortzea ezinezkoa zela iruditu zitzaigun, adjektiboek euskaraz ordenan aldaerak dituztelako. Hala ere, izenondo eta izenlagun ezberdintasunari esker orokortzea lortu dugu. Izenondoa bada, izenaren ostera mugitzen dugu kalifikatzailea den adjektiboa, eta bestelakoetan dagoen bezala uzten dugu, ingelesezko terminoaren ordena berdinean. [QUALIFIER]+[DISORDER] egitura duten *benign neoplasm* eta *congenital cyst* adibideen kasuan, euskaraz “neoplasia onbera” eta “jaiotzetiko kiste” dira ordainak; “onbera” izenondoa izanik izenaren ostera mugitu dugu, eta “jaiotzetiko” izenlaguna izatean izenaren aurrean utzi dugu. Hori kontuan izanik, adjektiboen kasuan, izenondo ala izenlagun informazioa lexikoietan gorde dugu.
- Genitiboa izenetan: euskaratze-patroi batzuek termino habiaratu bati genitiboaren deklinabidea gehitzea eskatzen dute. Kasu horietan, termino hori izena dela ziurtatu behar izan dugu, gainerako kasuetan ez baitu genitiboaren marka onartzen. Izena ez den kasuetan, terminoa bere horretan utzi dugu, deklinabide markarik gabe. Adibidez, ingelesezko *hypertrophic rhinitis* terminoan, *hypertrophic* gorputz-egituren hierarkiakoa da, eta *rhinitis* nahasmendu bat. BODYSTRUCTURE+DISORDER egiturarako euskarazko NA-

**Adjektiboen
ordena:
Kalifikatzaileen
hierarkiaren
kasuan, hasiera
batean
orokortzea
ezinezkoa zela
iruditu zitzaigun,
adjektiboek
euskaraz
ordenan aldaerak
dituztelako. Hala
ere, izenondo eta
izenlagun
ezberdintasunari
esker orokortzea
lortu dugu.**

**Estandar
klinikoen
itzulpena lan
sakona eta
garestia da, eta
aditu askoren
denbora luzea
eskatzen du.
Itzulpen
automatikoak
estandar
klinikoaren
itzulpenean
laguntza handia
eskain dezake,
itzulpenaz
arduratzen diren
adituen lana
biziki arinduz.**

HASMENDU+aren edo +ko GORPUTZ-EGITURA egitura balioki-dea sortzen dugu. Adibideari jarraituz, “errinitis hipertrofikoko” edo “errinitis hipertrofikoaren” sortuko genuke, ordain akastunak izanik. Izan ere, patroi mota horiek (genitiboa eskatzen dutenak), izenetan betetzen dira, eta ez adjektiboetan.

- Termino habiaratuak pluralean: sistemaren estaldura hobetzeko, terminoen formak lexikoietan ez aurkitzean, horien lema bilatu ditugu. Izan ere, AnaMedek estrategia berdina erabiltzen du terminoen identifikazioan. Forma pluralean badago, transduktoreei terminoaren forma singularra pasatzen diegu eta pluralaren marka gehitzen diogu, deklinabidea ondo gehitu ahal izateko (gogoratu 8. irudiko *nasal bones* adibidea).

3. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO LANA

Artikulu honetan, estandar klinikoen euskaratze automatikorako garatu dugun algoritmoa eta tresnak aurkeztu ditugu. Termino neoklasikoak euskaratzeko NeoTerm deituriko sistema sortu dugu, zeinak ingelesezko termino neoklasikoak abiapuntu izanik, horien morfologia baliatzen duen euskarazko ordainak sortzeko. Aurrizki eta atzizkien konposaketan oinarritzeaz gain, transliteraziorako modulu bat ere garatu dugu, Neo-Termen eragina areagotuz.

Termino konplexuetarako aldiz, KabiTerm sistema garatu dugu. Honek termino habiaratuen egitura baliatzen du ingelesezko termino konplexuak euskaratzeko. Ideia nagusia zera da: termino konplexuen barruan maiz beste termino batzuk agertu ohi dira habiaratuta. Habiaratutako terminoa, barrukoa, euskaratuta badago, euskaratze-patroiak definitu ahal dira termino konplexu osoaren ordainak lortzeko. Helburu horrekin termino habiaratu horien SNOMED CTren hierarkiak erabili ditugu terminoen egiturak aztertzeko eta euskaratze-patroiak definitzeko.

Estandar klinikoen itzulpena lan sakona eta garestia da, eta aditu askoren denbora luzea eskatzen du. Itzulpen automatikoak estandar klinikoaren itzulpenean laguntza handia eskain dezake, itzulpenaz arduratzen diren adituen lana biziki arinduz. Horretaz gain, itzulpen prozesuaren sendotasuna eta koherentzia mantentzeko tresna oso lagungarria da, termino zehatzen ordain berdinak behin eta berriz erabiltzea ahalbidetzen baitu inongo kosturik gabe.

Hemen aurkeztutako algoritmoaren inplementazio osatuari esker, SNOMED CT estandar klinikoaren euskarazko lehen bertsio automatikoa

lortu dugu. Hemendik aurrera, bertsio horren eskuzko balidazioa izango da eginkizun nagusia. Gure aldetik, balidazio hori bi urratsetan egitea proposatzen dugu. Aurrenik, mediku zein erizainek komunitatean kontzeptu bakoitzerako termino egokiak aukeratzeko kanpaina prestatuko dugu. Horrela, kontzeptu bakoitzeko semantikoki zuzenak izan daitezkeen termino multzo bat lortuko dugu, erabiltzaileek aukeratuak. Bigarrenik, terminologia klinikoan adituak diren hizkuntzalari, itzultzaile zein mediku eta erizainek azken balidazioa egingo dute, terminoen egokitasuna bermatu eta erreferentziazkoa izan daitezkeen kontzeptu bakoitzerako termino hobetsia aukeratzeko. SNOMED CT-ren euskarazko bertsioa sortzeko definitutako algoritmoa une honetan Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren bertsio bat itzultzeko (10.ena modifikazio klinikoarekin) erabiltzen ari gara, Osakidetzarekin elkarlanean. SNOMED CTren euskaratzearekin batera, XuxenMed, medikuntzara egokitutako zuzentzaile ortografikoa sortu dugu.

Estandar kliniko eleaniztunek, hizkuntzen arteko baliokidetzak eskaintzeaz gain, ikuspegi informatikotik begiratuta ate asko irekitzen dizkigute. Adibidez, osasun-txostenen kalitatezko itzulpen automatikorako oinarria izan daitezke, edota hizkuntza ezberdinetan idatzitako osasun-txostenetan informazioa modu kohesionatu batean erauzteko oinarria ere. SNOMED CT euskaraz lortzearekin, euskara gaztelania zein ingelesa bezain hizkuntza indartsuen parean jartzen dugu eta horrela, oztopo soziolinguistikoei aurre egiteko baliabide berri bat lortzen dugu. ●

OHARRA

1. <http://ixa.si.ehu.es/sites/default/files/dokumentuak/8874/NAGUSIA.pdf>

BIBLIOGRAFIA

- Desjardins L. Le santé des francophones du Nouveau-Brunswick. Petit-Rocher, Société des Acadiens et des Acadiennes du Nouveau-Brunswick, 2003.
- European Observatory on Health Care Systems. Luxembourg: Health system review. Health Systems in Transition, 1999.
- Euskaltzaindia. Luis Mitxelena. 0. araua. ortografia, 1968.
- Gerkens S. eta Merkur S. Belgium: Health system review. Health Systems in Transition, 12(5):1–266, 2010.
- McCarthy E.M. <http://macroevolution.net>, 2016.
- McCray A.T., Browne A.C., eta Moore D.L. The semantic structure of neoclassical compounds. Proceedings of the Annual Symposium on Computer Application in Medical Care, page 165. American Medical Informatics Association, 1988.

Estandar kliniko eleaniztunek, hizkuntzen arteko baliokidetzak eskaintzeaz gain, ikuspegi informatikotik begiratuta ate asko irekitzen dizkigute. Adibidez, osasun-txostenen kalitatezko itzulpen automatikorako oinarria izan daitezke, edota hizkuntza ezberdinetan idatzitako osasun-txostenetan informazioa modu kohesionatu batean erauzteko oinarria ere.

- Stedman T.L. Stedman's Medical Dictionary, chapter Medical Prefixes, Suffixes, and Combining Forms. Lippincott Williams & Wilkins, twenty-eighth edition edition, 2005.
- Wikipedia. List of medical roots, suffixes and prefixes – Wikipedia, The Free Encyclopedia. http://en.wikipedia.org/w/index.php?title=List_of_medical_roots,_suffixes_and_prefixes, 2013.
- Zabala I., San Martin I., Lersundi M., Azkue J.J., eta Mendizabal J.L. The Elaboration of Human Anatomy Terminology for the Basque Language: the Contribution of Translators, Linguists and Experts. *Terminàlia*, 15– 25, 2012.

berria *lagun* egin nahi duzu?

BERRIALagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukera ondoen datorkizuna:

BERRIALaguna

Hilean 10€ edo urtean 100€

Abantailak:

- BERRIA PDFn.
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea izatea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak eskuratzea.

BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik-igandera Hilean 36€

Asteartetik-ostiralera Hilean 23€

Ostiraletik-igandera Hilean 21,3€

Asteburukoa Hilean 15€

Abantailak:

- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn.
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea izatea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak eskuratzea.



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria** *laguna*
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45



berria
#BERRIAk15

Euskararen lantze funtzionala eta profesionalen komunikazio-gaitasunen garapena osasun-alorrean*

Igone Zabala

Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila (UPV/EHU)

igone.zabala@ehu.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Osakidetza baren bigarren hizkuntza-plangintza helburu orokorra da zerbitzu-hizkuntza gisa euskararen ahozko eta idatzizko komunikazioa sustatzea. Lan honetan, helburu horrek erakunde zerbitzu-emaleei eta profesionali dakartzkien erronketako biri erreparatu diegu. Batetik, euskara komunikazio-egoera klinikoetan eraginkortasunez erabiltzeko beharrezkoa den lantze funtzionalaz aritu gara, alegia, terminologiaren, adierazpideen eta estiloen garapenaz. Bestetik, profesionalen komunikazio-trebetasunen garapena dugu hizpide: jomugan izan behar ditugun gaitasun eta trebetasunak, eta horiek progresiboki garatzeko ibilbidea. Erronka horiei erantzuteko ezinbestekoa da Osakidetza eta UPV/EHU-ren arteko plangintza eta lan koordinatua, hizkuntzalarien, hizkuntza-bitartekarien eta osasun-alorreko profesionalen arteko diziplina arteko lana behar baita bai erregistro klinikoaren garapenari laguntzeko tresna eta baliabideak sortzeko, eta bai profesionali komunikazio eraginkorrerako trebetasunak garatzen laguntzeko formazio-programak diseinatzeko ere. • *Hitz gakoak:* euskararen lantze funtzionala, komunikazio kliniko, estandar klinikoak, terminologia kliniko, komunikazio eraginkorrerako trebetasunak.

Abstract. The overall objective of Osakidetza's (Basque Health Service) second Basque language plan is to promote oral and written communication in the Basque language in order for it to be a working language in health care. In this paper, we have focused on the challenges faced by the organization's service providers and professionals. On the one hand, we have focused on the functional work necessary to effectively use Basque in communicative situations such as developing terminology, expressions and styles. On the other hand, we discuss the development of professional communication skills: the skills and abilities we need to aspire to, and the path we should take in order to progressively develop them. In order to respond to these challenges, the planning and coordinated work of Osakidetza and the University of the Basque Country (UPV / EHU) is essential, as is the interdisciplinary work of linguists, language mediators and health professionals, as well as tools and resources used to assist in developing clinical records and to enhance professional communication skills for professionals in order to design training programs. • *Key words:* functional rendering of Basque, clinical communication, clinical standards, clinical terminology, effective communication skills.

* Lan hau Espainako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeritzak (MINECO) finantzaturako PROSAMED (TIN2016-77820-C3-1-R) ikerketa-egitasmoaren barruan kokaturik dago.

SARRERA

I

Biziberritze prozesuari ekin zitzaionetik, 1960ko hamarkadaren bukaera aldean, euskararen erabilaren hedapena hezkuntzaren munduan izan da nabarmenena eta, osasun-arretaren alorrean, aldiz, atzeratuenetakoa. Euskararen biziberritze prozesurako funtsezkoa izan da hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan horren erabilera sustatu izana. Izan ere, erabilera-esparru berri horietarako askotariko profesional euskaldunak behar zirenez, motibazio instrumentalak gehitu zitzaizkien lehengo arrazoi identitario eta kulturei eta, horren ondorioz, nabariki handitu zen euskara ikastea erabaki zuten helduen kopurua, baita beren seme-alabentzako euskarazko irakaskuntza hautatzen zuten biztanleena ere. Erabilera-alor desberdinetan egindako sustapen-ahaleginen arteko aldeak korrelazio nabarmena uzten du agerian profesional elebidunen kopuruak alderatzen direnean. Izan ere, UPV/EHUko irakasle doktoreen % 84,01 eta ez-doktoreen % 57,82 elebidunak dira. Osakidetzan, aldiz, 2016 urtean Osasun Sailburuak emandako datuen arabera, profesionalen % 33,96k baino ez zuten egiaztaturik euskara-profila. Egoera horrek zaildu egiten du, zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistema publikoak biztanleriari osasun-zerbitzua euskaraz eman ahal izatea, xede hori erdiesteko ezinbesteko eragileak baitira profesional euskaldunak.

Egoera iraultzeko asmoz, *Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Plana* (2013-2019) jarri da abian. Planaren helburu nagusia da zerbitzu-hizkuntza gisa euskararen ahozko eta idatzizko presentzia eta erabilera bermatzea kanpo- eta barne-harremanetan, bi funtsetan oinarrituta. Batetik, *Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak* (1992) hizkuntza gutxituetako hiztunei aitortzen dien beren hizkuntzan artatuak izateko eskubidea dago eta, bestetik, zerbitzuen kalitatea, pazientean oinarritutako osasun-arretarako eremuan nahitaez komunikazioaren eraginkortasunaren garrantzia aintzat hartzera garamatzana.

Lan honetan komunikazio eraginkorraren gaiaz arituko gara bi alderdi kontuan hartuta: batetik, euskararen beraren elaborazioa edo lantze funtzionala eta, bestetik, komunikazio eraginkorrerako funtsezkoak diren profesional euskaldunen euskarazko komunikazio-gaitasunen garapena. Bigarren atalean osasun-alorreko komunikazio eraginkorra euskaraz bermatzeko aurrean ditugun erronkez arituko gara. Hirugarren atalean, euskararen erabilera klinikoetarako lantze funtzionalaz arituko gara. Azkenik, profesionalen komunikazio-gaitasunen garapenaz arituko gara laugarren atalean.

***Osakidetzan,
2016 urtean,
profesionalen %
33,96k baino ez
zuten
egiaztaturik
euskara-profila.***

**Komunikazio
eraginkorra
osasun-arretaren
kalitatearen
funtsezko
osagaia da,
pazienteen
gogobetetze
mailan ez ezik,
diagnostikoen,
tratamenduen eta
zaintzaren
kalitatean eragin
zuzena duena.**

1. OSASUN-ALORREKO KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA ETA HIZKUNTZA GUTXITUAK

1960ko hamarkadan hasi ziren profesionalak eta pazienteak arreta jartzen alor klinikoetan gertatzen diren komunikazio-egoeretan, eta zenbait ebidentzia ere biltzen hasi ziren komunikazioaren eta pazienteen gogobetetze mailaren arteko korrelazioaz. Adibideren bat emateagatik, lehenetariko erreferentziatzat hartzen da pediatren komunikazio-trebetasunen eta gurasoen gogobetetze mailaren arteko korrelazioa frogatzen zuena (Korsh et al. 1968). Ebidentzia horien beste adibide bat da sendagile-paziente komunikazio eraginkorrak osasun-arretaren emaitzetan, zehazkiago, tentsioaren eta diabetesaren kontrolean eragina zuela agerian utzi zuena (Kaplan et al. 1989). Komunikazio klinikoaren ikerketan, sendagile-paziente interakzioa aztertzen duten ikerketak gailendu dira, baina badira bestelako profesionalak eta pazienteak inplikaturik dauden komunikazio-egoerak aztertu dituzten lanak ere: erizainak (Crawford et al. 1998), farmazeutikoak (Pilnick 2003), fisioterapeutas (Wallin et al. 2009), odontologoak (Kadanakuppe 2015).

Egun esan daiteke oro har onarturik dagoela komunikazio eraginkorra osasun-arretaren kalitatearen funtsezko osagaia dela, pazienteen gogobetetze mailan ez ezik, diagnostikoen, tratamenduen eta zaintzaren kalitatean eragin zuzena duena. Pertsona arteko komunikazio eraginkorrerako trebetasunek korrelazio positiboa dute pazienteen tratamenduen emaitzen kalitatearekin, eta komunikazio-trebetasunen eraginkortasun ezak, aldiz, korrelazio zuzena du medikazio-erroreekin eta praxi txarrekin (Levinson et al. 1997).

Hizkuntza ezinbesteko tresna da osasun-zerbitzuetako profesionalen artean eta profesionalen eta erabiltzaileen artean informazioa trukatzeko, bai eta sentimenduak eta identitateak adierazteko ere. Hortaz, berriki zenbait ikertzailek arreta jarri dute estatus soziolinguistiko desberdinetako hizkuntzak erabiltzen diren herrialdeen osasun-sistemetan, eta hainbat ebidentziak jaso dituzte hizkuntza-hautuek osasun-arretaren kalitatean duten eraginaz. Ikerketa horien arabera, pazienteek eta familiak, aukera ematen zaienean, hizkuntza gutxitua erabiltzea nahiago dute osasun-arazoren bat pairatzen dutenean bizi dituzten estres- eta zaurgarritasun-egoeretan (Misell 2000). Ildo horretatik, eta pazienteri begirako osasun-arretaren testuinguruan, praktika egokietarako ezinbesteko osagaitzat hartu behar da pazienteei osasun-arretarako hizkuntza-hautapena erraztea (LLAIS 2006). Nolanahi ere, osasun-zerbitzuen erabiltzaileei hizkuntza hautatzeko aukera emateak erronka handiak

dakarzkie bai erakunde zerbitzu-emaileei, bai eta profesionaleri ere, al-daketak eskatzen baititu hizkuntza-politiketan, erabileretan, jarreretan eta hizkuntza-gaitasunetan. Areago, hizkuntza esparru batean erabili ez denean, beharrezkoa da hizkuntza bera lantzea ere: lexikoa eta fra-seologia sortzea eta erabilera berrietarako estiloak garatzea (Haugen 1966). Hizkuntzaren lantze funtzionalak, baina, nahitaezkoa du baliabide berriak hiztunen errepertorio linguistikoan integratzea, alegia, profe-sionalei hizkuntza-gaitasunak garatzen laguntzea, esparru klinikoetan komunikazio eraginkorra bermatzeari begira.

Askotariko eragileak daude inplikaturik hizkuntzaren eta profesional elebidunen gaitasunen garapenean, eta eragile horiek erantzukizun eta eginkizun desberdinak dituzte goian aipatutako erronkei begira. Era-kunde zerbitzu-emaileek hizkuntza gutxituaren estatusa aldatzeko po-litikak garatu eta ezarri behar dituzte. Politika horiek lagundu behar dute osasun-alorreko profesionalen eta osasun-zerbitzuen erabiltzaileen hizkuntza gutxituarekiko jarrerak aldatzen, eta osasun-alorreko testu-in-guruan hizkuntza gutxitua erabiltzeko ohiturak zabaltzen. Azkenik, profesional elebidunen kopurua handitzeaz gain, profesional horiei la-gundu behar zaie kontzientzia hartzen euskararen hizkuntza-baliabi-deak beraiek eta, horiekin batera, haien errepertorio linguistikoa eta komunikazio-trebetasunak garatzeko duten erantzukizunaz. Azken eginkizun horietan, beste era bateko bitartekariak ere behar dira: hiz-kuntzalariak, itzultzaileak eta informatikariak, besteak beste. Jakina, unibertsitateak eta osasun-alorreko erakunde zerbitzu-emaileek eskutik lotuta joan behar dute euskararen elaborazio prozesuan eta profesionalen komunikazio-gaitasunen garapenean: dizi-plina arteko lan koordinatua eta lankidetzaz erraztu eta sustatu behar dira.

2. EUSKARAREN LANTZE FUNTZIONALA ERABILERA KLINIKOETARAKO

I Hizkuntzak eten gabe aldatzen, garatzen eta egokitzen ari dira, komu-nikazio-egoera desberdinetan gertatzen diren erabilerek bultzatuta eta, beraz, alor jakin batzuetan erabili ez den hizkuntzak ez du aukerarik izan alor horietan gertatzen diren komunikazio-egoeretara egokitzeko adierazpideak garatzeko. Hortaz, euskara alor klinikoetan erabiltzea-rekin batera funtzio berrietarako terminologiak, estiloak eta adierazpi-deak landu eta garatu behar dira.

Aldaera estandarraren (euskara batuaren) kodifikazioa (ortografia, gra-matika eta lexiko estandarraren kodifikazioa) lan teknikoa da eta hiz-

***Pazienteek eta
familiek, aukera
ematen zaienean,
hizkuntza
gutxitua
erabiltzea
nahiago dute
osasun-arazoren
bat pairatzen
dutenean bizi
dituzten stres-
eta
zaurgarritasun-
egoeretan.***

**Askotariko
eragileak daude
inplikaturik
hizkuntzaren eta
profesional
elebidunen
gaitasunen
garapenean, eta
eragile horiek
erantzukizun eta
eginkizun
desberdinak
dituzte.**

kuntzalarien eta hizkuntza-bitartekarien eskuetan egon ohi da, baina lantze funtzionala erabat lotuta dago hizkuntza komunikazio-egoera desberdinetan erabiltzearekin eta hizkuntza-baliabide berriak garatzen eta egokitzen joatearekin (Haugen 1966). Lantze funtzionalaren erdigunean daude komunikazio-egoera berrietan aritu behar diren hiztunak eta, hizkuntzalarien eta hizkuntza-bitartekarien rola desberdina da prozesu horretan. Hizkuntzalariek, hizkuntza-irakasleek, lexikografoek, terminologok, hizkuntzaren prozesamenduko adituek eta itzultzaileek oinarritzko baliabideak eta ereduak sor ditzakete hiztunak hizkuntza erabilera-esparru berrietan erabiltzen ausartu daitezen. Oinarritzko baliabide horiek sortzeko eginkizunean, kontzientzia linguistiko garatua duten eta aitzindari izan nahi duten hiztun aktiboen eskutik lotuta joan behar dute hizkuntzalariek eta hizkuntza-bitartekariak. Baina, bestalde, hizkuntzalari eta bitartekariak ez dute bistatik galdu behar hiztunak hizkuntza esparru berrietan erabiltzen doazen neurrian benetako diskurtso-komunitateak garatzen joango direla eta, orduan, hizkuntzaren komunikazio-egoera berrien araberako garapen eta autorregulazio naturala gertatzea espero daitekeela. Garapen horren jarraipena egiteko tresnak eta prozesuak diseinatu behar dira. Izan ere, askotariko diskurtso-komunitateen barruan gertatzen diren erabilerek eragindako autorregulazio natural hori hizkuntzaren garapen funtzionalaren motorra da (Zabala 2018a). Diskurtso-komunitate espezializatuek egiten dituzten hizkuntzaren erabilera monitorizatzeko tresnak eta prozesuak garatzeko funtsezkoak dira baita hizkuntzaren prozesamenduaren alorreko informatikariak eta hizkuntzalari konputazionalak. Erabilera berriak aurrera doazen neurrian, hizkuntzalarien eta hizkuntza-bitartekarien lana hizkuntza-baliabideak sortzea edo estandarizatzea baino, hizkuntza-baliabide horien eboluzio eta garapena deskribatzea eta aldakortasunaren harmonizazioan laguntzea izango da (Zabala 2018b).

Alor klinikoetan gertatzen diren komunikazio-egoerei begira garatu beharreko hizkuntza-baliabideak nolakoak behar diren finkatu nahi badugu, komunikazio-egoera horiek karakterizatzetik hasi behar gara eta, ezaugarritze horretarako, saihestezina da ohiko parametro pragmatikoei erreparatzea: solaskideen ezaugarriak eta haien arteko harremanak, komunikazioaren gaiak eta xedeak, ahozko edo idatzizko komunikazio-egoerak diren, komunikazioak aurrez aurrekoak ala telematikok diren, eta sinkronoak ala asinkronoak diren. Ezin ahanztu daiteke, bestalde, komunikazio-egoera horietan hizkuntza-kode bera edo hizkuntza-kode desberdinak (hizkuntza desberdinak edo hizkera desberdinak) erabil ditzaketela solaskideek. Solaskideak hizkuntza-plangintzaren erdigunean jarri behar

dira. Hasteko, bereizi behar dira, batetik, osasun-arreta eman behar duten profesional euskaldunak eta, bestetik, arreta horren hartzaile euskaldunak (pazienteak, familiak, laguntzaileak). Bestalde, profesionalen artean, euskaldunak eta euskaldunak ez direnak bereizi behar dira.

2.1 Osasun-arretaren emaileen eta arreta-hartzaileen arteko komunikazioa

Osasun-arretaren hartzaileek euskara erabiltzeko eskubidea dute administrazioarekin EAEn ofizialak diren bi hizkuntzetako edozeinekin komunikatzeko eskubidea dutelako baina, batez ere, osasun-sistema publikoan tratu-berdintasunerako eskubidea dutelako. Ildo horretatik, lehentasunezko mailak ezar daitezke mota desberdinetako pazienteen artean. Lehentasun maila handienekotzat hartu behar dira hizkuntzari berari eragiten dizkieten patologiak (afasia, gaixotasun neurodegeneratiboak...) dituzten pazienteak. Gaztelania-euskara elebidun afasikoen kasuan Munarrizek frogatu duen bezala (2015), patologia horiek desberdin eragiten diete hizkuntza desberdinei. Hortaz, hizkuntzaz hizkuntza egokitutako diagnostiko eta tratamendurako protokoloak eta baliabideak behar dira paziente horiek osasun-sistemak berdintasunaren printzipioaren arabera tratatuko baditu. Neurolinguistikan eta Psikolinguistikan adituak diren hizkuntzalariek osasun-profesionalekin lankidetzan garatu ohi dituzte horrelako baliabideak, eta horien elaborazioa lehentasunez kotzat hartu beharko litzateke euskara osasun-alorrean normalizatzeko prozesuan. Hizkuntzaren erabilerek berebiziko garrantzia dute baita osasun mentaleko pazienteen kasuan (Crawford et al. 1999), horien zaintzan, diagnostiko eta terapietan eragin zuzena baitute.

Lehentasun maila gorenekotzat hartu behar dira baita euskarazko hiztun elebakarrak, adibidez, euskaraz baino ez dakiten umeak, edota erdaraz komunikatzeko gaitasuna murriztua duten adineko pertsonak. Pazienteari begirako osasun-arretaren ikuspuntutik, paziente horiei kalitateko arreta bakarrik eman ahal zaie euskaraz artatuak izateko aukera eskaintzen bazaie. Gainerakoan, elebidun osoak izanda ere edozein osasun-arazo dutenean euskaraz erosoago eta babestuago sentitzen diren pazienteak eta laguntzaileak daude. Aurreko atalean aipatutako ebidentziak aintzat hartuta, horiei ere arreta euskaraz eskaini behar zaie, kalitatea eta berdintasuna badira osasun-sistemaren helburuak. Adina ere garrantzi handiko parametroa da; izan ere, VI. inkesta soziolinguistikoaren arabera (2016), 16-24 adin-taldekoak dira euskaldunen % 55,4, eta nerabe eta gazteen taldeak osasun-erakundeen prebentzio eta kontzientziazio-kanpainen xede-taldeak izaten dira maiz.

Erabilera berriak aurrera doazen neurrian, hizkuntzalarien eta hizkuntza-bitartekarien lana hizkuntza-baliabideak sortzea edo estandarizatzea baino, hizkuntza-baliabide horien eboluzio eta garapena deskribatzea eta aldakortasunaren harmonizazioan laguntzea izango da.

**Lehentasun
maila
handienekotzat
hartu behar dira
hizkuntzari
berari eragiten
dizkioten
patologiak
dituzten
pazienteak
(afasia,
gaixotasun
neurodegenera-
tiboak...).**

Profesionalen eta arreta-hartzaileen arteko komunikazio-egoerak, oro har, adituen eta adituak ez direnen arteko komunikazio-egoerak dira, maizenik ahoz gertatzen direnak. Profesionalek arreta-hartzaileek beren egoera fisikoaz eta animikoaz ahoz ematen dieten informazioa interpretatzeko gauza izan behar dute, eta arreta-hartzaileekin enpatiaz eta adituak ez direnentsat ulergarriak diren adierazpideak erabiliz komunikatzeko gauza izan behar dute aurrez aurre, elkarrizketa sinkrono baten bitartez. Erronka horiek edozein hizkuntzatan gertatzen dira, baina euskaraz komunikatzeko orduan, zailtasun bereizgarri batzuk ere egon daitezke. Izan ere, arreta euskaraz gehien behar duten paziente eta laguntzaileetako asko beren hizkera lokalean eta erregistro ez-formaletan komunikatzeko gauza baino ez dira, eta arreta-hartzaileen euskarazko errepertorio linguistikoa komunikazio klinikorako hizkuntza-hesia izan daiteke. Horrelakoetan, ez da nahikoa profesionalak euskaldunak izatea: prestatuta egon behar dute haien osasun-zentroan arreta euskaraz behar dutenen profil soziolinguistiko desberdinetara egokitzeko. Hizkuntzalariek eta bitartekariak, kontzientzia linguistiko garatuena duten profesional euskaldunekin batera, komunikazio-egoera horietan erabiltzen diren esaldiak, lexikoa eta adierazpideak bildu, aztertuta eta antzeko komunikazio-egoeretan arituko diren profesionalak lagungarriak gertatuko zaizkien baliabideetan integratu behar dituzte. Berebiziko garrantzia izango dute horrelako baliabideen diseinuan tratatu beharreko gaiek eta komunikazio-trebetasunek, 4. atalean sakonkiago aztertuko ditugunak.

Egun hizkuntzaren edozein erabilera deskribatzeko, ezinbestekotzat hartzen dira testu-corpusak, alegia, ahozko zein idatzizko testuen bildumak, azterketa konputazionalak egiteko prestatuak. Hainbat alorretako hizkuntzalariek, informatikariak eta osasun-profesionalek osatutako diziplina arteko taldeek aurrera eraman dituzten corpus-hizkuntzalaritzako ikerketei esker, komunikazio-joerak eta patroiak identifikatu, eta urrats garrantzitsuak eman dira ebidentzietan oinarritutako osasun-arretarekin lotutako komunikazioaren alorrean (Crawford et al. 2014). Osasun-alorreko profesionalen eta arreta-hartzaileen arteko komunikazioa aurrez aurrekoa eta ahozkoa izaten da maiz, eta elkarrizketak grabatu beharko lirateke corpus esangarriak osatzeko edo, behintzat, idatziz erregistratu pazienteek erabiltzen dituzten adierazpiderik esangarrienak. Telefono bidezko komunikazioak errazagoak izan daitezke grabatzeko, eta are errazagoak izan daitezke corpusetan biltzeko eta azterketa linguistikoak egiteko Internet bidezko komunikazio interaktiboak (web, txat edo posta elektroniko bidezkoak). Baliabide horiek oso erabilgarriak

dira, adibidez, nerabeek zalantzak, estutasunak eta saminak komunikatzeko, eta corpus-hizkuntzalaritzako azterketetan erabili dira nerabeek erabiltzen dituzten hizkuntza-patroiak deskribatzeko (Harvey et al. 2008). Gurean adibide interesgarria dugu www.gaztesarea.net/gozategi gunean zenbait hilabetetan gazteek plazaratutako sexualitateari buruzko galdera eta erantzunena, 2006 urtean *Izarapeko aholkuak, sexuaren gida askea* izenburupean paperean ere argitaratu zirenak. Era horretako baliabide interaktiboak, biztanleak osasunarekin lotutako gaiez euskaraz komunikatu daitezen sustatzeaz gain, balio handikoak lirateke arretahartzaileen talde desberdinek erabiltzen dituzten hizkuntza-patroiak deskribatzeko, euskarazko komunikazio eraginkorrari laguntzeko tresnak eta baliabideak garatzeari begira.

2.2 Osasun-alorreko profesionalen arteko komunikazioa

Bestelako komunikazio-egoerak dira profesionalen artekoak. Horrelakoak adituen arteko komunikazio-egoera espezializatuak dira, ahozkoak edo idatziak, aurrez aurrekoak edo telefono bidezkoak, sinkronoak edo asinkronoak izan daitezkeenak. Komunikazio-egoera horietan ohikoena da euskara estandarra erabiltzea, eta nahitaezkoak dira terminologia eta fraseologia espezializatuak. Komunikazio-egoera espezializatu horietan bereizi behar dira euskaldunen arteko komunikazioa eta euskaldunen eta euskaldunak ez diren profesionalen arteko komunikazioa, alegia, euskarazko komunikazioa eta hizkuntza arteko komunikazioa.

Unibertsitatean euskaraz ikasten duten profesionalek euskarazko terminologia eta fraseologia espezializatuen oinarriak jaso dituzte bestelako ezagutza eta trebetasun profesionalekin batera, baina kontuan hartu beharrekoa da terminologia eta fraseologia espezializatuek aldakortasuna azaltzen dutela ondo garatutako hizkuntzetan, alegia, euskararen normalizaziorako xede-egoeran dauden hizkuntzetan. Osasun-alorreko hizkuntza-baliabideen kasuan, aldakortasunaren eragile garrantzitsuenetako bat da, hain zuzen, komunikazioa testuinguru akademikoetan edo klinikoetan gertatzea. Praktika klinikoak eta egoiliarren prestakuntza funtsezkoak dira komunikazio-testuinguru akademikoetatik klinikoetarako urratsak ematen joateko, baina hain zuzen ere euskararen erabilera bermatzeko zailtasun handienak dituzten alorrak dira klinikoak.

Erregistro klinikoak osasun-alorreko profesionalen arteko komunikaziorako funtsezko tresna idatziak dira eta, askotariko profesionalek ulertu behar dituztelarik, pazienteen segurtasunerako arazo bihur daiteke aldakortasuna. Erregistroak euskaraz idatzita egotea ere arazo

**Hizkuntzaz
hizkuntza
egokitutako
diagnostiko eta
tratamendurako
protokoloak eta
baliabideak
behar dira,
hizkuntza-
patologiak
dituzten
pazienteak
osasun-sistemak
berdintasunaren
printzipioaren
arabera tratatuko
baditu.**

**Lehentasun
maila
gorenekotzat
hartu behar dira
euskaraz baino
ez dakiten
umeak, edota
erdaraz
komunikatzeko
gaitasuna
murritzua duten
adineko
pertsonek.**

bihur daiteke, euskaldunak ez diren profesionalek ere ulertu ahal izango dituztela bermatzen ez bada. Bestalde, erregistro klinikoak sistema askotan partekatutako behar dira eta funtsezkoa da partekatutako informazioa ulargarria eta erabilgarria izatea sistema horietarako guztietarako. Estandar klinikoak, hain zuzen ere, sistema askoren arteko interoperabilitatea edo elkarreragingarritasuna bermatzeko daude diseinatuak. Kontzeptu klinikoetarako nomenklatura sistematizatuak dira, alegia, gaixotasunen, zeinuen, sintomen, diagnostikoen eta tratamenduen hiztegi kontrolatuak, informazioa hizkuntzen artean eta sistemen artean transferitzea posible egiten dutenak. Azken batean, komunikazio naturalean gertatzen den baliabideen aberastasuna sakrifikatzen dute elkarreragingarritasunaren mesedetan.

Euskara ia erabat baztertuta egon da orain arte komunikazio klinikotik eta, are gehiago, erregistro klinikoetatik. Hori dela eta, profesionalek hiztegi espezializatuaren garapen edota ezagutza eza aipatu ohi dute euskara erabiltzeko oztopo nagusi modura. Hori dela eta, estandar klinikoak euskaraz egokitu eta Euskal Osasun Sisteman erabiltzen diren sistemetan integratzeak hizkuntzaren erabileraren normalizazioari ekarpen handia egin diezaiokeela deritzogu hainbat arrazoiengatik:

— Estandarrak nomenklatura kontrolatuak direnez, normalizazio-arduradunak erronka mugatuen aurrean jartzen dituzte, nahiz eta ez diren inola ere erronka txikiak. Adibidez, SNOMED-CT nomenklaturak 300.000 kontzeptu baino gehiago ditu, eta kontzeptu bakoitzerako adierazpide ugari. Adierazpide horietarako euskarazko ordainak *in vitro* terminologia-lanaren bidez bila ditzakete hizkuntzalariek, terminologoez, itzultzaileek edota informatikariek, kontzientzia linguistiko goreneko profesionalen laguntzaz (Perez de Viñaspre 2017).

— Profesionalek erregistroak egiteko erabiltzen dituzten aplikazio informatikoetan ohiko hizkuntzak ez ezik euskara ere aurkitzeak balio sinbolikoa izan dezake profesional horientzat. Izan ere, euskarazko terminologia badutela sentiarazi eta, beraz, euskara erabiltzeko lehendabiziko oztopoa gaingaitzen lagundu ahal die.

— Estandarrak profesionalek partekatzen dituzten sistemetan integratuta egongo direnez, profesionalak esperientzia linguistiko partekatua lortzen joango dira, erabili ahal, eta esperientzia linguistiko horrek lagunduko die ohiko diskurtso-komunitate espezializatuek dituzten ezaugarriak apurka-apurka lortzen.

— Estandar klinikoek euskal bertsioak sistemetan integratuta edukitzeak hasieratik bermatuko die elkarreragingarritasuna euskaraz idatzitako erregistroei. Adibidez, pazienteen historia klinikoa siste-

man integratutako edozein hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa...) eskaini ahal izango zaie pazienteei.

Laburbilduz, estandar klinikoak euskarara egokitzeak eta sistemetan integratzeak ekarpen handia egin diezaioke, gure iritziz, euskararen erabileraren normalizazioari. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar normalizaziorako urrats bat baino ez direla estandar klinikoak. Hasteko, beharrezkoa deritzogu estandar klinikoak euskarara egokitzeko prozesuan estandar horiek erabili beharko dituzten profesionalak kontuan hartzeari, ahal den eta erabilgarrienak eta ulerterrazena izan daitezen. Izan ere, unibertsitatean terminologia akademikoaren garapenean zenbait hamarkadatan bildutako esperientziek agerian utzi dute diziplina arteko lanaren beharra (Zabala et al. 2012). Azken hamarkadetan unibertsitatean garatu den terminologia akademikoari ezin zaio ezikusia egin, profesional euskaldunek euskarazko terminologia klinikoa garatzeko abiapuntua izango baita. UPV/EHU 2010 urtetik aurrera Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programari esker biltzen ari garen Garaterm corpora eta TZOS terminologia-datubasea lagungarriak izan daitezke uztartze-lan horretan (San Martin 2017).

Bestalde, ez dugu ahaztu behar testu libreko erregistroetan euskara erabiltzeko eta interpretatzeko zailtasunek iraungo dutela, nahiz eta euskarazko estandarrak eduki. Nolanahi ere, testu kontrolatuetan euskara erabiltzeak lagun dezake testu librea eskatzen duten testuinguruetan ere euskararen erabilera sustatzen. Testu libreko erregistroak monitorizatu beharko lirateke euskarazko nomenklaturak aberasten joateko, sortzen doazen aldakiak hasieratik bilduz eta sistematizatuz. Azkenik, aintzat hartu beharko da jomugan dugun xedea dela ondo garatutako hizkuntzen normalizazio-egoera, neurri handian kausa pragmatiko-diskurtsiboei erantzuten dien terminologia-aldakortasunaz bereizten dena. Espero izatekoa da euskara alor klinikoetan erabili ahala aldakortasun funtzionala ere aberasten joatea. Arreta berezia jarri beharko da estandar klinikoak ez erabiltzeko osasun-alorrean garatzen joan beharko liratekeen diskurtso-komunitateetan espero litekeen garapen eta autorregulazio naturala geldiarazteko oztopo modura.

3. OSASUN-ALORREKO PROFESIONAL EUSKALDUNEN KOMUNIKAZIO-GAITASUNEN GARAPENA

Aurreko ataletan azaldu dugun bezala, osasun-zerbitzuetan euskarazko arreta eskaintzeko helburua bi eratako arrazoiek justifikatzen dute. Batetik, euskaldunen hizkuntza-eskubideak daude eta, bestetik, osasun-

**Arreta euskaraz
gehien behar
duten paziente
eta
laguntzaileetako
asko beren
hizkera lokalean
eta erregistro
ez-formaletan
komunikatzeko
gauza baino ez
dira.
Profesionalek
prestatuta egon
behar dute haien
osasun-zentroan
arreta euskaraz
behar dutenen
profil
soziolinguistiko
desberdinetara
egokitzeko.**

**Profesionalek
hiztegi
espezializatuaren
garapen edota
ezagutza eza
aipatu ohi dute
euskara
erabiltzeko
oztopo nagusi
modura.**

zerbitzuen kalitatea bermatzeko komunikazio eraginkorrak eta hizkuntza-hautuek duten garrantzia. Nolanahi ere, euskarazko osasun-arretaren kalitatea ziurtatzeko, beharrezkoa da profesional euskaldunek euskaraz eraginkortasunez komunikatzeko trebetasunak eta hizkuntza-errepertorioa badituztela bermatzea. Euskaraz komunikatzeko trebetasunak prestakuntza-prozesu osoan garatu behar dituzte profesional euskaldunek, unibertsitatean eta unibertsitate-ospitalean egiten dituzten kurtsoetatik hasi, eta praktika klinikoetan eta egoiliar-garaian osatu eta praktikan jartzeraino. Jadantik erabateko profesional modura lanean ari direnean ere, etengabeko prestakuntzaren elementu garrantzitsua beharko lukete izan komunikazio-trebetasunek.

UPV/EHUko gradu guztietan, baita osasun-alorrekotan ere, bi hautazko irakasgai eskaintzen dira euskarazko komunikazio-gaitasunak garatzeari begira: *Euskararen Arauak eta Erabilerak* (EAE), eta *Komunikazioa Euskaraz: osasun-alorra* (KE). Nolanahi ere, euskarazko komunikaziorako garrantzitsuak diren zenbait elementu, hala nola, terminologia eta fraseologia espezializatuak, euskara hizkuntza behikular modura erabiltzen duten irakasgai guztien ekarriekin garatzen dituzte ikasleek. EAE eta KE irakasgaietan, komunikazio-egoera akademikoak eta adituak ez direnei zuzendutako dibulgazioan gertatzen direnak lantzen dira batez ere, zehazkiago, komunikazio-egoera horietan erabiltzen diren ahozko eta idatzizko testu-generoak eta hizkuntza-baliabideak. Horietaz gain, hizkuntza-kontzientziaren hainbat alderdi lantzen dira, ikasleak profesionalak izatera heltzen direnean hiltun aktibo izateko helburuari begira: osasun-alorrean euskara erabiltzeak arretaren kalitatean duen eragina, eta komunikazio-egoera berrietarako euskarazko baliabideen garapenean eta erabileran duten erantzukizuna. Ikasleen prestakuntza hori erabat uztartuta eta koordinatuta egon behar da 3. atalean deskribatu dugun euskararen lantze funtzionalaren prozesu, tresna eta baliabideekin (Zabala et al. 2016).

EAE eta KE irakasgaiek Osakidetza euskalduntzeko prozesuan lagunduko badute, garrantzitsua da, gure ustez, irakasgai horietan baita komunikazio klinikoan gertatzen diren zenbait komunikazio-egoera integratzea, adibidez, paziente eta laguntzaileekiko elkarrizketak. Erizaintzako graduan badago komunikazio klinikoa lantzeko berriarazko irakasgai bat: *Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan*. Irakasgai hori ahal den neurrian koordinatu beharko litzateke EAE eta KE irakasgaietan lantzen diren zenbait gaitasun eta trebetasunekin, eskaintza osagarri eta eraginkorrago egiteari begira. Prestakuntza-programetan kontuan hartu beharko lirateke baita beste hizkuntza batzuetan komunikazio-

trebetasunak lantzeko garatu diren programak ere eta, bestalde, komunikazio klinikoan euskara erabiltzen denean aurre egin behar zaien arazo zehatzak, adibidez, arreta-hartzaileen profil soziolinguistikoa dela eta gerta daitezkeen komunikazio-zailtasunak.

Beste herrialde batzuetan, adibidez, Amerikako EEBBko, osasun-alorreko profesionalen prestakuntzan funtsezkotzat hartzen dira komunikazio-gaitasunak (Rider eta Keefer 2006). Komunikazio-trebetasunak osasun-alorreko profesionalen curriculumean sartzeko, eta horien lorpen maila ebaluatzeko *Kalamazoo Essential Elements Communication Checklist* deritzona erabiltzen dute Amerikako hainbat erakundetan. Kalamazoo protokoloa 1999 urtean adostu zuten EEBBko eta Kanadako hainbat hezkuntza-erakundetako eta elkargo profesionaletako ordezkariak sendagile-paziente komunikazioan funtsezkotzat hartzen zituzten elementuak definitzeko antolatu zuten kongresuan. Oinarrizko zazpi komunikazio-ataza identifikatu zituzten: (1) mediku-paziente harremana eraikitzea; (2) elkarrizketa zabaltzea; (3) informazioa biltzea; (4) pazientearen ikuspuntua ulertzea; (5) informazioa trukatzeko; (6) problemak eta planak gaineko adostasuna lortzea; eta (7) elkarrizketa ixtea (Makoul 2001). Komunikazio-gaitasunak lantzeko curriculumen diseinuan garrantzi handia dute baita tratatu beharreko gaiek edota komunikazio-egoerek. Amerikako osasun-alorreko profesionalen prestakuntza-programetan landutakoak aztertu dituzte Blatt et al.-ek (2014), eta prestakuntzaren emaitzen datuak bildu zituzten ikerlanen kopuruaren arabera ordenatu dituzte: a) Berri txarrak, bizitzaren amaiera eta zaintza paliatiboak. b) Komunikazio-trebetasun orokorrak. c) Jokabide-aldaketak (tabakoa, alkohola, obesitatea). d) Emaiz txarrak / errore medikoak. e) Enpatia. f) Kontu sexuali buruzko komunikazioa. g) Trebetasun komunikatiboen eta prozeduralen arteko elkarrekintza.

Beste herrialde batzuetan lantzen diren komunikazio-egoerak, atazak eta trebetasunak erreferentziazat har daitezke Osakidetza zentro eta unitateetan maizenik gertatzen diren komunikazio-egoerak eta komunikazio-oztopoak deskribatzeko, eta profesional euskaldunen prestakuntzarako materialak elaboratzeko. Material horien artean egon beharko lukete benetako paziente euskaldunekin, simulatutako pazienteekin edota aktoreen laguntzarekin grabatutako bideoak, eta bai komunikazio klinikoan gertatzen diren benetako komunikazio-egoeretan erabil daitezkeen euskarazko adierazpideen bildumak ere. ●

**Azken
hamarkadetan
unibertsitatean
garatu den
terminologia
akademikoari
ezin zaio ezikusia
egin, profesional
euskaldunek
euskarazko
terminologia
klinikoa
garatzeko
abiapuntua
izango baita.**

**Beste herrialde
batzuetan lantzen
diren
komunikazio-
egoerak, atazak
eta trebetasunak
erreferentziazat
har daitezke
Osakidetzako
zentro eta
unitateetan
maizenik
gertatzen diren
komunikazio-
egoerak eta
komunikazio-
oztopoak
deskribatzeko,
eta profesional
euskaldunen
prestakuntzarako
materialak
elaboratzeko.**

BIBLIOGRAFIA

- Blatt, B.; Spinazzi, N. A.; Greenberg, L. (2014). Communication skills training for resident physicians. A physician-educator perspective, in Hamilton, H.E. eta Chou, W.S. (2014): *The Routledge Handbook of Language and Health Communication*. New York, Routledge (294-326).
- Crawford, P.; Brown, B.; Nolan, P. (1998). *Communicating Care: The Language of Nursing*. Cheltenham: Stanley Thornes.
- Crawford, P.; Johnson, A. J.; Brown, B. J.; Nola, P. (1999). "The language of mental health nursing: firing paper bullets?", *Journal of Advanced Nursing*, 29 (2): 331-340.
- Crawford, P.; Brown, B.; Harvey, K. (2014). Corpus linguistics and evidence-based health communication, in Hamilton, H.E. eta Chou, W.S. (2014): *The Routledge Handbook of Language and Health Communication*. New York, Routledge (75-90).
- Harvey, K.; Churchill, C.; Crawford, P.; Brown, B.; Mullany, L.; Macfarlane, A.; Mc Pherson, A. (2008). "Health communication and adolescents: what do their emails tell us?", *Family Practice*, 25: 1-8.
- Haugen, E. (1966). *Language conflict and language planning: the case of modern Norwegian*. Cambridge, Harvard University Press.
- Kadanakuppe, S. (2015). "Effective Communication and Empathy Skills in Dentistry for Better Dentist-patient Relationship", *Journal of Dental Problems and Solutions*, 2(3):28-59.
- Kaplan, S. H.; Greenfield, S.; Ware, J.E. Jr. (1989). "Assessing the effects of physician-patient interactions on the outcomes of chronic disease", *Medical Care*, 27 (3): S110-S127.
- Korsch, B. M.; Gozzi, E.K.; Francis, V. (1968). "Gaps in doctor-patient communication", *Pediatrics*, 42: 855-871.
- Levinson, W.; Roter, D.L.; Mulloly, J.P.; Dull, V.T.; Frankel R. M. (1997). "Physician-patient communication: the relationship with malpractice claims among primary care physicians and surgeons", *Journal of the American Medical Association*, 277: 553-559.
- LLAIS (2006). *Appropriate Practice in Health and Social care*. Briefing Paper 1: October 2006. Bangor, Centre for Health-Related Research. University of Wales Bangor. http://nworth-ctu.bangor.ac.uk/llais/dog-fennau/LLAIS_ORG.pdf [2018-III-28an atzitua]
- Makoul, G (2001). "Essential elements of communication in medical encounters: the Kalamazoo consensus statement", *Academic Medicine*, 76(4) : 390-393.
- Missel, A. (2000) *Welsh in the Health Service: the Scope Nature and Adequacy of Welsh Language Provision in the National Health Service in Wales*. Cardiff, Welsh Consumer Council.

- Munarriz, A. (2015). *Hizkuntzen antolaketa burmuin elebidunean: gaztelania-euskara elebidun afasiko baten kasu-azterketa*. UPV/EHUko doktoretza-tesia.
- Perez-de-Viñaspre, O. (2017). *Osasun-alorreko termino-sorkuntza automatikoa: SNOMED CTren eduki terminologikoaren euskaratzea*. UPV/EHUko doktoretza-tesia.
- Pilnick, A. (2003). "Patient counselling by pharmacists: four approaches to the delivery of counselling sequences and their interactional reception", *Social Science and Medicine*, 56 (4): 835-849.
- Rider, E. A.; Keefer, C. H. (2006) "Communication skills competencies: definitions and a teaching toolbox", *Medical Education*, 40: 624-629.
- San Martin, I. (2017). "Terminologia erreala ikusgai egiten: Terminologia Sareak Ehunduz programa", *Osagaiz*, 1: 59-69.
- Wallin, M.; Talvitie, U.; Cattan, M.; Karppi, S. L. (2009). "Interaction between clients and physiotherapists in group exercise classes in geriatric rehabilitation", *Advances in Physiotherapy*, 11 (3): 145-153.
- Zabala, I.; San Martin, I.; Lersundi, M.; Azkue, J.J.; Mendizabal, J. (2012). "The Elaboration of Human Anatomy Terminology for the Basque Language: the Contribution of Translators, Linguists and Experts", *Terminalia*, 6: 15-25.
- Zabala, I., San Martin, I., Lersundi, M. (2016) "Learning terminology in order to become an active agent in the development of Basque biomedical registers", *Language Learning in Higher Education. CercleS*, 6 (1): 145-165.
- Zabala, I. (2018a). "The elaboration of Basque in academic and professional domains", in Bot de, K.; Grenoble, L.; Lane, P.; Røyneland, U. *Linguistic minorities in Europe online*. Mouton de Gruyter. [argitara bidean]
- Zabala, I. (2018b). Euskarazko lexiko espezializatuaren garapenaz eta harmonizazioaz. in Bilbao, G., Gartzia, P. eta Menika, M. K. (2018): *Bai, jauna, bai: fisika euskaraz!*. Bilbo, UEU (349-358).

Hizkuntza gutxituen normalizazioarekin lotutako dokumentuak

- Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Plana (2013-2019)*
https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkrhh10/eu/contenidos/informacion/euskara_plana/eu_def/index.shtml [2018-III-28an atzitua]
- European Charter for Regional or Minority Languages (1992)*
<https://www.coe.int/en/web/european-charter-regional-or-minority-languages> [2018-III-28an atzitua]

6

Osasun profesionalak euskaraz formatzen unibertsitatean

Angel Bidaurreazaga Van Dierdonck

Medikua, UPV/EHU ko Medikuntza eta Erizaintzako irakaslea

angel.bidaurreazaga@ehu.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Unibertsitateko osasun ikasketetan gaur egungo euskararen egoera aurkeztu nahi dugu artikulu honetan. Osasun zientzietako graduen euskarazko eskaintza ez da homogenea, batzuetan dena euskaraz ematen den bitartean (erizaintza, fisioterapia), beste batzuetan ez baita lortu guztiz euskaraz eskaintzea (medikuntza, odontologia, farmazia). Kontuan hartu behar da gainera, euskaraz ematen den guztia EHU/UPVn kokatua dagoela eta bere garapena osasun-esparruan euskarak lan-hizkuntza modura duen hedapenarekin lotuta dagoela. • **Hitz gakoak:** osasun zientziak, hezkuntza, unibertsitatea, euskara, irakasleak.

Abstract. In this article, we wish to present the current situation of health care studies taught in Basque at the University. The situation of health science degree programs is different as in some degree programs teaching in Basque is fully provided for (nursing, physiotherapy), while in other degree programs, there are gaps as far as teaching through Basque is concerned (Medicine, Dental Medicine, Pharmacy). All of the degree programs available in Basque are located at the University of the Basque Country (EHU / UPV) and its development is related to the fact that Basque is used as a working language in the health world. • **Key words:** health sciences, education, university, Basque, teachers.

AURREKARIAK

I Osasun zientzietako euskararen historian sakontzeko EIREk (Unibertsitateko euskal irakasleen elkarte) *Euskal Unibertsitatea 2021* liburua argitaratu zuen 2002. urtean. Lan horretan, “Euskal Unibertsitatea Osasun-zientzien alorrean” izeneko 34 orriko txosten bat jaso zen, non aztertzen zen orduko euskararen egoera, eta eskaintza akademikoaren, irakasle/ikasleen, ikerketaren eta testugintzaren argazki zehatz bat ateratzen. Honakoak izan ziren ateratako ondorio nagusiak:

1. Irakasleen euskal lerroko eskaria igotzen ari da urtez urte.
2. Irakasle berriak beharrezkoak dira normalizazio-egoera batera heltzeko.
3. Testugintzan zeregin handia dago testuliburuak prestatu eta terminologia finkatzeko.
4. Ikerkuntzarako, ikertzaile eta ikerketa-zentro berrien behar handia dago.
5. Kalitate-hezkuntzaren beharra dago Unibertsitateko kudeaketan eta egituran.
6. Osasungintza euskalduntzea loturik dago osasun-zientzietako normalizazio-plangintzarekin.
7. Beharrezkoa da ospitale klinikoa unibertsitarioa eraikitzea.

16 urteren buruan, gaur egungo egoeraren berri idatzi nahi nuke, laburki, artikulua honetan. Izan ere, aurrerapauso asko eman badira ere, oraindik hainbat helburu betetzeko daude, gehienbat, Medikuntzaren eta Odontologiaren esparruetan.

IRAKASKUNTZA ESKAINTZA

I Hego Euskal herrian osasun-zientzietako ikasketak hiru unibertsitate ezberdinetan eskaintzen dira:

- UPV/EHU: Medikuntza, fisioterapia, odontologia, farmazia, eta erizaintza.
- UNn: Medikuntza, erizaintza, farmazia.
- UPNA/NUPn: Fisioterapia, erizaintza eta Medikuntza 3. zikloa.

Horietatik, euskaraz UPV/EHU baino ez da ematen; Nafarroako unibertsitate pribatuan zein publikoan ikasketak gaztelaniaz eskaintzen dira soilik (UPNAko erizaintzako 2 ikasgai kenduta).

Hego Euskal herrian osasun-zientzietako ikasketak hiru unibertsitate ezberdinetan eskaintzen dira: Horietatik, euskaraz UPV/EHU baino ez da ematen; Nafarroako unibertsitate pribatuan zein publikoan ikasketak gaztelaniaz eskaintzen dira soilik (UPNAko erizaintzako 2 ikasgai kenduta).

**Medikuntza
ikasketei
dagokienez,
graduaren lehen
zatia
(preklinikoa)
aspaldi euskaraz
ematen bada ere,
bigarren
zikloaren egoera
ezberdina da lau
unitate
klinikoetan
(Donostian %75
euskaratuta eta
Gasteizen %0),
beraz ezin dugu
esan gradua
osorik euskaraz
eman
daitekeenik,
Erizaintza edo
Fisioterapiaren
bezala.**

Medikuntza ikasketei dagokienez, graduaren lehen zatia (preklinikoa) euskaraz aspaldi ematen bada ere, bigarren zikloaren egoera ezberdina da lau unitate klinikoetan (Donostian %75 euskaraz eta Gasteizen %0); beraz, ezin dugu esan medikuntzaren gradua osorik euskaraz ikasi daitekeenik, Erizaintza graduan edo Fisioterapiaren bezala. 2002. urtean Medikuntzaren %32,6 euskaraz ematen zen; Donostian urte horretan egoera berdintsua zen (% 31 Donostian, %26a Leioan). Odontologian egoera larriagoa da, lehen eta bigarren mailak soilik daudelako guztiz euskaldunduta.

Egoeraren erantzule gisa hainbat arrazoi aipa daitezke, esate baterako, heziketan islatzen den unibertsitateko osasun-esparruko egoera diglosikoa, hau da, gaztelania lan-hizkuntza nagusia (ia bakarra) izatea. Egoera horren arabera, hizkuntza-ohiturak aldatzea zaila da, eta hainbatetan irakasle berriak lortzeko arazoak ere izan ohi dira.

Nolanahi ere, aipagarria da euskal adarretako ikasleen hizkuntza-joerek ere larriagotzen dutela euskararen egoera osasungintzako eremu batzuetan. Adibidez, gertatu izan da BAMEko euskarazko eskaintzetan ikaslerik ez joatea. Aldiz, UPV/EHUr lotutako Gasteizeko erizaintza eskolaren bilakaera erabat desberdina izan da, ia hutsetik hasi baziren ere, euskaren eskaintzak eta erabilerak gora egin baitute.

Europar Batasunak bultzatuta 2010. urtean unibertsitateak ikasketa eta kudeaketatan hainbat aldaketa ezarri zituen, hala nola, Lizentziaturak gradu eta graduondoko ikasketak bihurtzea, ikasgaien kredituak EC-TSetan neurtzea eta karrera akademikoan ebaluazio-sistemak jartzea. Arau berriak Espainiako estatuak erabakitzen ditu, eta, zeharka bada ere, ondorioak izan ditu euskarazko irakaskuntzan. Adibidez, ikasketaplan berriek unibertsitatean izan diren 2 euskara-planetan aldaketak eragin dituzte. Bestalde, sail batzuetako euskararen kontrako joera proaktiboa ere identifikatu da azken denboratan, nahiz eta, adibidez, medikuntzan hasitako 30 urtetako ibilbidearen ondoren, Donostian zein Bilbon erradiologia edo dermatologiaren kasuetan bere euskarazko eskaintza akademikoa %0koa den.

IKASLEAK

I

1989/90 ikasturtean Medikuntzako euskal lerroak 13 ikaslerekin hasi zenetik, urtez urte goranzko joera izan du: 90 hamarkadaren bukaeran 60ko kopurura zuen eta 2010ean 125ekoa. Baina, urte horretan, Espainiako barruti unibertsitarioa onartu zenez, goranzko joera hori eten

egin zen, nahiz eta, ikasleen euskalduntzeari lotuta, azken urteotan pixka bat berreskuratu den.

Dena den, erdal lerroetan ikasle euskaldunen presentzia orokorraren fenomeno ohikoa da osasun zientzietako ikasketetan, batez ere medikuntza graduan. Datuak bestelakoak dira Erizaintza eta Farmazian, ondoren ikusiko den bezala. Ikasgai horietako eskaintza osatuago izatea hobesten ditu ikasleen datuek.

UPV/EHUn urteroko sarrerak honakoak dira (2017ko datuak, errektoretzaren arabera):

- Medikuntza: 275, bukatu 250; %40 euskaraz ari da.
- Fisioterapia: 80, bukatu 70; %50 euskaraz.
- Odontologia: 50, bukatu 30; %20 euskaraz.
- Erizaintza: %60ak euskaraz ikasten du, Leioan eta Donostian.
- Farmazia: %52 euskaraz ari da.

Medikuntzako dekanordetzak ikerketa bat egin zuen 2017an, non ikusi zen gaztelaniazko taldeetako ikasleen gehiengo nabarmena (%78) EA-Etik zetorren, eta euren ikasketa guztia euskaraz egin arren (%69) gaztelaniaz egiten zuten gradua. Horren arrazoiak askotarikoak dira, baina honakoak azpimarra daitezke: akademikoak (gradu guztia euskaraz ez egotea), linguistikoak (hobeto moldatzea gaztelaniaz euskaraz baino) eta profesionalak (MIR azterketa gaztelaniaz izatea). Datu hauek gogotarako dira.

Ikasle euskaldunak erakartzeko asmoz, hainbat ekimen aipatu ziren, 2017ko *Hizkuntza eta Osasuna* EHUKo udako ikastaroan:

- Euskararen prestigioa handitzeko kanpainak egitea ikastetxetan zein Fakultatean, esate baterako, harrera-egunean edota ikasketa-azokan.
- Osakidetzan, batez ere euskara lan-hizkuntza izateko ekimenak bultzatzea, zirkuitu euskaldunak sortuz, adibidez.
- Euskara batzordeak (akademikoak zein Osakidetzakoak) lanean jartzea tokian tokiko aukerak eta eginkizunak betetzeko, izan ere, identifikatu da arlo askotan lidergo falta nabaria izan dela.
- Gradua euskaraz soilik edo eleaniztunean eskaintzea, euskaldunen kopurua handitzeko, dirudi duelako, gaur egun Osakidetzaren gabezia batzuk nabariak direla aspaldiko ikasle euskaldunen kopuru urriagatik.

Medikuntzako dekanordetzak ikerketa bat egin zuen 2017an, non ikusi zen gaztelaniazko taldeetako ikasleen gehiengo nabarmena (%78) EA-Etik zetorren, eta euren ikasketa guztia euskaraz egin arren (%69) gaztelaniaz egiten zuten gradua.

***Ikasgaietako 50
liburu baino
gehiago
argitaratu dira,
baina ikasleek
liburuak
erabiltzeari utzi
diotenetik,
apaldu egin da
paperezko
argitalpena eta,
aldiz, interneteko
baliabideetara
egokitu dira
ahaleginak.
Terminologia
alorrean itzeleko
aurrerapenak
egin dira,
Eusnomed trena
bezala erabiliz.***

IRAKASLEAK

I Azken hamarkadetan irakasle berriak euskaldunak izateak leundu du aspaldiko egoera. Esate baterako, 2001. urtean batez beste %10 edo gutxiago ginen osasun zientzietako ikasgaietan. Gaur egun, egoera hobetu bada ere, fakultateetan ez gara oraindik heldu gizartearen dagoen euskaldunen portzentaia-mailara.

Azken urteotan kontratazio-mota berriak Medikuntzako arlo klinikoe-tako irakasle titular guztien ia desagertzea ekarri du, eta, laster, arlo horretako irakasle guztiak behin-behinekoak eta maila akademiko baxuena dutenak izango dira (irakasle lagunak). Orain arte, Osakidetza medikuen eta Fakultateko irakasleen arteko harremana zaila izan bada, lan-egoeraren kudeaketa berriak arrisku berriak ekarri ditu. Euskarari dagokionez, zailtasunak ugaritu dira, eskaintzen den lan-kontratu motak ez direlako alor batzuetan batere erakargarriak.

Ezaguna da EAEko erakundeetan euskara gutxien garatu den eremue-tako bat Osakidetza izan dela. Bertan egin diren Euskara-planen balo-razioetan azaleratu da, horretarako, arrazoi garrantzizko bat euskara bultzatzeko lidergo falta izan dela, eta, baita, Donostiako kasuan ezik, euskara batzordeak ia desagertuta izatea. Euskararen presentziaren maila apal horrek zaildu egin du ziklo klinikoan izan zezakeen arapena, nahiz eta azken urteetan gizartearen euskalduntzearen aurre pausuak, gazteetan bereziki leundu duen egoera.

Bestalde, irakasle plazak lortzeko neurriak hartu izan dituzte fakultateek (adibidez, iaz odontologian) eta ikasleek ere, euren kabuz, irakasle-gaiak lortzen ari dira ospitaletako zerbitzuetan, askotan sailek egin be-harko luketen lana beteaz.

TESTUGINTZA

I Azken hamarkadetan osasungintzako oinarritzko ikasgaietako 50 liburu baino gehiago argitaratu dira, baina ikasleek liburuak erabiltzeari utzi diotenetik, apaldu egin da paperezko argitalpena eta, aldiz, interneteko baliabideetara egokitu dira ahaleginak. Terminologia alorrean itzeleko aurrerapenak egin dira, Eusnomed trena bezala erabiliz, OSAGAIZ al-dizkariaren 2. zenbakian irakur daitekeen moduan.

Beste alor batean, Lanbide heziketan Laneki elkarrearen lan-eredua ai-pagarria da: gabeziak detektatu (ikas materialena, irakaslerena) eta ho-rren aurrean hartutako erabakiak (material bilketa egin, IRALE ikastaro

labur espezializatuak) plan integral bat erakutsi du. Fakultatean materiala biltzeko eta prestakuntza ikastaroen (Terminologia) asmoak ere azaldu ziren dekanordetik.

EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

I

Euskararen Osasun Kontseiluaren ideia proposatu zen 2017an eginiko *Osasuna eta Hizkuntza* EHUko udako ikastaroan, eta gainerakoen oniritzia lortu zuen. Kontseilu horren helburua izan beharko luke osasunaren esparru zabaleko ekintzaile euskaldunak lan bateratu bat egitea eta gidaritza sendotzea arlo klinikoan, akademikoan eta erakundeak euskalduntzeko prozesuan.

Horrez gain, ondorengo gaiak ere berariaz lantzea beharrezko ikusten da:

- UPV/EHU eta Osakidetzaeren arteko hitzarmena berregitea, gaur egun indarrean dagoenak hizkuntza gaia ez duelako ia aipatzen, eta, askoren iritziz, azken urteetako funtzionamendua ez delako nahiko eraginkorra izan.
- Nabarmentzekoa da espezializazioa aurrera doan heinean euskara desagertzen dela, eta joera horren aurrean euskara lan-hizkuntza gisa lortzeko neurri sendoak behar direla. Horregatik, azken urteetako lidergo faltari buelta eman behar zaio, izan ere, agintarien inplikazioa erabakigarria da.
- Hiztun aktiboak galdu ditugu azken urteotan eta gizarte-mailan ere jarrera aktiboak bultzatzeko erabakiak behar dira, hizkuntza ezin da bakarrik borondate kontua izan.
- Asistentzia zirkuituak martxan jartzea eta langiletarako dekalogo bat lortzea hizkuntza arloan.

Beraz, euskal gizartean bezala, osasun esparruan bidegurutze baten aurrean gaude; aspaldiko neurriek muga bateraino eramán gaituzte, eza gutza handituz baina ez hainbeste erabilera, eta goian aipatutako erabakien berri behar ditugu. ●

BIBLIOGRAFIA

- Bidaurrezaga, Angel, Asier Garro, Enrike Gutierrez Argandoña, Gontzal Garcia de Caño, Mikel Alvarez, Koldo Callado (2002). Euskal Unibertsitatea Osasun-zientzien alorrean: arazo espezifikoak orain eta etorkizun-estrategiak.. EUSKAL UNIBERTSITATEA-2021*Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea. UEU Bilbon. 115-148 or.
- Perez de Viñaspre, Olatz, Maitez Oronoz (2017) Eusnomed: Osasun-termien euskaratze automatiko. OSAGAIZ, 1. bolumena 2. zenb. 52-54 or.

Nabarmentzekoa da espezializazioa aurrera doan heinean euskara desagertzen dela, eta joera horren aurrean euskara lan-hizkuntza gisa lortzeko neurri sendoak behar direla. Horregatik, azken urteetako lidergo faltari buelta eman behar zaio, izan ere, agintarien inplikazioa erabakigarria da.

Mediku egoiliarren prestakuntza eta euskara Donostialdea ESIan

Felix Zubia Olaskoaga

Zainketa Intentsiboen Zerbitzua. Donostialdea ESIa. Medikuntza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco (EHU-UPV)

felix.zubiaolascoaga@osakidetza.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. mediku espezialisten prestakuntzarako sistema Barne Mediku Egoiliarretan (BAME) oinarritzen da. Mediku hauek, behin medikuntzako gradua amaituta, eta oposizioa gainditu ondoren, espezializazio-prozesua burutzen dute, tutore baten gidaritzapean, eta lan-ardurak modu progresiboan hartuz. Lan honetan espezialista hauen formazio-prozesuan euskarak duen egoera aztertu da. Donostialdea ESIko BAMEen euskara ezagutza %63 eta %92 artekoa da Familia Medikuen Unitatean, eta %46 eta %63 artekoa gainontzeko espezialitateetan. Euren prestakuntzan euskarak izan behar duen presentzia arautu gabea da, eta tutoreen %37 dira euskaldunak. Jasotzen dituzten ikastaroetatik 3 bakarrik dira elebitan egin litezkeenak, eta euskara dakiten ikasleen bi herenak bakarrik aukeratzen du ikastaro hauek euskaraz egitea. Egoera alda dadin, plangintza berezi bat egin behar da BAMEentzat, etorkizuneko medikuak direlako. • **Hitz gakoak:** medikuntza, prestakuntza, hizkuntza, euskara-plana.

Abstract. The system of training of medical specialists is based on the Resident Medical Intern program (BAME/MIR). These doctors, after finishing up their medical degree, and after passing the competitive examination process, undergo specialization under the supervision of a tutor, and progressively take over their work responsibilities. This paper analyzes the situation in Basque in the training process of these specialists. Knowledge of Basque in the Resident Medical Intern Program at the Donostialdea HMO is between 63% and 92% in the Family Medical Unit, and 46% and 63% in other specialties. The presence of Basque in their education is non-standard and 37% of tutors are Basque-speaking. Out of all the courses that they take, only 3 can be given on a bilingual basis. Only two thirds of the students who know Basque choose to take these courses in Basque. In order for the situation to change, there needs to be special planning for the Resident Medical Intern program as they are future physicians. • **Key words:** medicine, training, language, Basque language plan.

1. SARRERA

Espainiar Estatuan, mediku espezialisten prestakuntza Barne Medikuko Egoiliarren (BAME) Sistemaren bidez egiten da. Bertan, medikuntzako gradu-ikasketak burutuak dituen ikasleak espezializazio-prozesua burutuko du, lan-ardurak modu progresiboan hartuz. Lan honetan Donostialdea ESIan dauden mediku egoiliarren euskarazko prestakuntza espezializatua landuko dugu, etorkizunean izango ditugun medikuak bertan sortuko baitira.

2. BARNE MEDIKU EGOILIARREN PRESTAKUNTZA-SISTEMA

Barne Medikuko Egoiliarren prestakuntza 44/2003ko legeak erregulatzen du, azkenekoz 2014ko martxoan eguneratu zena¹. Lege honetaz gain, badira eragiten dioten beste zenbait lege ere². Laburbilduz, behin estatu-mailako oposizioa bat gainditu ondoren, mediku egoiliarra prestakuntza-programa batean sartzen da, era berean lan-harremana ere baduena, eta ordaindua dena. Bertan hartzen ditu modu progresiboan, bere espezialitateko konpetentzia guztiak (ezagutza, trebetasunak, jarrerak). Horrela, eta beti ere profesional espezializatuen gidaritzapean, ardurak modu progresiboan hartuko ditu, ikasketa-prozesua amaitzean espezialista izateko gaitasunak lortu arte. Espezialitate bakoitzak bere formazio-programa du, eta bertan adierazten da bere iraupena (4-5 urte) eta urtez urte zer egin behar duen egoiliarrek gaitasunak osatu asmoz.

Euren prestakuntzaren barruan, badira egoiliar denentzat orokorrak diren ikastaroak eta espezialitate bakoitzak bereak dituenak. Eta hilean behin ospitale guztiko Saio Orokor bat antolatzen da, egoiliar guztientzat derrigorrezkoa dena.

Prestakuntza-prozesu hori osatzeko eta ziurtatzeko Irakaskuntza Unitate ezberdinak osatu dira. Unitate horietan Irakaskuntza-buru bat dago, eta hainbat tutore izendatzen dira, espezialitate bakoitzeko, egoiliarren prestakuntzaz arduratu eta gainbegiratzeko.

Une honetan bi Irakaskuntza Unitate daude Donostialdea ESIan. Alde batetik, Donostia Ospitalean prestakuntza jasotzen duten BAMEak daude, 36 espezialitatetan banatuak, eta bestean, Lehen Mailako arretan espezializatzen diren Familia Medikuen Irakaskuntza Unitatea dago. Litekeena da etorkizunean bi unitate horiek bat egitea, ESIaren egiturak hala eskatzen badu.

Behin estatu-mailako oposizioa bat gainditu ondoren, mediku egoiliarra prestakuntza-programa batean sartzen da, eta bertan hartzen ditu modu progresiboan, bere espezialitateko konpetentzia guztiak (ezagutza, trebetasunak, jarrerak).

**Donostia
Ospitalean
dauden 56
tutoreetatik 21
dira euskaldunak
(%37,5), eta 36
espezialitate-
etatik 14tan
daude tutore
euskaldunak
%38,89an.
Familia
medikuntzan
aldiz, dauden 68
tutoreetatik %50
dira
euskaldunak.**

3. EGOILIARREN ETA TUTOREEN EUSKARA EZAGUTZA

Donostia Ospitalean dauden egoiliarren euskara ezagutza aldakorra da, urtetik urtera, baina azken bost urteotan %46,67 eta %63,63aren artean dago. Familia Medikuen unitatean 2014 eta 2015ean %92 euskaldunak ziren, 2016an %85, eta 2017an %63. Ezagutza-maila hori bada ere, euren ikastaroak euskaraz jaso nahi duten jakitean, kopurua murriztu egiten da, eta euskaraz dakitenen artean heren bat inguruk gaztelania aukeratzen du bere ikastaroak egiteko.

Donostia Ospitalean dauden 56 tutoreetatik 21 dira euskaldunak (%37,5), eta 36 espezialitateetatik 14tan daude tutore euskaldunak %38,89an. Familia medikuntzan aldiz, dauden 68 tutoreetatik %50 dira euskaldunak.

4. EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA

BAMEen prestakuntza estatuko lege eta akordioen menpekoa da, eta ez da euskarari buruzko aipamenik agertzen. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak ere ez du plan berezirik egoiliarrentzat, eta bere Euskara Plan orokorraren barruan sartzen dira. Beraz, eta urte askoan zehar, emandako urratsak borondatezkoak izan dira, plangintza oso bat izan gabe.

Ospitalera iritsi eta harrera egitean, euskarari buruzko hitzaldi bat ematen die ESIko Euskara Zerbitzuak. Bertan, Euskara Plana zer den azaltzen zaie, eta hizkuntzak duen garrantziari buruzko hainbat zertzelada ematen. Horrekin batera, euskara doan ikasteko aukera ere eskaintzen zaie. Aurten aurrenekoz eman zaizkie euskara-planari buruzko argibideak eta normalizazioak etorkizunean izango dituen erronei buruzko azalpenak, eta ondoren, euskaraz ikasteko eskabideak bikoiztu egin dira. Une honetan guztira 38 BAME ari dira euskara ikasten Donostialdea ESIan, eta 23 lehen urtekoak dira.

Lehen urtean, egoiliar guztientzat diren Elektrokardiografia eta Bihotz-Biriken Berpizketari buruzko ikastaroak elebitan eskaintzen dira, eta egoiliar bakoitzak aukeratzen du zein hizkuntzatan egin. Hortik aurrera, Eskuen Garbiketako ikastaroa ere elebitan da, Osakidetzak ordenagailu bidez antolatua duelako (on-line), baina gainontzeko ikastaro guztiak gaztelaniaz bakarrik dira. Datorren urterako, Erradiologiari buruzko ikastaroa ere elebitan izango da. Horrez gain, jakin behar da hilero egiten diren Saio Orokorrak ere gaztelaniaz direla.

Aurrez aipatu moduan, euskaraz dakiten egoiliarren bi herenek bakarrik aukeratzen dute egiten dituzten ikastaroak euskaraz egitea. Horren inguruko galdeketa zabal eta sistematizatu bat egin ez den arren, eurekin izandako elkarrizketetan ikusi denez, bi arrazoi dituzte horretarako: batetik, aurrez medikuntzako ikasketak gaztelaniaz egin izana; eta bestetik, eguneroko osasun arreta hizkuntza horretan izatea, eta beraz, horretarako prestatuago egotea.

Eguneroko lanean, gaztelania da hizkuntza nagusia. Euskara ahozko komunikaziorako erabiltzen da, baina ez da erabiltzen lan-hizkuntza moduan. Zerbitzu bakoitzean egiten diren Saio Klinikoetan ere, gaztelania da ia hizkuntza bakarra, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik.

5. ETORKIZUNEAN EMAN BEHARREKO PAUSOAK

I

Egoera honen aurrean, ondorengo pausoak proposatzen ditugu, etorkizuneko mediku espezialistak euskaraz lan egiteko gauza izan daitezen, bai pazienteekiko ahozko komunikazioan, eta baita idatzizko arloan ere.

1. Euskara benetako lan-hizkuntza bihurtzea. Neurrik garrantzitsuen litzateke hau, mundu errealean erabiltzeak motibazioa, prestakuntza-beharra eta eredia sortuko lukeelako. Erakundeak jarraibide argiak eman beharko lituzke arlo honetan, eta ez utzi erabakia profesionalen bizkar gainean.
2. Euskara-planaren barruan, egoiliarren plangintza berezi bat sartzea, bere helburuak jarritz eta jarraipena eginez.
3. Egoiliar guztiei hizkuntzak osasungintzan duen garrantzia azaltzea, pazienteen arreta-kalitatea hobetzen duelako. Gai honi buruzko ikerketa bultzatu beharko litzateke, eta egoiliarren parte-hartzea lehenetsi.
4. Egoiliarrei euskara-plana azaltzea, eta euren etorkizunean duen eragina ezagutzera ematea.
5. Egoiliarrentzat euskara teknika prestatzeko ikastaroak antolatzea.
6. Tutore izateko irizpideen artean hizkuntza-irizpideak ezartzea. ●

OHARRAK

1. Estatuko Boletín Oficiala. BOE-A-2003-21340.
2. Estatuko Boletín Oficiala: BOE-A-2006-17498.
- Estatuko Boletín Oficiala: 2008ko otsailak 8.
- Estatuko Boletín Oficiala: 2008ko martxoak 5.

BIBLIOGRAFIA

- Estatuko Boletín Oficiala. BOE-A-2003-21340.
Estatuko Boletín Oficiala: BOE-A-2006-17498.
Estatuko Boletín Oficiala: 2008ko otsailak 8.

**Aurten
aurrenekoz eman
zaizkie euskara-
planari buruzko
argibideak eta
normalizazioak
etorkizunean
izango dituen
erronkei buruzko
azalpenak, eta
ondoren,
euskaraz
ikasteko
eskabideak
bikoiztu egin
dira.**

Estatuko Boletín Oficiala: 2008ko martxoak 5.

Román-López P, Palanca-Cruz MM, García-Vergara A, Román-López FJ, Rubio-Carrillo S, Algarte-López A. Barreras comunicativas en la atención sanitaria a la población inmigrante. *Rev Esp Comun Salud* 2015, 6(2), 204-212.

Figueroa-Saavedra, M. Estrategias para superar las barreras idiomáticas entre el personal de salud-usuario de servicios de salud pública en España, Estados Unidos y México. *Nueva época*, 2009, 12, 149-175.

8

Nazioarteko kolaborazioa arretaren normalizazio-prozesuan

Aitor Montes

Familia medikua Aramaion, Debagoieneko ESI, Osakidetza

aitor.monteslasarte@osakidetza.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Osasun jarduera eremu eleaniztun edo elebidunetan burutzen da nonahi, asistentzia prozesuan hiltun ezberdinen arteko harremanak ohikoak direlarik. Profesionalen eta erabiltzaileen arteko hizkuntza mugak etorkinei eta eremu urriko hizkuntzen kideei eragiten diete, osasun mailako ekitate-eza sortuz. Artikulu honetan egileak egoera horri aurre egiteko nazioarteko esperientziak, proposamenak eta ezarpen-prozesuak aztertzen ditu, eta elkarlanerako eskaintzen duten aukera defendatu. • **Hitz gakoak:** osasun arreta, ekitate-eza, hizkuntza mugak, pazientean zentratutako arreta, arretaren normalizazioa, eskaintza aktiboa, hizkuntza kontzientzia, estandarrak, kultura sentiberatasuna, eremu elebiduna, hiltun komunitatea.

Abstract. Health care is delivered in multilingual or bilingual settings all across the world, thereby communication among different language speakers during care process is a common issue. Language barriers between providers and users affect mostly to migrants and linguistic minority speakers, leading to health inequities. In this article the author reviews the experiences, frameworks and implementation processes carried out to face this challenge, and defends the opportunity for international collaborative work. • **Key words:** health care, inequity, language barriers, patient centred care, normalized care, active offer, language awareness, standards, culture responsiveness, bilingual context, linguistic community.

1. SARRERA

I

1.1 Eleaniztasuna osasungoan

Mundu osoan eleaniztasuna da nagusi, 7.000 bat hizkuntza hitz egiten direlarik. Aldi berean, immigrazioak gora egin du azken urteetan. Osasun jarduera, beraz, eremu eleaniztunetan egiten da nonahi, asistentzia-prozesuan hitzun ezberdinen arteko hartu-emanak etengabeak direlarik. Paziante eta profesionalen artean komunikazioa funtsezkoa da, eta horretarako biek hizkuntza bera hitz egitea lehenesten da, batik bat pazientean ardazturiko arreta lortu nahi bada (Ohtani 2015). Eremu elebidunetan, non hizkuntza bat nagusi den eta bestea diglosia egoeran dagoen, osasun profesional elebidunak topatzea oso zaila izaten da (De Moissac 2012). Osasun arreta, beraz, ez da hizkuntza gutxituetan eskaintzen oro har. Gauzak horrela, profesionalen eta pazienteen arteko hizkuntza mugak ohikoak izaten dira, izan etorkinak zein eremu urriko hizkuntzen hitzunak (Bowen 2015).

1.2 Hizkuntza mugak eta ekitate-eza

Zerbitzua erabiltzaileen hizkuntzan ez emateak ondorio latzak ekar ditzake (Johnstone 2006), erabiltzaileen arteko desberdintasunak eraginez, eta medikuntzak oinarritzkoa duen ekitatea zapuztuz. Ekitatea jende ororentzat osasun mailarik altuena edo gorena lortzea litzateke, ahal den heinean, inolako bazterkeriarik gabe. Osasun mailako ekitate-eza pertsonen arteko osasun ezberdintasunak lirateke, ezberdintasun ekonomiko eta sozialak eragindakoak batik bat, baina baita hizkuntzak eragindakoak ere. Izan ere hizkuntzaren arloa da hobekuntzarako aukera egingarri gehien eskaintzen duena, eta askoren ustez, lehentasunezkoa (Brach 2000).

Artikulu honetan AEB, Australia, Kanada eta Galesen osasun arloan hizkuntza mugak gainditzeko proposatu diren neurriak aztertuko dira, eta azkenik, nazioarteko esperientziek eta ezarpen prozesuek elkarlanean eskaintzen duten aukera defendatuko da.

1.3 Arretaren normalizazioa helburu

Izenburuak adierazten duenez, helburua arretaren normalizazioa litzateke, eta ez hizkuntzaren normalizazioa. Horrenbestez, arretaren normalizazioa horrela definitu daiteke: indarrean eta eskura dagoen ebidentzia zientifikoan oinarrituriko eta, aldi berean, pertsonan zentratutako

Profesionalen eta erabiltzaileen arteko hizkuntza mugek etorkinei eta eremu urriko hizkuntzen kideei eragiten diete, osasun mailako ekitate-eza sortuz.

**Zerbitzua
erabiltzailearen
hizkuntzan ez
emateak ondorio
latzak ekar
ditzake,
erabiltzaileen
arteko
desberdintasunak
eraginez, eta
medikuntzak
oinarritzkoa duen
ekitatea
zapuztuz.**

osasun arreta eredu integratua. Aurrekoari jarraituz beraz, pazientearen hizkuntzan eskaintzen den arreta integratua litzateke; edonon, edonoiz, maila guztietan, ahoz zein idatzizko komunikazioetan. Dena den, arretaren normalizazioak hizkuntzaren normalizazio-prozesuan ere lagundu dezakeela esan daiteke.

2. AMERIKETAKO ESTATU BATUAK

I

2.1 Etorkinak, hizkuntza mugak eta lege-esparrua

AEBetan bi dira osasun arreta pazientearen hizkuntzan ematera behar-tzen duten indar bultzatzaileak: batetik, aldaketa demografikoak, emi-grazioa hain zuzen ere, eta, bestetik, lege-esparrua.

AEBetan etorkinen kopurua etengabe igo da azken hamarkadetan. 2010. urtean 59 milioi ziren etorkinak, eta 25 milioi ingelesez ondo egiteko gaitasunik ez zutenak. Osasun-zerbitzuen giza baliabideen ezaugarriak kontuan hartuta (osasun langile elebidunen gabezia, alegia), erabiltzaileen eta profesionalen arteko hizkuntza mugak eta komunikazio-arazoak erronka handia bilakatu dira AEBtako osasun sistemarako.

1964ko Eskubide Zibilen Legeak, batik bat bere VI tituluak, zera zedarritzen du: `Estatu Batuetan ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea edo jatorriagatik, ez diskriminatuko gobernu federalaren diru-laguntza jasotzen duen edozein jarduera edo programan parte hartzeko zein onurak jasotzeko orduan. Gorte Gorenak hizkuntza diskriminazioa jatorri edo arraza-diskriminazioaren parekotzat hartzen du, baita gobernu federalak ere, eta osasun arretara zabaldu zuen betebeharrak hori 1980. urtean.

2.2 CLAS estandarrak jarraibide

Gauzak horrela, osasun hornitzaileek hizkuntza aniztasunari erantzun egokia emateko asmoarekin, eta, aldi berean, lege-betebeharrak bete ditzaten, gobernu federalaren Gutxiengoen Osasunerako Bulegoak, CLAS (*Culturally and Linguistically Appropriate Services*) estandarrak garatu zituen 2001ean. Estandar horiek AEBetako gobernu federalak bete beharrezkotzat jotzen ditu, diru-laguntza publikoak jaso nahi dituen edozein osasun erakunderentzat, hala nola *Medicare* edo *Medicaid*. Estandarren xedea hauxe litzateke: osasun erakunde guztiek bermatu behar dute erabiltzaileek jasotzen dutela kalitatezko arreta eraginkorra, ekitatezkoa, errespetuzkoa, ulergarria, euren kultura, sinismen eta aukerazko hizkuntzarekin bateragarria.

Estandarren helburuetako bat osasun profesionalek hizkuntzak zein kulturak osasun arretan duten garrantziaz jabetzea da, jarrera egokiak eta gaitasunak eskuratzea kalitatezko zerbitzuak eskain ditzaten, eta hau prestakuntza programetan txertatzea.

Ezarpenerako abiarazi diren neurriak lege mailakoak izan daitezke, hau da, estandarren inguruko profesionalen prestakuntza eta kontzientziazioa bultzatzen duten araudiak, edo estatuek finantzaturiko CLAS estandarrek sustatzeko jarduerak. Hala eta guztiz ere, ez dago jakiterik zenbateraino betetzen diren estandarrak, eta ingeles-gaitasun mugatuta duten paziente guztiei hizkuntza-zerbitzuak eskaintzen zaizkien edo ez.

AEBetan hizkuntza-zerbitzuak derrigorrezkoak dira. Profesional elebidunak edo itzulpen-zerbitzuak eskaini behar zaizkie, doan, ingeles hizkuntza mugatuta duten paziente guztiei. Batetik profesional elebidunen urritasuna eta bestetik hizkuntza aniztasuna kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen dute itzulpen-zerbitzuen erabilera.

KANADA

I

3.1 Kanadako lurralde antolakuntza eta hizkuntza aniztasuna

Kanada herrialde elebiduna da, eta frantsesa eta ingelesa dira hizkuntza ofizialak. Hala ere, biztanleriaren % 17,5 bakarrik da ele bien hiztuna. Elebidun gehienak Quebecen, Ontarion eta Brunswick Berrian kokatzen dira, beste eremuetan ingelesa nagusi delarik.

Osasuna eta hizkuntzaren gaia frantses-hiztunen eremuan kokatu da batez ere. Kontuan hartu behar da Quebecetik at milioi bat frantses hiztun bizi direla. Bestalde, osasun zerbitzuen egoera oso konplexua da. Gobernu federalak osasun arloko jurisdikzioa probintziei esleitu dizkie; hortaz, gobernu federalaren hizkuntza-politika ofiziala ez da probintzia edo lurralde guztietan guztiz aplikagarria. Gauzak horrela, osasun arreta menpeko hizkuntzan (ingelesa Quebecen eta frantsesa Quebecetik at) bermatzeko asmoz, Kanadako gobernu federalak gai honetan lanean diharduten erakundeak finantzatzen ditu, batez ere frantses hiztunen *Société Santé en Français (SSF)* eta ingeles hiztunen *Community Health and Social Services Network (CHSSN)*.

3.2 Osasun arloko frantses hiztunen komunitatea

Frantses hiztunen osasun arloko komunitatea Montfort ospitalearen in-

Helburua arretaren normalizazioa litzateke, eta ez hizkuntzaren normalizazioa: indarrean eta eskura dagoen ebidentzia zientifikoan oinarrituriko eta, aldi berean, pertsonan zentraturiko osasun arreta eredu integratua.

**AEBetan
hizkuntza-
zerbitzuak
derrigorrezkoak
dira. Profesional
elebidunak edo
itzulpen-
zerbitzuak
eskaini behar
zaizkie, doan,
ingeles hizkuntza
mugatuta duten
paziente guztiei...
ezinbestekotzat
jotzen dute
itzulpen-
zerbitzuen
erabilera.**

guruan sortu zen. Ottawan dagoen ospitale unibertsitarioa da eta sortu zenetik zerbitzua ele bietan eman du. 1997an, Montfort ospitalea ixtea erabaki zen. Frantses hiztunentzat ospitalea euren komunitatearen eta hizkuntzaren arnagunea zen, eta horregatik SOS Montfort mugimendua sortu eta epaitegietara eraman zuten euren aldarrikapena. Horrela sortu zen *Société Santé en Français* erakundea 2002an. Osasun-prestakuntza frantsesez eskaintzeko eta hizkuntza eta osasun arreta uztartuz ikerketa bultzatzeko erakundea sortu zen 2003. urtean, *Consortium National de Formation en Santé (CNFS)* delakoa. Bere helburua frantsesezko osasun zerbitzuen eskaintza aktiboa bermatuko duten osasun langileak eta ikertzaileak sortzea da, gutxiengo egoeran dauden frankofonoen osasun beharrei erantzun egokia emateko. Bestalde, euren pentsamoldean irakaskuntzaren helburua unibertsitatetik harago doa: aldi berean frankofoniaren bizi-indarrerako hauspoa litzateke, kanadar gizartearen elkarbizitzarako tresna, nazioartean ere bere ekarpena egin dezakeena.

3.3 Eskaintza aktiboa eta hizkuntza kontzientzia

Kanadarrek eskaintza aktiboa proposatu dute euren ildo-lerro edo ardatz gisa. Aukerazko hizkuntza ofiziala erabiltzeko gonbidapena litzateke, ahoz zein idatzizkoa, erabiltzailea osasun zerbitzuetara bertaratzen den bakoitzean, betiere eskaera baino lehenago eta erabiltzaileak eskatzera behartu gabe.

Hizkuntza kontzientzia hizkuntzak pertsonen bizitzan duen garrantziaz jabetuta egotea, eta ezagutzen oinarrituriko kontzientzia sendoa esku-ratzea litzateke. Euren ereduari, hizkuntza kontzientziak pazientean zentratutako arretaren ereduarekin bat egiten du, eskaintza aktiboaren bitartez. Harago, osasun zerbitzuen antolakuntzan hizkuntza kontuan hartzea inplikatzeko du, eta aldi berean erabiltzaileak zein komunitate osoa sentiberatzea eta aktibatzea. Hiztun komunitatearen aurrekariak eta bere hizkuntzan arretarik jaso ez izanak eragindako kaltea kontuan hartu beharko luke, ikuspegi etiko batekin.

3.4 Profesional elebidunen hautespena

Pazienteen zentratutako kalitatezko arreta lortzeko orduan, erronkarik handiena profesional gaituak aukeratzea izan daiteke. Profesionalak menpeko hizkuntzan trebatzea zaila da, urteak behar ditu, eta kostu aldetik garestia oso, prestakuntza burutu bitartean ordezkatu behar dire-lako, besteak beste. Hartara, aukerarik onena profesional elebidunak hautatzea litzateke, eta eskaintza aktiboaren kultura txertatzea egune-

roko jardunean. Hizkuntza beraz ez litzateke aukera edo hautu bat izango, profesional guztien betebeharra baizik, elebakarrak zein elebidunak, norberak ahal duen heinean.

Egoera horri aurre egiteko euren kontratazio-esparrua garatu dute, *Framework for Recruitment & Retention of Bilingual Human Resources in the Health Sector*, giza baliabide urriak gogoan hurbilpen egokitua darabilena. Sei arlotan banatzen dute langile elebidunen hautespen-prozesua: lehenik eta behin frantses-hiztunen komunitatearen beharrak identifikatu; ondoren behar diren lanpostu elebidunak eta lanpostu bakoitzeko hizkuntza-eskakizunak zehaztu; gero hautaketa prozesua burutu; hurrengo langile elebidunen harrera eta integrazioa; horren ondoren langile elebidunak babestu eta mantendu; eta azkenik, prozesu osoa ebaluatzea.

Langile elebidunak sortzeko hezkuntza-sistema funtsezkoa dela antzeman dute. Zientzia-fakultateetan, medikuntzan eta erizaintza eskolan sartzeko orduan, ikasle elebidunak lehenestea proposatzen dute, eta euren prestakuntza-prozesuan hizkuntzaren gaia txertatzea, frantses-hiztunen komunitatearekin elkarlanean.

3.5 Komunikaziorako estandarrak

Kanadan, arreta pazientearen hizkuntzan emateko estandarrik ez dagoela ikusirik, eta AEBetako CLAS estandarren ereduari jarraituz, Kanadara egokituriko estandar propioak garatzea begitandu zuen SSF-k. Hori horrela, 2017an SSF elkarlanean hasi da *Health Standards Organization (HSO)* erakundearekin, eta *Standard on Communication in Minority Language Situations* ari dira garatzen, 2018rako argitaratuko dena. Helburua haxe litzateke: eremu elebidunetan, kalitatezko arreta hizkuntza ofizialetan bermatzeko komunikaziorako estandarrak sortzea, neurgarriak zein ebaluagarriak izan daitezkeenak, aldi berean akreditazio ofiziala eskuratzea ahalbidetuko dutenak.

3.6 Gaurko egoera: lorpenak eta emaitzak

Kanadako ereduak zer nolako emaitzak lortu dituen ezagutzea interesgarria izan daiteke oso. 2016an argitaraturiko ikerketa batean (Guignard 2016), arreta frantsesez eskaintzen duten osasun guneak identifikatu ziren. Ontarion biztanleriaren % 43k hitz egiten du frantsesez, eta osasun langileen % 3 da elebidun. 779 arreta guneek (% 21,5) ematen dute arreta ele bietan; frantsesa lan hizkuntza duten eta arreta frantsesez soilik ematen dutenak 19 dira. Brunswick Berrian frantses hiztunak biztanleriaren % 31,9 dira; eta bi hizkuntzak ofizialak dira. Han osasun

Kanadarrek eskaintza aktiboa proposatu dute ardatz gisa: aukerazko hizkuntza ofiziala erabiltzeko gonbidapena da, ahoz zein idatzizkoa, erabiltzailea osasun zerbitzuetara bertaratzen den bakoitzean, betiere eskaera baino lehenago eta erabiltzaileak eskatzera behartu gabe.

**Kanadan, arreta
pazientearen
hizkuntzan
emateko
estandarrik ez
dagoela ikusirik,
estandar
propioak
garatzen hasi
dira. Helburua
da eremu
elebidunetan,
kalitatezko
arreta hizkuntza
ofizialetan
bermatzeko
komunikaziorako
estandarrek
sortzea,
neurgarriak zein
ebaluagarriak
eta, aldi berean
akreditazio
ofiziala
eskuratzea
ahalbidetuko
dutenak.**

arreta gune publiko guztiek eskaintzen dute arreta ele bietan.

Pazienteek bizi duten esperientzia ere ikertu da Manitoban. Osasun langile elebidunen portzentajea oso txikia da: familia medikuen % 2,6 eta gizarte langileen % 2,7. Halere, erabiltzaileen % 14k frantsesez egiten du bere oheburuko medikuarekin, eta % 37k jasotzen du ospitale mailako arreta frantsesez (Corbeil 2009). Brunswick Berrian oro har osasun arreta frantsesez jasotzen da, eta maila handi batean Ontarion. Euren ustez, hemen jarrera proaktiboa dago, hots, arreta frantsesez eskaintzen da. Manitoban eta Eskozia Berrian ordean, jarrera erreaktiboa litzateke, alegia, komunikazio arazoak edo hizkuntza mugak antzematen direnean soilik ikusten da arreta frantsesez eskaintzearen beharra.

Ottawako adierazpena

Amaitzeko, aipatzekoa da osasun arloko frantses hiztunen Ottawako adierazpena. 2017ko azaroan egin ziren *Rendez-vous Santé en Français* jardunaldiak, eta bertan aurkeztu zen *La Déclaration d'Ottawa au nom d'une francophonie en santé* adierazpena. Osasun arloko partaideek sorturikoa da, hots, osasun langileek, erabiltzaileek eta mundu akademikoak. Bertan norbanakoaren zein giza taldearen hizkuntza eta nortasunaren garrantzia azpimarratzen da, frantses hiztunen komunitatearen bizi indarra Kanadako elkarbizitzarekin lotzen dutelarik. Aldi berean, osasun arloa frantsesez ematea komunitate frankofonoaren euskarri eta arnagunetzat jotzen dute. Mundu mailan euren burua aurkeztu eta kokatu nahi dute, eremu gutxiko hiztunekin elkarlana bultzatzeko asmoz.

AUSTRALIA

I

4.1 Australiako hizkuntza aniztasuna

Australia herrialde anitza da hizkuntza aldetik. Ingelesa da hizkuntza nazionala, eta biztanleriaren % 80ak du etxeko hizkuntza. Australiarren % 20 88 kanpoan jaioetakoa da, eta horien erdia ingelesa hitz egiten ez den herrialdeetan.

Australian CALD (*Culturally and Linguistically Diverse*) terminoa erabiltzen dute: euren burua ezberdin ikusten duen edozein kultura edo hizkuntza taldea, nolakotasun berezia edo ezberdina duena jatorriagatik, etniagatik, erlijioagatik edo hizkuntzagatik. Euren ustez, arlo klinikoan seguruak izateaz gain, osasun-zerbitzuak kultura aldetik ere seguruak izan behar dira, hots, ezin dute norbanakoaren edo giza taldearen kultura kolokan jarri. Australiarren esparruan ekitateak zera esan nahi du:

guztioak eskubide bera daukatela kalitate goreneko zerbitzua jasotzeko, segurtasunez, bere kultura eta hizkuntza edozein izanda ere. Pertsonaren araberrako eta beraz ezberdinak izan daitezkeen osasun beharrak bete beharko lirateke, berdintasuna helburu.

4.2 Kultura gaitasunetik kultura sentiberatasunera

Australian kultura sentiberatasunaren esparrua proposatzen da jarraibide gisa, *Cultural responsiveness framework* (CRF) delakoa. Kultura sentiberatasunak zera dakar: giza talde ezberdinek edo pazienteez dituzten osasunaren gaineko sinismenak, jarduerak, eta aldi berean beraien kultura eta hizkuntza errespetatuko eta kontuan hartuko duen osasun zerbitzua. Dena den, giza baliabideak nagusiki ingeles hiztunak izanik, itzulpen-zerbitzuetan oinarritzen dute informazioaren transmisioa.

Laburbilduz, Australian hizkuntza eta kultura aniztasun handia dago, eta horri erantzun egokia emateko asmoz kultura sentiberatasunaren esparrua garatu dute, bete beharreko estandar neurgarriak garatuz. Hizkuntza segurtasunarekin eta kalitatearekin lotu dute, nazioarteko ereduarekin bat eginik. Euren inguruaren ezaugarriak egokituz, segurtasun klinikoaz harago, segurtasun kulturalaren kontzeptua ere darabilte.

5. GALES: HITZAK BAINO GEHIAGO

I

5.1 Hizkuntzaren lege-esparrua eta osasungintza

Gales Erresuma Batuko mendebaldean kokatuta dagoen nazioa da. 1997. urtean bere autonomia eskuratu zuen Galesko Gobernuaren Legearekin, Galesko Legebiltzarra eta Galesko Gobernuaren bidez antolatzen dena. Eremu elebiduna da, non bertoko hizkuntza, galesa, hizkuntza gutxitua bilakatu den. 3 milioi biztanle inguru ditu Galesek, eta horietako 595.000 lagunek hitz egiten dute galesez, biztanleriaren % 20 5.

Galesko Gobernuak lege-neurriak onartzeko boterea dauka. Hori horrela, 2011. urtean Gales Hizkuntzaren Neurria ebatzi zuen. Legearen arabera, beraz, galesa hizkuntza ofiziala da, ingelesaren parekoa. Legeak dioenez, herri-administrazioak herritarrek galesez bizi ahal izatea bermatu behar du.

Osasun arloa Galesko Gobernuaren eskuduntza da. Hortik abiatuz, osasungintzan galesaren erabilera bultzatzea erabaki zuen, hasieratik arretaren kalitateari lotuz, eta 2012an `Hitzak baino gehiago izenekoa esparru estrategikoa abiarazi zuen.

**Australian
hizkuntza eta
kultura
aniztasun handia
dago, eta horri
erantzun egokia
emateko asmoz
kultura
sentiberatasun
aren esparrua
garatu dute, bete
beharreko
estandar
neurgarriak
garatuz.
Hizkuntza
segurtasunarekin
eta
kalitatearekin
lotu dute,
nazioarteko
ereduekin bat
eginik. Euren
inguruaren
ezaugarriak
egokituz,
segurtasun
klinikoaz harago,
segurtasun
kulturalaren
kontzeptua ere
darabilte.**

Galesen helburua ez da hizkuntzaren normalizazioa, kalitatezko arreta soziosanitarioa eskaintzea baizik.

Hizkuntzaren gaia erakundearen plangintzan, pentsamoldean eta jardueran txertatzearen beharra antzeman dute, eta hori lortzeko lidergoa, langileria sentiberatzea, profesionalen etengabeko prestakuntza, eta giza baliabideen plangintza zein kudeaketa egokia ezinbestekoak dira.

5.2 Eskaintza aktiboaren eredua: hizkuntza-beharrak

Hasteko, esan beharra dago `Hitzak baino gehiago` esparru estrategikoaren helburua ez dela hizkuntzaren normalizazioa, kalitatezko arreta soziosanitarioa eskaintzea baizik. Esparruak argi eta garbi adierazten du zerbitzua erabiltzaileen beharren arabera antolatu behar dela, pazientean zentratutako arreta izango bada. Arretaren oinarriak errespetua eta duintasuna direlarik, eta norbanakoaren premiak azaltzeko hizkuntza ezinbestekoa dela aitortuz, hizkuntza arretaren parte dela kontuan hartzen du esparruak; hots, arreta eta hizkuntza banaezinak direla, ez aukerazko edo hautazko osagaia. Hizkuntza ez baita soilik komunikaziorako tresna; norbanakoaren identitatearen osagarria da. Hori horrela, `hizkuntza-beharraren kontzeptua erabiltzen dute galestarrek. Hau guztia kontuan hartuz, erantzukizuna ez dela pazientearena deritzote, osasun zerbitzuen hornitzaileena baizik.

Hizkuntzaren gaia erakundearen plangintzan, pentsamoldean eta jardueran txertatzearen beharra antzeman dute, eta hori lortzeko lidergoa, langileria sentiberatzea, profesionalen etengabeko prestakuntza, eta giza baliabideen plangintza zein kudeaketa egokia ezinbestekoak direla. Hurbilpen sistemikoa deritzo horri, non hizkuntza zeharkako gaia den maila guztietan, eta horretarako erakunde osoan kultura-aldaketa bultzatu behar dela defendatzen den.

5.3. Bangor-eko Unibertsitatea eta LLAIS erakundea

Aipamen berezia merezi du Bangor-eko Unibertsitateak. Bere plan estrategikoan hizkuntza kontuan hartzen du; horretarako, azpiegitura sendoa garatu du galesaren erabilera babesteko ikerketa mailan. Langile, irakasle zein ikasleen hizkuntzarekiko jokabideak aldatzeko ekimenak sustatzen ditu, eta goi-mailako hezkuntzan galesaren gotorlekua dela esan daiteke.

Ikerketa eta garapenerako gunea litzateke LLAIS erakundea. Osasungintza eta hizkuntzari buruzko ikerketa bultzatzen du, hizkuntzarekiko kontzientzia bultzatuz osasun arloan. Horrela, eremu elebidunetan lan egiteko gaitasuna zein prestutasuna izango duten etorkizuneko profesionalak sortzea du helburu.

Zentzu honetan, aipagarria izan daiteke *Pazienteek Hautemandako Emaitzen Neurketa* izenez ezagutzen diren pazienteei zuzendutako galdetegien itzulpena eta balioztatzea. Osasun arloan gero eta gehiago erabiltzen ari dira, gaixotasunen baheketarako, pazienteen ebaluaziorako eta ja-

rraipenerako. Batez ere esku-hartzeen emaitzak ebaluatzeko tresnak dira, pazienteak berak betetzen dituenak. Edozein ikerketan baliaigarria izan daitezen, tokian tokiko hizkuntzara itzuli behar dira. Balioztatzeak berariazko prozedura eskatzen du, testa baliaigarria izan dadin, eta beraz esku-hartzearen edo ikerketaren ondorioak era fidagarrian egiaztatzeko. LLAIS arlo honetan liderra dela esan daiteke.

5.4. Lorpenak eta emaitzak

Galesen lorpenik handienak ikerketaren eta oinarri teorikoen arloan eman direla esan daiteke, LLAIS erakundeak eta Bangor-eko Unibertsitateak egindako ekarpenari esker batez ere. Funtsean, euren Hitzak baino gehiago esparru estrategikoa aipaturiko ikerketetan eta printzipioetan oinarritzen da. Oinarri teoriko sendoak ezarri direla esan daiteke, baina oraindik ez direla eguneroko jardueran txertatu. Eurek aitortzen dutenez, gaur egun ez da osasun arreta galesez bermatzen. Aldiz, tokian tokiko jarduera egokiak antzematen dira, gehienetan norbanakoen edo zenbait erakundeen inplikazioari esker. Osasun profesional elebidunen gabezia antzematen da, eta hizkuntzarekiko sentiberatasuna ere ez dagoela zabaldua langileen artean.

6. NAZIOARTEKO ELKARLANERAKO AUKERAK

I

6.1 Euskal Herria: egoera zatikatuta eta euskara planak

Euskal Herrian egoera oso zatikatuta dago. Ipar Euskal Herrian frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra, eta arreta frantsesez ematen da. Nafarroan euskara ofiziala da eremu batean, eta Osasunbideak ez dauka euskara planik. EAEn Osakidetzak euskararen erabilera bultzatzeko Euskara Planak garatu ditu, legedian oinarriturik.

2017an egin da II Euskara Planaren tarteko ebaluazioa. Alde batetik, Osakidetzaren esanetan, helburuen lorpenean aurrera egin da. Kontseiluak egindako ebaluazioan, ordea, urrun dago ezarritako helburuak betetzetik, eta neurri zuzentzaileak gomendatzen dira.

Nazioartean maila teorikoan Euskal Herrian baino askoz aurreratuago daudela esan daiteke, baina, oro har, proposamenak egikaritzeko behar adina giza baliabiderik ez dago. Gurean, ordea, giza baliabide sendoak daudela esan daiteke. Nekez egingo du aurrera edozein euskara planak, ordea, indarrean dagoen ebidentzian ez bada oinarritzen; arreta sanitario integratuaren ereduarekin bat ez badu egiten; nazioarteko ereduak ez baditu kontuan hartzen; botere guneetatik aldenduta baldin badago;

**Euskal Herrian
egoera oso
zatatuta dago.
Ipar Euskal
Herrian
frantsesa da
hizkuntza ofizial
bakarra, eta
arreta frantsesez
ematen da.
Nafarroan
euskara ofiziala
da eremu batean,
eta
Osasunbideak ez
dauka euskara
planik. EAEn
Osakidetzak
euskararen
erabilera
bultzatzeko
Euskara Planak
garatu ditu,
legedian
oinarriturik.**

**Euskara Plan
berria
beharrezkoa dela
esan daiteke.
Osakidetza eta
EHUren artean
diziplina
askotariko
profesionalen
eraturiko lan
talde bat sortzea
gomendagarria
litzateke, baita
nazioarteko
adituekin batera
ere, modu
koordinatu eta
eraginkor batean
lan egiteko
asmoz.**

arlo klinikoa eta euskara bereizten baditu, eta gai honen konplexutasunak behar duen elkarlana eta diziplinartekotasuna ez baditu bere egiten. Beste era batera esanda, beste plan bat behar dela esan daiteke, nazioarteko ereduak kontuan hartuko dituen.

6.2 Nazioarteko ereduak: eleaniztunak eta elebidunak

Nazioarteko lankidetzak, plangintzak alderatzeko eta partekatzeke aukera eskaintzen du, sinergia eraginkorrak ahalbidetuz. Oro har, bi eremu mota bereiz daitezke: eleaniztunak (anglofonoak batez ere) eta elebidunak. Eremu eleaniztunetan profesionalak elebakarrak izan ohi dira, eta arreta hizkuntza anitzetako erabiltzaileei eman behar zaie; hizkuntza-mugak dira erronkarik handiena. Hizkuntza komunikaziorako tresna gisa ikusten dutela esan daiteke, eta itzulpen zerbitzuak erabiltzen dituzte batik bat. Eremu elebidunetan hizkuntzaren gaia beste era batera planteatu da: pertsonen zentratutako arreta ereduarekin lerrotaturik, hizkuntza-mugez harago norbanakoaren identitatea ere kontuan hartuz. Horretara, segurtasun klinikoarekin batera segurtasun kulturalaren kontzeptua ere sortu da. Zentzu horretan, osasungoa hizkuntza gutxituen hiztun komunitatearen arnasmune bezala ere identifikatu da. Esan daiteke eremu hauetan ez dutela itzulpen-zerbitzuen beharrik antzematen; hizkuntza parekotasuna da, ordea, lehenesten dena, hots, erabiltzaileak eta hornitzaileak hizkuntza bera hitz egitea.

6.3 Nazioarteko elkarlanerako proposamenak

Osasuna eta hizkuntza udako ikastaroa gai honen inguruan abiarazi den lehena izan da, eta nazioarteko adituak, ikerketak eta proposamenak aurrez aurre ezagutzeko parada eman du. Ezagutza zabaltzeko, sarea ehuntzeko, eta proiektuak partekatzeke lehen urrats gisa baliagarria izan daiteke. Osakidetza profesional, unibertsitateko ikasle zein irakasle, eta soziolinguisten arteko elkarlanaren emaitza da BAT aldizkariaren ale hau.

Nazioarteko ereduak jarraituz, eta eurekin elkarlanean, proposamen zehatzak egin daitezke, datozen urteetako euskara planei begira:

Lehenik eta behin, Kanadarrekin eta galestarrekin egin daiteke lan, gure inguruneari egokituriko hizkuntza gutxituan arreta bermatzeko komunikazio estandar propioak garatuz, HSO, SSF, LLAIS, Bangorko unibertsitatearekin, baita gure eremuko gizarte eragileekin eta unibertsitateekin batera ere. Akordioz adosturikoak, nazioartean onartuta dagoen erakunde batek sorturikoak, jarduera espezifiko batzuentzat egokituriko irizpideak ezarriko lituzketenak eta maila goreneko kalitatea bermatu

dezaketenak esparru jakin batean. Gaur egun ez dago komunikaziorako estandarrik Euskal Herrian.

Osasun arloko euskal komunitatearen adierazpen bat ere planteatu daiteke, interes-taldeek ekarpenak jaso ditzakeena, hala nola osasun-arloko ikasleria, irakasleria, profesional eta erabiltzaileenak. Hortik abiatuz, beste eremuetako hiztun komunitateekin adosturiko adierazpen bat abiarazi daiteke, botere-guneetan, bai nazio mailan zein nazioartean, eragiteko. Egun, Osasunerako Mundu Erakundean ez dago hizkuntza gutxituen komunitateentzat adosturiko estandarrik.

Euskara Plan berria beharrezkoa dela esan daiteke. Osakidetza eta EHU-ren artean diziplina askotariko profesionalez eraturiko lan talde bat sortzea gomendagarria litzateke, baita nazioarteko adituekin batera ere, modu koordinatu eta eraginkor batean lan egiteko asmoz. Bere xedea beharrak, aukerak eta oztopoak antzematea, ikerketa bultzatzea, lehentasun ildoak zehaztea eta biderik egokienak aukeratzea litzateke, maila goreneko plan bat zehaztea funtsean.

Nazioarteko ereduari jarraituz, euskarazko galdetegiak sortzeko aukera dago. Galdetegi hauek pazienteek sorturiko ebidentzia erabiltzeko aukera eman dezakete, pertsonen zentratutako arretarekin bat eginez hizkuntza erdigunean jarritz. Beren-beregiko lan-taldea proposatzen da horretarako.

Langile elebidunak sortzea osasungoa euskalduntzeko nahikoa ote den zalantzarik da. Hizkuntzaren gaia formakuntzan txertatzea gomendatzen da: hizkuntza eskakizunetik hizkuntza gaitasunera jauzi egin alegia, langileak normalizazioaren bultzatzaileak izan daitezten. Nazioartean egingako ekarpenak aztertzea eta txertatzea funtsezkoa izan daiteke. Horretarako, berariazko diziplinarako lan-talde bat gomendatzen du autoreak.

Arreta espezializatua euskaraz bermatzeko euskararen ibilbideak planteatu dira. Osakidetza nazioarterako ekarpena izan daitezke. Hauek abiarazteko plangintza zentralizatu eta koordinatua gomendagarria litzateke, eta lorturiko emaitzak nazioartean aurkeztu.

6.4. Aukera, ez mehatxu

Askorentzat arretaren normalizazioa mehatxu bat izan daiteke. Osakidetza-erentzat aukera bat da: nazioartean hizkuntzaren gaian lidergoa lortzekoa, bai ebidentzia sortzeko orduan baita ezarpenaren arloan ere. Normalizazioak mundu mailako prestigioa ekar diezaioke, bere izena eta irudi korporatiboa hobetuz. Erreferente izan daiteke, berrikuntzan zein

**Euskara plan
berriaren xedea
izan beharko
luke beharrak,
aukerak eta
oztopoak
antzematea,
ikerketa
bultzatzea,
lehentasun
ildoak zehaztea
eta biderik
egokienak
aukeratzea.**

**Askorentzat
arretaren
normalizazioa
mehatxu bat izan
daiteke.
Osakidetza-arentza
t aukera bat da:
nazioartean
hizkuntzaren
gaian lidergoa
lortzekoa...
Normalizazioak
mundu mailako
prestigioa ekar
diezaioke, bere
izena eta irudi
korporatiboa
hobetuz.
Erreferente izan
daiteke,
berrikuntzan zein
ezarpenean
aitzindari
izateagatik
nabarmenduko
den erakundea.**

ezarpenean aitzindari izateagatik nabarmenduko den erakundea. Hain korapilatsua den hizkuntzaren gaian, ikuspegi akademikoa eta profesiona ezinbestekoak direla esan daiteke, gatazka soziala ahal den neurrian saihesteko. Osasun-profesionalek eta mundu akademikokoak gizartearekiko duten erantzukizuna da. Aukera ugari, egokierak ugariago. ●

BIBLIOGRAFIA

- Bowen, S. (2015). The Impact of Language Barriers on Patient Safety and Quality of Use. Ottawa; Société Santé en français, 2015.
- Brach, C eta Fraser, I. (2002). Reducing disparities through culturally competent health care: An analysis of the business case. *Quality Management in Health Care*, 10, 15-28.
- Corbeil, JP et al. (2009). Les minorités prennent la parole: résultats de l'Enquête sur la vitalité des minorités de langue officielle au Canada. Ottawa, Statistique Canada, N°91.550-X, p.1-60.
- Cultural responsiveness framework. Guidelines for Victorian health services. Melbourne, Victoria Department of Health, 2009.
- De Moissac, D. (2012). Défis associés à l'offre des services de santé et de services sociaux en français au Manitoba: perceptions des professionnels. *Reflets*, 18 (2), 66-100.
- Framework for recruitment & Retention of Bilingual Human Resources in the Health Sector. Société Santé en français/Réseau franco-santé du Sud de l'Ontario, 2015
- Guinard, J et al. (2016). Étude de référence sur les services bilingues au sein des établissements de santé canadiens. Moncton, Institut canadien de recherche sur les minorités linguistiques, 2016.
- Johnstone, M eta Kanitsakis, O. (2006). Culture, language and patient safety: making the link. *International Journal for Quality in Health Care*, 18 (5):383-388.
- Lortie, L eta Lalonde, AJ. (2012). Cadre de référence pour la formation à l'offre active des services de santé en français. Ottawa, Consortium national de formation en Santé, 2012.
- More than just Words. Strategic Framework for Welsh Language Services in Health, Social Services and Social Care. Cardiff, Welsh Government, 2012.
- National Standards for Linguistically Appropriate Services in Health Care. Final Report. US Department of Health and Human Services, Office of Minority Health, Washington DC, 2001.
- Ohtani, A; Suzuki, T; Takeuchi, H; Uchida H. (2015). Language barriers and access to psychiatric care: A systematic review. *Psychiatric Services*, 66 (88): 798-805.

9

Nola ulertu hizkuntza osasun- eskubidearen baitan?

Paul Bilbao Sarria

Euskararen Gizarte Erakundearen KONTSEILUAren idazkari nagusia

pbilbao@kontseilua.eus

Sarrera-data: 2018-03-26 / Onartze-data: 2018-05-07

Laburpena. Lehenik eta behin, osasun-eskubidea giza eskubideen barruan kokatzen dela kontuan hartuta, artikulua eskubide horren ikuspegi linguistikoaren inguruko argibideak eskaintzen ditu, bai oinarritzko hizkuntza-eskubideen bai hizkuntza-eskubide arrunten ikuspegitik. Bigarrenik, gaur egun Euskal Herrian hizkuntza-eskubideak osasungintzaren eremuan zertan diren azaldu da, horretarako Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urtero egiten dituen azterketak oinarri. Azkenik, egoeraren diagnostikotik abiatuta, osasungintzaren eremuan hizkuntza-eskubideak bermatzeko zer-nolako mekanismoak eta neurri hartu beharko liratekeen zehaztu nahi izan dugu. Gauzak horrela, artikulua nolabaiteko osatasuna eskaintzen du: Kontzeptuen zehaztapena, egungo egoera, etorkizuneko erronkak. • **Hitz gakoak:** hizkuntza-eskubideak, giza-eskubideak, osasun-eskubidea, hizkuntza-politika, hizkuntza-araudia.

Abstract. First of all, in consideration that the right to health is a part of human rights, the article sheds some light on the language angle of this right from the point of view of basic language rights as well as ordinary language rights. Secondly, nowadays, language rights in the Basque Country crop up in the area of health care, as reflected in the annual scrutiny carried out by the Observatory for Language Rights. Finally, in providing a diagnosis of the situation, we would like to determine the mechanisms and measures to be taken in order to guarantee language rights in the field of health care. In this way, the article offers a certain degree of completeness: conceptual definition, current situation, future challenges.

• **Key words:** language rights, human rights, health, language policy, language regulations language rights, human rights, health, language policy, language regulations.

1. SARRERA

I

Bi egunez gogoeta interesgarriak partekatu genituen Bilboko Bizkaia Aretoan 2017ko ekainaren hondarrean *Osasuna eta hizkuntza* izeneko jardunaldian. Gainera, bertan aukera izan nuen *Osasun administrazioetan euskarak duen egoera* izeneko saioan parte hartzeko, eta artikulua hau bertan jasotakoa azaltzeko eskatu didatenez, orduan esandakoa beste elementu batzuekin osatzen saiatu naiz.

Lehenbizi esan nahiko nuke biziki gustatu zitzaizkidalako antolatzaileek ikastaroa deskribatzeko idatzitakoak:

Eremu elebidunetan, kalitatean oinarritzekoak diren onargarritasunean, irisgarritasunean eta ekitatean hizkuntzaren garrantzia islatzen duten ebidentzia zientifikoak ezagutu, aztertu eta berriak sortzeko bideak ireki nahi dira. Azkenik, segurtasun klinikoa eta osasun-zerbitzuen kalitatea bermatze aldera.

Orain arte hizkuntzaren perspektibatik gutxitan ikusiak genituen hitzak baliatu zituzten, hain zuzen ere, irisgarritasuna eta ekitatea. Osasunaz eta osasun-asistentziaz ari garela, behin baino gehiagotan agertzen da herritar guztien irisgarritasuna bermatu behar dela, eta herritar guztiei berdintasunez eskaini behar zaizkiela zerbitzuok. Halere, gutxitan kokatu izan da hizkuntza irisgarritasunaren edota ekitatearen barruan. Hartara, maila diskurtsiboan elementu berri horien bidez osasungintzan hizkuntzaren irizpidea sartzeak berrikuntzak ekarriko dituela esango nuke. Izan ere, kalitatea, onargarritasuna, irisgarritasuna... termino interesgarriak dira eta egokiak ere bai. Ikusi dugu, esaterako, Quebecen horrela dagoela jasota *“Language as a determinant of health status and service equality”*.

Horretaz gain, segurtasun klinikoa eta zerbitzuen kalitatea ere erdigunera ekartzeko asmoa zegoen ikastaroaren bidez, eta beraz, ikastaroak elementu diskurtsiboan berrikuntzak ekarri zituela zalantzarik ez dago.

Akaso, egindako planteamendua osatzeko bi elementu erantsi beharraz hausnartu nuen bertan egindako aurkezpenean. Lehenik eta behin, terminologia horri guztiari beste elementu bat erantsi beharra azaldu nuen, hain zuzen ere, eskubideena. Egia da zerbitzuei dagokienez egungo gizartean gailentzen diren parametroak horietatik direla (irisgarritasuna, berdintasuna, segurtasun klinikoa...), baina kontuan izan behar dugu geurean elebitasuna ez dela orekatua. Hau da, gurean bada egoera gutxituan dagoen hizkuntza bat eta, bada funtzio guztiak bermatuta dituen hizkuntza hegemonikoa.

Osasunaz eta osasun-asistentziaz ari garela, behin baino gehiagotan agertzen da herritar guztien irisgarritasuna bermatu behar dela, eta herritar guztiei berdintasunez eskaini behar zaizkiela zerbitzuok. Halere, gutxitan kokatu izan da hizkuntza irisgarritasunaren edota ekitatearen barruan.

**Zerbitzuei
dagokienez
egungo gizartean
gailentzen diren
parametroak
horiexek dira
(irisgarritasuna,
berdintasuna,
segurtasun
klinikoa...),
baina kontuan
izan behar dugu
geurean
elebitasuna ez
dela orekatua.**

Horrexegatik, ikastaroa deskribatzeko hitzetan *Eremu elebidunetan* agertzen bazen ere, nire ustez eta euskarari dagokionez, *egoera gutxituan dagoen hizkuntza bat dagoen eremuetan* jarri beharra aldarrikatu nuen. Testua bezain garrantzitsua da testuingurua, eta hizkuntza gutxituaz hitz egiteak hainbat praktikalako babes sinbolikoa eskaintzen digu.

Egoera gutxituan dagoen hizkuntza(-komunitate) baten inguruan aritzen bagara, nahitaezkoa da eskubideen parametroa ardatzen artean koka-tzea. Gutxiagotasun egoera batean egoteak herritarren eskubideen ber-mera edota herritarren arteko berdintasunera iristeko politika proakti-boak eta diskriminazio positiboak ahalbidetzen ditu. Eta horrela ulertu behar ditugu osasunaren eremuan hartu behar diren erabakiak.

Hartara, jardunaldiak ekarpen osagarria egiteko helburuarekin osasun-zerbitzuak, eskubideak, egungo egoera eta erronkak izan nituen hizpide.

2. OSASUN-ESKUBIDEA: GIZA ESKUBIDEA

I
Ongizatea ardatz duen gizarte batean inork ez du auzitan jartzen osa-sun-arreta egokirako eskubidea oinarrizko elementua ez denik.

Osasun-eskubidea giza eskubideen eta duintasunez bizitzeko eskubi-dearen parte da. Horrela, osasun-eskubideari lotzen zaion izendapen osoa honako hau litzateke: *Lor daitekeen osasun fisikoaren eta mentalaren maila gorenaz gozatzeko eskubidea*. Aipatu izendapena Munduko Osasun Erakundearen 1946ko Konstituzioan agertu zen lehenengoz. Halaber, aipatu Konstituzioaren sarrerak osasuna ongizate fisiko, mental eta so-zial osoaren egoera dela jaso zuen, eta ez soilik gaixotasun-eza. Are gehiago, sarrera horrek ezarri zuen osasun-egoeraren mailarik gorena gizaki ororen oinarrizko eskubideetako bat zela, arraza, erlijio, sinesmen politiko, egoera ekonomiko edo soziala edozein delarik ere.

1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak ere bizimodu egokia izateko mediku sorospena berariaz jaso zuen 25. artikuluan.

Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.

1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak osasun-eskubidea giza eskubide gisa aitortu zuen. Ordutik hona nazio-

arteko hainbat itunek jaso dute osasun-eskubidea giza eskubideen barruan kokatu behar dela, eta, beraz osasun-eskubideari lotutakoak eskubide subjektiboen barruan kokatu behar ditugu.

Osasun-eskubidea eskubide inklusiboa da. Askotan osasun-eskubidea osasun-asistentziari edota ospitaleen eraikuntzari lotzen zaie. Hori zuzena da, baina osasun-eskubideak urrunago jotzen du, eta bizimodu osasuntsua izateko faktore asko bere hartzen ditu.

Bestalde, osasun-eskubideak hainbat askatasun ere bere egiten ditu. Askatasun horien barruan daude baimenduta ez dagoen tratamendu batetik aske egotea, edota tratu ankerrak, zigorretatik eta abarrekoetatik aske egotea ere.

Horretaz gain, osasun-eskubideak beste eskubide zehatz batzuk ere biltzen ditu, besteak beste, herritar guztiek osasun-maila gorenaz berdintasunez gozatzeko aukera eskainiko dien babes-sistema; gaixotasunen prebentziorako, tratamendurako edota kontrolerako eskubidea; oinarritzko botikak eskuragarri izatea; oinarritzko osasun-zerbitzuetarako irismen orekatu eta egokia; osasunarekin lotutako hezkuntza eta informazioa; osasunarekin lotutako erabakietan parte hartzea...

Azkenik, azpimarratu behar dugu osasun-zerbitzuak, ondasunak eta instalazioak inolako diskriminaziorik gabe eskaini behar direla. Diskriminazio-eza giza eskubideen oinarritzko gakoa da, bai eta ezinbestekoa ere osasuna maila gorenean gozatu ahal izateko. Alta, hari hori tiraka eginez, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 2. artikuluari erreparatuz gero, hizkuntzarenatik, besteak beste, ez da inor bereziko giza eskubideei dagokienez.

Askotan esan izan da badela hizkuntza-eskubideen kontzeptualizazioan bi korrante edo irizpide. Batetik, giza hizkuntza eskubideekin lotutakoak izan genituzke, hain zuzen ere, giza eskubideen ikuspegi linguistikoiari lotzen zaizkionak. Bestetik, hizkuntza-eskubide arruntak ditugu norbanako edo kolektibo bati lurralde zehatz batean aitortu eta bermatu beharrekoak.

Gaur egun doktrina juridikoak eta estatu demokratikoetako auzitegi konstituzionalek onartzen dute badirela eduki linguistikoa duten oinarritzko eskubideak. Hortaz, oinarritzko eskubide zehatz horiek urratu nahi ez badira, kasu bakoitzean oinarritzko eskubide horri datxekion dimentsio linguistikoa errespetatu beharko da.

Osasun-eskubide horren dimentsio linguistikoa zaila da zehazten, baina neurri batean eta kasu batzuetan antzekotasuna du askatasun eta segurtasunerako eskubidearekin edo babes judizial eragingarriarekin, non herritarrari modu ulergarrian helarazi behar zaion informazioa.

**Osakidetzak
berak Euskal
Autonomia
Erkidegoan,
esaterako,
2010etik aurrera
etorkinentzako
bat-bateko
itzulpen-
zerbitzua abian
jarri zuen, hain
zuzen ere,
ospitaletara
hurbiltzen ziren
herritarrek
oinarrizko
komunikazioa
bermatzeko.**

Oinarrizko osasun-eskubide horren dimentsio linguistikoa zaila da zehazten, baina neurri batean eta kasu batzuetan antzekotasuna du askatasun eta segurtasunerako eskubidearekin edo babes judizial eragingarriarekin, non herritarrari modu ulergarrian helarazi behar zaion informazioa.

Hamarnaka artikulu idatzi izan dira gure mugetatik kanpo osasun-zerbitzuetan egon daitezkeen hizkuntza-mugek pazientearen osasunean eragin ditzaketen ondorio ezkorren inguruan. Estatu Batuetan, esaterako, *Cannopy Innovations* delako enpresa osasun-arretarako sistemak herritarrek komunikatzeko dituen moduak aldatzen ari da, hain zuzen ere, hizkuntzaren oztupoak gainditu ahal izateko.

Egia da, bai, lehen irakurraldian ondoriozta genezakeela amerikarren beste *bitxikeria* baten aurrean gaudela, baina egia ere bada, Estatu Batuetan zortzi herritarretatik batek ez duela ingelesaren gaitasun egokia eta horrek eragina duela osasun-asistentziaren kalitatean.

Halere, zaila egiten da osasun-asistentziarako eskubidearen ikuspegi linguistikoa bermatzeko mekanismoa zein izan daitekeen zehaztea. Horren bueltan, egia da, Osakidetza berak Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, 2010etik aurrera etorkinentzako bat-bateko itzulpen-zerbitzua abian jarri zuela, hain zuzen ere, ospitaletara hurbiltzen ziren herritarrek oinarrizko komunikazioa bermatzeko.

Zalantzarik gabe, interpretazio- edo itzulpen-zerbitzua neurri eragingarria da oinarrizko osasun-eskubideari erantzuteko, finean, edozein herritarri munduko edozein txokotan bermatzeko tresna. Eta azpimarra egin nahi dut, giza hizkuntza eskubideei begirako mekanismoaz ari gara.

Osasun-asistentziaren eta hizkuntzaren arteko loturak bereziki ongi jorratu dituen Kanadako Gobernuak Osasun Departamentuak buelta asko egin ditu osasun-asistentzia egokiaren barruan hizkuntzaren parametroa kontuan hartzeko. Horrela, hizkuntza-oztupoak gainditzeko bi aukera besterik ez dagoela azpimarratzen dute: profesionalak eta pazienteak hizkuntza bera partekatzen duten testuinguruak eratzea, edo bestela, interpretazio-moduren bat ahalbidetzea. Halere, azpimarratu egiten dute interprete bat ahalbidetzeak ez duela komunikazio zuzena bermatuko, eta beraz, aukera hori ez dela benetan egokia. Hartara, bide eragingarriena hizkuntza hor(i)etan mintzo diren langileak hartzea da.

Halere, Kanadako Gobernuak egiten duen proposamena gehiago lotzen zaio hizkuntza-eskubide arrunten bermeari, alegia, toki bateko hizkun-

tzan mintzo diren herritarren eskubideei, edo Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak izendatu bezala, hizkuntza-komunitateari.

Hau da, bere garaian hizkuntza-eskubideak giza eskubideen parame-troetan kokatzeko lehen saiakera egin zuten Tove Skutnabb- Kangasek eta Robert Philipsonen egindako sailkapena balia genezake osasun-eskubidearen baitan hizkuntza ulertzeko. Batetik, giza hizkuntza-eskubi-deei lotutakoa, eta, bestetik, hizkuntza-eskubide arruntei lotutakoa bere dimentsio indibidual zein kolektiboan. Horrela, interpretazio-moduren bat aurkitzea lehen multzokoak bermatzeko tresna litzateke, eta hiz-kuntza-eskubidea arrunta bermatzeko, aldiz, hizkuntza bera partekatzen duten testuinguruak eratzea. Esan gabe doa, testuinguru horiek modu egokienean eratzeko bi aldeek hizkuntza bera partekatzea izango dela, eta, ondorioz, horrek eragina izan beharko lukeela, besteak beste, osa-sun-sisteman lan egiten duten profesionalen hizkuntza-gaitasunetan. Hartara, justiziaren eremuaren antzera, giza hizkuntza-eskubideen eta hizkuntza-eskubide arrunten arteko banaketa egin behar da, eta zeini bere mekanismo berezitua esleitu eskubideen bermerako.

3. EUSKALDUNON HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN AITORTZA ETA BERMEA OSASUNGINTZAN

I
Duela urte batzuk Gironako Unibertsitateko filosofia katedradun eta lagun bati entzun nion lehen aldiz eskubideen arkuaren metafora. Ho-rrela, arku bat irudikatuz gero, eta arku horretako albo batean hainbat eskubide irudikatzen baditugu, arkuaren beste aldean eskubide bakoit-zak zeinek bere mekanismoa izan beharko luke bermatua izateko. On-dorioz, bermerako mekanismorik aurreikusten duen eskubidea *homilia* zela adierazi zuen irakasleak.

Euskarari eta euskaldunei dagokienez, beste hainbatetan adierazi bezala, komunitateak bizi duen banaketa administratiboak eragin zuzena du hizkuntza-eskubideen aitortzan. Artikulu honetan Hego Euskal Herria izango dugu aztergai, eta horri lotzen bagatzaizkio, kontuan izan behar ditugu bi elementu nagusi. Batetik, Espainiako Konstituzioak gaztelania ezagutzeko derrigortasuna jasotzen duela, eta, beraz, legearen arabera inork ezin justifika dezake gaztelania ezagutzen ez duenik.

Bestalde, Konstituzio berak ezartzen du autonomia erkidegoetako beste hizkuntzek estatus ofiziala izan dezaketela autonomia erkidegoetako estatutuen arabera. Eta, hor uste dut garrantzitsua dela gogoratzea lurralde batean hizkuntza bati ofizialtasuna esleitzen zaion unetik aurrera

***Euskarari eta
euskaldunei
dagokienez, beste
hainbatetan
adierazi bezala,
komunitateak
bizi duen
banaketa
administratiboak
eragin zuzena du
hizkuntza-
eskubideen
aitortzan.***

**2003-2007
bitartean 5.000
langile baino
gehiago euskara
egiaztatu behar
izatek
salbuetsita
geratu ziren.
Gainera, euskara
egiaztatu beharra
oso lanpostu
gutxiri ezarri
zitaion, %15i
baino ez). Eta
derrigortasun-
data zuten
lanpostu
horietako asko
euskaldunek
betetzen zituzten
(%44). Hortaz,
derrigortasun-
data euskara
zekiten langileei
jarri zitzaion,
langileak
euskara ikastera
bultzatu
beharrean,
planaren
etorkizuneko
betetze-maila
bermatu-
izatea hobetsiz.**

lurralde horretako herritar guztiei aitortzen zaizkiela eskubideak, eta ofizialtasunaren ondorio juridikoak, berez, ez zaizkiola lotzen hizkuntzak eskualde batean izan dezakeen egoera soziolinguistikoari. Izan ere, Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko 1986ko ekainaren 26ko 82/1986 Epaiak ezarri zuen hizkuntza ofiziala dela fenomeno sozial giza duen errealitate edo pisua edozein delarik ere. Elementu hori oso garrantzitsua da, hain zuzen ere, lurralde batean hizkuntza gutxitua ofiziala da eskubideak osoki bermatu behar zaizkiolako eta horren egikaritzea ezin zaiolako lotu hizkuntzak duen pisuari.

Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialtasunak ezartzen duen aitortza orokor horretaz gain, badugu, bestalde, osasun-arloan kontuan hartu beharreko beste lege bat, hain zuzen ere, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzekoa. Horren arabera, Administrazioak baditu hizkuntzen gaineko betebeharrak batzuk, eta herritarrei zerbitzua ematean bermatu behar ditu euren hizkuntza eskubideak.

Era berean, aintzat hartu behar da abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena, bertan herritarren hizkuntza eskubideak aitortzen baitira, baita administrazioak hartu beharreko neurriak ere. Bertan jasotako neurriak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta Estatuko Administrazioak, eta baita horien mende dauden edo horietako erakunde-administrazioa osatzen duten zuzenbide pribatu edo publikoko entitateek ere bete beharrekoak dira. Gainera, Legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo beste kategoriatan batekoak diren zerbitzuak egiten dituzten erakunde edo pertsona juridikoek, edo unibertsaltasun eta berdintasuneko araubide juridikoaren pean dauden zerbitzuak ematen dituztenek ere bete behar dituzte. Halaber, herri-administrazioek ematen dituzten laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak diren erakundeak edo pertsona juridikoak, edo horietako edozeinekin lankidetzak hitzarmena sinatu dutenak bete beharrekoak dira 6/2003 Legeak jasotzen dituen neurriak. Ondorioz, osasun-asistentzia eskaintzen duen erakunde orori aplikatu behar zaizkio.

Bestalde, eskubideen bermeari dagokionez, aipatu behar dugu osasunaren arloa arautzen duen ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena. Aipatu Legearen 28. artikuluko bosgarren arau komunean aurreikusten denez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoak plan berezia ezarriko du, hizkuntza-politikari buruz Autonomia Erkidegoko organo eskumendunak xedatzen dituen irizpideen arabera. Bertan hizkuntza-helburuak eta hauek betetzeko hartu beharreko neurriak jasoko dira.

2003ko martxoan onartu zen euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko 67/2003 Dekretua. Dekretu horrek, besteak beste, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana arautu behar duten oinarriak ezarri zituen. Horrela, lehen plana 2005-2012 bitartean aplikatu zen.

Plan horrek ez zuen euskara normalizatzerik lortu, eta Kontseiluak osasungintzako sektorea osatzen duten bazkideekin batera (OEE, Topagunea, EHE, UEMA eta Behatokia) jorratutako azterketan hainbat gabezia jaso zituen: Plana bera horren berandu abian jarri izana, hain zuzen ere, Osakidetzaaren egitura eta langileria egonkortua zegoenean (ordura arte euskararen ezagutza ez zen derrigorrezkoa lanpostu batean ere). Bestalde, langileen gehiengoari euskara ikasi beharrik ez izateko aukera zabalik utzi zien. Honela, 2003-2007 bitartean 5.000 langile baino gehiago euskara egiaztatu behar izatetik salbuetsita geratu ziren. Gainera, euskara egiaztatu beharra oso lanpostu gutxiari ezarri zitzaion, %15i baino ez). Eta derrigortasun-data zuten lanpostu horietako asko euskaldunek betetzen zituzten (%44). Hortaz, derrigortasun-data euskara zekiten langileei jarri zitzaient, langileak euskara ikastera bultzatu beharrean, planaren etorkizuneko betetze-maila bermaturik izatea hobetsiz.

Horretaz gain, kontratazio berrietan langile erdaldunak kontratatzeko aukera zabalik utzi zen. Horrela, langile berri guztiei EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa eskatu beharrean, askori merezimendu-gisa besterik ez zitzaient kontuan hartu.

Kontuan izan behar dugu, eskubideen atalean adierazi bezala, osasun-arretarekin lotutako zerbitzuetan ahozko harremanak garrantzi ikargarria hartzen duela, eta beraz, eskubideak bermatze aldera nahitaezko baldintza da langileek euskararen gaitasun egokia izatea.

Lehen planaren ebaluazioa egindakoan eta bigarrena prestatzen ari zirela, Kontseiluak proposamen zehatzak helarazi zizkien Osakidetza-ko zein Osasun saileko arduradunei hizkuntza-eskubideen bermean jauzi koalitatiboa egite aldera.

Corpus juridikoari dagokionez, Euskararen Legeak herritarrei euskaraz artatuak izateko eskubidea aitortzen badie ere, Funtzio Publikoaren legeak edota Osakidetza-ko euskara plana arautzen duen 67/2003 Dekretuak ez dute eskubide hori bermatzeko neurririk ezartzen, eta eskubide horien urraketa betikotzeko atea zabaltzen dute, bestea beste, langile erdaldun elebazarren kontratazioa ahalbidetuz. Ondorioz, Osakidetza-ko euskalduntzea helburu duen plan orok, eraginkorra izan nahi badu

**2013an
Osakidetza-
Euskararen
Erabilera
Normalizatzeko
Bigarren Plana
jarri zuen abian
(2013-2019) eta
aurrerapausoak
egin baziren ere,
tamalez, plana
betetzetik urrun
zegoela
ondorioztatu
genuen.**

**2017ko
azaroaren 15ean
Nafarroako
Gobernuak
Nafarroako
administrazio
publikoetan,
beren erakunde
publikoetan eta
menpeko dituzten
zuzenbide
publikoko
entitateetan
euskararen
erabilera
arautzen duen
Dekretua onartu
zuen.**

eta herritarren eskubideak bermatzeko bidea zabalduko badu, lehenik eta behin arau horien aldaketa bilatu behar du.

Aldaketa horretaz gain, beste hainbat neurri zehatz proposatu zuen Kontseiluak, besteak beste langileen kontratazioetan, ordezkapenetan, langileen prestakuntzan, zirkuituetan, langileen identifikazioan, komunikazioetan, hizkuntza-paisaian, zehar lerrotasunean, lidergoan, etab.

2013an Osakidetzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Plana jarri zuen abian (2013-2019). Esan behar dugu bigarren plana prestatu aurretik, Kontseiluak proposamena jorratu zuela osasungintzaren sektorea osatzen duten bazkideekin batera (OEE, Topagunea, Behatokia, EHE eta UEMA). 2017an Bigarren Planaren erdiko ebaluazioa prestatu zuen Kontseiluak, eta aurrerapausoak egin baziren ere, tamalez, plana betetzetik urrun zegoela ondorioztatu genuen.

Nafarroari dagokionez, zalantzarik gabe, egun indarrean dagoen zonifikazioak, alegia euskararen ofizialtasun partzialak, eragin zuzena du herritarrek osasun-zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidearen aitortzan eta, ondorioz, bermean ere bai. Halere, lehenik eta behin azpimarra dezagun hasierako ideia hori: Nafarren gehiengoari 18/1986 Euskararen legeak ez dio behar bezala aitortzen osasun-zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea.

Akaso, are deigarriagoa da azaroaren 8ko Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko 17/2010 Foru Legeak hizkuntza-eskubideei buruzko inolako erreferentziarik ez jasotzea. Egia da, bai, printzipio orokorretan bere egiten duela hizkuntzarengatik diskriminazio-ezaren printzipioa (sexu, arraza, iritzi, ideologia edo bestelakoena bezalaxe), baina ez zaie erreferentziarik egiten osasun-asistentzia euskaraz jaso nahi duten herritarrei.

Arestian aipatutako giza hizkuntza eskubideei begira Legeak 28. artikuluan jasotzen du horri begirako neurria, zeinaren arabera, osasun-laguntza egokia lortzeko xedez eta eskubide horiek bete daitezen, administrazio publikoek bultzatuko dute behar diren jarduerak egin daitezen hizkuntzaren oztopoak ahal den guztian gutxitzeko. Dena dela, gogoratu dezagun atzerriko herritarrez eta, beraz, atzerriko hizkuntzez ari dela. Hartara, 18/1986 Legeak herritarren eskubideak zonifikatu zituen, eta 17/2010 Legeak desagerrarazi.

Anekdotak gisa har liteke, baina ez da horrela, egiaztatzea 2018ko urtarilean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebe-

harrei buruzko informazioa gaztelania hutsean egotea webgunean. Hartara, eskubideak ez aitortzeaz gain, euskaldunoi eskubideak euskaraz izatea ere ukatu egiten zaigu.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez bezala, Nafarroan ez da inolako araubide bereziturik garatu osasunaren eremuan euskaldunon eskubideak bermatzeko edota euskararen erabilera normalizatzeko. Oinarrizko araudiari lotzen zaizkio, beraz, eskubideen bermerako mekanismoak.

Gauzak horrela, 2017ko azaroaren 15ean Nafarroako Gobernuak Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua onartu zuen. Dekretuak 18/1986 Legeak ezarritako bereizkeriari eusten dio, eta beraz, bertan jasotzen diren betebeharrak edo eskubideen bermerako mekanismoak desberdinak dira lurraldean zehar.

Halere, ospitalek zerbitzu zentralen barruan kokatu behar direla ondo-orioztatu behar da, herritar guztientzako arreta ematen dutelako, eta beraz, Dekretuaren II. Kapituluari jasotzen direnak aplikatu beharko lirarteke. Horren arabera, herritarrei igorri beharreko jakinarazpenak, inprimakiak, seinaleak, oharrak, errotuluak eta abarrekoak ele bietan egon behako dira. Ahozko arretari dagokionez, Dekretuak dio neurriak bultzatuko dituztela herritarrek euskarazko arreta izan dezaten.

Horri lotu behar diogu profesional elebidunak lortzeari begira euskararen ezagutza nola baloratuko den. Kontuan hartu behar dugu, Nafarroako Ospitale Gunean, 2017ko azaroko datuen arabera, 6.142 lanpostu zegoela eta bakar batean hartzen zutela meritua gisa euskaraz jakitea. Horrek, noski, ez du esan nahi langile elebidun gehiago ez dagoenik, ez eta gutxiagorik ere. Halere, erakusten du euskararen ezagutza ez dela inoiz irizpidea izan profesional onenak kontratatatzeko eta herritar guztien eskubideak bermatzeko.

Dekretuaren 38. artikulua jasotzen du Administrazioak zerbitzu zentralerako ele biko lanpostuak zehaztuko dituela, eta bere plantilla organikoan adieraziko duela zein diren eta zer ezagutza-maila duten ele biko lanpostu horiek. Halere, arrastorik ez zein portzentajetan izango den derrigorrezkoa euskararen ezagutza. Merezimendu gisa denean, beti baloratuko da euskararen ezagutza. Sarbidea oposizio-lehiaketa bidez egiten denean balorazio hori %7koa izanen da, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez, eta lanpostu horiek betetzeko merezimendu lehiaketetan %6koa, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez.

**Nafarroako
Ospitale Gunean,
2017ko azaroko
datuen arabera,
6.142 lanpostu
zegoen eta bakar
batean hartzen
zuten meritua gisa
euskaraz jakitea.
Horrek, noski, ez
du esan nahi
langile elebidun
gehiago ez
dagoenik, ez eta
gutxiagorik ere.
Halere, erakusten
du euskararen
ezagutza ez dela
inoiz irizpidea
izan profesional
onenak
kontratatzeko eta
herritar guztien
eskubideak
bermatzeko.**

**Hizkuntz
Eskubideen
Behatokia
osasungintzaren
eremuan
jasotako kexa
gehienak EAEn
gertatutakoak
dira. Gutxienak,
aldiz, ipar Euskal
Herrian.
Nafarroako
kasuak aztertuta,
euskarak estatus
ofizialik ez duen
eremuetan
herritarrek
eskubidez
gabeturik ikusten
dute euren
burua.**

Dekretuaren artikulua beraren arabera, Administrazioako zerbitzu zentralerako zenbait lanpostuk herritarrekin duten arreta- edo tratu-maila kontuan hartuta, horietarako sarbidea oposizio-lehiaketa bidez egiten bada eta Euskarabidearen alde aurretiko justifikazio-txostena izanik, haren baloraziorako esleitutako ehunekoa %14 bitartekoa izan daiteke, merezimendu baremoaren gainerako zatia esleitutako puntuazioari dagokionez, eta, merezimendu lehiaketa bidez betetzen diren lanpostuetan, berriz, %12 bitartekoa, merezimendu baremoaren gainerako zatia esleitutako puntuazioari dagokionez.

Ez dakigu hori zein lanpostutan aplikatuko den, baina artikulua honetako bigarren atalari erreparatuz gero, osasun-zerbitzu egokiak eman ahal izateko, profesionalek tratu zuzena dute eta herritarrek arreta zuzena behar dute.

Dekretua 2017ko azaroan onartu bazen ere, lehen xedapen iragankorraren arabera, orain urtebete dute plangintzak prestatzeko, besteak beste, diagnostikoa, komunikazio-beharraz, etab.

Hori horrela izanik, oraindik ez da Dekretua aplikatzen ari, Osasunbidetan ere ez. Administrazioan Euskaraz elkarteak salatu izan du lan deialdi gutxi batzuk izan direla azken hilabeteotan, hain zuzen ere, oposizio-lehiaketak (azterketa egiten da eta merituek kontatzen dira). Haien salaketak agertu bezala, egia da zertxobait igo dela euskararen puntuazioa meritu moduan, baina profesional elebidunak bermatzetik urrun daude baremazio berriak. Finean, hainbat kasutan euskararen egiazko puntuazioa lan-deialdi osoaren %2,9 baino gutxiago izango da legeak ezarritako eremu mistoan, eta %4,4 eremu euskaldunean. Har dezagun erreferentziatzat legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean, alemana, ingelesa edota frantsesa jakitea %2na baloratzen dela.

4. EGOERA ERREALA HERRITARREN BIZIPENEN ARABERA

I
KONTSEILUAK 2001ean abian jarritako Hizkuntz Eskubideen Behatokia fundazioak urteroko hizkuntza-eskubideen inguruko azterketa egiten du. Azterketa hori herritarrek Euskararen telefonoa zerbitzuaren bidez helarazitako bizipenetan oinarritzen da, alegia, euskara baliatu nahi eta ukatu zaienean jo dute Behatokira. Hortaz, gure argazkian herritarrak ditu subjektu.

Esan bezala, ikusi ahal izan dugu aitortza juridikoak (ezak) eragin zuzena duela herritarrek Behatokira jotzeko momentuan. Datuei errepa-

ratuz gero, ohartzen gara osasungintzaren eremuan jasotako kexa gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutakoak direla. Gutxienak, al-diz, ipar Euskal Herrian. Nafarroako kasuak aztertuta, euskarak estatus ofizialik ez duen eremuetan herritarrek eskubidez gabeturik ikusten dute euren burua, eta beraz, askotan eskubideak aldarrikatzeko zilegitasunik ez dutela ondorioztatzen dute. Egia ere bada, administrazioek hori gogorarazi izan dietela behin baino gehiagotan.

Hartara, eta 2016 urteari dagokionez, hona hemen osasun-zerbitzuei dagokienez herritarren Behatokirako kexen arrazoi nagusienak:

a. Edozein administraziok eragin ditzakeen urraketak

Multzo honetan osasun-asistentzia zuzenarekin lotzen ez diren urraketak jaso ditugu. Azpimarratu behar da, gure irizpideen arabera, kezkatzekoa dela, oraindik, idatzizko seinaleak eta oharrak, are gehiago herritar guztiei begirakoak, gaztelania hutsean egitea

Hona hemen **Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan** jasotako kexa batzuen zioak:

- Herritar guztiei begirako idatzizko seinaleak, oharrak... gaztelania hutsean.
- Erradioterapia zerbitzuko kartelak gaztelania hutsean.
- Ospitaleko kartelak.
- Herritarrari modu pertsonalizatuagoan helarazten zaion informazioa gaztelania hutsean.

Egia esan, azken hori bezalako kexak gutxiago izan dira eta ohikoa izaten da, izan ere, herritarren pertzepzioan larriagoa da seinalizazioarekin edota paisaiarekin lotutako urraketak, ez, ordea, haiei zuzenean bidalitako jakinarazpenak.

Ospitaleei dagokienez, elementu larrigarriak ikusi dira 2016an. Bizkaiko Gurutzeta ospitalean kartel batzuen bueltan kexa jarri arren, hilabeteak igarota kartelek gaztelania hutsean egoten jarraitzen zuten. Are gehiago, Behatokiak kudeatutako datuen arabera, Gurutzetako ospitalean nahiko ohikoa da hizkuntza-pasaiaz finkotik kanpoko kartel eta ohar guztiak gaztelaniaz besterik ez egotea.

Bigarren mailan, eta langileek euskaraz lan egiteko eskubidea kontuan hartuta ere, aipatu beharrekoak dira barne mailan jasotzen diren emailan euskararen erabilera desorekatua.

***Ospitaleei
dagokienez,
elementu
larrigarriak ikusi
dira 2016an.
Bizkaiko
Gurutzeta
ospitalean kartel
batzuen bueltan
kexa jarri arren,
hilabeteak
igarota kartelek
gaztelania
hutsean egoten
jarraitzen zuten.***

**Ongizatea ardatz
duen gizarte
batean inork ez
du auzitan
jartzen osasun-
arreta egokirako
eskubidea
oinarrizko
elementua denik,
eta, ondorioz,
osasun-eskubidea
giza eskubideen
eta duintasunez
bizitzeko
eskubidearen
parte denik.
Ondorioztatu
dugu hizkuntza
ardatz
garrantzitsua
dela osasun-
zerbitzua
berdintasunez eta
duintasunez jaso
ahal izateko, bai
eta herritar
guztien
irisgarritasuna
bermatzeko ere.**

Nafarroari dagokionez, egiturazkoagoa da hizkuntza-eskubideen urraketa, besteak beste, seinaleetan, osasun-txartelean, eskutitzetan, txanda jakinarazteko papertxoetan, egiaztagirietan, ospitaletako karteletan, etab.

Ahozko zerbitzuari dagokionez, eta osasun-asistentzia zuzenari lotzen ez zaizkion urraketak honako hauek izan dira:

- Telefono bidezko arreta orokorra.
- Osasun-etxeetako zerbitzu orokorra.
- Zerbitzua euskaraz nahi duzula adierazi telefonoko erantzun-gailuari eta euskaraz zerbitzua ezin eman dezakeen langilea.

Egoerak horiek izanik ere, aipatu behar da zenbait kasutan herritarrak modu zakarrear hartu izan dituztela, esaterako, herritarrari ingelesez egin dezala eskatuz.

b. Osasun-asistentziarekin edo zerbitzuarekin lotutako urraketak

Ohartu gara demolinguistikoki euskaldunagoak diren herrietako biztanleek joera handiagoa dutela haien eskubideak aldarrikatzeko. Finean, azken boladan ari gara hizkuntzen arnaguneei buruz hitz egiten behin eta berriro, bai eta arnaguneek hizkuntzaren normalizazio-prozesuan duten garrantziaz ere, eta eremu euskaldunean kokatutako osasun-zerbitzuetan zerbitzua euskaraz ezin jaso izanagatik hainbat kexa iritsi dira. Egoera hori larriagotzen da udaldian bajak ordezkatzean: Aulesti, Azpeitia, Beasain, Ordizia, Etxarri...

Horiekin batera, bereziki larriak dira azken boladan pediatren inguruan jasotzen ari diren kexak. Horietako kasu askotan umeek ez dute gaitasun egokirik gaztelanian, eta horrek eragiten du gurasoek interprete lana egin behar izatea.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokienez, izan ziren, bai, horren bultzatan bi txio nahiko esanguratsu. Igor Elortza bertsolariaren txioa izan zen bata: *Atzo, 3 urteko umea buruan ebakiagaz Durangoko larrialdietara. “¿Esta niña sólo sabe euskera? Pues tenemos un problema”* Bestea, Iñaki Peltarroman kazetariak maiatzaren 11n bota zuena: *Pediatra euskaldunak, zortzi urteko nire alabari: Tendrá que aprender castellano, no? Bera laster jurbilatuko da euskara ikasi gabe!*

Horiei erantsi behar zaie profesionalak erantzun zakarrak ematen dituzteneko kasuak: *Perdona pero no sé euskara y no te puedo atender, y lo sabes* (medikuak herritarrari esana) edota horrelako beste batzuk.

Larritasun handia hartzen dute, bestalde, urtez urte errepikatzen diren gertaera batzuek. Esaterako, guraso batzuei gomendioa egin zieten 8 urteko umeak test berezitu bat egin zezan. Alaba gaztelaniaz nekezago moldatzen zenez, emaitzak fidagarriak izango ez ziren kezka agertu zuten. Psikologoak berretsi zituen kezkak eta euskarazko testa eskatu zioten neuropediatrari. Ez zegoela erantzun zien. Urte eta erdi igarota, oraindik ez dago testa euskaraz, eta beraz, ezin izan du lagungarri gerta dakioken testa egin.

Nafarroan egoera are okerragoa da. Arestian esan bezala, egun lanpostu guztietatik % 0,5i besterik ez zaio eskatzen euskararen ezagutza eta ospitaleen gunean, esaterako, lanpostu batek ere ez du euskararen derri-gorrezko ezagutza eta, duela sei hilabetera arte bakarrak zuen euskararen ezagutza merezimendu gisa.

Mediku edo pediatra euskaldunik ez izatea dugu urraketarik ohikoena. Gainera, kexa gehienei antzeko moduan erantzun zaio Behatokiari, indarrean dagoen legeriaren ondorioz dela egoera hori eta lege-urraketarik ez dagoela.

Horretaz gain, osasun-asistentziaz harago osasun-etxeetan eskaintzen diren bestelako ikastaroetan ere euskarazko herritarrei muzin egiten zaiela egiaztatu ahal izan du Behatokiak herritarren kexak oinarri.

5. AURRERA BEGIRA

I Hizkuntza-eskubideen eta giza eskubideen arteko lotura, edota hizkuntza-eskubideen eta duintasunaren arteko lotura; edota hizkuntza-eskubideen eta justiziaren, orekaren, berdintasunaren... arteko lotura era-kusteko eremurik esanguratsuena da osasungintza.

Esan dugu hasieran ongizatea ardatz duen gizarte batean inork ez duela auzitan jartzen osasun-arreta egokirako eskubidea oinarrizko elementua denik, eta, ondorioz, osasun-eskubidea giza eskubideen eta duintasunez bizitzeko eskubidearen parte denik. Ondorioztatu dugu hizkuntza ardatz garrantzitsua dela osasun-zerbitzua berdintasunez eta duintasunez jaso ahal izateko, bai eta herritar guztien irisgarritasuna bermatzeko ere.

Hori guztia kontuan izanik, hizkuntza-politiketan osasungintzak lehentasunezko eremu izan behar luke, eskubide bat baino gehiagoren urraketak gertatzen direlako eta osasungintzan herritarren arteko be-reizkeriak sortzeak gizarte ongizatearen kontra egiten duelako.

Protokoloan, hizkuntza-eskubideez gain oinarrizkoa den osasunerako eskubidea ere urratzeko arriskua egon daitekeenez, osasun-zerbitzuari lotutako atal berezitua esleitu zitzaion. Horrela, beste administra-zioekin parekatzen diren elementuak beste neurrien bidez bermatzen da, esaterako, errotulazioa, seinaleak, inprimakiak...

**Osasun-
asistentziaz ari
garenean,
justiziaz eta
segurtasun
klinikoaz ari
gara. Hizkuntza-
komunitate
gutxitua garenez,
eskubideez ere
ari gara. Horretan guztian
ohiko
aldarrikape-
netatik
berrietara egin
dugu jauzi.
Hitzez harago,
berdintasuna,
segurtasun
klinikoa, justizia,
oreka,
eskubideen
bermea...
ekarriko duten
erabaki
politikoak behar
dira.**

Artikulu honen helburua ez da hizkuntza-politiketan zehazki hartu beharreko neurri eta praktika guztiak zerrendatzea. Kontseiluak, esaterako, Osakidetza euskararen erabilera normalizatzeko bigarren planaren epe erdiko ebaluazioa jorratu zuenean, aurrera begirako neurriak eta proposamenak jaso zituen hainbat esparrutan, besteak beste, irudian eta komunikazioan, harremanetan, hizkuntza-kudeaketan, hizkuntza-eskakizuntan, etab. Aipatu txostena eskuragarri dago Kontseiluaren webgunean.

Halere, azpimarratu nahiko nuke osasungintzan hizkuntza-eskubideak aitortu eta bermatu beharra ez dela soilik gure komunitatearen aldarria. Aitzitik, urte eta erdiko prozesuaren ondoren Europako hogeita hamar hizkuntza komunitate baino gehiagoko ehunetik gora eragilek antzeko irakurketa egin genuen eta, horrexegatik, 2016ko abenduaren 17an aurkeztutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak ere modu berezitan jasotzen du osasungintzaren eremua.

Protokoloak oinarri izan zuen Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak ez zuen berariaz jaso osasungintzaren eremua eta herritarrek administrazioekin dituzten harremanen barruan kokatu zituen eskubideok. Protokoloan, aldiz, hizkuntza-eskubideez gain oinarritzkoa den osasunerako eskubidea ere urratzeko arriskua egon daitekeenez, osasun-zerbitzuari lotutako atal berezitua esleitu zitzaion. Horrela, beste administrazioekin parekatzen diren elementuak beste neurrien bidez bermatzen da, esaterako, errotulazioa, seinaleak, inprimakiak...

1. taula. Hizkuntza Esku bideak bermatzeko Protokoloaren baitako neurriak osasun-zerbitzuari dagokionean.

OSASUNGINTZA	NEURRIA
Administrazioak kontuan hartzen ditu hizkuntza-eskubideak osasun-zerbitzuak emateko garaian.	26
Egoiliarrei hizkuntza-gaitasun egokia eskatzen zaie.	27
A.2.3. atalean jasotzen den plangintza garatzean, administrazioek modu berezian lantzen dute arlo hau haren ezaugarri bereziak direla-eta, eta planaren jarraipena egiteko sistemaren bat abian jartzen dute. A.2.3. atala hizkuntza-plangintza orokorra egin beharra agertzen du: egutegia, helburuak, hobekuntza-indizeak, lanpostuak, langileen hizkuntza gaitasuna, (etab)	28
Plangintzak honako hauek lehenesten ditu hizkuntza-gaitasun egokia eskatzeko garaian: familia-medikuak, pediatrik, psikologoak eta psikiatrik, eta zuzenean jendaurrean diharduten langileak.	29
Plangintzako beste alderdi batzuk bat datoz A.2.3. atalean zehatutakoarekin.	30

Horrekin batera, eta kontuan hartuta, osasun-asistentzia pribatua ere badagoela. Protokoloaren eremu sozioekonomikoaren atalean osasungintza funtsezko zerbitzu gisa sailkatuta dago eta beraz herritarren eskubideak bermatzeko hizkuntza-plangintzak garatu beharra zehazten du 111. artikulua. Aipatu plangintzak Protokoloak berak 103-109 neurrietan jasotako neurrietan oinarritu beharko dituzte.

Urratsak egin behar dira eta neurri eragingarriagoak hartu behar dira baldin eta herritarren eskubideak bermatzeko borondatea badago. Gogora dezagun egoera gutxituan dagoen komunitate bati eskubideak bermatzeaz ari garela. Ondorioz, botere publikoek hartzen dituzten erabakiak eta neurriak ez dira indar handiagoko hizkuntzetako hiztunen kaltetan egindako bereizkeriatzat hartuko. Halaxe dio, behintzat, Europako Kontseiluaren Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren 7.2. artikulua.

Beharra dago, bai, osasun-sisteman jauzia egiteko. Atzean gelditu dira eta atzean utzi behar ditugu horrenbestetan entzundako esaldi desitxuratuak, hain zuzen ere, mediku euskalduna edo mediku ona hautatu beharrarekin lotutakoak. Mediku profesionalak behar ditugu, herritar guztien eskubideak bermatuko dituzten medikuak behar ditugu. Hartara, oso interesgarria iruditzen zitzaidan Bilboko jardunaldian gai honi eman zitzaion ikuspegia. Izan ere, osasun-asistentziaz ari garenean, justiziaz eta segurtasun klinikoaz ari gara. Hizkuntza-komunitate gutxitua garenez, eskubideez ere ari gara. Horretan guztian ohiko aldarrikapenetatik berrietara egin dugu jauzi, eta egungo gizartean ulergarriagoak diren aldarrikapenak mahai gaineratu ditugu. Halere, hori ez da nahikoa, inondik inora ez. Hitzez harago, berdintasuna, segurtasun kliniko, justizia, oreka, eskubideen bermea... ekarriko duten erabaki politikoak behar dira. Jauzia egin dezatela, geuk aupatuko ditugu! ●

uztaro

giza eta ingurumen zientzien aldizkaria

2018 - 104

Uztaro aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2018. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D, 48005 Bilbo.

☐ Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoak markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

www.uztaro.eus

Euskara gara Zumaian?

Imanol Azkue Ibarbia

Teknikaria (Elhuyar Aholkularitza)

imanol@azkue.eus

Sarrera-data: 2018-01-26 / Onartze-data: 2018-03-26

Laburpena. Azken berrogeita hamar urteotan, aurrerapauso nabarmenak eman dira euskara biziberritzeko prozesuan, hainbat elkarte, erakunde eta pertsonari esker; ibilbide horretako historia orokor nagusia jasota dago, baina ez tokian tokikoa, eta, gainera, sarritan ez da behar bezala ezagutzen eta baloratzen. Iragan hurbil hori aztertuta, eta bereziki dentsitateguneak, hobeto ulertuko dugu gaur egungo egoera, eta elkarteetatik edo taldeetatik eraginda, etorkizunera begirako hainbat helduleku aurkituko ditugu, euskara indartzen eta biziberritzen jarraitzeko. • **Hitz gakoak:** *ibilbide, biziberritze, arnagune/dentsitategune, elkarte, indartzen jarraitu.*

Abstract. Over the last fifty years, there have been significant breakthroughs in the process of revitalizing Basque thanks to various associations, institutions and people. The main overall history has been written down but not at the local level, and it is often not particularly well-known and is undervalued. Looking at the recent past, and especially in areas with a high population density, we shall have a better understanding of the current situation, and from associations or groups, we shall find other things to grasp on to whilst looking towards the future in order to carry on strengthening and revitalizing the Basque language. • **Key words:** *routes, rejuvenation, safe area, high density area, associations, reinforcement.*

1. SARRERA

I Etxeko leihotik inguruari begiratzen diogunean, apenas sumatzen dugun aldaketarik egun batetik bestera; aldatzen dira detaile txikiak: auzokoak zabaldu dituen arropak, kaleko autoak, lainoak zeruan, argitasuna, tenperatura, haizea..., baina badirudi inguruak berdin jarraitzen duela, aldatuko ez balitz bezala; etengabe ari da mudatzen, ordea, konturatzen ez bagara ere. Euskararekin ere antzeko zerbait gertatzen zaigu: badirudi ez dela aldatzen, baina aldaketa etengabekoa da. Horregatik, tarteka komeni da gelditzea eta atzera begiratzea, hobeto egin ahal izateko arrera. Horixe egin nahiko nuke lan honetan: leihotik begiratu nire inguru hurbilari, hau da, Zumaiari eta euskarari, baina aurrealdean dudanari ez ezik, azken 50 urteotakoari ere bai: batetik, iragana hobeto ezagutzeko eta baloratzeko; bestetik, etorkizunerako helduleku baliagarri batzuk ateratzeko.

Euskara ez da hor, ondoan, daukagun hizkuntza, baizik eta geurekin daramagun zerbait, gure osagai eta parte da, eta geu ere aldatzen goazenez, euskara ere geurekin ari da aldatzen. Baina geurekin izanagatik, hainbatetan ezin izan dugu erakutsi edo erabili nahi bezala, batzuetan geuregatik, beste batzuetan beste arrazoi batzuegatik, eta horren adibide argiak aurkituko ditugu azken 50 urteotako euskararen bilakaeran. Euskararen historia orokorra nahikoa ondo jasota dago hainbat azterketa eta argitalpenetan, baina hutsune edo gabezia nabarmenak daude tokian tokiko historia eta istorioak jasotzeari dagokionez; izan ere, antzeko protagonistak izanagatik, herri bakoitzak baditu bere berezitasunak, eta une egokia da, berandu baino lehen, horiek ezagutzeko eta ezagutarazteko, eta bereziki, euskaraz bizitzeko testuinguruak. Lan honen ardatzean Zumaia eta zumaiarrak daude, baina nahi duenak erraz alderatuko du beste herri batzuetan gertatutakoarekin, eta lan honek balio lezake beste batzuek non begiratu izateko eta beste leku batzuetan antzekoak egiteko, badagoelako zer egina eta zer kontatua.

Lan honetan, hasieran, euskarak azken 50 urteotan Zumaian egin duen ibilbidea irudikatzen eta mugarri nagusiak adierazten ahaleginduko naiz, eta bereziki nabarmenduko dut non hartu zuen arnasa, non indartu eta suspertu zen herri osora zabaldu aurretik; gero, 2017ra etorrira, aztertuko dut nola bizi den euskara Zumaian, eta bereziki elkarteetan eta taldeetan; azkenik, euskara indartzen eta biziberritzen jarraitzeko zenbait helduleku proposatuko ditut.

Sarrera honetan, aipatu nahiko nuke, baita ere, lan honen jatorria. Izan

Zumaiari eta euskarari, aurrealdean dudanari ez ezik, azken 50 urteotakoari ere begiratu nahi diet: batetik, iragana hobeto ezagutzeko eta baloratzeko, eta, bestetik, etorkizunerako helduleku baliagarri batzuk ateratzeko.

**Lan honetan,
hasieran,
euskarak azken
50 urteotan
Zumaian egin
duen ibilbidea
irudikatzen eta
mugarri
nagusiak
adierazten
ahaleginduko
naiz, eta bereziki
nabarmenduko
dut non hartu
zuen arnasa, non
indartu eta
suspertu zen
herri osora
zabaldu aurretik.**

ere, oinarrian EHUren 2016-2017ko "Lurraldea eta Hizkuntza" graduondokoaren amaierako lana dago, eta orain bereziki gogoan dauzkatzat, eskerrak emateko, orduko ikaskide eta irakasleak. Eskerrik asko, baita ere, lan hau egiteko bidean era batera edo bestera parte hartu edo lagundu duten guztiei, eta bereziki Xabier anaiari (ohar, zuzenketa eta beste guztiengatik) eta Itsaso Olaizolari (bidea erakusteagatik eta laguntzeagatik).

Ezagutzen dena baino ezin omen da maitatu, eta gure iragana hobeto ezagutzeak lagunduko digu ulertzen nondik gatozen eta zein garen, euskararekiko atxikimendua areagotzeko. Asmo horiekin, lan hau.

2. EUSKARA IZAN ZIREN

I

1966-2016ko ibilbideari ekin aurretik, uste dut garrantzitsua dela denboran atzera joatea eta egiaztatzea zeinen aspaldikoa den Zumaiairen eta euskararen arteko lotura; izan ere, antzinako agiriak arakatuz gero, aurkituko ditugu Zumaia euskaraz bizi zela erakusten duten aztarnak, besteak beste, hauek:

- Txomin Agirre idazle ondarroarra urte askoan bizi izan zen Zumaian, mojen kapilau, eta hil ere Zumaian egin zen. 1896an, Udalak eskatu zion herriko kaleen errotuluak euskaraz nola ziren proposatzeko, euskarazko ordain egokiak izateko¹, eta zintzo bete zuen enkargua.
- 1918ko udal-akten liburuan jasota daude beste bi aipamen hauek: "A moción del concejal Sr. Aramendi, exponiendo se acuerde la libertad de hablar en vascuence y castellano a gusto del que haga uso de la palabra en las sesiones del Ayuntamiento; se acordó como se pide"; "A moción de un Sr. Concejal, se acordó que los letreros de vascuence de los edificios públicos que obran en poder de este Ayuntamiento desde hace bastante tiempo, se coloquen en sus destinos para las fiestas del Santo Patrono San Pedro"².
- Pasadizo labur baina adierazgarri bat, Eusebio Gurrutxaga (1827-1902) herriko alkate eta enpresario boteretsua protagonista: "Egun batean, herritar bat erderaz hasi eta horrela esan omen zion Zumaiaiko alkate izan zen Eusebio Gurrutxagak: 'Itzein bihar badek erderaz itzein zak ondo, emen danak zekiau euskaraz eta'"³.
- ...

Zumaiaiko euskara bizia da, euskara bizirik dago gurean, eta baditu be-reizgarri batzuk: toponimoak, hitzak eta esamoldeak, pertsonen ezizenak, hizkera... Euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu da, eta gaur

egun arte iritsi zaigu. Baina ezer ez da betiko, eta egoera aldatzen ari da, oso azkar. XXI. mendearen hasieran irekitasuna da nagusi: asko iriteten gara herritik kanpora, kanpokoak herrira dakarkigu, eta gu joaten garen bezalaxe etortzen zaizkigu; Zumaia bizileku erakargarria da kanpotarrentzat: 2015ean, zumaïarren % 51,9 ziren Zumaian jaioak⁴; gaur egun, batzuetan apenas ezagutzen ditugun auzokideak, eta harremanak errazak eta sarriak bezain azalekoak dira, aurrez aurre zein sare sozialen bidez, eta lehen ez bezalako garrantzia hartu dute beste elkargune batzuek: lantokiak, jolas-parkeak, kiroldegiak, guraso-elkarteak...

Pixkanaka, gure euskararen bereizgarriak lausotzen ari dira, proportzioan lehen baino zumaïar gutxiagok egiten du bertako euskara, batzuek ez dutelako ezagutzen, beste batzuek ez dutelako behar bezala apreziatzen, eta berariaz landu, zaindu eta transmititu ezean, galdu egingo dugu.

3. EUSKARA IZAN GINEN 1966-2016 ARTEAN

I

3.1. Kokapena

Zumaïaren eta euskararen arteko harremanean hainbat gorabehera gertatu dira. Horrela, izan dira lotura sendotu edo estutu egin duten gertaerak, eta izan dira harremana ahuldu eta hondatu egin dutenak; batzuetan euskarak ezkutatu egin behar izan du, zumaïar hiztunak makalago edo indarrik gabe zeudelako; beste batzuetan, berriz, harro eta irribarretsu ikusi dugu herriko plazaren erdian, euskaldunak indartsuago zeudelako.

Euskara nagusi izan da gune batzuetan gurean, eta horiek izendatzeko, zenbait termino erabili izan dira, antzeko esanahiarekin baina ñabardura batzuekin: Mikel Zalbiderentzat, arnaspuneak da “Demografia aldetik euskara ‘bere kabian’ sentitzen den esparru geoterritoriala (...). Inork xaxatu eta eraso gabe ‘etxeko jaun’ sentitzen den eremua”⁵; Uemak, berriz, arnaspune izateko baldintza euskararen ezagutza-indizean dauka ezarrita, % 70etik gorakoa izatea; beste batzuek, berriz, arnaspune soziofuntzionalak hitz egiten dute: “Euskara nagusi diren espazioak ditugu arnaspune soziofuntzionalak, gizartearen funtzio jakin batekin lotura zuzena dutenak (hezkuntza, aisia, kirola...), non euskaldunen dentsitate altua den, eta, ondorioz, euskaraz naturaltasunez egin daitekeen”⁶; gune hegemoniko edo dentsitategune izendatu izan du, batez ere, Jon Sarasuak, eta horiek dira euskaraz bizitzeko eta sortzeko guneak, autoeraketaren bidez: “Koiuntura honetan, uste dut dentsitate gune fun-

Pixkanaka, gure euskararen bereizgarriak lausotzen ari dira, proportzioan lehen baino zumaïar gutxiagok egiten du bertako euskara, batzuek ez dutelako ezagutzen, beste batzuk ez dutelako behar bezala apreziatzen.

**Azken 50
urteotan,
zumaia asko
aritu dira lanean
euskara
biziberritu
nahian,
batzuetan
bakarka, beste
batzuetan
taldeetatik eta
erakundeetatik,
eta euskarak eta
euskaldunek
azken urteotan
egindako
ibilbidea jasoko
dugu hemen.**

tzionalak behar ditugula: izan liteke unibertsitate bat, hedabide sare bat, kulturgintzako mugimenduak, edo zirkuitu egonkorrak... Arnasgune geografikoena ere ez dago gaizki esana, baina pixka bat erlatibizatu egin beharko genuke horietan itxaropena jartzea⁷⁷. Definizio horiek aintzat hartuta, esan daiteke Zumaia arnasgunea dela, eta Zumaiaiko zenbait talde, elkarte eta leku arnasgune soziofuntzional, gune hegemoniko edo dentsitateguneak.


Azken 50 urteotan, zumaia asko aritu dira lanean euskara biziberritu nahian, batzuetan bakarka, beste batzuetan taldeetatik eta erakundeetatik, eta euskarak eta euskaldunek azken urteotan egindako ibilbidea jasoko dugu hemen.

3.2. Euskararen ibilbidea

Denboraren lerro baten bidez irudikatu dut 1966-2016 arteko euskararen ibilbidea, eta zenbait gertaera adierazgarri nabarmendu ditut bertan, alorka: hezkuntza (Ikastola eta gainerako ikastetxeak, hezkuntza-ereduak...), euskalduntzea (AEK, Udal Euskaltegia, programak...), Udala (planak, lanak, bekak...), taldeak eta elkarteak, hedabideak, argitalpenak (Udalarenak) eta gertaera bereziak.

Denboraren lerroaren ondoren, ibilbide horretako mugarri nagusiak azalduko ditut labur, urteen arabera etapatan multzokatuta.

Euskararen ibilbidea Zumaian, 1966-2016



1960ko Zumaia:
herritar berri
asko hartu
genituen, batez
ere Espainia
aldekoak:
biztanleria % 42
hazi zen 10
urtean, baina
euskal
komunitateak
ondo eutsi zion
euskarari.

1960ko Zumaia

2017koarekin alderatuta, Zumaia erdia zen, bai herrigunearen hedaduran, baita biztanlerian ere. Zubitxikitik hegoaldera, basadietan, ez zegoen eraikinik, eta garai hartan herritar berri asko hartu genituen, batez ere Espainia aldekoak: biztanleria % 42 hazi zen 10 urtean (1960an, 4.444 lagun ziren; 1970ean, berriz, 6.341). Zumaiar berri horiek hartzeko beharrezkoak ziren etxeak, eta berriak eraiki zituzten herrigunetik kanpoko

1966: Ikastolaren sorrera: Zentro parrokiaren bueltan mugitzen zen guraso gazte batzuen ekimenez, 1966an Ikastola martxan jarri zen, Elizaren babespean eta Zentroan bertan, oso baldintza prekarioetan.

auzoetan. Jende-uholde hark hizkuntzen orekan eragina izan zuen, baina euskal komunitateak ondo eutsi zion euskarari.

Garai hartan, euskara Zumaian batzuek nahi baino osasuntsuago zegoen. Izan ere, Gerraren ondoren, Francoren erregimena ahalegindu zen euskara desagerrarazten kaleetatik, ohiko bizitzatik, eta euskara mantendu zen, batez ere, etxeetan eta kalean, lagunartean egiten zelako. Bizitza publikoan, Administrazioan, ekitaldi publikoetan, hezkuntzan... gaztelania zen nagusi eta ia bakar, euskara ezkutuan zegoen, desagertuta edo debekatuta ez zegoenean.

Eliza zegoen Zumaiaren erdigunean, eta zumaiar askok bizimodua haren bueltan egiten zuten. Gazteek antolatze eta elkarrekin aritzeko aukera gutxi zeukaten, ez bazen kirolean eta Elizaren barruko talde eta ekitaldietan. Han indartu zen, hain zuzen ere, Oargui (Organización Atlética Recreativa Guipuzcoana) izeneko elkarte, eta mendizaletasuna bultzatzeaz gain, euskal kultura ezagutarazteko ahaleginean murgildu zen.

1966: Ikastolaren sorrera

Zentro parrokiaren bueltan mugitzen zen guraso gazte batzuen ekimenez, 1966an Ikastola martxan jarri zen, Elizaren babespean eta Zentroan bertan, oso baldintza prekarioetan: andereño bakarra, gela bakarrean, lurrean jarri eta kendu egiten ziren ohol batzuen gainean... Hurrengo urteetan, proiektua sendotu eta ume gehiago hastearekin batera, beste leku batzuk aurkitu behar izan zituzten: Apaizetxea, aizpuruatarren etxeko ganbara...

Zerk bultzatu zituen guraso haiek pauso hura ematera Zumaian? Ezagutzen zuten, bizi izan zutelako, nolakoa zen orduko hezkuntza-eredua, eta ez zuten nahi halakorik euren seme-alabentzat; euskaraz ikastea nahi zuten, eta entzuna zeukaten inguruetako herrietan (Donostian, Zarautzen...) sortzen ari zirela ikastolak. Orduan hitz egiten eta biltzen hasi ziren, pausoak ematen, pixkanaka.

Garai hartan, guraso askoren bilgunea zen Asociación Católica de Padres de Familia elkarte, eta haren ekimenez eraiki zen Aita Mari zinema, 1970 aldera. Eraikinak aukera berriak zabaldu zituen, zinema-aretoaz gain, beste gela batzuk ere bazeuzkalako, eta leku hoberik ezean, solairu horietako batean ezarri ziren Ikastolaren gela batzuk. Horrez gain, herri-gunea zabaltzen ari zen hegoaldera, basadietan etxe berri asko egiten ari ziren, eta Ikastolako guraso haiek, etorkizuneko ikuspegiarekin, Aita Mari auzategian etxabe bat erosi zuten, gela batzuk han jartzeko. Beraz,

Ikastola bakarra zen, baina zenbait lekutan banatuta zeuden umeak. Halaber, Oikia auzoan ere erne zen Ikastolaren kimua, Eskola Txikian, eta 5 urte betetakoan, umeak Zumaia Ikastolara etortzen ziren.

Orduan nagusi zen hezkuntza-ereduarekin alderatuta, Ikastola eskola-proiektu berritzailea zen: euskaraz irakasten zen, euskal kultura bultzatzen zen; gurasoak hezkuntza-proiektuko kide ziren, parte hartzen zuten eta erabat inplikaturik zeuden; bakoitzak ahal zuen bezala laguntzen zuen (dirua biltzen, lokalak garbitzen, gelak konpontzen...); irakasteko metodologia ere berria zen eta haurra zen beti protagonista... Ikastolaren bueltan, gurasoez gain, euskara bultzatu eta euskaraz bizi nahi zuten beste herritar asko ere elkartu ziren, laguntzaile-talde batek babes handia eman zion, zumaia askok ulertu zutelako hezkuntza-proiektu bat baino gehiago zela eta estrategikoa zela etorkizunerako.

Dena ez zuten alde, ordea, eta zailtasunak ere izan zituzten: orduko agintariek eta Administrazioak erraztasunik ez zieten ematen (eta sarritan oztopoak jarri), irakasleak titulurik gabe aritzen ziren, lokal edo baliabide egokirik ez zeukaten, dirua falta zuten, ume gutxi zeuden hasieran, egitasmo hura nola bukatuko zen ziurtasunik ez zeukaten..., baina guztiei aurre egin zieten, kemenez eta ilusioz, baita oztopoak gainditu ere; egoerarik gogorrenetan ere aurrera egiteko bideak eta zirikituak aurkitu zituzten, erresilientziaren adibide ona izan zen.

Urte haietan, Ikastola euskara, euskaltzaletasuna eta euskal kultura berpizteko lanetan aritu zen: hitzaldiak, ikastaroak, euskal literatura... Orduan jarri zen martxan gau-eskola, hasieran Zentroan eta Apaizetxean, ahal zen materialarekin, eta Oñatibiaren metodoarekin, gero; aurretik, Radio Loyolan ere aritu ziren zumaia batzuk irrati-programen bidez euskara irakasten. Ikastolaren sorreraren garai bertsuan hasi zuen bere ibilbidea Euskara Batuak, eta Zumaia ere iritsi zen.

Lehen urte haietan, Ikastolaren sorrerarekin, euskara kalera irten zen, beldurrez eta herabe, baina denek ikusi ahal izan zuten, baita askok lagundu ere.

1972: krisitik indartuta

Sorreratik eta urtez urte, pixkanaka gorpuzten joan zen Ikastola; gero eta haur gehiago zebiltzan, gero eta pertsona gehiago ari ziren laguntzen. Euskal gizartea borborka ari zen, eta astinaldi hura ere iritsi zen Zumaia: Euskara Batua, giro politikoa, irakasteko metodo berriak..., baita Ikastolaren barruan krisia eragingo zuten ustezko aitzakiak edo

***Ikastolaren
bueltan, gurasoez
gain, euskara
bultzatu eta
euskaraz bizi
nahi zuten beste
herritar asko ere
elkartu ziren,
laguntzaile-talde
batek babes
handia eman
zion, zumaia
askok ulertu
zutelako
hezkuntza-
proiektu bat
baino gehiago
zela eta
estrategikoa zela
etorkizunerako.***

**Bi ikuspegi
kontrajarriren
arteko talka zen
ikastolen krisia:
tradizioa eta
modernitatea,
iragana eta
etorkizuna,
egonkortasuna
eta aldaketa,
eskuina eta
ezkerra... 1972ko
maiatzeko batzar
gatazkatsu baten
ondoren, guraso
gehienek
Ikastolatik alde
egitea erabaki
zuten. Baina
krisiak berekin
ekarri ohi du
aukera, eta hark
gehiago trinkotu
eta indartu
zituen geratu
zirenak.**

arrazoiak ere: umeak norenak ote ziren, erlijioa ez zela behar bezala irakasten, umeek oso berandu ikasten zutela idazten eta irakurtzen, umeak Paristik ez zetoze la azaltzen zutela irakasleek...; eta horiekin batera, askoren kezka edo beldurra: hasitako bidea non eta nola amaituko zen ez jakitea. Krisi hark, ordea, sustrai sakonagoak zeuzkan, eta beste herri batzuetan ere gertatu zen; izan ere, bi ikuspegi kontrajarriren arteko talka zen: tradizioa eta modernitatea, iragana eta etorkizuna, egonkortasuna eta aldaketa, eskuina eta ezkerra... 1972ko maiatzean, batzar gatazkatsu baten ondoren, guraso gehienek Ikastolatik alde egitea erabaki zuten, baita sortzaileetako batzuek ere; umeen herena baino ez zen geratu, eta Ikastolan jarraitzea erabaki zutenentzat berriz ere hutsetik hastea bezala izan zen: batzorde berria eratu, finantzazio-bideak pentsatu (zozketak, santelmatoko berbena, taberna festetan...), haurrak bi-latu... Baina krisiak berekin ekarri ohi ditu aukerak, eta hark gehiago trinkotu eta indartu zituen geratu zirenak.

Umeekin udako oporraldia iragateko, guraso haiek baserri baten bila hasi ziren. Larraul herrian sortu zen aukera, Elizalde etxea hartzeko, oso merke (etxea txukuntzearen eta mantentzearen truke). Orduan, berriz ere elkarrekin jardun behar izan zuten guraso eta laguntzaile haiek, etxe zaharkitu hura auzolanean egokitzen; han bildu ziren asteburuetan guraso eta laguntzaile asko, eta harremanak sendotzeko aukera eman zien, beti zegoelako zer egina: zorua, teilatua, paretak, sukaldea... Harrezkero, ehunka haur eta heldu pasatu ziren handik, eta horregatik dago Larraul zumaia askoren bihotzetan.

Ikastolako lehen haurrak Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren (gaztelaniaz EGB) amaierara iritsi ziren, eta erakutsi zuten Ikastolan ikasten zela, bazirela nor, euskara hutsean ikasita. Gainera, Ikastolaren barruan egiten zutena kanpoan erakusten hasi ziren ikasleak, kalera irteten: musika- eta antzerki-emanaldiak Aita Mari zineman, Olentzero Gabonetan, Santaeskean... Irekitze hori are gehiago erraztu zuen Trantsizioko giro politikoak, eta euskara, pixkanaka, espazio berriak bereganatzen hasi zen: alderdi politiko abertzaleak sartu eta nagusitu ziren udaletxean; langile bat hasi zen Udaletxean itzulpenak egiten (Administrazioa euskara aintzat hartzen hasi zen seinale); Maria eta Jose ikastetxean B eta D ereduak ematen hasi ziren 1980an...

Egoera politikoak eta sozialak lagunduta, euskara indartu eta plazaren erdira irten zen zumaia gehienek halaxe nahi zutelako; bere lekua hartzen joan zen pixkanaka, eta lehen itxita zeuzkan ate ugari zabalduta, barruetara sartzen hasi zen, espazioak bereganatzen.

1982tik aurrera: Arrangoleta-eta

Lekua behar zuela eta, Ikastolaren gela bat Arrangoletan ezarri zen, 1979an. Arrangoleta eraikina Udalarena zen, eta han zegoen eskola publikoa (gero “nazionala”) 1929tik. Oso adierazgarria zen joera: Ikastolan gero eta haur gehiago, baldintza kaskarretan; eskola nazionalean, berriz, gero eta gutxiago, baina leku eta baliabide hobeekin. Baina Udalak Ikastolaren alde tinko egin zuen, lekua uzteko, eta Julene Azpeitia ikastetxe publikoa egin zutenean, Poligonoan, eskola publikoa hara aldatu zen eta Arrangoleta osorik Ikastolaren esku geratu zen.

Arrangoletak ordura arte ez bezalako aukerak ekarri zituen: gela ugari, irakasle eta ikasle gehienak eraikin berean, baliabide asko, ziklo osoa bertan... Larre motzean ohituta zeudenei hasieran luxua iruditzen zitzaien, baina eraikinaren gabeziak berehala jarri ziren agerian: kalefakziorik ez, fundamentuzko jolaslekurik ez... Gabeziak gabezia, Ikastolak aldatuta nabarmena eraman zuen eraikin hartara, sinbolismoz betea, herrian gertatzen ari zenaren adibide: 1929tik, gaztelania besterik ez zen entzun eskola haren barruan, eta harrezkero euskara nagusitu zen erabat. Hala ere, Arrangoleta ez zen nahikoa izan Ikastolaren behar guztiak asetzeko, eta txikien gela batzuk Alondegian eta Poligonoan egon ziren.

Arrangoletan sortu zen, 1982an, Zumaiaiko Bertso Eskola, Euskal Herriko lehenengoetako bat, hasieran Ikastolari estu lotua, gero kanpora begira bestelako ekimenak jarri zituen abian: Anade elkarteko txapelketak, bertso-paperen lehiaketak, bertso-jaialdiak... Ibili-ibilian, dozenaka gaztetxo pasako ziren hurrengo urteetan Eskolatik.

Baina Ikastolarentzat ez ezik, beste talde batzuentzat ere zabaldu zen Arrangoleta. Gau-eskolen erreleboa hartu zuen AEK-k, Arrangoletan, Ikastolaren ordutegitik kanpo. Garai hartan, AEKn bat egin zuten irakasleen bi belaunaldik: batetik, gaztetxoek, lehen lanean estreinatzen; bestetik, beterranoek, klaseak ematen urte asko zeramatzatenek. Ohiko klaseez gain, saio bereziak ere eman zituzten: Egurko kooperatiban, Maria eta Joseko gurasoei... Ikasle-kopurua gora zihoan, eta ehun izatera ere iritsi ziren. Halaber, 1980an lehen Korrika Zumaiaitik pasa zenetik, hurrengo urteetan lan handia egin zuten hurrengo etorrerak prestatzen eta giroten: afariak edo bazkariak, hitzaldiak, musika-emanaldiak...

Zumaiaiko Udalean euskara-teknikaria hasi zen lanean 1979an; lehen-dabizi, itzulpenetan besterik ez, baina gero beste lan batzuei heldu zien: Udaleko bilerak euskaraz, “Zumaya”-tik Zumaia ofizialera (1982an), San Telmo literatur saria (1983tik), Julene Azpeitia literatur lehiaketa

**Arrangoletan
sortu zen 1982an
Zumaiaiko Bertso
Eskola, Euskal
Herriko
lehenengoetako
bat, hasieran
Ikastolari estu
lotua, gero
kanpora begira
bestelako
ekimenak jarri
zituen abian:
Anade elkarteko
txapelketak,
bertso-paperen
lehiaketak,
bertso-
jaialdiak... Ibili-
ibilian, dozenaka
gaztetxo pasako
ziren hurrengo
urteetan
Eskolatik.**

**1993an Eusko
Legebiltzarrak
Euskal Eskola
Publikoari
buruzko
Legearen
Proiektua onartu
zuen, eta
lehendik zetorren
eztabaida
areagotu egin zen
Ikastolaren
barruan,
publikazioaren
aldekoen eta
aurkakoen
artean.**

(1988tik)... Gainera, 1989an, Euskararen Ordenantzaren bidez, Udalak arautu egin zuen non eta nola erabili euskara, eta lege-erreferentzia edo helduleku ona izan zuen.

Horrez gain, herriko beste ikastetxeetan ere aldaketak izan ziren, etorkizuna nola zetorren seinale: Maria eta Josen D eredu hutsean ematen hasi ziren klaseak, 1986an; San Pedro ikastetxeak B ereduan jarraitu zuen, baina desagertu egin zen, 1992an. Horrela, D eredua nagusi eta bakar izan zen Zumaian, eta etorkizuneko zumaiaarren euskara-gaitasuna bermatuta geratu zen.

1986an, Inpernupe elkarteak sortu zen, Ezker Abertzalearen inguruko jendearen ekimenez, eta hurrengo urteetan euskarazko kultur ekitaldi ugariaren sorleku izan zen: erakusketak, hitzaldiak, liburu-aurkezpenak, ikastaroak, musika-emanaldiak..., gehien-gehienetan euskara hutsean. Harrezkero, elkarteko atea zabalik egon da beti eta bilgune izan da hainbat talderentzat: sindikatuak, gazteak, ekologistak, kultur taldeak... Bereziki nabarmentzekoa da *Orrua* aldizkaria, 1987tik 1990ra hamaika zenbaki atera zituen, euskara hutsean, hainbat gai jorratzeko: erreportajeak, herritarrei elkarrizketak, bidaiak, bertsoak, komikiak... Neurri batean, ondorengo beste hedabide batzuen aitzindaria izan zen.

Garai hartan, beste talde bat ere aritu zen lanean euskararen alde: Euskal Herrian Euskaraz, salaketa-lanetan, batez ere.

Herri Eskola: bateratzeak zatiketa

Arrangoletak Ikastolaren proiektua sendotu egin zuen, baina artean herrenka zebilen, batzuetan ezinean, ez zuelako lortzen ekonomikoki bideragarria izatea. 1993an Eusko Legebiltzarrak Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen Proiektua onartu zuen, eta lehendik zetorren eztabaida areagotu egin zen Ikastolaren barruan, publikazioaren aldekoen eta aurkakoen artean. Batzuek publikazioan ikusten zuten hainbat urtetan pairatutako gabezien eta zailtasunen konponbidea, baita etorkizun ziurragoa ere; beste batzuek, berriz, Ikastolaren sorrerako balioei, izaerari eta nortasunari heltzen zieten, sare publikoan ez sartzeko. Azken horiek “Ikastola irrikan” izeneko taldean eratu ziren, 1991 inguruan.

Erabakia hartzeko batzarrean, gehiengoak publikoaren alde egin zuen, baina lege-arazoak zirela-eta, auzia ez zen erabaki 1994ra arte; orduan, Zumea Ikastolak, Julene Azpeitia Ikastetxe Publikoak eta Zumaiaiko Institutuak bat egin eta Herri Eskola sortu zuten. Bateratze hark, ordea, zatiketa eragin zuen, eta urte asko iragan badira ere, oraindik sendatu

gabeko orbainak badaude. Bateratzeak ikastetxe berria ekarri zuen, Sagarbiden (1998an). Lehendik Poligonoan zeuden Julene Azpeitia eta Institutua, eta Zumaiaiko hezkuntza-zentro nagusiak herrigune historikotik kanpo geratu ziren, denak elkarren ondoan.

Izan zen beste aldaketa nabarmen bat 1994an, baina Udalak berak bultzatuta: Udal Euskaltegiaren sorrera. Horren ondorioz, ordura arteko Udalaren eta AEKren arteko harremana gaiztotu egin zen, aurrez aurre eta lehian jarri baitzituen. Zerk bultzatu zuen Udala erabaki hura hartzera? Arrazoi batzuk aitortuak ziren, eta beste batzuk suma zitezkeenak: ustez alderdi politiko baten aldera gehiegi lerratzea AEK, herritik kanpo euskara ikasten ari zirenei beste alternatiba bat eskaintzea, kalitatezko irakaskuntza, irakasleen titulazioa... Hitzarmena sinatu zuen Zumaiaiko Udalak Zarauzko Udal Euskaltegiarekin, eta hango irakasleek eman zituzten klaseak. Orduan, AEK-k lokal bat hartzea erabaki zuen, Erribera kalean, eta urtebete geroago, 1995ean, muskulua edo indarra erakutsi nahian, AEK Eguna antolatu zuen Zumaian.

1994an, gazte batzuek *Baleike* aldizkaria sortu zuten, hasieran Gazte Batzordeari lotua, baina herriko albiste orokorrak lantzeko, eta horrela aritu zen zenbait urtez. Gazte haiek, ordea, heltzen joan ziren, eta beste planteamendu baten premian zeudenez, 2000an *Baleike Kultur Elkarte*a eratu zuten. Aurretik bestelako ahalegin batzuk ere izan ziren, ordea, euskara-elkarte bat sortzeko: Zuzpertz taldeak ibilbide laburra egin zuen 1997an, eta Katuplaza izeneko talde bat gauzatu gabe geratu zen bidean.

Udalari dagokionez, Euskara Zerbitzuak indartu egin zuen beka bidez herriko euskara lantzea edo hizkeran sakontzea. Horrela, 1997an, Zumaiaiko hitanoa aztertzeko beka atera zuen eta haren emaitza izan zen *Hitanoa Zumaian* lana⁸, 2000. urtean.

2000tik: Udala eta beste batzuk

Sarritan gertatzen da behar edo nahi baten aurrean, herritarrek talde edo elkarte bat sortzea, eta beharrezkoa dela ikusirik, Administrazioak hasieran laguntzea eta gero bere gain hartzea; batzuetan, gainera, taldea indartsu egon ezean, desagertu egiten da. Argiago azaltzen du Jon Sarasuak: “Bost hamarraldiotako gorabideak eustazpi instituzional zibila izan du lehen hamarraldietan. Eta bigarren etapan sare instituzional zibil publikoaren eta eustazpi instituzional zibilaren arteko jardun konbinatua izan dugu. Erakunde publikoek, gauza batzuetan, beren bideekin landuko dituzte helburuak, eta beste askotan azpiegitura zibil hauen bidez egikaritu dituzte beren politikak”⁹. Horixe gertatu zen Zumaian ere etapa honetan.

1994an, gazte batzuek *Baleike* aldizkaria sortu zuten, hasieran Gazte Batzordeari lotua, baina albiste orokorrak lantzeko. Gazte haiek, ordea, heltzen joan ziren, eta beste planteamendu baten premian zeudenez, 2000an *Baleike Kultur Elkarte*a eratu zuten.

**Bereziki
aipagarria da
Txinparta
euskara-taldeak
egindako lana.
2005ean sortu
zen herriaren eta
herritarren
beharrei eta
hutsuneei
erantzuteko.**

2000. urtetik aurrera, Udalak euskararen inguruko lan ugari bultzatu zituen: *Mapa toponimikoa* (2000), “Euskararen egoeraren diagnostikoa” (2002), Zumaiaiko euskara aztertzeke beka (2002), Zumaiaiko toponimia aztertzeke beka (2004), Herriko euskara aztertzeke beka (2006), *Zumaia mapa toponimikoa* (2007), *Zumaia, izena eta izana* liburua¹⁰ (2008)... Horrekin batera, Udalak sendotu egin zuen Euskara Zerbitzua, eta beste teknikari bat hasi zen lanean (2004an), eta horietako bat erretiratu zenean, beste bat kontratatu zuen (2006an). Halaber, 2008an Euskararen Ordenantza Berria onartu zuen, ia hogeitau urte lehenagokoa eguneratzeko. Azkenik, 2009an Zumaia Ueman sartu zen.

Aurretik, ordea, Udalak bestelako erabaki batzuk hartuak zituen euskara sendotzeko edo egonkortzeko: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia jartzeari abian 2003an, Euskararen Aholku Batzordearekin (2004an). Plan horren barruan, hurrengo urteotan arloz arloko kanpainak egin zituen, euskara biziberritzeko: Lan Mundua Euskalduntzeko Plana (2003an), Udalaren Erabilera Plana (2004an), “Euskara sasoian” kirol-elkarteak euskalduntzeko (2004an) eta “Euskaraz, kiroltasunez” (2005ean); “Merkataritzan ere euskara txanpan” (2005ean); abizenak euskarazko grafiaz jartzeko kanpaina (2005ean)... Halaber, euskara ikasteko edo euskaraz aritzeko, diru-laguntzez gain, Udalak programa bereziak bultzatu zituen: Aisa (etorkinentzat, 2006tik), Mintzalagun (2009tik)... Bestalde, Euskararen Egunerako, 2007tik, “Zumaian saltaka” antolatzen hasi zen, Aholku Batzordearekin elkarlanean.

Garai honetan, bereziki aipagarria da Txinparta euskara-taldeak egindako lana. 2005ean sortu zen herriaren eta herritarren beharrei eta hutsuneei erantzuteko. Azpiegitura edo egitura handirik gabe, lagun gutxiren artean baina gogotsu, hainbat ekimen jarri zituzten abian: antzerki-tailerrak, euskarazko irteerak Natur Taldearekin batera, euskarazko produktuak erosteko kanpainak, *Irakurri matte* literatur aldizkaria, kamisetak... Baina batez ere Udalaren akuilu- eta markaje-lanetan aritu zen, baita salaketa publikoak egiten ere. Txinpartaren lana hauspoa izan zen Zumaian euskaldunak indartzeko eta kontzientziazteko, euskararen sentimendu komun baten inguruan biltzeko. Tarteka, jende berria hasi zen taldean, baina erreleborik ezean, 2013an desagertu egin zen.

Euskarari dagokionez, bereziki azpimarratzekoak dira beste bi gertaera: AEK-k Erribera kaletik Aita Mari zinemako lokaletara eraman zuen euskaltegia (2003an), eta Udal Euskaltegiak bere jarduerara bertan behera utzi ondoren, AEKren euskaltegia Bidasoa kalean ezarri zen (2008an), Udalaren lokalean.

Hedabideei dagokienez, 2004an *Urola Kostako Hitza* jaio zen, tokiko informazioa egunero euskaraz emateko, eta Zumaia bazeukan bere txokoa.

Azken hamarkada: komunitatea

Baleike aldizkariaren sortzaile eta bultzatzaileen ezaugarrietako bat izan da lo ez geratzea eta konformagaitzak izatea, etorkizunera begira erne egotea, aukerak aprobeitzeko. Horren adibide, sorreratik bertatik aldizkarian etengabe egindako aldaketak: arduradunak, kazetariak, egoitza, maiztasuna, prezioa, banaketa, orri-kopurua, formatua, diseinua, kolorea...

2004an, beste urrats bat egin zuten, etorkizunera begira erabakigarria izango zena: *baleike.com* jaio zen. 2006an, gainera, beste erabaki garrantzitsu bat ere hartu zuten: egunerokoa *Hitzak* eta *baleike.com*-ek lantzen zutenez, aldizkarian gaiak patxadatsuago eta sakonago landu, beste arnasa batekin; hau da, kantitatea baino, kalitatea gehiago landu. Denborak erakutsi du erabakia zuzena izan zela, eta *Baleike* erreferentzia bihurtu zen tokiko kazetaritzan; horren erakusle, sari ugariak (tartean, 2010ean, Rikardo Arregi kazetaritza sari nagusia). *Baleikeren* erreferentzialtasunaren erakusgarri dira 2011n Aztikerrek egindako azterketa soziologikoaren datuak: 3.400 irakurle hileroko, *baleike.com*-ek egunero 700 bisitari...¹¹ Hurrengo urteotan, gainera, joera hori indartu egin zen: 2016an, batez beste, eguneko 2.000 sarrera baino gehiago izan zituen *baleike.eus*-ek.

Baleike aldizkariari eta *baleike.com* (gaur egun *baleike.eus*) webguneari esker, zumaiarek informazioa lehen eskutik eta ia gertatu orduko jasotzen dute, euskara hutsean; gainera, webguneak aukera ematen dio edonori, bakarka edo taldean, Zumaia euskarazko komunitateko kide aktibo izateko, albisteak komentatzeko edo sortzeko. Horrela, aldizkariaren eta komunitatearen bidez, are ikusgarriago jarri dira herriko euskaldunak, elkar ezagutzeko aukera eman die eta batzuetan elkarlanean jarduteko ere bai. Herriko elkarte eta talde asko dira komunitateko kide (guztira 46 talde), eta etengabe sortzen eta argitaratzen dituzte albisteak. Gainera, hedabide soila baino gehiago ere bada, eta zumaiaertasuna eta euskara sustatzeko eta indartzeko ezinbesteko motorra izan da azken urteotan; hor daude, adibidez, aldizkariak gain ateratako lan monografikoak, argazkiak, bideoak, audioak, liburuak, gida komertzialak... Ohitu egin gara Zumaia berriak euskara hutsean sortzen eta jasotzen, baina inguruko beste herri batzuen egoerari begiratuta, konturatuko gara pribilegiatuak garela.

Bestalde, Zumaia Udalak lehen hasitako bideari segida eman dio azken urteotan, eta bestelako ekimenak ere jarri ditu abian: 2012tik "Euskara, bestela ez gara" hitzaldi-zikloa, Ekolingu saioak (2015), Euska-

***Baleikeren
erreferentzial-
tasunaren
erakusgarri dira
2011n Aztikerrek
egindako
azterketa
soziologikoaren
datuak: 3.400
irakurle hileroko,
baleike.com-ek
egunero 700
bisitari...***

**Baleike
aldizkariari eta
baleike.com (gaur
egun baleike.eus)
webguneari esker,
zumaiarrek
informazioa lehen
eskutik eta ia
gertatu orduko
jasotzen dute,
euskara hutsean;
gainera,
webguneak aukera
ematen dio
edonori, bakarka
edo taldean,
Zumaiaiko
euskarazko
komunitateko kide
aktibo izateko.**


raren Egunaren inguruko ospakizunak (kalejira, “Euskararen ura, eskutik eskura”)...

Euskararen eta elkarteen arteko harremanari eta elkarlanari dagokionez, aipagarria da “Euskura” lana¹², euskara eta kultura uztartzeko proposamen berritzailea, 2014an; laburbilduz, euskarazko kulturgintza sendotzeak euskara bera indarberritzeko balio duela aldarrikatzen zen lanean, baita estrategia batzuk proposatu ere: auzolana eta elkarlana bultzatzea, hiztun-komunitatea trinkotzea, lidergoa baliatzea, elkarrekin jardutea, identitatea lantzea, sarea jostea, ekosistema zaintzea...

Halaber, 2014an izan zen beste gertaera bat, euskal komunitatearen indarraren adierazgarria: osasun-zentroko pediatria berriak euskaraz ez zekiela eta, hainbat mobilizazio egin zituzten zumaiarrek; baina ekimena herritar batzuek abiatu zuten, inoren zain egon gabe, eta gero jaso zuten erakundeen babesa (Zumaiaiko Udala, Kontseilua...).

3.3. Euskararen habitatak

Aurreko atalean etengabe azaldu zaizkigu Zumaiaiko leku-izenak, taldeek eta elkarreek behar zutelako non elkartu lanerako. Orain, leku nagusi horiek mapa batean kokatuko ditut, bereizita.



***Oharra:** irudi honetan ez daude sartuta auzoetako bilgune edo elkarteak (Gure Ametsa, Narrondon; Artadi, Artadin; eta Artelagun, Oikian).

Mapan ez da ageri “0” zenbakirik, baina egon beharko luke: “0: etxeak”. Izan ere, euskara bizirik dago Zumaian askok eutsi ziotelako etxeetan beste lekuetan hitz egiten ez zenean, eta gaur egun ere transmisiorako ezinbesteko guneak dira.

1. Eliza, Zentroa eta Apaizetxea
2. Aizpuruatarren ganbara
3. Aita Mari, zinema baino gehiago
4. Poligonoko etxabea
5. Arrangoleta
6. Foronda
7. Erriberako euskaltegia
8. Bidasoa kaleko euskaltegia(k)
9. Udaletxea
10. Ikastetxeak
11. Alondegia

Leku horiei begiratuta, komeni da hainbat alderdi azpimarratzea:

- Espazio nagusiak Ikastolaren eta Udalaren azpiegiturak izan dira, eta euskararen alorrean aritu diren elkarteek batzuetan baino ez dute izan lokal propioa edo jabetzan.
- Espazio horiek erabilera baterako baino gehiagorako izan dira askotan, horretarako aukera ematen zutelako eta erabiltzeko erraztasunak ematen zirelako. Espazioak konpartitu egiten ziren.
- Herrigunea zabaldu ahala, espazio horiek ere hedatu egin dira herri osora.
- Ez da izan atzerakadarik, eta etengabe irabazi ditu euskarak lekuak, batzuetan urte luzez gaztelaniaren gotorleku izandakoak: Arrangoleta, Foronda...
- Bi dentsitategune-mota nagusi bereiz ditzakegu: euskara propio lantzen dutenak (ikastetxeak, euskaltegiak...) eta jarduera nagusiren bat euskaraz lantzen dutenak (kultur etxea...).
- Euskarazko jardunaren kontzentrazio gune nagusietako bat Poligono inguruan eratu da. Gaur egun, elkarren ondoan daude hainbat ikastetxe, kiroldegia, osasun-zentroa, merkataritza-zentro batzuk, baita euskara-plana martxan daukan multinazional bat ere.
- ...

***Espazio nagusiak
Ikastolaren eta
Udalaren
azpiegiturak izan
dira, eta
euskararen
alorrean aritu
diren elkarteek
batzuetan baino
ez dute izan lokal
propioa edo
jabetzan.***

**Ezkutuan,
gordeta eta
debekatuta
egotetik
espazioak eta
funtzioak
irabaztera eta
beregantzera
pasa zen
euskara, hasieran
gaztelaniarekin
batera, baina
gero gehienetan
bakarrik eta
nagusi.**

3.4. ...baina batez ere pertsonak

Hizkuntza bat ezer gutxi da hiztunik gabe, eta hizkuntza bat bizirik dago hiztunek erabiltzen badute. Erabiltzeaz gain, ordea, izan dira zaindu, babestu, bultzatu, indartu eta sendotu duten zumaiaarrak 50 urte hauetan, eta ez gutxi, gainera.

Erraza litzateke izenak ematen hastea hemen, baina beti egongo da baten bat ahazteko arriskua, eta horregatik egokiagoa iruditu zait ahal dela ez ematea. Baina gogoan dauzkat hainbat lagun, bereziki, Ikastola sortzeko erabakia hartu eta bultzatu zutenak, zailtasunak eta oztopoak gainditzen lagundu zutenak, arkatx txikia eta koaderno hartuta erosketaz-zerrenda euskaraz egiten hasi zirenak, euskaraz jakin ez arren seme-alabak euskaraz hezi zituztenak, beti euskarari sendo eusten diotenak, euskara irakasten eta ikasten aritu direnak, euskaraz natural sortu eta kontsumitzen dutenak (musika, literatura, artea, zinema...) eta abar.

3.5. Laburbilduz

Ezkutuan, gordeta eta debekatuta egotetik espazioak eta funtzioak irabaztera eta bereganatzera pasa zen euskara, hasieran gaztelaniarekin batera, baina gero gehienetan bakarrik eta nagusi: hezkuntzan, kulturean, zerbitzuetan, kiroltan..., batzuetan herritarren eta taldeen ekimenez, beste batzuetan Udalak berak lagunduta. Horietako askotan, ekitatearen printzipioa gainditu zitzaion berdintasunari: gehiago eman zitzaion gehiago behar zuenari.

Bilakaeran, aldaketak eragindakoak izan dira, ez bakarrik edo berez sortuak. Aldaketak eragiteko, berriz, garrantzitsuak izan dira pertsonak, eta gehienetan elkarlanean, berdinetik berdinerak. Pertsona batzuek ikusi zuten aldaketa ez zela bakarrik etorriko, eragin beharra zegoela, inoren zain egon gabe, eta bazeukatela horretarako nahikoa zilegitasun, izan legezko edo ez. Onura, gainera, ez zen izan pertsonala, guztientzako baizik, eta horrek are gehiago legitimatzen zituen ekimenak.

Ibilbideari begiratuta, euskara ez da ezarri oinarri bakarraren gainean; aitzitik, aldatu egin da denboran zehar, eta batzuetan bat baino gehiago izan ditu aldi berean, elkarren osagarri: Eliza, Ikastola, gaueskola-AEK, Udala, *Baleike* eta komunitatea..., baina beti ondoan izan dituzte beste elkarte eta laguntzaile ugari.

Urte hauetan guztietan, elkarlanak indar handia izan du, eta osagarri-

tasuna bilatu izan da, oso gutxitan izan da lehia. Elkarlan horrek, gainera, balio izan du harremanak egiteko, estutzeko edo sendotzeko, eta eragin biderkatzailea izan du batzuetan. Halaber, garrantzitsua izan da pertsona batzuk leku batean baino gehiagotan aritzea, eta horrela aprobetxatu izan dituzte sortzen zihozten aukera batzuk.

Ereduak eta praktikak garrantzitsuak izan dira. Ikastolak, ia hogeita hamar urteko ibilbidean, erakutsi zuen euskaraz ikastea eta irakastea posible zela, eta gainerako ikastetxeen eredua izan zen. Gainera, talde eta elkarte batzuek erakutsi dute euskaraz funtziona daitekeela, hori dela naturala, eta eredu izan dira dira besteentzat.

Azkenik, etengabe bilatu eta sortu dituzte zumaiaarrek dentsitateguneak, euskara nagusitzeko espazioak, eta lortu dute horietan euskaraz bizitzea, batzuetan lehendik zeudenak aldatuta, beste batzuetan propio sortuta. Sarritan, dentsitateguneetatik abiatuta irabazi ditu euskarak espazio berriak.

4. EUSKARA GARA ZUMAIAN

I Nola daude euskara eta euskaldunak 2017an Zumaian? Zein da egoera? Nola eta non hartzen du amasa euskarak gaur egun gurean? Galdera horiei eta gehiagori erantzuten ahaleginduko naiz atal honetan.

4.1. Zenbait datu orokor

Hasteko, hona hemen zenbait datu esanguratsu:

- 2016ko kale-neurketak¹³ adierazten duenez, euskararen kale-erabilerak bost puntu egin du gora Zumaian azken bost urteotan. Kalean entzundako hamar elkarrizketatik ia sei (% 57,8) izan dira euskaraz; emakumeek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute, eta Poligonoan gehiago hitz egiten da herrigunean baino. Duela bost urte ikusitako joerari eutsiz, 14 eta 25 urte arteko gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 79,7), eta goranzko joera nabarmenarekin aurreko inkestekin alderatuta (2006an % 64,9 zen).
- Iñaki Iurrebasok¹⁴ adierazten duenez, Zumaiaaren euskararen indizea, 2011n, % 79,5ekoa zen; gaitasuna, berriz, hau: euskaldunak, % 71,5; ia euskaldunak, % 15,8; erdaldunak, % 12,6; 1981etik 2001era gora egin zuen (% 59,3tik % 73,1 era) eta azken hamar urteotan zertxobait behera egin du (2011n, % 71,5 zen).
- Zumaia Uemako kide da 2009tik, EBPn/ESEP martxan dauka 2003tik; Udalak hainbat plan eta lan eginak ditu: lan-munduan, merkataritzan, kirolean...

2016ko kale-neurketak adierazten duenez, euskararen kale-erabilerak bost puntu egin du gora Zumaian azken bost urteotan. Kalean entzundako hamar elkarrizketatik ia sei (% 57,8) izan dira euskaraz; 14 eta 25 urte arteko gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 79,7), eta goranzko joera nabarmenarekin aurreko inkestekin alderatuta (2006an % 64,9 zen).

***Ohiko argazkia
osatzeko hiru
eremu desberdin
ikuskatu ditut
bereziki: bankuen
erakusleihoak,
etxeetara
banatzen den
propaganda eta
paneletako
tartelak.***

- Hezkuntzan D eredua da bakarra, ume guztiek euskaraz ikasten dute Zumaian.
- Zumaiaiko euskara ezagutzeko eta ikertzeko hainbat lan egin dira.
- AEKren euskaltegia dago euskara ikasteko edo hobetzeko, eta Udalak diruz laguntzen du.
- ...

Ohiko argazki hori osatzeko, kalterik ez bestelako adierazle batzuei ere erreparatzea. Horretarako, hiru eremu desberdin ikuskatu ditut bereziki:

- Bankuen erakusleihoak. Zazpi sukurtsaletako iragarkiak ikuskatuta, haxe emaitza: euskara hutsean, batean; euskaraz eta gaztelaniaz, baina euskara nabarmenago, bitan; euskaraz eta gaztelaniaz, baina gaztelania nabarmenago bitan; eta gaztelania hutsean, batean.
- Propaganda etxean. Hiru hilabetea, 2017ko martxotik ekainera, etxeko buzoian 21 propaganda-orri jaso genituen. Hizkuntzari dagokionez: gaztelania hutsean, 8; azala euskaraz, baina edukia gaztelaniaz, 1; euskaraz eta gaztelaniaz berdina: 3; ele bietan, euskara lehenetsita: 5; euskara hutsean: 3.
- Paneletako kartelak. Ausaz herriko hiru informazio-panel aukuratuta, guztira 37 kartel zeuden: euskara hutsean, 23 (% 62); ele bietan baina euskara lehenetsita, 8 (% 22); ele bietan baina gaztelania lehenetsita, 2 (% 5); eta gaztelania hutsean, 4 (% 11).

Nahi izanez gero, beste adierazle batzuk ere badaude: eskelak kalean euskaraz gehiago jartzen dira gaztelaniaz baino; kintoen ospakizunen kartel gehienak euskara hutsean edo ele bietan jartzen dira; lan-gatazken adierazpideak (kartelak, pankartak, pintadak...) euskaraz izaten dira, nagusiki; errenta-aitorpenetan, hamar urtean lau aldiz gehiago egiten dira euskaraz (2016an, % 24,5)...


Beraz, datuek erakusten digutenez, euskara hor dago, oinarri sendoa dauka eta badirudi indartzen ari dela. Baina ez ditzagun etxafuegoak azkarregi bota, eta begira diezaiegun beste adierazle edo arrasto batzuei, baita beltzuneei ere: hainbeste urteren ondoren, oraindik zerbitzu publiko guztiak ez dauzkagu euskaraz bermatuta; lan-munduan, euskararen presentzia eta erabilera oso txikia da; Udalak berak bultzatutako zenbait jardueratan ez da lehenesten euskara edo euskara ez da eredugarria...

4.2. Euskara talde eta elkarteetan

Elkarteak eta taldeak herri biziaren eta dinamikoaren adierazle dira, eta Zumaian ugari izan dira azken urteotan eta gaur egun ere halaxe dira: 2017an, guztira 132 talde edo elkarte identifikatu ditut.

Hona hemen sorrera-hamarkadaren eta jarduera-motaren arabera:

1. grafikoa: Zumaiaiko elkarten sorrera-urteak.



2. grafikoa: Zumaiaiko elkarteak jarduera-motaren arabera.



Elkarten zerrendari eta datuoi begiratuta, ikus daiteke azken 50 urteotan etengabe sortu direla elkarteak eta taldeak Zumaian, oso gutxi 1950-1970 artean, eta gero eta gehiago azken urteotan; hazkunde hori erlazionatuta egon daiteke diru-laguntzak eskuratu ahal izateko elkarte formal gisa eratu beharrarekin. Deigarria da, baita ere, elkarte gastronomikoek beti irautea denboran, behin sortuz gero sendo, bilatu eta aurkitu dituztelako bazkide berriak erakartzeko formulak. Azkenik, elkarte gehienak hiru arlotakoak dira: kultura (42 elkarte), kirolak (22) eta gizartea (21).

Elkarteak eta taldeak gehienetan bakarka aritzen dira, baina batzuetan elkarrekin ere bai, eta gero eta kontzientzia handiagoa daukate sare bat

***Euskara da
elkarteetako
bileretako
hizkuntza
nagusia, bai
zuzendaritzetan,
bai elkarte edo
talde
osoarenetan.
Hamarretik
zortzik diote
bilerak euskara
hutsean edo
euskaraz gehiago
egiten dituztela.***

osatzen dutela, eta batzuetan elkarrekin jarduten dute: Eki Festa udari ongi etorria emateko, Gure Esku Dagok 2017ko maiatzaren 7ko bozketa zela eta antolatutako jaialdia...

Baina nola dago euskara elkargune eta elkarte horietan? Nola jokutzen dute euskaldunek horietan? Galdera horiei erantzun nahian, informazioa lortzeko, hiru iturri hauek erabili ditut:

- Elkarteak. Galdetegia bidali nion lagin bati (37 elkarte), irizpide hauek kontuan izanik: alorra, sorrera-urtea, aktibitatea, tamaina... "Euskura" laneko informazioa ere erabili dut, erantzunak osatzeko.
- Zumaiaarrak. Galdetegia zumaiaar euskaldunei, bilguneetan euskararen presentziaz eta erabileraz galdetzeko.
- Elkarrizketak. Zumaiaako Udaleko lau teknikarirekin.

Bai elkarrizketetan, bai galdetegietan, guztiei ere antzeko galderak egin nizkien: zer hizkuntzatan egiten zituzten ohiko bilerak eta barne- eta kanpo-komunikazioak, azken urteetako bilakaera eta arrazoiak, euskara gehiago erabiltzeko aukerak, hizkuntza-irizpideak, gorabeherak...

Elkarteek eta taldeek diotenez...

Guztira 31 talderen edo elkarteren informazioa aztertuta, alderdi hauek dira bereziki azpimarratzekoak:

- Euskara da bileretako hizkuntza nagusia, bai zuzendaritzetan, bai elkarte edo talde osoarenetan. Hamarretik zortzik diote bilerak euskara hutsean edo euskaraz gehiago egiten dituztela.
- Kanpora begirako ekitaldietan euskara da nagusi: hamarretik zazpi diote euskara hutsean edo euskaraz gehiago aritzen direla; tarte-ka erabiltzen dute gaztelania, ikusle/entzuleen arabera (badakitelako batzuek ez dutela ulertzen euskaraz), edo beste aukerarik ez daukatelako (oso zaila da, adibidez, euskarazko pelikulak ekartzea).
- Dokumentazio idatzian, gaztelaniaren presentzia handiagoa da, aktak-eta batzuetan gaztelaniaz ere egiten direlako (bazkideek hala eskatuta): euskara hutsean edo ele bietan egiten dira hamarretik zortzi, eta gaztelania hutsean beste biak.
- Bazkideekiko komunikazioak euskara hutsean edo ele bietan egiten dituzte hamarretik bederatzik, eta gaztelaniaz gehiago batek; whatsapppeko taldeetan eta sare sozialetan euskararen presentzia handiagoa da, edo gaztelaniaren parekoa.
- Pentsari begirako komunikazioa euskaraz egiten da, edo euskarari lehentasuna emanda.

- Gehienetan ez dute nabari bilakaera nabarmenik euskararen erabileran, lehendik ere handia zelako.
- Hizkuntzak horrela erabiltzeko gakoetan, hauek azpimarratu dituzte: parte hartzen dutenen gaitasuna (guztiekin ulertzea), jarrera eta kontzientzia.
- Euskara gehiago erabiltzeko, berriz, bereziki azpimarratu dute euskaraz sortzen jarraitzea, eta herriko beste taldeekin elkarlanean; dakitenek gehiago egin beharko luketela euskaraz; federazioetan eta elkarte pribatuetan gehiago eragin beharko litzatekeela, horietatik jasotzen dituztelako askotan agiriak gaztelania hutsean.
- Gertatu izan zaizkie gorabeherak: hasieran oharrak euskara hutsean bidaltzen zituzten, baina gaztelaniazkoak eskatu zituzten batzuek; kontrakoa ere bai, ordea: ume kirolariaren mediku-agiria gaztelaniaz bidali gurasoei eta euskaraz bidaltzeko eskatu guraso batek; bilera orokorretan eskatu izan da euskara gehiago erabiltzeko; baten batek eskatu du bilerak gaztelaniaz egiteko, “denok dakigulako eta ulertzen dugulako”, eta erabaki behar izan zuten hala egin edo ez (eta ezetz erabaki zuten); hitzaldia antolatzerakoan, eztabaida izan zuten talde batean, batek zioelako jende gehiagorengana iristeko komeni zela gaztelaniaz egitea; batzar batean, batzarkide batek gaztelaniaz ere egiteko eskatu zuen, baina aho batez erabaki zuten euskaraz egitea, eta pertsona horri itzulpena egitea (harrezkero, ez da bueltatu bileretara). Gorabehera horien ondorioz, hizkuntza-irizpide eta konpromiso batzuk hartu dituzte elkarrekin.
- Oso gutxi dauzkate idatziz jasota hizkuntza-irizpideak, eta gutxi dira gaiak noizbait propio hitz egin izan dutenak.
- Talde gehienek ustez, euskara osasuntsu eta bikain dago beraien artean; beste batzuek, berriz, hobeto egotea nahiko lukete, baina ez da erraza.

Zumaiarrek diotenez...

Elkarte eta taldeetan zumaiarrok gabiltza, eta jakin nahi izan nuen, galdetuta, nola ikusten eta bizi duten euskara bilguneetan. Bakarka erantzuteko galdetegia zen, baldintza batzuk betetzen zituztenentzat: euskaldunak, Zumaian bizi zirenak, jarduerak Zumaian egiten zituztenak... Galdetegia googledriven jarrita, deialdi berezia egin nuen betetzeko: lagunak, kontaktuak, sare sozialak, baleike.eus...

- Guztira 160 lagunek erantzun zuten: 76 gizona, 84 emakume.
- Gehienak (148 lagun) 25-64 urte artekoak, gutxiago 25 urtez azpitik (8 lagun) eta are gutxiago (4 lagun) 65 urtetik gorakoak.

***Urte hauetan
guztietan,
elkarlanak indar
handia izan du,
eta
osagarritasuna
bilatu izan da,
oso gutxitan izan
da lehia. Halaber,
garrantzitsua
izan da pertsona
batzuk leku
batean baino
gehiagotan
aritzea, eta
horrela
aprobetxatu izan
dituzte sortzen
zihozten aukera
batzuk.***

**Bileretako
hizkuntza-
bilakaerari
dagokionez,
askok adierazten
dutenez, euskara
beti egon da
presente
hasieratik eta ez
da izan
atzerapausorik,
baina ez beti:
batzuetan
nahikoa da
erdararako joera
daukan norbait
sartzea
zuzendaritzan
bilerak
gaztelaniara
lerratzeko.**

- Zumaian bertan lanean edo ikasten aritzen direnak, 76 lagun, eta herritik kanpo, 84 lagun.
- Whatsappeko talde-kopurua: gehienek (85ek) 5-20 taldetan hartzen dute parte.

Erantzunei begiratuta, alderdi hauek nabarmenduko ditut:

- Bilera gehienetan euskara nagusi izaten da.
- Euskararen presentzia handiena hezkuntzako bileretan da: 10etik 9k dio euskaraz direla batez ere, eta batek euskaraz eta gaztelaniaz antzera; kulturako bilerak ere antzeko proportzioan dira, alde txikiagoekin: hamarretik sei batez ere euskaraz, hiru ele bietan eta bi gaztelaniaz batez ere.
- Euskararen nagusitasuna elkargune bakarrean apurtzen da: etxepeko edo garajeko bileretan. Izan ere, ele bietan dira gehienak (hamarretik bost), eta gaztelania nagusiagoa da euskara baino: gaztelaniaz dira batez ere hamarretik hiru, eta euskaraz batez ere bi.
- Bileretako hizkuntza-erabilerari dagokionez, funtsezko elementua da nor dagoen; izan ere, tartean euskaraz ez dakien norbait egoteak dena baldintzatzen du, euskara hutsean egin behar zena gaztelania hutsean egitea dakar.
- Bileretako hizkuntza-bilakaerari dagokionez, askok adierazten dutenez, euskara beti egon da presente hasieratik eta ez da izan atzerapausorik, baina ez beti: batzuetan nahikoa da erdararako joera daukan norbait sartzea zuzendaritzan bilerak gaztelaniara lerratzeko.
- Bilerak euskaraz edo gaztelaniaz egiteko gakoei buruz galdetuta, hauek adierazi dituzte: bilerako guztiek ulertzea (gehienetan izaten da baten bat euskaraz ondo ez dakiena); nork egiten duen zer hizkuntzatan (lidergoa); bileraren ardura daukanaren jarrera euskararekiko; euskaldunon jarrera (zenbateraino eusten diogun euskarari); adina (jende heldua gaztelaniaz egitera ohituago); erosoagoa da gaztelaniaz egitea (gatazka saihesteko); euskaraz ulertzen eta egiten ez dutenen borondatea edo malgutasuna; garrantzitsua da gaztelaniara lerratuz gero, norbaitek ardura izatea berriz ere euskarara itzultzeko...
- Galdetuta ea noizbait hitz egin duten bilerotan erabili beharreko hizkuntzaz, gehienek ezetz diote, edo ez dakitela erabakirik hartuta dagoen. Batzuek estatutuetan edo beste agirien batean adierazita daukate euskaraz funtzionatuko dutela, baina horrek ez du bermatzen erabilera.
- Euskara bermatzeko, ohiko konponbide-proposamenak: bi bilera egitea (bat euskaraz, bestea gaztelaniaz); euskaraz egitea eta ez da-

kienari norbaitek belarrira xuxurlatzea... Batzuek galdetu egiten dute hasieran bilera zer hizkuntzatan egin, baina hori batzuetan haserrera bidea ere izan da.

- Euskara gehiago erabiltzeari dagokionez, euskaraz egitea eta ez dakitenek euskara ikasteaz gain, proposamen hauek egiten dituzte: euskaraz dakitenei eta erabiltzen ez dutenei euskaraz egitea; pixka bat zain egon (gazteak euskaraz datozelako); bileraren hasieran hitz egin eta proposatu euskaraz egitea; pazientzia; ulertzen ez duenari aldi bereko itzulpena egitea; jendea trebatu, solasaldietan euskarari nola eutsi jakiteko; lehen hitza beti euskaraz egitea...

- Whasappeko taldeei dagokienez, euskararen erabilera nabarmen handiagoa da alor guztietan, baina bereziki (eta ordena horretan) laneko taldeetan, hezkuntzan eta kulturaren, baina baita etxepeko edo garajekoetan. Batzuek aurrez aurre baino gehiago eta errazago egiten dute euskaraz.

Udal-teknikari batzuek diotenez...

Udal-teknikariak ondo ezagutzen dituzte Zumaia taldeak eta horietan dabilzan zumaiaarrak, zer esanik ez arlo bakoitzekoak; sarritan elkarlanean jardun behar izaten dute, eta badakite euskararen egoera zein den. Horregatik, elkarte gehien biltzen dituzten alorretako teknikariak (kultura, kirolak eta ongizatea) eta euskara-teknikarietako bat elkarrizketatu nituen.

Hona hemen ondorio nagusiak:

- Euskaraz funtzionatzen dute, oro har, Zumaia elkarteak, barrura begira askok eta herriari begira denek. Euskara bizirik eta osasuntsu dago Zumaia elkarguneetan, eta batzuetan nagusi da.
- Euskaraz funtzionatzeko faktore nagusia da pertsona (nork hartzen duten parte zuzendaritzan eta horien euskararekiko atxikimendua eta hizkuntza-gaitasuna). Batzuetan adinarekin erlazionatuta dago: zenbat eta gazteagoa, gaitasun handiagoa eta euskararako joera; gazteak sartzen direnean, gehienetan egoera hobetu egiten da.
- Kontuan izan behar da eta ondo kudeatu talde eta elkarte gehienetan daudela euskaraz ez dakitenak, eta batzuetan kolektibo handi eta trinkoa osatzen dute. Hala ere, gehienetan ez daukate euskararekiko jarrera txarrik.
- Oso elkarte gutxi daukate idatziz jasota euskaraz aritzeko edo funtzionatzeko nahia, ez daukate hizkuntza-irizpide idatzirik.
- Udal-teknikarien lana ez da dena iristen. Ezin dute behartu inor emanaldi bat euskaraz egitera, adibidez.

***Euskaraz
funtzionatzen
dute, oro har,
Zumaia elkarteak,
barrura begira
askok eta
herriari begira
denek. Euskara
bizirik eta
osasuntsu dago
Zumaia elkarguneetan,
eta batzuetan
nagusi da.***

**Kulturan euskara
da nagusi taldeen
funtzionamen-
duan, eta
publikoa eta
kontsumitzaileak
ere euskaldunak
dira. Gaur egun,
antolatzen diren
emanaldi edo
ekitaldi
gehienak,
hamarretik
bederatzi,
euskaraz izaten
dira.**

- Udalak hizkuntza-betebeharrak jartzeak bultzatu egiten ditu taldeak eta elkarteak euskara erabiltzera jendearen aurreko ekitaldietan. Hala ere, ez da beti lortzen euskarari lehentasuna ematea, eta ekitaldia zenbat eta handiagoa edo oihartzun handiagokoa, orduan eta gehiago lausotzen dira eskakizunak, beste alderdi batzuei (batik bat onura ekonomikoari) ematen zaiolako lehentasuna.
- Udalak Euskararen Ordenantza badauka, 2008koa, baina zaharkitua geratu da, ez ditu jasotzen gaur egungo kasu edo egoera batzuk.
- Bilakaera onerakoa izan da euskararen erabileran eta presentzian, baina ez batzuek espero adinakoa. Uste baino motelago doa.
- Euskarari lehentasuna emateko irizpideak ezarrita daude, baina kasu bakoitzerako ez, eta teknikarien/zinegotzien gain geratzen da erabakia. Batzuek eskertuko lituzkete irizpide edo jarraibide zehatzagoak.
- Euskarak ez dauka gotorleku edo elkarte indartsurik Zumaian, ez badira Bertso Elkarteak, *Baleike*, AEK..., baina horiek txikiak dira. Hori baino gehiago da badaudela 50 lagun dena euskaraz izatea eta euskaraz bizitzea besterik ez dutenak nahi, eta horiek dira euskararen muina.
- Eguneroko praktikei begiratuta, askorenak euskaraz dira. Euskarazko lurralde edo gune batean gaudelako, badago halako obligazio bat euskaraz egiteko.
- Kulturan euskara da nagusi taldeen funtzionamenduan, eta publikoa eta kontsumitzaileak ere euskaldunak dira. Gaur egun, antolatzen diren emanaldi edo ekitaldi gehienak, hamarretik bederatzi, euskaraz izaten dira; baina ez da kasualitatea, nahita egindakoa izan da. Umeei begirako ikastaroak euskara hutsean eskaintzen dira, beti; helduenean, euskaraz emateko aukerarik ez dagoenean ematen da gaztelaniaz. Lehen aukera beti da euskara. Kultura Mahaiak euskaraz funtzionatzen du erabat.
- Kiroletan egoera hobetzen ari da, jende gaztea zuzendaritzetan sartu ahala, erreleboarekin, eta oraingo egoerak eta lehengoak ez dauka zerikusirik. Taldean lan egin nahi duenari ez zaio galdetzen euskaraz badakien edo ez, eta denak dira ongi etorriak, hizkuntzari begiratu gabe. Diru-laguntzak jasotzeko lagundu egiten du euskararen erabilerak, eta onerako izan da. Badaude gaztelaniaz funtzionatzen duten talde edo elkarteak, baina arduradunek ez dakitelako euskaraz; kanpora begirakoa beti bermatzen da, baina barrura begira, zaila da zuzendaritzakide guztiek euskaraz jakitea. Entrenatzaileek-eta gero eta gehiagok egiten dute euskaraz. Kirol Mahaiak

euskaraz funtzionatzen du. Kiroldegian eskaintzen diren ikastaro gehienak, hamarretik bederatzi, euskaraz izaten dira.

- Gizarte-ongizatean ere, egoera ikaragarri aldatu da azken urteotan. Lehen ere ahoz euskaraz zen, baina idatzizko guztia gaztelaniaz. Pixkanaka joan da sartzen, eta saila handitu ahala, indartzen, langile berriak euskaraz etorri direlako; orain barrura begira dena funtzionatzen da euskaraz. Kanpora begira, berriz, euskaldunari beti bermatzen zaio hizkuntza, baina herritar guztiengana iristeko, gaztelania beharrezkoa da. Bileretan, ez da beti bermatzen euskararen erabilera, eta gertatu izan da erdaldun bat joateagatik bileran gaztelania nagusitzea. Kontratazioetan beti hartzen da aintzat euskara. Erabiltzaileei dagokienez, euskaldun batzuek nahiago dute gaztelaniaz artatuak izatea, eta euskarri idatziak ere gaztelaniaz. Elkarte eta taldeetan denetarik dago: batzuetan erdaldunak dira nagusi eta gaztelaniaz funtzionatzen dute; beste batzuk euskaldunak dira, baina material idatzia kanpotik (Espainiatik) datorkie, eta gaztelaniaz; beste batzuk euskaldunak dira eta ahalegintzen dira euskarari lekua egiten... Erreleboia izan denean, gazteak sartu izan direnean, normalean euskararen onerako izan da. Guztiek badakite, ordea, zerbait antolatu behar badute, euskara aintzat hartu behar dutela. Nagusien Mahaiak euskaraz funtzionatzen du.

Laburbilduz

Zumaian badaude dentsitateguneak, euskara hutsean edo batez ere euskaraz funtzionatzen duten espazioak, eta elkarte eta talde gehienetan aurrerapauso nabarmenak ematen ari dira, euskararen presentzia eta erabilera gero eta handiagoa da; hori sarritan (baina ez beti) erlazionatuta dago pertsonen adinarekin, baina erreleboak ez dakar beti aldaketa. Aurrera egiteak, ordea, ez du esan nahi atzerapausorik ez denik gertatuko; izan ere, borondatezko lanaz ari gara, eta inori ez zaio ezetzik esaten parte hartzeko gogoia azaltzen badu; behar bezala prestatuta egon ezean, nahikoa da pertsona jakin bat sartzea zuzendaritzan jar-duera-hizkuntza aldatzeko.

Hizkuntzak kudeatzeko orduan, badaude praktika eredugarriak, baina elkarteren bat kenduta, ez dago ezer araututa euskararen presentziaz eta erabilera. Adostasuna dago euskarari lehentasuna emateko, baina ez dago ezarrita noiz eta nola. Udalaren exijentzia eta presioa garrantzitsuak izan dira, baina gainerako elkarteek jokabidea (besteek zer egin edo nola jokatzeko duten) ere bai.

**Hizkuntzak
kudeatzeko
orduan, badaude
praktika
eredugarriak,
baina elkarteren
bat kenduta, ez
dago ezer
araututa
euskararen
presentziaz eta
erabilera.**
**Adostasuna dago
euskarari
lehentasuna
emateko, baina
ez dago ezarrita
noiz eta nola.**

Zenbait arlotan, eskaintza ia erabat euskarazkoa da eta are nabarmenagoa ume edo gaztetxoentzako proposamenetan.

5. EUSKARA IZANGO AHAL GARA!

I

Azken atal honetan, etorkizunera begira jarriko gara, eta gaur egungo egoeratik abiatuta, Zumaian euskara biziberritzen eta indartzen jarraitzeko zenbait gomendio eta helduleku emango ditut.

5.1. Hainbat gomendio elkarteei eta taldeei

Taldeen eta elkarten lana garrantzitsua da herrietarako, eta halaxe egiaztatu dugu 50 urteko euskararen ibilbidean. Izan ere, zumaiaarrak etengabe elkartu dira interes komun batzuen inguruan eta helburu batzuk lortu nahian, eta gero eta talde gehiago daude, gainera. Zumaia askok hartzen dute parte talderen batean, beste zumaiaarrekin aritzen dira elkarlanean, eta euskara biziberritzeko eta indartzeko prozesuan, garrantzitsua da taldeok aintzat hartzea, hobetzeko aukerak identifikatzea eta euskararen gaia elkarrekin lantzea.

Hona hemen aholku batzuk:

- Hitz egin eta erabaki euskara zer den elkartearentzat, zenbateko lekua emango zaion eta horretarako zer baliabide jarriko diren. Adostu oinarri komuna, zertan gatozen bat.
- Hitz egin edo erabakitakoa idatziz jaso, ahal bada elkartearen oinarrizko agiri batean (adibidez, estatutuetan).
- Erakundeek gehiago bidera ditzakete taldeak eta elkarteak, lagundu; adibidez, erregistroan izena ematerakoan, gomendioak eman euskara kontuan izateko.
- Jarraibide edo gomendio zehatzak eman hizkuntzak kudeatzeko, egunerokorako: bileretan, komunikazioetan, dokumentazioan... Adibidez, bileretan: hasieran aztertu zer aukera dagoen euskaraz egiteko, ikusi parte hartuko dutenen hizkuntza-gaitasuna, zer baliabide jar daitezkeen (aldi bereko itzulpena...), norbait arduratu hizkuntza-irizpideak betearazteaz...
- Udalak ezarritako betekizunei segimendu zorrotza egin, eta ez utzi atzerapausoak ematen.
- Elkarreetako euskaldunak arrazoiekin jantzi, egunerokoan sortzen zaizkien oztopo eta zalantzei aurre egiteko: zergatik lehenetsi euskara, zer lekua eman garbi izan (adibidez, ez da nahikoa ekitaldien sarrera eta amaiera euskaraz egitea, edo izenburua euskaraz ere jartzeara), zer den *errespetua*, gune hegemonikoen beharra, aniztasunaren

aberastasuna... Hizkuntza-ekologiaren printzipioetan trebatu zuzendaritzetako kideak.

- Saritu eta aitortu aurrerapausoak, besteek ere ikusteko eta guztientzat eredu izateko.
- Elkarteen esperientzia eredugarrien berri eman, egoera zail edo oztopo bakoitzaren aurrean nola jokatu duten.
- Belaunaldi-aldaketak hizkuntza-gaitasuna areagotzea ekarriko du, baina horrek, berez, ez du areagotzen atxikimendua edo erabilerara. Hori ere landu beharra dago.
- Aurreikusi egoerak, eta bakoitzaren aurrean proposatu nola jokatu.
- Euskara-gaitasuna ere kontuan izan zuzendaritzako kideak hautatzeko orduan.
- Elkarreetako proiektzio publikoko pertsonak euskaldun onak izatea, eta zumaiar euskaldun gisa jokatzeko.
- Gaztelaniazko hitzaldiak edo ekitaldiak antolatzen dituztenekin lan berezia egin, pixkanaka euskaraz egiten ere has daitezen, eta behar baldin bada, bereziki lagundu.
- Elkarreak elkarrekin ekitaldiak antolatzen jarraitu, euskara hutsan.

5.2. Helduleku batzuk

Gurea, nirea

Aurreko atalean elkarre eta taldeez hirugarren pertsonen hitz egiten aritu gara, baina geu ere bagara horietako kide, eta hor adierazitakoa geuri ere badagokigu. Ardura, dagokiguna, geure gain hartu behar dugu, gure esku ere badagoelako. Ona litzateke bakoitzak bere praktikari begiratzea, zer egiten duen zer hizkuntzatan, eta ikusi ea bat datorren nahi duenarekin. Egunerokoan dauzkagu euskararen egoera hobetzeko aukerak: nola jokatzen dugu baten batek etxepeko bilera gaztelaniaz egiteko eskatzen duenean (“Denok dakigulako, ez luzatzeko”)? Galdezten al diogu zerbitzariari ea badaukan euskaraz eman berri digun ogitartekoen zerrenda? Beti egiten al dugu euskaraz lehen hitza ezezagunekin, aurreiritziak baztertuta?... Ederki azaltzen du Jon Sarasuak ahalegin gehigarri hori: “Hemen dator tesi zapuztaile nagusia; euskaldun koherente eta gaitu izateak gaur eta hemen ahalegina eskatzen du. Eta hurrengo belaunaldian ahalegina eskatuko du. Nahimena eskatuko du. Borondate bat, beste gauza batzuen artean. Horrela esanda sinplea dirudi, baina horrek inplikazio handiak ditu gure paradigma pentsatzerakoan. Euskaldun koherente eta konpetente izatea ez da hiritar estandar baten kondizio bera. Nahimen-tentsio bat darama”¹⁵.

Jon Sarasua:
***Euskaldun
koherente eta
gaitu izateak
gaur eta hemen
ahalegina
eskatzen du. Eta
hurrengo
belaunaldian
ahalegina
eskatuko du.
Nahimena
eskatuko du.
Borondate bat,
beste gauza
batzuen artean.
...
Euskaldun
koherente eta
konpetente izatea
ez da hiritar
estandar baten
kondizio bera.
Nahimen-tentsio
bat darama.***

**Askok
esperantzaz
begiratzen diote
turismoari edo
kanpokoan
etorrerak ekar
dezakeen
aberastasunari.
Turismoak
aukera adina
arrisku dakartza,
ordea, eta gurean
turismoak lotuta
egon behar du
nahitaez bertako
identitatearekin;
horren barruan,
euskarak
bizkarrezur izan
behar du.**

Etxean nagusi

Euskarak behar ditu hegemoniko edo nagusi izateko lekuak, eta euskara Zumaian biziberritu baldin bada, horregatik ere izan da. Gauden tokian gaude 50 urteotan gune hegemonikoak bultzatu eta indartu egin zirelako. Elebitasun sozial orekatua polita da, baina lortzen zaila, denek bi hizkuntzak ondo jakitea ezinbesteko baldintza duelako, eta praktikak erakusten digulako beti gailentzen zaiola hizkuntza bat besteari. Horregatik, desorekak egon badaudelako, hizkuntzek behar dituzte gune hegemonikoak, arnagune soziofuntzionalak, eta geuk ere babestu eta behar baldin bada sortu egin behar ditugu, etorkizunean euskaldun izateko nahia erreproduzitzeko eta iraunarazteko. Espazio elebidunek egon behar dute, baina baita euskara hutsezkoek ere, euskarak aurrera egingo badu.

Hizkerak nortasuna, eta nortasuna ardatz

Altxor handia dugu hizkera, baina ez dugu behar adina ezagutzen eta baloratzen. Beste herrietatik bereizten gaitu, iraganaren segida eta lotura ematen digu eta gure esku dago eustea. Horretarako, oso garrantzitsua da etxeko transmisioa, eta ez utzi dena eskolaren gain, hangoa ona eta etxekoa okerragoa delakoan. Zumaian badira makina bat pertsona erreferentzial, arlo guztietakoak (dantzariak, musikariak, idazleak, kirolariak...), eta on egingo liguke horiek zumaiarrez hizketan entzuteak.

Hizkuntza da gure izatearen eta nortasunaren zutabe nagusietako bat. Badugu inguru natural paregabea eta ederra, baditugu erakusteko altxor txikiak eta handiak eta badaukagu horren berri emateko hizkuntza aberats eta bakarra. Hizkuntzak bidea eman behar digu gure nortasunean gehiago murgiltzeko, geure burua hobeto ezagutzeko, eta horretarako bide egokia da, adibidez, ahotsak.eus egiten ari dena, baina proiektio publiko handiagoa emanda; esate baterako, mahai-inguruak antolatu edadeko jendearekin hitz egiteko lehengo lanbideez, festez, ohiturez, gertaerez... Ez da erraza, dirua behar da, askorentzat lehenetasun handiagoa izango du dirua hirigintzako obretan inbertitzeak, baina bide bat konponduta nekez indartuko dugu zumaiartasuna.

Askok esperantzaz begiratzen diote turismoari edo kanpokoan etorrerak ekar dezakeen aberastasunari. Turismoak aukera adina arrisku dakartza, ordea, eta gurean turismoak lotuta egon behar du nahitaez bertako identitatearekin; horren barruan, euskarak bizkarrezur izan behar du, eta ez osagai folkloriko huts. Badaude esperientzia berritzaileak eta interesgarriak, urrutira joan gabe, Zumaian abian jarritako “Enigma bi-

zia”¹⁶ eta Azpeitiko Udalarena, adibidez¹⁷. Bestalde, beharrezkoa da neurtzea ea ateak zabaltzeak zenbateko onurak, kalteak eta ondorioak ekar ditzakeen, baita euskararentzat ere, eta erne ibili arriskuekin; adibidez, merkataritzan edo ostalaritzan, ingelesaren mesedetan euskara bazter lezakeen elebitasunarekin..

Herriaz gaindi

Inguruko herri guztiak oso euskaldunak dira, eta herrietako mugak hain erraz gainditzen ditugunean, eskualdeko ikuspegiarekin jokatzuz gero, beste aukera batzuk zabalduko zaizkigu. Gurean, Kostan, eskualde-izaera ahul samarra da, eta herrien arteko harremanak eta elkarlanerako aukerak bultza daitezke, ustez lehia edo norgehiagoka dagoen lekuan. Horren adibide ugari daude dagoeneko: *Karkara* aldizkaria Orion eta Aian zabaltzen da; herri batek bakarrik trainerua osatu ezin izan duenean, bi herriren artean atera izan da; Euskal Kosta Krosa antolatu zen lehen aldiz 2017an hiru herriren artean... Kulturen ere elkarlanerako eta osagarritasunerako aukerak landu daitezke (antzerkia, zinema, musika...), sormenaren aldetik aukera handiak daude (herri guztietan daude bertso-eskolak, gaztetxeak...). Estrategia horiek guztiak lantzeko, protagonismo handiagoa hartu beharko luke Mankomunitateak, herri guztietako ordezkariak biltzen dituen neurrian, beste administrazioetatik datozen planen eta politiken transmisio-uhala izateari utzi eta ekimenak bere gain hartuta.

Gehiago sakondu beharko litzateke Zumaia eta oro har Kostako herrien identitate eta balio nagusien inguruan, nortasunaren bereizgarriak ezagutzeko eta azpimarratzeko. Dagoeneko jarri dira martxan hainbat proiektu, adibidez, itsas ondarearekin erlazionatutako ibilaldi gidatuak. Halaber, herri bakoitzeko curriculumak lantzen den bezala, ondoko herrietakoa ezagutzea bultza daiteke, askotan osagarriak izan daitezkeelako: Orioko eta Aiako burdinolak eta materialaren garraioa Oria ibaian barrena, Zumaian harrapatutako olagarro lehortuaren salmenta Zarautzen... Hausnarketa horretan, lehentasunezko lekua eman behar zaio euskarari, ardatz izan dadin.

Elkarguneak: lekuak eta egiturak

Orain arte, elkarteak eta taldeak izan ditugu, batez ere, mintzagai, baina beste hainbat elkargune ere badauzkagu herrian, horietako asko fisikoak. Non elkartzen dira gaur egun zumaia euskaldunak? Non entzuten da gehien euskara? Identifika ditzagun toki horiek, eta ikusi nola babestu,

***Gehiago sakondu
beharko litzateke
Zumaia eta
oro har Kostako
herrien identitate
eta balio
nagusien
inguruan,
nortasunaren
bereizgarriak
ezagutzeko eta
azpimarratzeko.***

**Beste era bateko
elkarguneak ere
behar ditugu
euskaldunok,
euskararen
gainean aritzeko
eta sarea
osatzeko. Izan
ere, aukera gutxi
izaten ditugu
euskarari buruz
hitz egiteko. On
egingo lioke
euskarari
euskaraz
arduratuta
dauden
zumaiarrak
elkartzea, elkar
ezagutzea,
ikuspegiak
trukatzea,
elkarlanean
jartzea...,
kontzientziazioa
lantzeko eta
komunitatea
trinkotzeko.**

zer egin horietan jendea elkartzen jarraitzeko. Elkargune horien inguruko esperientzia batzuk baditugu Zumaian, eta pare bat aitatu nahiko nituzke.

Lehena Estalapekoa da, edo Kofradia plazakoa. Zumaian ohitura handia dago Moilan egonean egoteko, ibaiari begira, jendearen, itsasontzien (gero eta gutxiago) eta autoen (gero eta gehiago) joan-etorria zaintzen. Badaukagu Arrantzaleen Kofradia, garai batean oparoagoa, eta eguraldiak laguntzen ez zuenean marinela babesteko, estalpea egin zuen Udalak 1916an. Kofradiaren azpialdean taberna bat dago, fama onekoa baina txikia, eta baimena eskatu zuen Estalapean mahaiak jartzeko, hasieran, eta plazaren zati batean mahai gehiago jartzeko, gero, bazkaltzen emateko. Plaza txikia da, baina oinezkoentzako kalearen ondoan dagoenez, umeen jolaslekua ere bazen. Estalapean eta plazan mahaiak jartzearekin batera, zumaiarrok terraza bat irabazi genuen, baina edadetuek biltzeko eta babesteko lekua galdu zuten, eta umeek jolaslekua. Neurri batean (ez baitakigu zein eseriko den mahaietan), Estalapea eta plaza galdu egin zituen euskarak.

Badugu, ordea, kontrako adibidea. Azken kale-neurketen arabera, Zumaian euskara gehien Poligonoan egiten da, eta bereziki aztertzekoa da inguru horren bilakaera. Eraiki zenean, kanpotik etorritako asko han jarri ziren bizitzen, zumaiar familia gazteekin batera, eta ingurua nahikoa erdalduna zen. Hurrengo urteetan, hegoaldera, basadietan aurrera, zabaldu zen Zumaia eta hor inguruan ezarri ziren ikastegiak, kirolguneak, osasun-zentroa, merkataritza-gune handiak, zaharren egoitza...; gainera, etheen artean, erdialdean, pasabide luze eta zabal bat utzi zuten oinezkoentzat, Punta-noetaraino iristen dena, bidean taberna eta guztikoa. Lehen pasatzeko lekua zena orain egotekoa da sarritan, hizketan aritzekoa, elkartzekoa...

Lekuez gain, ordea, beste era bateko elkarguneak ere behar ditugu euskaldunok, euskararen gainean aritzeko eta sarea osatzeko. Izan ere, aukera gutxi izaten ditugu euskarari buruz hitz egiteko. On egingo lioke euskarari euskaraz arduratuta dauden zumaiarrak elkartzea, elkar ezagutzea, ikuspegiak trukatzea, elkarlanean jartzea..., kontzientziazioa lantzeko eta komunitatea trinkotzeko. Horrela, Topaguneak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak abian jarri nahi duten "Euskarak 365 egun" ekimena aukera ona izan daiteke taldetxo bat sortu eta hori antolatzeko aitzakian, hezurdura iraunkorragoa sortzeko. Zumaian euskararen aldeko masa kritikoa indartu, sendotu, trinkotu beharra dago, arnagune izatearen kontzientziazioa areagotu. Masa hori zenbat eta indartsuagoa eta trinkotuagoa, orduan eta erakarmen handiagoa izango du euskararekiko ez aldeko eta ez aurkakoak euskarara erakartzeko.

Ildo horretatik, badago hausnartzeko beste gai bat: beharrezkoa al da euskara-elkarte bat Zumaian? Tarteka akordatzeko gara horrelako elkarte batekin, batez ere hizkuntza-eskubideak urratzen dizkigutenean, baina euskara natural eta normal bizi da Zumaiaiko elkarte eta talde askotan, eta askok ez dute ikusten horrelako elkarte baten premiarik. Berez, ona litzateke euskara-elkarte bat akuilu- eta segimendu-lanak egiteko, baina ona litzateke, baita ere, ardura inoren gain utzi gabe euskaldunok, gauden tokietatik, bakarka, eragitea. Adibide bat ekarriko dut hona: Gaztetxean, urtero, film laburren lehiaketa antolatzen dute, eta lan guztiak euskaraz izaten dira, inon ere baldintza hori jarri beharrik gabe; baina zenbateraino dira sendoak edo hauskorak hizkuntzarekiko konpromisoak eta loturak? Nahikoa al da euskara natural edo normal bizitzea? Hizkuntzaren gainean erabaki kontzienteak eta adostuak hartzen al ditugu? Duda daukat.

Bukatzeko, azkenaldian gero eta indar handiagoa hartzen ari dira bes-telako elkarguneak: whatsapp-eko taldeak, twitter, facebook, instagram, blogak... Gaur egun, oso kontuan hartzekoak dira, eta beharrezkoa da bilgunez hitz egitean, ohikoetatik fokua gehiago zabaltzea, sortzen do-azzen aukera berriak identifikatzeko eta aprobetxatzeko: aztertu non eta nola hartzen duten parte zumaiaarrek, zer harreman dagoen Zumaiaiko euskaldunen artean, nola daukagun indartzea eta trinkotzea...

Atxikimendua indartu, kontatu

Inoiz baino jende gehiagok daki euskaraz Zumaian, inoiz baino pertsona gehiago ari dira euskaraz, hezkuntza-ereduak bermatzen du ume guz-tiek euskaraz ikastea..., baina ahul ageri zaigu euskararekiko atxiki-mendua, euskaraz egiteko motibazioa. Oso ondo azaltzen du Jon Sara-suak: "Sinplifika dezagun atxikimenduaren gaia euskarari dagokionean. Batetik, beste hizkuntza nagusietan datorren eduki interesgarrien uhol-dea inoiz baino handiagoa da. Eta bestetik bizi gaituen kultura zappin-garen kultura da, menuarena. Orain honekin gozatzen dut eta gero ho-rrekin, honekin konprometitzen naiz, baina gero beste horrekin, hau ona da niretzat, baina beste hau ere bai. Hizkuntzarekiko eta kulturare-kiko atxikimendu solidoa, nire inguruan eta belaunaldian multzo esan-guratsu batean ezagutu dudana, orain ahulegi ikusten dut belaunaldi berrietan, bai nire belaunaldi bertan ere, bai nigan ere. Atxikimendu-moduaren lasaitze hau nabarmena da bai hizkuntzaren arloan, bai kul-tura kontsumoaren arloan, bai sorkuntzaren arloan"¹⁸. Hori garbi izanik, pentsatu behar dugu nola indartu: zergatik egiten dut nik euskaraz? Zer ematen dit euskarak beste hizkuntzek ematen ez didatena? 2017an, 20. Korrika zela eta, harrera egiteko bilera deitu zuten Zumaiaiko AEK-ko

**Badago
hausnartzeko
beste gai bat:
beharrezkoa al
da euskara-
elkarte bat
Zumaian?
Tarteka
akordatzeko gara
horrelako elkarte
batekin, batez ere
hizkuntza-
eskubideak
urratzen
dizkigutenean,
baina euskara
natural eta
normal bizi da
Zumaiaiko
elkarte eta talde
askotan, eta
askok ez dute
ikusten honelako
elkarte baten
premiarik.**

**Atxikimendua
eta
kontzientziazioa
areagotzeko
bideetako bat
ezagutza da,
euskararen
ibilbidearen berri
jakitea: zer egin
zen, nondik
gatozen,
egindakoa
baloratu eta
aitortu... Gutxi
idatzi da
honetaz, eta
errelatoa egin
beharra dago eta
ezagutarazi,
batez ere gazteek
(etorkizuneko
helduek) jakiteko
eta aintzat
hartzeko.**

irakasleek, bi hilabete lehenago, eta deialdiaren berri eman zuten heda-bideetan. Iritsi zen bileraren eguna eta ordua, eta ez zen inor azaldu; irakasleak lur jota. Horrek esan nahi du Zumaian ez dagoela interesik edo atxikimendurik Korrikarekiko? Ez. Gai honetan, badaude aintzat hartzeko zenbait faktore: Zumaiaiko euskaltegian ez dago irakasle zumaia-rrik; AEKri ere ahultzen joan zaio herrian zeukan laguntzaile-sarea (irakasle ohiak, ikasle ohiak...); bilerarako deialdia egin zuten, baina ez zuten baieztatu asistentzia... Hasierako deialdi hartara ez zen inor ere joan, baina bi hilabete geroago, apirilaren 5eko goizeko 03:00etan, ordurik okerreanean, ehunka zumaia-rrik ibili ziren Korrikaren atzetik saltaka.

Ildo horretatik, atxikimendua eta kontzientziazioa areagotzeko bideetako bat ezagutza da, euskararen ibilbidearen berri jakitea: zer egin zen, nondik gatozen, egindakoa baloratu eta aitortu... Gutxi idatzi da honetaz, are gutxiago herri bakoitzean egindakoa, batzuek baino ez dute egin-dakoaren berri, eta errelatoa egin beharra dago eta ezagutarazi, batez ere gazteek (etorkizuneko helduek) jakiteko eta aintzat hartzeko; aukerak dira: argitalpen arin edo mardulagoak, euskararen arnagune soziofuntzionalak eta motorrak mapan kokatu eta ibilbideak antolatu, hitzaldiak edo mahai-inguruak, ikus-entzunezko euskarrietan jaso... Hori guztia, ordea, ertz askotatik helduta landu behar da, eta ez utzi eskolaren edo Udalaren esku bakarrik; aitzitik, komeni da bestelako guztiak ere inplikatzeko, baita elkarteak edo taldeak ere.

Kezka bi joerarekin

Bada aspaldian, Zumaian, kezkatzen nauen zerbait: euskararen aldeko ekitaldi gehienetan umeen presentzia eta protagonismo nabarmena. Ekitaldiotan, badirudi euskara umeentzako zerbait dela, haurrak dira protagonista nagusi saltaka, euskararen ura eskutik eskura pasatzen, Euskararen Egunean... Oilo-ipurdia jartzen zait Tuterako umeak Korrikaren lekukoa eramaten ikustean, baina gurean, Zumaian, uste dut protagonismo handiagoa dagokigula helduoi euskararen ekitaldi publikoetan.

Gainera, bada euskararen bueltan sumatzen dudana beste joera gaizto bat: euskara da poza, irria, ospakizuna..., pozikibity, izan zoriontsu. Saiatzen naiz pozik eta alai bizitzen, baina egunean zehar izaten ditut nire gorabeherak, haserretzen naiz, beldurtzen, estutzen, lasaitzen... euskaraz beti, eta euskarak ematen dizkit horiek adierazteko bitartekoak. Koldo Mitxelenak hizkuntza aizkorarekin alderatzen zuen, eta esaten zuen zorroztu egin behar dela moztea nahi baldin badugu; euskarak balio behar digu egunerokoan denerako.

6. BAGARA

I

Ikusi dugu Zumaiaaren eta euskararen arteko lotura aspaldikoa dela eta badituela (oraindik ere) bereizgarri nabarmenak, ia bakar egiten dutenak; gero, euskararen azken 50 urteotako ibilbidea egin dugu, ikusi dugu nola agertu zen ezkututik plazara, eta nabarmendu ditugu ibilbideko mugarri nagusiak, gune hegemonikoek eta motorrek zenbateko garrantzia izan zuten biziberritzeko prozesuan; horren ondoren, 2017ra etorri gara, eta aztertu dugu nola dagoen euskara Zumaian eta bereziki talde eta elkarteetan, hainbat begiradatatik eta iritzitatik, eta ikusi dugu osasuntsu dagoela eta indartzen ari dela, baina oraindik badagoela zer egina eta zeri heldua etorkizunean.

Euskara gara Zumaian? Bai, euskara Zumaian izan bada, eta zumaia asko gara euskara. Badaukagu euskara izateko eta euskaraz bizitzeko nahia eta borondatea, eta sortzen ari gara horretarako aukerak, egunerokoan eta bizitzako alor askotan. ●

OHARRAK

1. Zumaiaiko Udal Artxibategia, signatura: 136.06 (A KAXA).
2. Zumaiaiko Udal Artxibategia, Aktak, 18. liburukia (1917-10-11/1919-06-12).
3. GOLMAIO, Belen: "Herri euskara", in *Baleike* aldizkaria, 79. zk., 18. or., 2001eko martxoa.
4. AZTIKER, "Jatorri-aniztasuna zenbakitan": <http://udal.aztiker.com/zumaia/eu>
5. ZALBIDE, Mikel: "Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak", in *Bat* aldizkaria, 100. zk., 28. or. Soziolinguistika Klusterra, 2016.
6. FERNANDEZ DE BETOÑO, Unai: "Hiriburuetako arnaguneak" in *Gaur*8, 2016-12-10.
7. "Ametza ekoiztu behar da berrirori", SARASUA, Jon, in *Berria*, 2014-08-07.
8. AZKUE IBARBIA, Xabier: *Hitanoa Zumaian*, Zumaiaiko Udala, 2000.
9. SARASUA, Jon: *Hiztunpolisa*, 113. or., Pamiela, Iruñea, 2013.
10. AZKUE IBARBIA, Imanol: *Zumaia, izena eta izana*, Zumaiaiko Udala, 2008.
11. AZTIKER, "Baleike. Irakurleak eta iritzia. 2011": <http://www.behategia.eus/Deskargak/Audientziak-eta-kontsumoak/2011/Baleike-irakurleak-2011.pdf>
12. AZKUE IBARBIA, Xabier: "Euskura", in *Bat* aldizkaria, 92-93. zenbakiak, Soziolinguistika Klusterra, 2014.
13. SOZIOLOGIA KLUSTERRA, *Zumaia hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2016. *Emitzen txostena*.
14. IURREBASO, Iñaki: *Udalerrri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera*, 1981-2011.
15. SARASUA, Jon: *Hiztunpolisa*, 211. or., Pamiela, Iruñea, 2013.
16. baleike.eus: <https://baleike.eus/zumaia/1521203045668-enigma-bizia-izeneko-bisita-gidatu-berria-aurrez-geoparkeak>
17. uema.eus: "Euskara turismo eskaintzaren erdigunean jarri nahi duen egitasmoa abiarazi du Azpeitiko Udalak"
18. SARASUA, Jon: *Hiztunpolisa*, 206-207. or., Pamiela, Iruñea, 2013.

BIBLIOGRAFIA

ARGITALPENAK

BALEIKE, *Gida komertziala*, Baleike Kultur Elkarte, Zumaia, 2016.

DORRONSORO, Joanito: *20 urte kantari*, Zumaia Bertso Eskola, Zumaia, 2002.

INPERNUPE ELKARTEA, *Orrua*, zenbaki berezia, Zumaia, 2014.

IURREBASO, Iñaki: *Udalerri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011*, Soziolinguistika Klusterra, Andoain, 2014.

SARASUA, Jon: *Hiztunpolisa*, Pamiela, Iruñea, 2013.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, *Zumaia hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2016. *Emaitzen txostena*.

ZUMAIKO UDALA: *Biharko Zumaia Boga*, Zumaia 2015/2025 Plana. Zumaia Udala, 2016.

BALEIKE ALDIZKARIAK: [HTTPS://BALEIKE.EUS/PRENTSA/BALEIKE/](https://baleike.eus/prentsa/baleike/)

GAUR8: <http://www.gaur8.info/>

BAT ALDIZKARIA, Soziolinguistika Klusterra: <http://www.soziolinguistika.eus/bat>

ZUMAIKO UDAL ARTXIBATEGIA.

WEBGUNEAK:

Ahotsak, Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea: <https://ahotsak.eus/zumaia/>

Aztiker, “Jatorri-aniztasuna zenbakitan”: <http://udal.aztiker.com/zumaia/eu> eta “Baleike. Irakurleak eta iritziak. 2011”: <http://www.behategia.eus/Deskargak/Audientziak-eta-kontsumoak/2011/Baleike-irakurleak-2011.pdf>

Baleike Kultur Elkarte: <https://baleike.eus>

Eusko Jaurlaritzaren Euskal Autonomia Erkidegoko **Elkarleen Errolda Nagusia**: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/administrazio-erregistroak/-/elkarte-erregistroa-bilatzailea/>

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea: uema.eus

Zumaia Udala: <http://zumaia.eus/eu>

Zumaia hainbat talde eta elkareren webguneak



aldizkariaren 2018ko **dossierrak**

106. ZENBAKIA

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN 2016ko

DATU ESTATISTIKOAK

~

107. ZENBAKIA

EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA (II)

~

108. ZENBAKIA

OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

~

109. ZENBAKIA

XI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

